

Euskaltzainak Bilduma Argitaratuak

1. *Gratien Adema*. Zaldubi Saindu batzuen biziaz.. 2007
2. *Pierre Charritton* Pierre Broussain. 2007
3. *Pierre Lhande* Yolanda eta beste euskarazko idazlanak. 2007
4. *Gratien Adema*. Zaldubi Artzain beltzaren neurtitzak. 2008
5. *Antonio Arrue* Idaztiak & Hitzaldiak. 2008
6. *Domingo Agirre* Gutun bilduma. 2008
7. *Txomin Peillen Karrikaburu* Biziazen hitzegiaz. 2009
8. *Gorka Aulestia* Estigmatizados por la guerra. 2009
9. *Jean-Louis Davant* Zuberoako literaturaz. 2009
10. *Gratien Adema*. Zaldubi Kantikak. 2009
11. *Santiago Ezkerra Beltza*. Lizarrusti Bizitza eta lanak. 2009
12. *Gratien Adema*. Zaldubi Prediku Zenbait. 2009
13. *Martin Maister* Jesü Kristen imitazioa. 2010
14. *Gorka Aulestia* Escritores euskéricos contemporáneos. 2011
15. *Gratien Adema*. Zaldubi Alegiak eta bertze neurtitzak. 2011
16. *Gratien Adema*. Zaldubi Bertze prediku batzuk. 2011
17. *Junés Casenave-Harigile* Xiberoko antzertia edo pastora. 2011
18. *Txomin Peillen Karrikaburu* Jon Mirande, olerkaria. 2012
19. *Jean-Louis Davant* Antoine D'Abbadie, Abbadiaz. 2012
20. *Gratien Adema*. Zaldubi Gaineratekoen bilduma. 2012
21. *Ernest Daudet* Amodioaren Martirra. 2013
22. *Jean-Baptiste Coyos* Zubererazko istorio, alegia eta ipuin irri-egingarri. 2013
23. *Pierre Charritton* Le fondement moral des droits culturels de l'homme. (Kultura eskubideen oinarri etikoak) 2013
24. *P. Douvrisbourg* Bahnar deitu Salbaiak. 2014
25. *Mongongo Dassanza* Albaitaritzako idazlanak (1692-1892). 2014
26. *Ignazio Omaetxebarria* Euskara barrutik Estudios de lingüística vasca
27. *Resurrección María de Azkue* Ardi galdua
28. *Jakes Sarraillet* Janpierra Lexardoarteren bizitzea edo Basabürüaren trajeria
29. *José Agerre Santesteban* Biografía de Arturo Campión. 2019
30. *Adrien Cachiteguy* Laborantza. Laborantzatik hobeki bizitzeko. 2019
31. *Joakin Berminghamen solasak* 2020

Euskaltzainak izeneko bilduman euskaltzain izan diren eta direnen obrak eta eurei buruzko azterketak argitaratuko dira, Akademiaren historiarako esanguratsu gertatu diren hainbat egileren lanak ere alboratu gabe.



Euskaltzaindia
Real Academia de la Lengua Vasca
Académie de la Langue Basque



Laguntzaileak:



EMIL LARRE 1926-2015 LEKUKOTASUN, KANTU ETA IDAZKI

Paratzailea:
Peio Jorajuria



EUSKALTZAINAK BILDUMA
EUSKALTZAINDIA



EMIL LARRE

Baigorri (Nafarroa Beherea) sortu zen 1926ko urtarrilaren 3an, eta Kanbon (Lapurdi) hil, 2015eko maiatzaren 30ean.

Euskaltzain urgazle izendatua 1967ko abuztuan, oso 1975eko urtarrilean eta emeritu 2006ko uztailean. Sarrera hitzaldia aihertar idazleez irakurri zuen Aiherran, 1975eko irailaren 28an.

Oinarziko ikasketak Baigorri egin ondoren, Uztaitezko Seminario Ttipian (1937-1944) eta Baionako Seminario Handian (1945-1951) ikasi zuen. Baionan apaiztu zen 1951ko ekainaren 29an. Irakasle aritu zen Mauleko ikastetxean (1944) eta Donibane Garaziko laborantza eskolan (1954-1956).

Apaiz lagunkide izan zen Hazpamen (1953) eta Urruñan (1956-1969). Hazpamen, orobat, misionest ibili zen, 1962-1969 artean. Gero erretore izan zen Aiherran (1969-1980), Irisarrin nahiz Suhuskunen (1980-1995), eta Donibane Garazin (1995etik erretiroa hartu arte).

Euskal liturgian eta eliz testuen itzulpenean lan handia egin zuen. Vatikanoko II. Kontzilioaren garaian hasi (1964) eta hainbat urtez Belokeko monasterioan bildu zen taldeko kide izan zen, liturgia latinetik euskarara itzultzeko. Dozenaka kantika berri idatzi edo zaharberritu zituen. Halaber, abesbatzak zuzendu zituen eta bertsoari mezan tokia eman zion.

Izan ere, bertsolaritzaren sustatzaile eta eragile nagusienetakoa izan zen Ipar Euskal Herrian. Urruñan antolatu zuen lehen bertso saioa 1958an, Teodoro Hernandorenarekin batera, chunka lagun bildu zituztela. Euskaltzaindiko lanari dagokionez, batez ere Bertsolaritza (1979-1985) eta Herri Literatura (1985-2015) batzordeetan jardun zuen.

Baionako *Herria* kazetan idatzi zituen lanik gehienak, 1969tik 2003ra bitartean kazeta horren zuzendari izan baitzen. Hainbat artikulu idatzi eta hainbat bilduma prestatu zituen. Horretaz gain, bi liburu argitara eman zituen: *Aiberra: Nafarroaren leiboa* (1980) eta *Ene artzain-etsolak* (2001).

Kultura eta fede kontuez landa, pilotari eta pilotazale sutsua izan zen eta berau sustatzeko lan anitz egindakoa ere.

EMIL LARRE
1926-2015

Lekukotasun, kantu eta idazki

Argitalpen honen fitxa katalogafikoa eskuragarri duzu Euskaltzaindiaren Azkue Bibliotekako katalogoan:

www.euskaltzaindia.eus/azkue

La ficha catalográfica correspondiente a esta publicación está disponible en el catálogo de la biblioteca de la Real Academia de la Lengua Vasca:

www.euskaltzaindia.eus/azkue

Les données bibliographiques correspondant à cette publication sont disponibles sur le site de la Bibliothèque Azkue de l'Académie de la langue basque:

www.euskaltzaindia.eus/azkue

A catalog record for this publication is available from the Azkue Biblioteka, Royal Academy of the Basque Language:

www.euskaltzaindia.eus/azkue

© EUSKALTZAINDIA / R.A.L.V. / A.L.B.

Euskara batuan idatzitako testuen hizkuntza-orrazketa:
Euskaltzaindiaren Hizkuntza Kalitatearen Behatokia zerbitzua (HIZBEA)

Eskubide guztiak jabetunak dira. Ez da zilegi liburuki hau osorik edo zatika kopiazea, ez sistema informatikoekin beronen edukia biltzea, ez inongo sistema elektronikoz edo mekanikoz, fotokimikoz, magnetikoz, elektrooptikoz, fotokopiaz, erregistratuz edo beste bitartekoz berau transmititzea, aipamenetarako izan ezik, argitaratzailearen edo copyrightaren jabearen alde aurreko eta idatzizko baimenik gabe.

Diseinua: Ikeder, S.L.
Maketatzea: Fotocomposición Ipar, S.Coop.
Inprimatzea: Grafo, S.A.

ISBN: 978-84-121889-1-2

Lege-gordailua:
BI - 1168-2020

EMIL LARRE
1926-2015

Lekukotasun, kantu eta idazki

Paratzailea:
Peio Jorajuria

EUSKALTZAINDIA

BILBO
2020

AURKIBIDEA

Aitzinsolas – Mixel Oronos	II
I. Lekukotasunak	15
—Otto Emil – Jean Léon Larre, etxeko iloba.	17
—Emil Larre 34 urtez <i>Herria</i> astekariaren zuzendari – Janbattit Dirassar.	19
—Emil Larre, <i>Herria</i> kazetaren zerbitzari handia – Peio Jorajuria, kazetaria eta liburuaren paratzailea	25
—1969tik 1980ra, II urtez erretore Aiherran. Ez da geldirik egona! – Jean-Michel Barbier.	31
—Emil Larrereren <i>Ene artzain-etxolak</i> – Andres Urrutia, euskaltzainburua	37
—Emil Larre apeza eta bertsularitza – Jean-Louis Harignordoquy Laka.	43
—Emil Larre, Baigorri 1926-2015 – Joxe Mari Iriondo, kazetaria eta ohorezko euskaltzaina	47
—Emil Larre eta pilota – Frantxua Juanicotena	51
—Témoignage sur l'Abbé Emile Larre – Jean-Baptiste-Louis Etcharren.	53
—Liturgie et cantiques - Recueilli per Giovanni Prinelli.	59
—Puisque cela vous amuse... – Giovanni Prinelli, directeur de la Chorale LAGUN ALAI de Baigorri	63
2. Kantuak	69
3. Idazkiak	81
Emil Larrereren editorial hautaketa – Peio Jorajuria	83
—Urte on Euskarari – 1980-01-03	85

—Esker mila Etienne Sallaberry, So-Egilea – 1981-07-23	86
—Mendirat beharrik gabe – 1981-09-03	87
—Etxeko berriak – 1981-09-10	88
—Euskara eskolarat – 1981-09-24	89
—Etxe izenak – 1981-10-01	90
—Ihizin – 1981-11-12	92
—Peioik ere ebatsi – 1982-01-07	93
—Supazterra – 1982-01-14	94
—Gure ama balinbada! – 1982-02-04	95
—Izar batzu gure zeruan! – 1982-03-18	96
—Baigorri, ene herri maitea – 1982-03-25	97
—Euskararen egunak, gauak, asteak – 1982-04-22	98
—Axala eta mamia – 1982-04-29	99
—Munduaren erdia – 1982-05-27	100
—Hortzak kanpoan – 1982-06-03	101
—Xakur mehea dena kukuso – 1982-06-17	102
—Nor garen gu – 1982-07-22	103
—Atxik dezagun – 1982-09-09	104
—Euskaltzaleak «biltzen» balinbadira – 1982-12-02	105
—Bizikleta euskara denetz – 1983-01-27	106
—Presentatuko niza? 1983-02-10	107
—Mintza gaiten! 1983-02-24	108
—Xaharra joan-eta – 1983-03-03	109
—Errespeturekin jaun mera – 1983-03-24	110
—Bertsularia – 1983-05-05	111
—Bertsularia joan-eta – 1983-06-02	112
—Euskaldun izan – 1983-06-23	113
—Ihiztari abila – 1983-10-06	114
—Herria dut maite – 1983-10-20	115
—Hegia xorrotx – 1983-12-08	116
—Haurra, zu, haurra! 1984-03-01	117
—Mundua kexu – 1984-03-29	118
—Bertsulariekin lau aste xoragarri – 1984-04-05	119
—Artzaina eta ardiak – 1984-06-07	120
—Mutiko kankaila eta gizartea – 1984-06-14	121
—Etxe ondoko iturria – 1984-07-05	122
—Ihesi jin anaia – 1984-07-26	123
—Axeriaren ezteiak – 1984-09-06	124
—Euskal Herria aho mihitan – 1984-09-20	125

—Euskal izenak – 1984-10-04	126
—Gure herriko urtzoak – 1984-10-18	127
—Nola ezagutu – 1985-01-03	128
—Burdinbide zaharra – 1985-01-24	129
—Herria eta bizia – 1985-02-07	131
—Lafitte lokarri – 1985-03-14	132
—Touche pas à mon pote! – 1985-04-11	133
—Herriaren urratsak – 1985-05-23	134
—Zakur eta gatu – 1985-05-30	135
—Piarres Charriton Lapurdiko euskaltzain berria – 1985-07-25	136
—Artzain gaztea – 1985-09-12	137
—Haurrak eta ogia – 1985-09-19	138
—Hosto eror denboran – 1986-02-20	139
—Gaixo gure herria – 1986-02-27	140
—Eskola mende – 1986-04-03	142
—Eskerrik asko, anaiok! – 1986-03-03	143
—Eskola eta etxea – 1986-07-10	144
—Iratin ikasiak – 1986-07-24	145
—Hazparneri – 1986-09-18	146
—Ricard bat – 1986-10-09	147
—Ama beraren umeak – 1986-10-16	148
—Euskarazko eskolak – 1986-10-30	149
—Patxi Noblia – 1986-11-20	150
—Urtatsak – 1987-01-01	151
—Etxeko iturria – 1987-01-08	152
—Etxetik kanpo – 1987-02-05	153
—Bertsulari zaharra – 1987-02-26	154
—Euskaldunak eta kargudunak – 1987-03-05	155
—Herri baliosa – 1987-03-12	156
—Nongoak garen – 1987-03-19	157
— <i>Eskualduna</i> eta euskaldunak 100 urtez – 1987-03-26	158
—Euskaltzaindia Angelun – 1987-04-02	159
—Aiten ontasunak – 1987-04-09	160
—Garazitik Gernikara – 1987-04-16	161
—Zer dugu gurearen kontra? – 1987-05-07	162
—Kasu haria gal! – 1987-06-04	163
—Nola lauzkatu kantua? – 1987-06-25	164
—Herri honen umeak – 1987-07-02	165
—Hitzak baino barnago – 1987-07-09	166

—Kalla kantuz – 1987-07-23.....	167
—Bidea eta bizia – 1987-II-26	168
—Agur Ziberua, bena norat hua? – 1988-01-07	169
—Hobendunak – 1988-02-04	170
—Elurrik gabe bizi? – 1988-02-II.....	172
—Xinaurriak bezala – 1988-04-28.....	173
—Herri pollitena – 1988-05-26.....	174
—Ameriketako Artzaina – 1988-06-06.....	175
—Itsasuko gereziak – 1988-06-16	176
—Herria eta ziztuak – 1988-08-04	177
—Ezpalitz eskolarik! – 1988-09-15.....	178
—Kondenatuak – 1988-10-13	179
—Muslarien egiak – 1988-II-10	180
—Eskerrak Jean Haritschelhar – 1988-II-24	181
—Aitzina! – 1989-01-05.....	182
—Mugak erretzen ari? – 1989-01-26.....	183
—Urraduren josteko – 1989-02-09	184
—Duenari dario – 1989-02-23.....	185
—Nere herri koxkorra – 1989-03-30.....	186
—Herriko anderea – 1989-04-27.....	187
—Beste asko urrats – 1989-05-18	188

Aitzinsolas

Mixel Oronos

Harriturik: —Nik? —Baietz, zinez gai pollita da zuretako, baietz.

Beraz huna nola izendatu izan nizan —umilki, ba, sinets nezazu, umilki onartu dut— monumentu hunen atezain izaitea. Egia zor dauzut berehala, irakurle adiskide, ez zira monumentu baten atean bainan etxe baten atean. Emilen etxean sartzekotan zira, lagun adiskide zonbaitek eraiki oroimen egoitza. Beha langileen zerrenda, ez da lagun adiskide izen baizik.

Eta ni hemen atezain. Herritar gisa dohaikabe, aldiz Baigorrik eremu zabalak izanik ez ginen lehen auzoak, ni karrikako haurra, Emil Belarrean sortua, kasu, ez Urdozen, bainan hurbil, Bastida auzo gunean, zernahi gisaz karrikatik urrun, eta denbora heietan zinez biziki urrun, gehienetan bidea oinez egin behar baitzen. Enetako segurik auzo horiek ez ziren usaiako lekuak, beharritat goxo bazauzkit berak bere liburuan aipatzen dituen toki edo etxe izenak, Oihamileko bixkarra, Berraariko estreka, Latxetako erreka, Berburu —izen horiek ez ditu nornahik erabiltzen— bestalde Jauregia, Ospitalia, Uhidia, Otsobia, Berroa, hauek inguruetako etxeen izenak, Larrabuztania, hau urrunena, Bidarraiko mugan. Handik eta karrikaraino bide puska bat bada, ezen Urdoztik, Bastidatik, Auzottipitik Baigorriat joaiten ziren, hor ez zira Baigorri. Eta gu, karrikakoak, han kasik arrotzak, noiztenka, bakan, itzuli bat egiten baginuen ere, urtean behin errogazionetan Urdozko kaperaraino edo idorte aroa zelarik, urrunago, Ustelegirat prozesione berezi bat egiten baitzen Goiko Jaunari euria galdegiteko... Artetik erraiteko Baigorriko leku etxe guzien izenak ezagutzen zituen Emilek eta maite zituen izendatzea hau delakoa, han ezker holakoa, gain hartan, urrunago, ba, horko nausia ezkondua beste nunbaiteko alabarekin... Hola ari zen beti mendian ibiltzen ginelarik, nola Orreagako beilan.

Herritarrak beraz, bainan ez adin berekoak. Emilek erraiten zautan beti 10 urteren diferentzia ginuela, ez arras, hura 1926koa eta ni 1935koa. Beraz ez eskolan (Emil Urdozkoan, ni Baigorri beheko plazakoan ibiliak), ez Uztaritzeko kolegioan ez eta Baionako seminario haundian ez gira sekulan elgarrekin gertatu. Gehiago dena eta arrunt bitxi zautana, ez dut Emil ikusten ene lehen mezako argazkian, herriko apez eta apezgai guziak komit zirelarik, Jean Tambourin, Peio Harignordoquy, Jean-Baptiste Etcheverry, Jean

Curutcharry, Jean Larre, Bibi Mouesca, Dominique Hirigaray, eta, ohore berezia, Mixel Olçomendy, Otikorene Elixako, Singapurreko misionest apezpikua oporretan etxerat jina. Egun hartan, 1960ko uztailaren 3an, nun ote zen gure Emil?... Oharño bat, garai hartan zombait urte gehiago zutenek bazuten gaitzeko larderia, bainan larderiak bestalde oroit niz loriatua nindagola Emilen kantuz aritzeko gustuari eta plazerrari, haren euskara eder eta zizelkatuari, haren bertsularitzarako jite arraroari eta pilotan esku huska haren trebetasunari, jelos, ba, aitortzen ahal dut, jelos.

Ondoko urteetan ere gure bideak gutti kurutzatu dira, Euskal Herritik kanpo bizi izan bainiz luzaz. Bordelen nintzalarik helduen formakuntzan ari, tesi bat abiatu nuen Jean Haritschelharren babesarekin, Montaigne III Unibertsitatean, Jean ere herritarra, behereko karrikakoa. Gaia zen nola emaiten ziren Elizako berriak euskaraz euskal kazetetan —*L'information religieuse en basque dans les publications du Pays Basque Nord*— 1965etik 1977raino. Aurkezpena 1983ko otsailaren 24an zen. Gauzak ez ziren hain lañoki pasatu. Epaimahaiak jarriak ziren, Jacques Allières mintzaireretan eta bereziki euskararen aditu famatua buru, haren kideak Piarres Lafitte euskaldun kalonje jakintsuna, Jean Pouyet Saratarra eta Bordele I Unibertsitatean irakaslea eta Koldo Mitxelena Hegoaldeko jakintsun ezagutua. Lafittek harritu ginituen, denak kontrarat hartu baitzituen eta berehala hasi baitzen ene lanaren jorratzen, hau ta hura ez zirela batere egokiak, kasik lan debaldea zela, etabar. *Herria* astekariaren auzia zela! Jean, besoak zabalik, abokatu bat bezala hasi zen, entseatu zen bazterren jabaltzen, alderantziz ohore haundi bat zela *Herria* hoin zehatzki eta ofizialki tesi batean aipatzea maila hortako ikerketa batean eta atxemaiten zituen argumentuak botatzen zituen kemen haundiz. Noizbait ene lanaren egiazko azterketa hasi zen. Bainan egia erran, bazterrak doi bat mindu ziren. Gomitatu nintuen eta elgarrekin afaldu ginen halako hoztura batean. Emil han zen eta denak entzun zituen, bixtan da. Ondotik *Herria*n agertu ziren bi artikulua E. L. izenpetuak, bat «Michel Oronos Baigorriarrak bere tesia Bordelen laudorioekin», martxoaren 4an, bigarrena «Nahi duenak etorri!...» apirilaren 28an. Lerro horietan bazen ausarkian biper eta gatz. Afera nahi zuen irakurleen aitzinean xuritu, denetarik barreatu baitzen tesi hortaz, ohar onak eta txarrak, zuzenak eta makurrak. Emilek eta nik, biek segitu ginuen gutunez, ikusteko nun ziren haren arabera ene hutsak, ene ez oinarrituzko kritikak, ene partetik nun ziren haien bien gaizki ulertzeak. Luzatu gabe bego hortan. Baketu ginen. Piarres Lafitteren ikustera frangotan izan nintzan ospitalean eri zelarik, aspaldidanik izanik ene irakaslea, ene argizalea, gidaria, gain gainetik adiskidea, ene betiko estimu eta ikustatearen erakusterat. Lur huntako harremanak gelditu ziren harekin 1985eko otsailaren 23an.

Emilekin aldiz geroxeago ustegabeko elkarlana abiatu ginuen. Jean Lahargou suhuskundarra denbora hartan ari zen *Herria* kazetari bultzada berri baten emaiten, erretretan zela eta gogotik ariko zela *Herria* ezagutarazten, harpidedun biltzen, publizitate eskatzen eta berrikuntza zerbaiten emaiten. Eta egin zuen. Aspaldidanik adiskide baiginen eta baitzakien marrazkirri egiten maite nuela, egia erran gehiagoko talendurik gabe, bainan zerbait egiten ahalko nuela pentsatu zuen, horra nola hasi nintzan 1990ean eta astearte goiz guziz joaiten nintzan Baionako Labourd inprimeriarat. Agur berorik gabe, Emil eta beste langileak serio serioak, bakoitza bere hartan sartua, prisan, presio haunditan, irakurtzen, xuxentzen, karkulatzen, eztabaidatzen, aldatzen, sekulako lana epe laburrez egin behar! Marrazki baten gaia halere nunbaitik atera behar asteko aleari egokia, zinez laguntza guttirekin, bazterretan irri gutti zen umorezko zerbaiten pentsatzeko! Eta gero joaiten nintzan bakarrik *Herriaren* bulegorat ene burumuinaren bihurrikatzera. Hola dut zonbait urtez marrazki metaño ttipi bat bildu Zoe Bray artistak segida hartu arte, orai marrazki kolorezkoak baitira, aitzinamendu haundia! Oroit niz kexu zen batez edo beharbada arralleria hutsez Emilek bota zautala: «Hire marrazkiak biziki pollitak dituk bainan nehork ez ditik konprenitzen!» Uste dut orduan ez nintzala batere gaitzitu eta ateraldi hori atxiki dut kasik Emilen nortasunaren irudi bezala, konplimendu ta piko, senditu bainuen denbora berean gaixtakeria baino umore gehiago bazela hitz horietan eta nihaurek untsa baitakit ene izaitea eta bizimoldea ez direla beti ulert errexak, eta ene marrazkiak gisa hartakoak, nahitez, halakoa bainiz, ezin uka, ez du nor nahik behar den gakoa.

Berrikitan Donibane Garazirat jin zelarik gehixago elgar ikusten ginuen, goxoan beti, egiazko adiskidetasunean, erraiten ahal dut, bakoitxak bereak gogoan, Emil bere bidetik eta ni ene bidetik, teologia eztabaidarik gabe edo Elizaz edo apezgoaz edo apezpikuaz, baginakin pundu horietan ez ginela adostasun osoan bainan gure kontzientzian leial.

Barkatu, gelditu behar dut, ez zira atezainaren kalaken entzutera jina. Besteren erranek garrantzi, pisu gehiago badute enee baino. Sar zite, ongi etorri Emilen etxean! Ikusiko duzu, goxatuko zira, zen bezala hemen baita bere aberastasun eta xumetasun kasik osoan, xoko zonbait gordeak gelditzen badira ere, bainan hemen duzu irriño batekin. Ongi etorri!



Mixel Oronos «Kilika» marrazkilariak Herria astekarian agerturiko marrazkia
(2635. zenbakia, 2001/12/20)

I

LEKUKOTASUNAK

Otto Emil

Jean Léon Larre
etxeko iloba

Hazparne eta Urruñan bikario zenean bakan ikusten genuen Otto Emil. 1969tik goiti Aiherran erretor izendatua izan zelarik ardurago etortzen ziztaigun. Etxeko ilobak, bakantzetara joaten ginen bere apez etxera. Han, Maddi izeneko gelari bat bazen, baliosa bezain umila. Harek zizkigun bazkari eta afari prestatzen. Zonbait beterraba gorri janaraziak dizkigute han!

1980an, Irisarrira hurbildu zen eta ondotik Donibane Garazira. Memento horretan zen hasi igande guziz bere itzuliaren egiten Belarrea sortetxera. Pilota partida edo bertso saio batetarik landa egiten zigun bere bisita. Aitzin, Bidartean pasatzen zen, bere anaia eta familiari agur bat egiteko. Denbora zuelarik Uhideraino ere joaten zen kusien ikustera.

Neguan, hasteko deiztegira etortzen zen. Lehen solasak hemen ibiltzen genituen. Lanak bururatu eta etxera sartzen ginen aperitifaren hartzeko. Familiako eta auzoetako berrien hartzea maite zuen. Solas guzien artetik, bihotzean zituen baina publikoan erraten ahal ez zituen gauzen salatzea menturatzten zen. Hauek guziak eginik eta erranik, beranta biltzen zuen bere etxeko anaiaren mahaira hurbildu orduko. Han, anaia eta koinata beha zeuden, berantetsia eta salda berotua izanik hoztua.

Egungo egunean familietan izaten ahal diren harat hunatak ezin soportatuak zituen. Alta, beste arloetan izan diren aurrerapenak begi onez ikusten zituen eta batzuetan aitzindari gisa ere, bai etxean eta bai kanpoan.

Otto Emilek bere bizi guzian familiako belaunaldi desberdinei atxikimendua eta sustengua erakutsi dizkigu.

Emil Larre 34 urtez *Herria* astekariaren zuzendari

Janbattitt Dirassar

Emil Larre baigorriar apeza ezagutu duten guziek badakite euskaltzale guziz suharra izan dela, euskaltzain kartsua eta biziki luzaz egona *Herria* astekariaren zuzendari. Beste arlo askotan ere azkarki bermatua, bertsutzale argia eta pilotazale jarraikia, Emil Baigorri sortua zen 1926an, urtarrilaren 3an. Kanbon zendua 2015ean, maiatzaren 30ean, kasik 90 urtetarat heldua zelarik. Larunbata zen eta berria burrustan hedatu zen, Emil pausatu zela. Denak inarrosi gintuen berri horrek bainan nehor ez hanbat harritu haatik, baginakien egunetik egunerat ahultzen ari zela. Baigorriko elizan ukan zituen ehorzketa batzu jendetsuak bezen hunkigarriak, esker onezko kantu ozen baten parekoak...

Nola gaitzeko sail nasaia eta baliosa ereman duen Emilek, urteak jin eta urteak joan, alde bat kar bera agertuz, bada nun zer konda segur. Euskaltzaindiaren bilkura batean, bera hil zen ondoko urtarrilean, Donostian, omenaldi bat eskaini zitzaion eta nihauri ere galdetu ene lekukotasuna. Gauza bat azpimarratu nuen eta hemen ere gogo berarekin ari naiz: Emilen harat-hunatak aipatu behar-eta, nihauren baitarik idazten ahal ditudan guziak baino gehiago balio dute Emil Larre zenak berak zabaldu idazkiek. Utzia dauku alabainan besteak beste altxor bat zinez paregabea, euskara eder batean lantua, bere bizi guziari behako sarkor bat emanez, ez espantuka ariz, ez baitzuen segur gisa hartako jitea, bainan xeheki, lañoki eta lasaiki kondatuz nolako urratsak egin dituen Euskal Herriaren eta Elizaren zerbitzari leial eta kartsu. Denbora berean bixtan ezarria zaukula bazter guzietan mende erdiño bat barne izan den itxuraldatze ikaragarria. Altxor hori da *Ene artzain-etxolak* liburu guziz argia, Auspoa sailean plazaratua. Liburu bat dena mamia eta atsegin handirekin hurrupatzen dena. Euskararen aldetik ere mirezgarria. Peio Jorajuria adixkideak aitzinsolasean azpimarratu duen bezala, liburu hortan gaitzeko itzulia egiten da Euskal Herrian gaindi gehienik, gertakariz gertakari, bainan kasu eginez ere, eta nola, gauza xume-xume batzuri. Dena begi eta dena beharri ibiliz, plazaz plaza eta xokoz xoko, hitz egokienak berexiz eta ezin pollikiago itzulikatuz. Hala nola diolarik bide zahar batean orga hutsak egiten zutela «hango harrien artean kirrink eta kurrunk». Edo berdin etxeko urdeak zoatzila larretan gaindi «kurka-kurka».

Emil Baigorri sortua zen, Bastida auzoaldeko Belarrea baserrian. Han zituen bere erroak. Eta nolako erroak! Sanoak eta azkarrak. Bere bizi guzian erro heieri atxikia egon da. *Ene artzain-etxolak* liburuan badira orotaratzat 357 orrialde eta lehen ehunetan Emil kasik alde bat zertaz da mintzo? Bere haurtzaroz eta gazte denboraz. Hortarik ere ageri da zernahi oroitzapen bazituela gogoan barna hartuak, ezin ahantziak beraz... Eta zoin polliki ez ditu kondatzen, irakurleari iduritzen ahal baitzaio bera ere han ibilki dela Emilen aldean, hango aire ona xurgatuz, xokoz-xoko edo(eta) kaskoz kasko. Zure aitzinean dituzu Bastidako bidexka eta errekek, hango etxe, landa, pentze eta larreak, bai eta azkenean Baigorri guzia... Egiten duzu ere ainitz jenderen eza gutza, Emilen familia, haren auzoak, eskolako lagunak, Miel eskalapoin egilea, Beñat espartin egilea, eta zonbat holako...

Ene artzain-etxolak liburu arraroa zinez! Bainan beste artzaingorik ere aipatu behar da Emilen harat-hunatak gogoan. Apez egin behar zuela, gisa hortako deia entzuna-eta, Emil joan zen Uztaritzeko semenario ttipirat. Han, Emil tanpez sartu zen mundu berri batean. Eta mundu berri hortan batzu ba euskaldunak, eta euskaradunak, beste batzu ez. Euskarak gainerat frango toki xuhurra naski. Dena den, Emil laster jarri zen bere bizi berriari eta bada gauza bat aldi bat baino gehiago azpimarratu duena, ainitz urteren buruan ere aipatzen zuen hori, nola han berehala kausitu zituen euskara gero eta gehiago maitarazi nahiz ari ziren erakasle batzu. Heietarik zen Etienne Salaberry heletarra, bainan toki berezi bat egin behar diogu Piarres Lafitte zenari. Denbora hartan etzen oraino *Herria* astekariaren zuzendari bainan ezagutua ordukotz euskalgintzan alde bat lan eta lan plantatua zelakotz... Piarresekin Emil gero eta gehiago berotu zen euskaldungoaren alde. Gero jin ziren Baionako semenario handian iragan behar urteak bainan lehenik, urte batentzat, Emil, semenario handian hartzeko partez, igorri zuen Mauleko kolegiaratzat, erakasle lagun bezala. Baionan urte batez gibelatuko zaizkiola bere ikasketak bainan bestalde etzela hain galtzale izanen, Mauleko egonaldian hortan gauza frango ikasiko ere zuela. Badakigu Emilek ezagutu zuela orduan Xuberoa, ordu arte etzuen kasik batere ezagutzen, eta hango ohidura bereziak, hango bazterrak, hango jende asko, eta hori azkarki preziatu zuela bixtan da. Urte baten buruan, jo beraz Baionako semenarioratzat. Bost urterentzatzat bainan artean soldadogoa eginez, orai ez da gehiago egiten bainan orduan ba, eta Emilek egin zuen erizain zerbitzu batean, lehenik Bordeleko ondoan eta gero Tolosan.

1951ko ekainaren 29a, egun handia Emilentzatzat. Apez ordenatua izan zen eguna. Apez berri heietan, bi segurik berexiko ditut, Emilen lagun handiak, Jean Hiriart-Urruty hazpandarra eta Josep Camino arnegitarra. Apeztu-eta,

Emil uda guzia egon zen nehorat izendatua izan gabe. Lanik gabe nolazpait bainan ez pentsa halere alfer egon zela. Gomita frango ukan zuen handik eta hemendik. Eta horra nun urrian apezpikuak izendatu zuen Hazparnerat bikari. 1951ko urrian. Bizikletaz joan zen Hazparnerat larunbat aratsalde batez... Harat orduko, Justin Mirande xuberotar erretor xaharrak erran zion Omiasainduko meza nagusian, zombait egun bakarren buruan hain xuxen, predikua haren gain izanen zela... Emil laster laketu zen Hazparnen. Nik ere orduan ezagutu nuen. Ikusten nuen meza emaile eta predikari. Bainan ez nuen haatik behinere harekin mintzatzeko paradarik. Barkatu niharen biziko gertakari bat hola aipatzea bainan ene aita supituki hil zen aratsalde batez. Nik oraino 16 urte betetzekoak. Biharamunean, Emil gure etxerat jin zen. Orduan izan ziren gure arteko lehenbiziko solasak. Etzuen pentsatzen ez eta nik ere bixtan da handik zombait urteren buruan usu elgar ikusiko ginauela *Herria* astekariaren irarkolan.

Bai, Emil laster jarri zen Hazparneko bizi-moldeari. Hazparnen bazen denetarik, laborari, ofiziale, zapatain langile eta nagusi. Denek beren sail berezia eremaki. Denek ongi etorri goxoena egiten bikari berriari. Emil hangoitu zen denbora guti barne. Hango hitz berezi batzu ere laster sartu zituen bere hiztegian. Hala nola elizaren aitzineko plazari karkana erraiten ziotela. Denboran, noizbait, karkana ezartzen baitzen plaza hartan, auzitegi batean gaizki-egile bezala zigortuak denen aitzinean atxikitzeo, orenak eta orenak berdin, taula batzuen artean kurutzefikatuak bezala. Beste hitz bat ere ikasi zuen bainan bere liburuan ez du deplauki sartu, etzaukalakotz hain pollita orobat, bainan nik salatzen ahal dauzuet haatik batere beldurrik gabe. Hauxe idatzi du Emilek: «Hazparneko elizan bazen lehen galerian herriko kontseiluko korotegia, buruzagien errespetuzko lekua, beste izen bat ere baduena omen, bainan bego hortan». Bai, bego hortan Emilek ez baitzuen idatzi nahi zoin zen delako izena. Eta zoin zen bada izen hori? Hazpandarrek, halako trufa aireño batekin, hautetsien alkitegi berezi hori deitzen zuten... astoteia!

Horiek hola, Emil etzen luzaz egon Hazparnen. Bi urte bakarrik. Apezpikuak igorri zuen Donibane Garazirat, laborantxa eskola bat behar zela han ideki. Frantsesenea deitu zutena. Apezpikuak etzuen hautu hori ustegabatarik egin. Bazakien Emil biziki atxikia zagoela laborantzari eta laborariari. Apezgai zelarik ere, oporraldietan, etxerat jiten zenean, zoin gogotik etzen artzen kanpo-lanetan, segarekin edo aitzurrarekin berdin, batzu harritzen ere omen baitziren. Zer uste zuten alde bat otoitzean egonen zela izanik ere apezgai, edo alde bat irakurtzen? Ez, badakigu etxeko kanpo-lanetan lorietan artzen zela. Apezpikuak etzion lan ttipia eta erretxa eman ikastegi berri baten xutik ezartzea bainan Emil apuñatik lotu zen lan horri eta gisa hartako

laguntzak ere segurtaturik proiektua gauzatu zuen ederki. Zonbait denboraren buruan, bideko ixtripu batean frango handizki kolpatua izanik, Emilek utzi zuen Frantsesenea Urruñarat joateko bikari kondu.

Han ere lan ederrik akulatu zuen. Euskal antzerkiaren sustatzeari ere azkarki lotu. Gero eta kar gehiago agertuz ere bertsegintzaren sail guziz balios hortan. Eta bai, luzaz eta luzaz Emil izana da bertsegintzaren sail guziz suharra. Saio frangotan partzuer, edo gai-emaile, edo epaimahaian berdin... Dela Nafarroako xapelketan, hamar bat urtez, dela Euskal Herriko xapelgo nagusian, lau aldiz, azkenik 1982an. Funtsean, bertsegintza paper eder asko agertarazi ere ditu, parrasta bat sartuak daude, 16 uste dut, *Ene artzain-etxolak* liburuan. Zazpi urteren buruan, Emilek segida berri bat hartu behar. Denbora hartan baziren Hazpainen misionestak, ez Afrikarat edo Jainkoak daki norat joaiten ziren (eta diren) horietarik bainan hemen berean herriz herri ibiltzen zirenak. Sail hori ere zazpi urtez berea ukanen du Emilek. Eta horra nun izendatzen duten Aiherrako erretor. Hor ere, bere bertute nasaia agertuko du. Herritarren zerbitzuko bainan ere partaide Bibliako, mezako eta beste elizatestu frangoren euskaraz ezartzeko lan guziz ederrean. Aiherra biziki maitatu duela, ez dugu dudarik. 1980an plazaratu ere baitzuen liburu balios bat, *Aiherra, Nafarroaren leiboa*. Aiherran II urte egonik, Emil joanen da Irisarriat, Suhuskune ere bere gain. Baxenabarre alde hortan ba omen da, edo ba omen zen, otoitz bat noiztenka egiten zena (edo dena). Hauxe da otoitz hori: «Jauna, begira nezazu ifernutik... eta Irisarritik». Eta bai, otoitzean hola ari Irisarri ifernuaren parekoa balitz bezala. Nork asmatu ote du noizbait holako otoitza? Emilek behinere egin ez duen otoitza segur! Oroitzapen on frango atxiki du-eta Irisarriko egonaldiaz. Frango egonaldi luzea, 15 urte iraun duena. Gero, joan zen Donibane Garazirat, laguntzaile bezala, eta azkenik, ahultzen ari-eta, Kanboko Arditeia xahar-etxerat.

Bere apez-lan guzien artetik, bertsegintza ere sustatuz, Emil ez ginuen segur aireari so egoiten diren horietarik bainan alde bat lan eta lan artzen diren xinaurri baten parekoa. Idazle fina segur, biziki fina. Lan batzu argitaratuak *Gure Herria* aldizkarian bai eta Iker sailean. Batzutan Sokorri izen-ordea baliatuz. Sari asko ukanak. Pilotarien Biltzarrak omendua, Euskal Herriko idazleen elkarteak ere ba. Besteak beste. Eta nola ez gain-gainetik gorets *Herria* astekariaren zuzendari bezala ereman duen saila. Kargu hori, bainan erraiten ahal ginuke ere karga hori, bizkarrean hartu zuen 1969an. Atxiki du 34 urtez, 2003ko biltzar nagusia arte, ez baita guti! 2009ko martxoan, *Herriak* ateratu zuen bere 3500. zenbakia. Ordu arte egin bidetari behako bat emaiten giniola, Emil Larre deitu ginuen gure «zuzendari xapelkun». Zuzendari bainan ere lan gaitza eginik *Herriaren* onetan. Gauza den bezala errai-

teko, Jean Hiriart-Urruty Afrikarat joan zelarik, Burundi herrialderat, Emili galdetua izan zitzaion haren segida hartzea. Eta haste-haste hartan doi bat uzkur agertu zen. Hori baino gehiago, lehenik eza eman zuen. Bazakien astekari baten kudeantza ez dela alfer-joko bat, bazakien ere *Herriak* lanak bazituela ezin ihardokiz. Piarres Lafitterekin luzaz mintzaturik, kezka eta griña guzien artetik, edo gainetik, baia eman zuen, «entseatuko bederen zela». Entseatuko... Hitz pollita hori. Entsegu eder bat 34 urte iraun zuena. Egia erran, hauxe garbiki errana zuen, nahi zuela laguntza gehiago bere aldean, nahi zituela ere aldaketa batzu sustatu, arras beharrezkoak iduritzen zaizkionak. Bere gain hartuz behin Etienne Salaberryk erran zuena, 3500. zenbakian oroitarazia izan zena: «*Herria* ikusten dut ostatu baten pare. Atea zabal-zabala idekia. Deneri ongi etorri ona eginez». Nahi ukan zuen astekaria aberastu, gai gehiago hunkiz, urratsez urrats beti aitzinerat egiteko gisan nihundik ahalaz. Emilek deneri begia atxikitzen zioten, beti erne! Mundu zabaleko berrieri tokia atxikiz. Frantziako gertakari larrieneri ere ba. Oroz gainetik, Euskal Herriko gora-beherak gogoan haatik, pilotaren saila berak atxikiz, eta zoin ederki. Gutietsi gabe herri ttipietako berri xeheak, premiatsuenen lerroan ezartzeraino frangotan... Hauxe bazakien, frangotan erraiten dena: «ez balinbazira aitzinerat ari, gibelka zoaz». Handi eta iraunkor izan da zinez Emilen eragina. «*Herria*»-ren zuzendaritzan bai eta aipatu ditudan beste sail askotan. Emil izan da maixu eta eredu. Euskaltzaindiak urgazle bezala ohoratu zuen 1967an, euskaltzain oso hautetsi handik zazpi urteren buruan, René Lafon-en segida hartzen zuela. Euskalgintzan akulatu lan eder guzien gatik eta besteak beste *Herria* astekaria hoinbeste urtez kudeaturik.

Emil Larre, *Herria* kazetaren zerbitzari handia

Peio Jorajuria
Kazetaria eta liburuaren paratzailea

Galdegina izan zaidalarik Emil Larre zenari buruzko lekukotasun baten ematea, berehala eta gogotik onartu dut. Zeren zor handia diot, *Herria* aste-karian eman ditudan urte horien guziengatik, mende laurden bat astekari ho-rren zerbitzuko Emil adiskideari esker. Adiskidea diot. Alabaina, hura izan bada ere ene zuzendari eta ni haren langile, gure arteko harremanak adiskide-tasunez beztituak ziren. Janbattitt Dirassar *Herria* astekariko zuzendari iza-nak lekukotasun sakon bat agertzen badu Emilez, nik ene aldetik anekdota batzuk ditut gehiago aipatuko, erakusten dutena nolako ginuen Emil. Hau ere argitu behar dut: «Emil» idazten dut, bukaerako «e» gabe, euskal mol-dean, Emilek berak hondar urtetan *Herrian* idazten zuen bezala.

Konfiantza egilea

Herria astekariko langile gisa sarrarazi ninduelarik Emilek, konduak eta administratibo lanak egiteko zen. Baina aski laster idaztera ere bultzatu nin-duen. Kronikak eta erreportaiak idazten hasi nintzen, bazterretik euskarazko zuzenketak egiten zauzkidala. Emilen kalitateetarik bat zen, hain zuzen, bul-tzatzailea zela, konfiantza egilea, bereziki hain maite zuen euskararen alo-rrean. Eta konfiantza horren seinale handiena izan da bere biziko liburuan, *Ene artzain etxolak* obra ederrean, aitzinsolasaren idaztea galdegin zautala. Alta, ohartarazi nion enea baino luma handi eta aberatsagoak bazituela inguruan, baina enea nahi zuela zautan ihardetsi, eta ni durduzaturik lanari lotu... Ber-tsu idazten eta kantatzen hainbat bertsulari sustatu zituen bezala, euskaraz idaztera ere arizan da bultzatzen etengabe. «Baduzu ahala, lot euskaraz izki-riatzeari, luma pollita duzu, hastapenean lerro latzegien leuntzen lagunduko zaitut, hitz kamutsak zuzentzen, eta gero iturriko ura bezala jaliko zaizu lihoa» zioela bati baino gehiagori.

Noiztenka haserrekor ere

Aitortu behar dut zenbait aldiz, haatik, haserretzen ere zela. Ez usutan halere. Zerbait galdera edo arazo bazuelarik, astekariaren bulegoan harek nahi zuen tenorean ez bagintuen aurkitzen, nihaur edo ene lankidea, batzutan hainbat gaizto, haize biziaren txistua entzuten ginuen beharrietan. Halaber ere euskaraz ongi idazteko egiten zauzkigun oharrak ez baldin baginituen kondutan hartzen. Ondoko aldietan hobeki jokatu behar ginela baginakien holakoetan. Aldi batez, haatik, zinez haserre gorrian ikusi nuen. Astekariaren kondu eginarazi zautan lehen lanetarik bat izan zen aspaldiko aleak urteka eta zenbakika sailkatzea, artxibotegia osatzeko, jendeak altxor hori guzia kontsulta dezan. Ale horiek nahas mahas batean metatuak ziren zoko batean. Lan hori bete nuelarik, erran nion 1946ko *Herria* kazetaren ale gehienetan, norbaitek azken orrialdea haizturrez moztua zuela, zati handi bat falta zela beraz, eta guk lehen urtetako argitalpenetan frangotan asteka ale bakar bat baizik ez ukanki artxibotako. Orduan oroitu zen gipuzkoar ikerle bat hortik pasatu zela Jean-Pierre Iratchet bidarraitarrak hostokada gisa publikatu zuen *Antton* eleberria biltzeko eta ondotik liburu bat plazaratzeko (Etor argitaletxea, 1990). Harek, artikuluak fotokopiatzeko orde, haizturrez artoski pikatu zituen, eta geroztik ale horiek hankamotz daude *Herria* astekariko artxibotegian. Ez da erraitearen beharrik kexu gorrian sartu zela orduan gure Emil. Ez dakigu, haatik, nolako ihurtzuriak jo zuen gipuzkoar ikerlea. Halakoa ere zen Emil. «Artzaina eta ardi tropa», adiskide batek erran dautan bezala, Emil artzainak ez zuelarik sobera gustukoa ardiek berak manatutako bidea ez hartzea. Bainan ez girea denak ere piska bat horrelakoak?

Gizon idekia

Kasu bakan batzutan haserre ikusi dutala, bai. Baina izpiritu idekiko gizon bezala ezagutu dut nagusiki. *Herria* kazetara gustukoa ez zuen ikusmolde edo artikulu bat etortzen zelarik, orokorrean halere argitaratzen zuen, idekidura eta aniztasunaren izenean, zentsurarik gabe, hitz liraingarriz beteak baldin baziren salbu. Hori ere ez da guti, ezagutzen baititugu aldizkari zenbait, libertatea oihukatzen dutenak bainan hitza berdin itotzen. Batzutan, halere, lanak zituen zenbait artikulu edo berdin marrazki onartzen, funtsa ez baitzien beti konprenitzen. Bestalde, garai batean, galdegin zautan gazteen sail baten idekitzea *Herrian*. Baietz erran nion, baina gazteeri hitza osoki uzte-

kotan, guk bazterretik apaindu gabe. Baietz ihardetsi zautan segidan eta dozena bat gazte aurkitu nituen, elkarte eta mugimendu zenbaitetan lanean ari zirenak. «Aupa gazteria» kronika sail berria ideki ginuen. Eta jakina, gaztetasunak dakarren zorrotzasunarekin idazten zuten gazte horiek, luma punta sobera leundu gabe zenbait aldiz. Emilek bazterretik ukan zituen haatik dolamenak, baizik eta errexkiegi uzten ziela hitza gazte ausart horieri, mugak behar zitzaizkiela eman. Eta horri buruz, gauzak xuritzeko, Uharte Garazin bildu ginen gazte horietarik andana batekin, kezkak mahai gainean ezarririk. Gazte horiek, bistan da, aitzina jo nahi zuten libertate osoa utzia baldin bazitzaioten. Eta Emilek haien nahikaria onartu eta errespetatu.

Xinaurri langilea

Herria astekaria bere umea bezala zaukan. Zenbat lerro ez ote ditu idatzi, zenbat gau astekariaren griñarekin pasatu, zenbat bilkura kudeatu, zenbat bide egin batzu ta bertzen laguntzaren eske? Apuñatik eraman du 34 urtez hain maite zuen euskal astekaria, haize kontra ere. Ez haatik bakarrik. Beti jakin du laguntzaile zintzoz inguratzen. Gorago bainion batzutan haserrekor ere zela, jakin du laguntzaile horieri fidatzen, konfiantzazko harremanak sustaturik. Eta uste dut poz handiarekin eta bihotza lasaturik utzi ziela lekukoa kazetaren segida hartu zuteneri. «Nik egin dutan baino hobeki egiten duzue» diot entzun behin baino gehiagotan. Hain nortasun handiko baten ganik, umiltasunezko hitz horiek ez ziren faltsuak.

Hondar denborak

Hurbiletik ezagutu dutenek badakite Emil nolako auto gidaria zen, frango bizia. Haren sahetsean zoanak ez zuen, gisa hortan, bidaia beti hain lasaiki egiten. Nik ere ukan dut horren berri! Egun batez, Donibane Garaiziko parropiako apez lanetan zabilala, bere autoarekin istripu bat ukan zuen Eiheralarre edo Ezterenzubi aldean. Mirakuluz atera zen osorik. Parropiantek erran zioten orduan ez zuela autorik gidatu behar eta zenbaitzuk beren burua eskaini zioten gidari bezala, bere betebeharrak guzietara joaiteko prest agertuz. Gogoz kontra bazen ere, onartu zuen, lehen denboretan bederen. Eta eni ere gertatu zitzaidan orduan haren xofur pertsonala izatea, bereziki Hegoaldeko bideetan, dela Nafarroan, Antonio Zabala jesuitaren ikustera joaiten zelarik Xabiererra (bereziki hunek kudeatzen zuen *Auspoa* argitale-

txean agertzekoa zuen «*Ene artzain etxolak*» liburua prestatzen ari zuenean), dela Gipuzkoan, besteak beste Euskaltzaindiaren gipuzkoar egoitzan bilkura bat bazuelarik, zenbait aldiz bilkura luzatzen zela sagarnotegi batean afari batekin, etxerateko bidea gau beltzean hartu behar. Aldi batez, haatik, Donostiara joaitan, erabaki zuen berak gidatzea, aski trenpuan sendi zelakoz. Ez da erraitearen beharrik ene jartokiari zenbateraino lotua ibili nintzan, Donostiako karraketan auto lerro batetik bestera erreki pasatzen baitzen, keinukaria piztu gabe, gibleko autoak arrastaka eta tutaka, gidariak kexu. Eta gure Emil ez batere griñatsu! Gibelatekoan, ibilbidea lasaiagoa izan zen, nihaur bainintzen gidari, Emil erdi lo sahetsean.

Mendian ibiltzea ere gustatzen zitzaion. Aldi batez kondatu nion Janbattitt Iturria (78 urte) eta Peio Hirigoyen (76 urte) apezeri gertatu berri zitzaiona: urriko egun eder batez, Irubelakaskotik jaustean (Alkaxuri ere deitua den mendia), galdu ziren, bakoitzak bere bidea hartu, ezinbertzean gaua hango mazeletan iragan, biharamunean Iruñeko sokorriek aurkitu bata (Peio Hirigoyen), besteak aldiz Urritzateko errekarara jaustea kausitu (*Itun Iturriak*) baina gau hotzak berriz ere harrapatu, han bigarren gaua pasatu eta argi ttirrinttan azkenean etxe batera heldu, Bidegorrietara... Hori jakitean, Emilek erran zautan: «Zer haurkeria! Adin hortan ez baitute gehiagoko adimendurik!» Baina hara bi aste gabe gauza berdintsua gertatzen zitzaiola 85 urteko gure Emil ausartari. Arratsalde batez, Urkulu kaskora joan zen bakarrik, Arnoztegiko lepo inguruan autoa utzirik. Eta han gaindi atsegin handia hartu ondoan, etxera itzuli zen. Etxean zangoak pausatu orduko, haatik, ohartu zen bere galtzetako sakelan ez zaukala gehiago moltsarik. «Hauxe komedia, Urkulun galdu diat!» Eta berehala harat itzuli zen, nahiz iluntzea izan, kaskora berriz igan, deusik ez atxeman eta jausterako bidea hartu. Baina ordurako gaua polliki erortzen ari, lainoak ere inguruak estali eta autoa ezin gehiago harrapa. Itzuli-mitzuli batzuk eginik, batean lerra, bertzean eror, ez zuen bertze aterabiderik izan, han berean ahal bezala etzatea baizik, paltoa gorputz gainean ezarririk, estali gisa. Azaroa zen. Lo guti eginik, goiztirian itzuli zen bere etxera... eta han bere moltsa harrapatu, bertze galtza pare batetako sakelan. Handik bi egunetara kondatu zautan istorio hori. «Eta ni, bertze bi apez lagunez zure aitzinean hala trufatu! Zer haurra ni ere! Ez ezazula haatik nehorri konda hori!» Barka diezadala gaur istorioño hori aipatzen badut! Funtsean, berak geroxeago agertu zituen gertakari hortaz bertsu batzuk, *Herria* astekarian (2012ko apirilaren 26an), bere abenturako xehetasunak sobera salatu gabe haatik (ikus lekukotasun honen ondotik).

Kanboko zaharretxean

Baigorriko sortetxean eroriko gaizto bat eginik, burumuinean larriki kolpatu zen. Artatua izan ondoan, Kanboko Arditeia zaharretxera erretiratu behar izan zuen, gogoz kontra egia erran, bere burua ez baitzaukan batera hortarako prest. Eta han eraman ditu azken denborak. 2013ko agorrilean, bisita egin ginion batez, hitz etsikorrez mintzatu zitzaigun: «Duela urte bat arte fanfarrunki bizi izan naiz; gaur izigarriko penitentzian naiz, presondegian bezala; burua galtzen ari dut, bista galtzen, gustua galtzen, talendua, memoriaa... Deus gutiziarik ez gehiago irakurtzeko, bertsuentzat, telebistatik pilota segitzeko ere...» Ezin uka Emil hola ikusteak halako zarrazta egin zaukula bihotzean.

Urkuluko izarrak

(airea: Ume eder bat)

- 1 – Mundu xoil hunek aise badaki Garazin Urkulu nun den
Lepeder hantxe, Ibañeta hor eta beste bat Bentarten
Errolan eta Zezar lehenik oro irestera zauden
Ez Sarrasinek, Euskaldunek bai arrotzak jo baitzituzten
- 2 – Holako tontor miresgarriez balitzauku berri galda
Gure xaharrek izanen zuten erran ahala zer konda
Nunbaitekoek hemen jo nahi zutelarik beren danga
Ororen buru gure herri hau beti euskaldun egon da
- 3 – Menditar asko zerualdeko goren hartarat heldu da
Badakit norbait etorri zena horgo aire sanogura
Hegi hartako gotorlekuaz zuen bere arrangura
Zorionaren esker onenen kantuz heltzeko zerura
- 4 – Behin ez aski berriz igan zen egun berean bietan
Zuhurtziaren neurri zuzena gaingiduz bigarren hortan
Atrebitua ez zena behar ez dakit zenbat urtetan
Gosta zitzaion zangosagarrak hartu urrako batetan
- 5 – Hor zen gizona iluna heldu eta gaizoa mainguka
Zer egin gauaz erorikoan makila ere galduta
Batean lerra, bestean xuti, aldapa hura hain xuta
Bakartasuna ere lotsakor behar zela ezin uka

- 6 – Etsimendua ezta gurea mendizale batendako
Nehori ezin erran gainera «Urrikariz otoi zato»
Beharrari da holakoetan beti dei egin beharko
Edo Jaunari otoitzez dira hasten arima on asko
- 7 – Galdua denak beti zerutik umil eskatzen argi bat
Zenbat aldiz da oihu egiten ilusiozko argirat
Mentura nun den, harat gaudela azken beltzean nik daukat
Gutienetik pindar izpi bat hel dadin gure begirat
- 8 – Etxerakoan zerbait izan zen lagun onen atsegina
Bat bazen ere «artzain galdua» ordaindu beharrez jina
Egia erran lagun artean arindua zuten mina
Adixkidetan arraberotzen baita bihotza alaina
- 9 – Amets-loria lillurazkoa nahi duenak han entzun
Gau xoriekin gogo laxo egin du batek Urkulun
Mendia ezta denen etsaia nahiz gain hura hain urrun
Zeru ta lurren izar artean han gaua egin zen egun
- 10 – Kantu hauk gero emanak ditut Urkulutik itzulita
Lagun on batek ere daut egin ondotik bere bisita
Makila berri eta kontseilu behar zirenen eskainka
Arnoztekora itzul nadien zorraren esker onezka

E.L.

1969tik 1980ra, II urtez erretore Aiherran. Ez da geldirik egona!

Jean-Mixel Barbier

Emil Larre Aiherrara etorri zenean, 12 urte nituen, eta 23 urte Irisarrira joan zenean. Hartaz atxikitzen dudan oroitzapena hau da: errotik euskalduna zela, bai eta kantaria, gazteekilakoa, pilotaria, bertsolaria, musikaria ere doi bat. Hots, arras langilea baina bizia ere. Gure herriaz maitemindua zitekeen, ikusiz Aiherratik joatean *Aiherra Nafarroaren leiboa* izeneko liburua idatzi zuela.

Aiherran iragan zituen urteez lekukotasun baten ematea galdatu baitidate, berak edo herritarrekin egin eta akuilatu dituen egintzei behako baten ematea proposatzen dizuet. Oroitarazi nahi dizuet haatik Aiherrak Emil Larre jin aitzineko urtean René Ospital auzapeza eta kontseilari orokorra galdu zuela (1968/02/23), eta hamabost hilabete berantago J-Pierre Urrutia erretorea (1969/06/08). Herria zinez inarrosia izan zen.

Kantua

Aiherrara jin orduko, elizako zeremoniek ederrak izan behar zutela eta, meza hasi aitzin jendea kantuz arrarazten zuen igande guzietan, zenbait aldiz franko luzaz, hain zitzaion axola ederki eta xuxen kantatzea. Funtsean bi urteren buruan gazteak bildu zituen abesbatza baten muntatzeko, eta 1972an Euskal Herriko parropietako kantarien elkarretaratzean parte hartu genuen lehen aldikotz, Ortzazeko elizan. Gure korua 13tik 17 urte arteko 40 bat gaztez osatua zen, eta horretaz harro zen. 1974an, zeremonien edertzeko beharrezkoa zitzaion origina erosi zuen kermezen laguntzari esker. Bi urtetarik antolatzen ziren koruen egunean parte hartzeko, lau bozetan eman behar baitziren kantuak, astero biltzen ginen apezetxean kantuen ikasteko, ez bakarrik elizakoak, baina kantu herrikoiak ere. Hola genuen koruen egun guzietan parte hartu, han eta hemen Euskal Herriko xoko guzietan; hola genituen ateraldiak Xiberora ere egin, aldi bat baino gehiagotan Mendikotako kermetan kantuz aritzeko, bai mezan eta bai bazkari denboran... Hots, hola ginen Aiherratik ateratzen hasi.

Gazteekin

Ha, ateraldiak! Hain zuen maite haien antolatzea! Mendekoste astelehen guzietz, Aiherran egon zen garaian, autobusez egin bidaiak muntatzen zituen gazteentzat, eta ez nola nahikoak gero! Guri Euskal Herri osoaren ezagutarazteko helburua baitzuen, Aiherrako gazteek xantza izan genuen Iruñera, Gernikara eta Pasaiara joateko, handik itsasontziz Donostiara, berdin «erremonte»-ko pilota partiden ikustera, eta abar, garai hartan hain zaila zelarik mugaren pasatzea. Herriko apezarekin baikinen, burasoek franko aise uzten gintuzten etxetik partitzera. Bistan da autobuseko ateraldiak aitzinetik prestatzen zituen, zenbait aste edo hilabete lehenago tokira joanez herritar batzuekin. Autobusean eta bazkari denboran kantatzen genuen; «jaun erretoreak» egunari zoazkion bertsoak ematen zituen, hots giro goxoan eta euskaraz iragaten ziren Mendekoste astelehenetako ateraldi haiek.

Pilota partidak

Pilotazalea eta pilotaria genuen erretorea. Aste guzietz, *Herria* astekarian Iparraldeko eta Hegoaldeko pilotako emaitzen berri ematen baldin bazuen xeheki, gustatzen zitzaion Aiherrako trinketean pilotan aritzea igande arrats guzietz herritar helduekin, eta astearen barnean gazteekin. Gatua bezain zaluzen, eta pilotari guti baizik ez zitzaion «xokoan» nagusitzen. Erran behar da jaun erretoreak herriko etxeak berriki eraiki trinketeko gakoak apezetxean atxikitzen zituela, eta gelariak trinketaren garbitasuna segurtatzen zuela, urri-rik. Hots, trinketa alokatu nahi zuenak gakoak apezetxean eskatu behar zitu- en, eta toki berean alokatze saria utzi.

Bertso saioak Pazkoz

Emil Larre Aiherrara jin zenetik, Pazkoz bertso saioak antolatu zituen urte askotan, Gaztetxea trinketean. Aihertarrek oso ezagunak zituzten Mattin, Xalbador, Xanpun, Esponde, Mendiboure, Alkhat, Arrossagaray, Mixel Xalbador, eta mugaz harainditik heldu ziren Aspillaga, Lazkao-Txiki, Lazkano, Lizaso, Lopategi, besteak beste... Apezetxean egin bazkari on baten ondotik, bertsolariak arras trenpuan agertzen ziren taula gainera. Jaun erretoreak prestatu gaiak, beti edo gehienetan segurik herritar mutiko edo

neska batek ematen zituen. Bertso saio hauetara jende anitz biltzen zen, eta Aberri Eguna baitzen, «Gernikako Arbola» denek xutik kantatuz bururatzen zen arratsaldea. Bertso saio hauen antolatzeke, trinketean behar baitziren entzuleak jarrarazi, gazteak etxez etxe ibiltzen ginen herritarrek prestatu alkien xerka traktore eta orgarekin.

Gaztetxea trinketean

Aiherrako trinket berria 1970eko urriaren 25ean estreinatu zen, hots jaun erretorea Aiherrara jin bezain laster. Orduko pilota arduradunei, Battitta Barbier eta Jean Aphal herritarrei, Emil Larre erretoreak laguntza estimagarria ekarri zien. Trinketa ez zen aski eraikitzea, biziarazi behar zen. Jaun erretoreak debruen esku ukaldia ekarri zien gazteen pilota trebatzeetan parte hartuz, pilota partida handiak berezko pilotariekin antolatzen lagunduz, «Oraiko Aiherra» esku huskako pilota zeingehiagoka muntatzen lagunduz, eta abar.

«Les jeunes Basques d'Ayherre» zuen gazteen batasunak aspaldiko izena. Baina zer zen izen frantximant hori? Lehenik, izenaren aldaketa egin zuten herriko gazteek 1973ko martxoaren 24ko biltzar nagusian, eta izen berria hautatu: Belzuntze. Izenarekin batean, bizi berria ere hartu zuen gazteen batasun horrek.

Gaztetxea trinketean, oihartzunik gabeko kantaldien antolatzeke gisan, pareta guzietarik dilindan jausten ziren oihal berde alimaleak ezarri zituzten trinketeko teilatu azpian, 1971ko kermezak honen kostua osoki bere gain harturik. Erran behar da orduan parropiak antolatzen zuen kermeza Trinket-Besta bilakatu zela, jaun erretoreak gomitatu Hegoaldeko kantari eta musikarien ikustera heldu zela jendea, pilota partida ederrak antolatzen zirela berezko pilotariekin, eta izigarriko arrakasta bildu zuela elkarretaratze horrek. Orduan eguerdi eta arrats, 700 bat apairu zerbitzatzen zen trinketaren saihe-tsean muntatu oihal etxe azpian.

Hazparne aldeko Zurkaitza kultur batasunak auzo herriekin kantaldiak antolatu nahi baitzituen, Gaztetxea trinketean Belzuntze elkartearekin kantaldi asko egin ziren, kantari euskaldun ala kanpokoak ekarraraziz: Benito Lertxundi, Julos Beaucarne, Itoiz taldea eta beste hainbat kantari. Belzuntze elkarte ere bere aldetik kantaldien antolatzen hasi zen. Gisa horretan zen 1973an Guk taldearen «Aita eta seme laborari» kantaldia lehen aldikotz eman Gaztetxea trinketean.

Hiru gertakari handi

Emil Larreri esker, Aiherran hiru gertakari iragan zirela ez nuke ahantzi behar:

- 1972ko irailaren 17an Eskualtzaleen Biltzarra Aiherran bildu zen, eta Gaztetxean kantaldi oroigarria iragan zen Xabier Lete, Maria Lurdes Iriondo, Benito Lertxundi, Eneko Labéguerie, Manex Pagola, Pantxo Carrère eta Peio Ospital, Erramun Marticorena eta beste kantari batzurekin.
- 1973ko uztailaren 22an, «Le jour du Seigneur» igandetako meza frantses telebistak zuzenean zabaldu zuen Aiherrako elizatik. Horretarako Aiherrako eta Hazparneko bi abesbatzek bat egin zuten, eta Aiherraren fama biziki urrun hedatu zen.
- 1975eko irailaren 28an, Emil Larre Euskaltzaindian sartzea ospatu zen ofizialki, Aita Villasante orduko euskaltzainburuarekin eta euskaltzain andana batekin. Gertakari honetan aintz herritar eta gaztek parte hartu zuten.

Bi diska

Aihertarrek elizako kantuak pikoan baitzituzten, bi diska jalgi ziren Emil Larreren garaian: lehena 1974an *Kanta zagon guziek*, honek eliza kantu xahar ederrenak biltzen zituen, eta bigarrena 1975ean *Igandea*, hau Aiherrako meza nagusiaren grabaketa. Aldi guzietan parropiako koruak eta herritarrek bat egin zuten kantu errepiketan eta diska prestatze lanetan. Diska jalgitze bakoitzaren ondotik, berriz ere ateraldiak egin genituen.

Bururatzeko

Emil Larre egon zen II urte horietan, Aiherran anitz gauza gertatu zen. Parropiaren eta herriaren animatzaile kementsua izan zen, euskararen eta euskal kulturaren sustatzaile eta zerbitzari segura, gazteriaren biltzailea.

Nahiz eta nortasunez bizia eta pazientzia aski gutikoa izan, batzutan Aihertarrak ez baitziren harek nahi bezain fite ari, ene iduriko Aiherrari anitz ekarri dio, herria bere xokotik atera du, eta kultura sailean, hozka eder batez huparazi. 1980an gure herria utzi zuen baina Aiherrak segitu

du eta segitzen du oraino pilotaren, euskararen eta euskal kulturaren alde lan egiten.

Urteak jin, urteak joan, gure lurraren, hizkuntzaren eta nortasunaren axola dugu beti, euskaraz bizi nahi duen herria amesten dugu.

Emil Larrereren *Ene artzain-etxolak*

Andres Urrutia
euskaltzainburua

Nor Emil Larre, nolakoa haren liburua

Eskolako aulkietan euskara entzun ez genuenok, sarritan ibili gara no-raezean, hizkera gozo eta jatorraren iturria non aurkituko. Azken urteotan, zorionez, euskarazko eskaintza nabarmen areagotu dela nonahi igar daiteke, Han-hor-hemenka, liburu, idatzi eta paper ugari ditu eskura oraingoan euskal irakurleak, non bazka eta zerekin ase egoki zertzeko. Aukeratu beharra, hortaz, lehen eskas eta urri zen euskal letren baratzean.

Badira, edonola ere, erruz argitaratzen diren horien artean, gozamenerako oparirik bizien direnak. Besteak beste, eta bete-betean, Emil Larre apez baxenabarrak oraintsu ondutakoa: *Ene artzain-etxolak*. Antonio Zabalak esku trebez aurrera daraman *Auspoa* sailekoa dugu hori. Sail horren titulu-hurrenkera osatzera dator kimu berria eta, zalantzarik gabe, ale baliotsua eta gomendagarria.

Izena bera esanguratsu oso Larrereren liburuan. Sortzez baigorriarra da Emil Larre, «Belarrea» etxekoa (1926). Izatez, bere baitara ezaugarri asko biltzen dituen euskaltzalea dugu. Apez, euskaltzain, kazetari, bertsolaritza sustatzaile... horiek guztiak gehitu ahal izango genizkioke euskal idazle horren biografiari, euskalgintzan gauzatu duena taxuz adieraztekotan. Argigarrri, beharbada, Pablo Jose Aristorenaren hitzak. Artezki laburbildu du hark Larrereren izatea, baxenabarraren goitik beherako argazkia eginez: «Lafitteren ume, Ipar Euskal Herriaren ezagule, *Herria* astekariko zuzendari, euskaltzain oso, Irisarriko erretore eta bertsularitzari buruz, Hernandorenarekilar hasi eta gero bertsularier erakatsiz eta saioak antolatuz ibili den gizon hunen irudia, bere osotasunean baxenafartar eskualdun fededun baten irudia da. Eskualdun eta fededun! Emilek Xalbadorrez erran zuena Emilez erraten ahal da: “Ez da gizon horrentzat bizia josteta bat eta ez du ezer axalez eta arinki harzen”» (*Nafarroako Bertsolaritza*, 72. or.)

Zer ekarri du Emil Larre euskaltzainak bere paper multzo horretara? Zehatz esanda, autobiografia egin digu Larrek, aldi berean ere Euskal Herriko Iparraldearen azken berrogeita hamar urte gogora ekartzen dituela. Aise ibili da gertakaririk gertakari, lantzean behin *nika*, gehienetan *guka*. Be-

launaldi baten tankera ote? Norbanakoaren gainetik herri sona nagusi bai-gorriarrantzat? Edonola ere, urte luze, korapilatsu eta eztabaidatsuak izan dira horiek Euskal Herriaren historian. Euskal gizarteak sekulakoak ezagutu ditu Larre apeztu zenetik (1951). Elizarekiko atxikimendua arras bestelakotuta dago gure artean, euskal gizartearen balioak eta ikuskerak errotik aldatu dira. Duela mende erdi pentsaezinak ziren hainbat alorretan egundoko aurre-rakadak izan ditu euskarak. Gazi-gozoek, hala ere, hortxe diraute, denon be-gi-bistan eta gure lanerako akuilu-gai.

Horiek lirateke, gaingiroki bederen, Emil Larrereren ekarria laburbiltzen dutenak: elizaren bizitza, euskara eta euskal gizartearen ardurak eta zer esanik ez, bertsolaritza edota pilota zaletasuna. Horiek —eta beste asko ere— liburu horretan ditu azalduak irakurleak. Artean ere, lehen esan legez, Ipar Euskal Herrikoaren historia bilakaera.

Horretan ematen du kontu Emil Larrek. Kontu zehatz eta xehea, ondo neurtua, autobiografiaren bidez sumatzen ditugulako aspaldiko eta oraingo euskal gizartearen on-gaitzak eta gorabeherak. Lekuko aparta dugu horretan Larre, herririk herri kezka pisutsuak eraman baititu apezgoaren bidetik, euskaltzaletasunaren grinarekin batera. Horiek guztiak islatzen dira *Ene artzain-etxolak* liburuan. Mamiaz ganorazkoa izateak ez dio graziarik kentzen Larrereri, azalaz dohainak erakusteko. Dohaina du hark esamoldea, euskara lapur-baxenabar dotorea, Hiriart-Urruty zaharra, Etxepare, Lafitte eta antzekoen ildo berekoa.

«Euskara eta fedea», beraz, haren lelo nagusiak. Horien harira, Donibane Garaziko elizan entzun genituenak, abeslari euskaldunen ahotsetan. Adiskide eta lagunak inobreak ginen bertan, uztailearen zortzian. Emil bera, beste apez batzuek lagundua, aldarean zen, bere apezgoaren berrogeita hamargarren urteurrena ospatzen:

Otoi, Jainkoa, ez utz galtzerat
Euskal lurtean fedea.

...

Orroit zoin duzun maite mundua,
maite gu garen jendea.
Otoi, Jainkoa, ez utz galtzerat
Euskal lurtean fedea.

Meza bitartean eta gero ere, elizaren kanpoaldean batu ginenok parada ederra izan genuen bertsolarienak entzuteko. Apez, agintari, euskaltzain, parrokiako, lagun, adiskide... guztiok gentozen batera, Larrereren ekarriak gorai-

patzeko aldarrean. Berak, ohi bezala, bereari garrantzia kendu eta herriaren alde lan egiten sutsu jarraitzeko aholkularitzan jardun. Horren ondoren, bazkaria eta bazkalondokoa, opari, bertso eta abarrek hornitua. Festa egun ederra, bai horixe!, Garazin ospatu genuena.

Itzulian, Bizkai aldera automobilerik abiaturik, hizpidea, behin eta berriro, harengana zetorren. Fedea ikusten genuen solaskideok haren zuztarra. Fede horren itzalpean egin du lan beti Emil Larrek. Lurrari atxikia, euskaldunei lotua eta Jainkoari fio. Orogen gainetik, esan dezagun argi, euskara eta fedea estekatu nahia. Esanaz eta isilaz, ahoz nahiz lumaz.

Lehena: apezgai baten kezka

Ahozkotasan horretan gauzatu ditu bere zerak Emil Larre apez euskaldunak euskal herri askotan. Apez laguntzaile, bikario edo erretore, horra Larrearen egitekoa, Hazparnetik Donibane Garazira, Aiherra, Irisarri eta beste batzuk barne. Horretarako ere, apezgai zela eta ikasketak egin bitartean, euskal solasak ezin baztertu. Antzerki lanak eta euskal pilota, esaterako. Esku oneko pilotari izan eta haren partidak beti kezkatu, Larrearen pilota trebetasunaren kezka.

Bazuen, alabaina, Emil Larrek osterantzeko helbururik, Baionako Seminario ordu gogor eta lazgarrietan. Hala dio berak: «Bainan, zinez, zertako da apezgaia? Apezgaren lanetarik bat da bakarrik mezaren emaitza, haundiena balinbada ere. Beste eginbide bat badu apezgaren, erakasle lana. Eta erakasteko, behar da jakin. Horra nolaz diren bilakatu apezgaitegiak eskola-etxe. Seminarioan zertan ari? Ikasten, bixtan dena, gogoeta eta otoitzarekin orobat». (*Ene artzain-etxolak*, 195. or.)

Hango ikasgeletan bereganatu zuena ere, erabat askatzailea: «Libertate bai ikasi dugu seminarioan, eta biba libertate hori! Neure buruaren jabe eta beti zerbaiten meneko. Apendizgo bat hori ere. Denbora galtze ainitz egin dut seminario haundiko lehen denboretan... hastean, denboraren kudeatzen ikasi artean». (*Ene artzain-etxolak*, 197. or.)

Aldiak, hala ere, aldatzen doaz. Apezgai kopurua urritu, apezgaitegia hustu... Euskal Herrian oraintsu arte ezagutu ditugun arazoak dira. Seminario etxea saldua ere, Larrek beti izan du haren aurrean oroimin zirrarratsua, gazte denborako urteen minberatasuna: «...Guk dugu bakarrik, gure urte hoberenak, gazte denboran alabainan, hortxetan iragan ginituenak, bihotzan ximiko bat senditzen, noiz edo noiz hor gertatzen girelarik biltzarre batean, edo berdin ikuska, non ez den kanpotik lepoa luzaka...» (*Ene artzain-etxolak*, 200. or.)

Seminario urteak joanak, apez lana eta esan legez, herri euskaldun anitzetan haren eragina ere. Aipa dezagun, lan horren lekukotza ederra emateko, *Aiberra*, *Nafarroaren leiboa*, herri horren ipi-apak bildu zituen liburu gozagarria. Apezgoaren lanetan ere, ezin isilean utz liturgia euskaratzeko batzordean parte hartu izana. Badu euskarak, lan horri esker, elizaren liturgia emateko molde eitezkoa.

Erretore jada, Emil Larre bertsotarako zaletasunak du hartua. Eliza kantikak ere asmatu ditu. Bertsotan diharduela, hona hemen haren irtena, berrogeita hamar urte apeztu zela Oillarburu Arnegiko erretorea:

Berrogoita hamar urte, xuxen dut ustez kondatu
 Arnegiko erretor hau zela apez ordenatu
 Lehenik beste hogoi bat urtez sail berrian zen moldatu
 Holaxe baitzen gamartiarra Arnegikotzat trebatu

(*Ene artzain-etxolak*, 343. or.)

Oraina: kazetari baten grinak

Ahoan bilorik ez eta ahozkotasan horrek dakar, bestalde ere, idatzizko premiarik. Emil Larrereren kasuan kazetaritza da ereduizko alorra. Kazetari-tzari bagagozkio, izena berehala datorkigu belarrira, Euskal Herriko Iparraldean bederen. Izen hori *Herria* da. *Eskualduna* kazeta zaharraren ostean, Lafitte zenak sorturiko kazeta izan du zuzendaritzapean Emil Larrek, azken hogeita hamar urteotan.

Herria zer eta nolakoa den zehazterik balego, lehen puntua zera litzateke: urte luzeetan berori izan da eta orain ere bada mugaz haraindiko euskal kazetarik zabalduena eta preziatuena. Herririk herri bildutako albisteak, artikululu solteak, editorialak, mugaz honaindiko informazioak... halakoak erabili ditu *Herriak*, bere inguruan euskal idazle eta irakurle andana batzeko. Idazle ahalmentsuak, euskara noranahi barreiatu dutenak eta egun ere, euskararen tradizio idatziarekin lokarri sendoak gordetzen dituenak.

Idazle horietariko dugu Jean Hiriart-Urruty hazpandarra, Abituenean jaioa eta Larrereren apezgokidea. Hiriart-Urruty zaharraren ilobasoa, eta haren bidetik ere, euskal idazle bipila. Zahartzarorik gabe hil zen honek, antza denez, inbidiarik ez, euskalgintzaren jorantetan, odol bereko asabari. Hiriart-Urrutyk misionest joateko baimena erdietsi eta Larrereri eskatu zion *Herria* aldizkariaren zuzendaritzaz jabetzeko. Honen ihardespina baiezkoa izan eta

1969. urtean Larre dugu zuzendari: «Hartu nuen beraz 1969an *Herria* kaseta Hiriart-Urrutyren eskutik, hura joaitean eta nik baia eman Irisarrirateko». (*Ene artzain-etxolak*, 292. or.)

Abittuk (hala esaten zioten hazpandarrari bere lagunek) *Herria* astekarian argitaraturiko artikulu sortak, liburu eder eta mamitsuetan bildu zituen Larrek. *Jauna dut argi I eta II, Fedea gidari...* besteak beste, horren lekuko, euskara eder eta jorian idatziak. Adiskideaz mintzo dela, goresmen urririk ez: «Jean Hiriart-Urruty dugu hor eliza-sailaren gogoetalaria. Badakigu irakurle zenbaitek hori dutela lehenik iresten, bai-eta beste asko herritarrek pikaturik beiratzten ere dituztela, laugarren orrialdean, aste bat hutsik gabe, idatziak diren artikulu ohargarriak». (Aitzinsolasa, *Fedea gidari*).

Herriaren inguruan ere, hamaikatxo ekimen, liburu eta argitalpen. Oroz lehen, Iparraldeko kultur sarea, euskararen kezka duenak bertan habia-leku abegikorra izan dezan. Langintza horretan ari izan eta ari zaigu Larre. Beti ez, ordea, baldintzarik onenetan. Gogo zabal, sosak urri. Ekonomiaren indarrak beti eragin du larritasuna, euskal kazeta behar den moduan astero-astero kaleratzeko. Zailtasunen jakitun da Larre: «Banakien segur euskaldunen bihotzak zuela bere kar guziaz bizirik atxikia beti ere gure euskaldun kaseta, sekulan kasik beste nehoren diruen ondotik ibili gabe: lehenago eliza-bortetan salduz eta gero-ta-gehiago, irakurleen urte-sariaz bizi, dirua eskastearekin zenbait sos paga-araz, nahiz sos guti beti ere, eta hola bizi zen Herria...». (*Ene artzain-etxolak*, 183. or.)

Herrian bertan, *E.L.* hizki larri horien azpian, Emil Larrereren idazluma. Testu luze eta editorialak, azken aldiotan Dirassar kazetari puntarengoarekin txandan emanak. Betiere, gogotsu eta erakusle, nonzeberri soil baino gehiago, alde eta moldez. Unean-unean ere, tanta gozoak. Noizean behin, irri-solase-rako puntua, ironia fin batez jantzia. Gai pisutsuetan ziur eta tinko, esku fineko azalpen emaileari dagokion moduan.

Geroa: euskaltzale baten gogoetak

Iragana dela eta, Emil Larre, urteak gorabehera, ez da joanari begira dau-den horietariko. Aurrera doa, jakin dakielako garaiok irteera berriak eta bes-telakoak galdatzen dituztela. Aurrekoari eutsi dio. Etortzekoari eutsiko ahal? Larrek itxaropentsu ikusten du gerogarrenekoa, euskaldunek euskara aintza-kotzat hartuz gero: «Eta beraz, zertako ez diot gure herri huni aurpegira bo-tako bekoz beko egia: nolaz ez dute berek senditzen herri huntako kargudun eta burasok eta ere gure gazte eskolatuek halaber Ondare horren zaintzeko

Eginbidea? Herri hau gure Ama balinbada, zer pentsa bere Ama maite ez duten haurrez?...» (*Ene artzain-etxolak*, 188. or.)

Kontu sakona horixe! Larrek ere, bizitzaren joan-etorrietan, aldaketak gogoratzen dizkigu: «...hain dira gauzak aldatu, eta beti aldatzen ari, egungo gizonaren epe laburrean!» (*Ene artzain-etxolak*, 329. or.)

Aitortzaren ondoan, bihotzaren hustuketa, euskaltzaletasunaren adierazle, bizitzari zor diona haztatu guran: «Zor horren bihotzez betetzeko, hautatu dut euskara liburu huntan: hura nuelakotz ene hezur, haragi eta bihotzeko mintzoa...» (*Ene artzain-etxolak*, 329. or.)

Gizonaren izatea ere, funtsezkoa Emil Larrarentzat. Berak berea egin du. Hori du erakusgai, liburuaren azken esamoldeetan: «...Ez da gizonik bi bide batean eraman ditzazkeenik, ez-eta sobera aldaketa egin dezakeenik ere. Nik hori nuen, eta dut, neurea. Zuk juja, irakurlea, nola betetzen dudan neure hori eta, dugunetik, goazen engoitik aitzina, zoin gure munduko etxoletan». (*Ene artzain-etxolak*, 330. or.)

Apezak azken hitza bere. Hori da esaera zaharra. Hori berori gogoratu zingun Emil Larrek, sermolari lanetan, bere apezgo-urteurrenaren prediku gozatsuan. Esana aintzat hartu eta ekinean jarraitzekoa ikusten dugu guk harena, Emil Larrek bere azken hitza esan ez digulakoan. Zain gaitu, *Herria* astekarian urte luzeetan agertu dituen testuak libururaturik ikusteko. Biba zu, adiskide, eta betoz lehenbailehen zureak, behar-beharrezkoak baititugu!

Emil LARRE apeza eta bertsularitza

Jean-Louis Harignordoquy Laka

Aitzinsolas

Emana izan zautan mintzagaia da kondatzea Emil Larre adiskide zenak bertsularitzari egin dion ekarpena. Hura bezala ni ere Baigorriarra izanik, gaian sartu aitzin konda dezadan noizdanik ezagutu nuen. Lakaenean egundainotik irakurtu izan da *Herria* astekaria. Gure ama zenak buruan buru irakurtzen ere bai, etxeko lanak bururatu-eta igande arratsaldetan. Gure aitamek bazakiten *Herrian* izkiriartzen zuen Emil Larre Baigorriko auzo batetako *Bastida Belarreko* apeza zela, eta denbora batez misionest gaztea ere. Bazakiten predikatzeko erretasun handia zuela. Nik ere lehenik elizan ikusia nukeen. Gogoan dut 1978ko ekaineko ibiakoz aratsalde batez zer prediku sarkorra egin zuen bi Baigorriarren espos meza batean. Entzuna izaiteko gogoia emaiten zuen.

1977an, Peio Erramuzpe, *Ibai Gorri* kantari taldeko zuzendariarekin haurrentzat antolatu baiginuen Xalbadorren bertsuen kantatzeko lehiaketa bat, orduan ukan nuen harekilako zuzeneko lehen harremana. Gero beti ikusten nuen Iparraldeko bertsu saioetako entzuleen artean. 1979an, Baionara bizitzera eta lan egitera joan nintzelarik, aldi batez gomitatu ninduen ikustera nola astelehen eta astearte guziz Cordeliers karrikako irakorlan Piarres Lafitte-rekin ari zen *Herria* astekaria moldatzen eta berriketariak eskuz idatzi artikuluen zuzentzen. Han egin nuen ere astero bi artikulua interesgarri idazten zituen Etienne Sallaberry heletar kalonje zenaren ezagutza, zeinek 1980an Ernest Alkhat zena eta nihaur akulatu baiginituen bertsularien eta bertsuzaleen arteko elkarte baten sortzera.

Bertsu jartzaile eta gazteer aholku emaile

Xalbador zendu zen urtean, jakin nuen Emil Larrek bertsulariak gomitatzeko zituela Urruñara, han bikario egon zen urteetan, eta geroago Bazkokari Aiherran erretor zegoelarik. Goizean mezan kantarazi ondoan, arratsaldeko

bertsu saioa kudeatzen zuen. Berak erraiten zuen Urruñako bikario zenean, Jan Batixta Etcheberry hango ertorak maitarazi ziola bertsularitza. 1960ko hamarkadan, Mixel Itzainarekin Iparraldea ordezkatu zuen epaimahaikide gisa Euskal Herriko bertsu xapelketa nagusietan.

Herrian aste gehienez izaiten ziren bertsu sailak irakurgai, frangotan Emilek berak miresgarriki moldatuak. Ez zuen huts egiten apez lagun ospakizun zoriotsuen bertsutan aipatzea, halaber heien heriotzeak. Pilota mundukoak barne, beste gertakari ainitz bertsutan kondatu ukan ditu. Funtsean, *Ene artzain-etxolak* bere azken liburuan heietatik andana bat argitaratu zituen. Erran gabe doa, *Herria* astekariarentzat irakurleek beste pertsu ainitz igortzen zizkiotela. Orduan, behar zen guziz aritzen zen pertsu heiek euskara hobe batean ezartzen, eta kantatuak izaiteko neurrietan makur zirenen zuzentzen; bidenabar bertsuen igorleak eskolatuz.

Bekoz beko gurekin bertsegintzaz mintzatzeko parada zuelarik, beti entseatzen zen aholkuen emaitera, bertsu nola moldatu behar ginuen erakastera: azken lerroaren garrantzia, neurtitzen aberastasuna, hitzen erranahiaren eta neurrien errespetua, euskara garbia erabiltzearen edertasuna, zuzen kantatzeko modua, eta abar. Baliosa zen Emilek bertsulari gazteeri ekarri laguntza. Ez zuen baitezpada behatzen laguntzen zuena bertsulari handi baten gaia ote zen. Ez, denak laguntzen ginituen eta arrazoinekin. Nork daki geroan zer eman dezakeen entseatzen denak.

Ez dakit garai hartako bertsulari gazte guziek gure zorra aski aitortu ginakon Emili. Nola nahiz bazakien, Panpili, Larreko, Xanpun, Txomin Ezponda, Joanes Arrosagarai, Jean-Pierre Mendiburu, Fermin Mihura, Ernest Alkhat, Mixel Xalbador eta beste frangok maixutzat ginakala berak ahots xuxena eta bere parropiako kantorearen gidari izaiten zen apez.

Hain zen euskalduna, fededuna, engaiamendu guzietan leiala eta langile asper ezina, lehenik bere buruarentzat gogorra, noiztenka gertatzen zitzakon akidura edo etsimendu bulta batzuetan kexatzea eta gogoan zuena bortitz aire batekin erraita, bereziki bertzeak uzkur, gibel edo ezazol ikusten zituelarik. Bainan haren haserreak gehien ganik zerbitzu on baten gisa hartuak izaiten ziren beti; ez baitziren sekula iraunkorrak, are gutiago aiherkundetsuak.

Elizan bertsuak maiz aipatzen zituen bere predikuetan eta ez zen lotsa bakar zombaiten kantatzeko. Mixel Itzainak erran ukan dau askotan egoiten dela pentsaketan bertsu batek zer indarra eman lezoken mintzaldi bati, erran nahi denari egokia delarik. Askotan apezek beren ideiak Parisetik bilduak dituzte eta...

Parropietako kantore solas, ez dugu ahantzi behar erraita Emilek idatzi bertsu eder asko musikatuak izan direla. Hain dira ederrak, zombait segurik gaur ere kantatuak baitira euskal elizetan. Plazako kantuetan, «Baigorri»

Erramun Martikorenaren disko bati esker orain orotan ezaguna dena. Parada zuen aldi guziz, Emilek berak ere elizetan kantatzen zituen Xalbador zenaren bertsu sail batzu, hala nola «Jainkoa eta ni» edo «Ortzirale saindu bate-tako gogoetak». Bestalde, zonbat aldiz ez gaitu bertsulariak deitu elizkizun berezietan fededunen otoitza kantatzera, halaber kermezetako bazkarietan saio batzu antolatu, berdín berak gaiak emanez. Zinez eskertzekoa, apez gu-ziek ez baitute holako idekidurarik erakutsi eta erakusten.

Bertsulari gazteen laguna

Alkhat zenarekin antolatu lehen bilkuran berean han ginuen Emil Larre, Iparraldeko bertsulari eta beste bertsuzale batzuen artean. Artetik erraiteko, Mixel Itzaina Herriko Etxeko idazkariari esker ardietsi ginuen Kanboko «fo-yer municipal» delakoan gure bilkura guzien egiteko baimena. Ernest Alkhat denbora hartako bertsulari gazte bezain trebea izendatu ginuela elkarteko lehendakari, elgarren adiskide handiak ziren Aita Santos Beloki, Manex Erdozaintzi Etxart eta Mixel Lekuonak ere onartu zutela zuzendaritza talde-kide izaita, bainan nago ez ote zuen Emil Larrek asmatu «Bertsularien La-gunak» izena gure batasunari emaita.

Handik urte gutiren buruko hasi baiginen Iparraldeko eta Nafarroako bertsularien arteko xapelgoen antolatzen, Emil Larrek parte hartzen zuen bilkura guzietan; xapelgoko saioretako epaimahaian Mixel Itzaina eta Santos Belokirekin osatzen zuen Iparraldekoen ordezkarietza. Berantago, Jean-Pierre Etchegoin eta Beñat Soule sartu ziren delako epaimahai hartan.

Behin, Mariano Izeta Elizondoko idazleak erran zautan ohoratua sendi zela Emil Larre barne zen mahai berean epaile izaita.

Dena den, egun batez Emilek berak aitortu zidan gero eta gehiago ohar-tzen zela bat-bateko bertsuen epaitzea injustizia bat zela; hots, kasik ezinez-koa dela bertsu bati nota zuzena emaita. Xapelgoan gaizki atera bertsulari zonbait, hurrengo urteetan kantatzeari uko egiten ziotela ikusteak naigabetzen zuen. Uste dut gauza bera pentsatzen zuelako, Aita Santos Beloki izan zela epaimahaikide izaita utzi zuen lehena. Mixel Itzainak ere onartzen du bert-sulari xapelketak zonbait aldiz injustiziatik zerbait ukan dezakeela. Huna zer dion: «Xalbador —neretzat iragan mendeko bertsularirik handiena, bai bat-batean bai idatzitz— ez da nehoiz Euskal Herriko xapeldun izan. Eta orain pratikan eman modua, taldea taldearen kontra, biziki gogokoa dut. Hor ez da nehor urgulutan sartzen eta ez da nehor etsimenean erortzen. 2018ko abenduaren Iean Baigorri iragan azken saio hura dut hor aipatu nahi».

Bertsularien Lagunak elkartearen eta Nafarroakoaren ganik 1992an Elizondon, Irisarrin, Baigorriin eta Donostian omendua izan zen Emil Larre, Teodoro Hernandorena eta Mariano Izetarekin batean.

Emil Larrek ikusten zuen Euskal Herriko hegoaldean bertsularitzak beti bezain indartsu irauten zuela, Euskal Telebista bertsu saioak hedatzen hasi zen pundutik, bertsuaren eragina azkarki emendatzen ari zela ere bai. Bainan, 70eko hamarkadaren bururatzean eta 80koaren hastapenean Iparraldeko egoerak zuen gain gainetik kezkatzen, orduan euskararen beherakadari zuzenki lotua baitzen herritarrek bertsularitzari zioten atxikimenduaren apaltzea.

Gero, Iparraldean ere bertsulari gazteak agertzen hasi zirelarik, heien kantaerari eta bertsukerari erne zauden Emilen beharriak. Behatzen zuen bertsulari gazteek euskalkiak erabiltzen ote zituzten, euskara batua menperatzen ez duten euskaldunak bertsu saioetara hurbiltzeko gisan. Ez zitzaion batere laket erdarakaden entzutea, mintzaldietan bezala bertsuetan ere euskara garbia eta landua bilatzen baitzuen.

Horiek hola, 1995 arte jarraiki zen Emil Larre Bertsularien lagunak elkarteko bilkuretara, gazteagoei lekua utzi arte. Ondotik oraino, ezindu arte, Euskal Herriko Iparraldeko saioetara bazoan leialki, eta 2013an Xilabako (Xiberoa, Lapurdiko, Baxenabarreko bertsulari txapelgoa) txapelkunari txapela janzteko ohorea ukan zuen.

Azken hitza

Zalantza izpirik gabe, osatze aldera, lekukotasun xume huni junta dakiozke Emil Larre untsa ezagutu duten beste bertsulari eta bertsuzale batzurenak.

Bertzalde, nor-nahik bere jakitatea eta euskara maila haunditu ditzazke Emilen artikulu eta bertsu mamitsuak irakurtuz. Edozoin gisaz, balio du *Auspoa* argitaletxeak plazaratu *Ene artzain-etxolak* azken liburua eskuartean ukaitea. Gainera, *Herria* astekariko zenbaki guziak bederazka miatuz, gazte batek kausi lezake hor bere ikasketen memoria baten idazteko gaia, bazka eta harrobia. Ene ustez, gure hizkuntza maiteak merezi du belaunaldi berriek berengana dezaten untsa ezagutu ginuenen eredu zen Baigorriko semearen euskara aberatsa eta idazkera arraroa.

Emil Larre, Baigorri 1926-2015

Joxe Mari Iriondo
Kazetaria eta ohorezko euskaltzaina

Nola bildu Emil Larrereren lanak eta merituak bilera labur batean? Ausardia ere behar du honetako abentura batean sartzeko. Baina, tira. Azal-azaletik egingo det aipamen labur hau. Barkatu hutsegiteak.

Baigorriko semea

Emil Larre, Baigorriko Bastida auzoan, Belarrea baserrian sortu zen mundura, 1926ko urtarrilaren 3an. Eta 2015eko ekainaren 2an izan zen haren ehorzketa Baigorriko elizan. Egun hartako elizkizuneko papera gordeta daukat eta ez nuke galdu nahi.

Adiskide eta laguntzaile izan genuen, besteak beste, Euskaltzaindiko Herri Literatura batzordean. «Laborari ala apez?» galdetzen du Eneko Bidegainenek *Bidegileak* liburuxkaren atarian. Baina bietarik zuen: apaiza zen, sinismen handiko gizona baina aurrekoia. Eta laboraria aldi berean.

Hamaika urte zituela joan zen Uztaritzeko apaiz-eskolara. Baina ordu-rako bazuen, itxura denez, apaiz izateko joera. Buruhauste gogorrak sortu omen zizkion horrek. Laborari, nekazari izatea ere maite baitzuen. Etxeko seme zaharrena izaki, berari zegokiola uste zuen etxaldeari segida ematea. «Eskolak eta ideia handiak ez dira aski. Lurrarekin lokarri bat behar dugu» esaten du bere *Ene artzain-etxolak* liburuan (Auspoa, 273). Donibane Garazin laborantza-eskola sortzea erabaki zutenean, Donibane Garazira izendatu zuten Emil Larre, ikastetxe hartako irakasle; eta hiru urtez bete zuen kargu hori.

Uztaritzeko eta Baionako seminarioetan inoiz ez zuten izan euskaraz ikasteko aukerarik. Baina orduko ikasleen artean, 1940tik aurrera bereziki, baziren euskaldun izateaz harro sentitzen zirenak, Emil Larrek 16 urte zituela: Piarres Xarriton, Sarako Fagoaga anaiak, Larrondo, Aldudeko Bidegain eta abar. Pilotan aritzen zen askotan; eta belaunaldi horretako apaizek elkarren artean euskaraz mintzatzeko ohitura indartu zen, aurrekoek ez bezala. Geroztik beti euskaraz mintzatu izan ziren.

***Herria* astekaria**

Beste lan askoren artean *Herria* astekariaren zuzendaritza ere egin zuen, aldi batean. Garai batean, Emil Larre izendatu nahi izan zuen Lafittek, baina ez zion baietzik eman; baina gero zuzendaritza hori hartu zuen, eta lehenengo gauzetarik bat, frantsesez egindako artikulua alde batera utzi eta dena euskaraz egitea izan zen. Hogeita hamalau urtez egon zen *Herriako* zuzendari, aldi berean editoriala eta artikulua idatziz (bada artikulua multzo galanta *Herrian* Emile Larreren sinaduraz izenpeturik. Noizbait norbaitek denak bildu eta argitara emango al ditu).

Euskaltzaina

1975ean egin zuten euskaltzain oso. *Herria* astekariaren zuzendari zen hamar-hamabi urte haietan. Elizan euskara sartzearen alde egindako lan ikaragarria izan zen bere meriturik handiena, itxura denez. Liturgiaren euskaratzea ez zuten «batuegi» egin nahi izan. Herrialde eta euskalki bakoitzak bere modura egokitzeko moduan egin zuten. Hala jokatu zuten Ebanjelioko eta Bibliako irakurgaiak itzultzean ere, baina Eukaristia-testua eta Gure Aita bezalako otoitz berezietan euskara berdintsuan egin nahi izan zuten.

Antzerkia

Apaizgintzak jende asko ezagutzeko aukera eman zion. Hazparneko bikario izendatu zutenean, Piarres Larzabal antzerki idazlearen lekua hartu zuen. Geroago, Larre Urruñara bikario joan zenean, handik hurbil zuen Larzabal, Zokoa auzoan. Harreman asko izan zuten, dioenez. Larzabalekin batera, Telesforo Monzon ere ezagutu zuen, eta antzerkiaren atea ireki zioten bion artean. Eta Larzabalek eta Monzonek idazten zituzten antzerkien taularatzeko zuzendaritza hartu zuen aldi batean.

Bertsolaritza

Biziki maite zuen bertsolaritza Emil Larrek. Larzabalen eta Monzonen bidez sartu omen zen bertsolarien munduan, aitortzen zuenez, bertsolaritza

lehendik ere ezagutzen zuen arren. Xalbador bertsolari handiaren bidez, bereziki. Urepeldarra eta baigorriarra, eskualde berekoak ziren. Gainera, Xalbadorren arreba Larrereren auzora joana zen bizitzera.

Parisko bertso saio famatua antolatzeko, Teodoro Hernandorena, Larzabal, Monzon eta Emil Larre bildu ziren. Hernandorenaren ideia zen Parisen bertso jaialdi bat antolatzea, han bizi ziren euskaldunentzat. Euskal Herriko lau bertsolari «onenak» hautatu eta eramateko erabakia hartu zuten: Iparraldeko bi eta Hegoaldeko beste bi. Lau bertsolari horiek hautatzeko jaialdia Urruñako Itsas-Mendi aretoan egin zen, 320 entzule adi-adi zirela. Gainerakoak kanpoan gelditu ziren, barruan tokirik ez eta. Parisko jaialdi hartan izan zirenak: Xalbador eta Mattin Iparraldetik, eta Baserri eta Uztapide Hegoaldetik. Parisko Euskal Etxean sekulako jendetza bildu zen, eta irratiak eta telebistak ere zabaldu zuten (bada jaialdi horren grabaketa Euskaltzaindian, Jon Zaitegik egin eta emana).

Beste saio asko ere antolatu zuen Emil Larrek, Aiherrako erretore zela. Hamabost urtez jaialdiak antolatu zituen herri horretan. Xalbador eta Mattin eskatzen omen zituzten bertsozaleek, baina hasiberriak ziren Ernest Alkhat, Jean-Pierre Mendiburu, Mixel Xalbador, Fermin Mihura edota Joanes Arrosagari ere eramaten zituen, tarteka. Xalbador eta Mattinekin herri askotan izan zen, haien txofertza eginez.

Epaimahaian bertsolariekin

Mixel Labeguerie eta Piarres Lafitte ezagutu nituen nik lehenengo mahaiko Ipar Euskal Herritik. Gero, Emil Larrek eta Mixel Itzainak hartu zuten haien lekukoa. Besteak beste, gogoan daukat 1967ko txapelketa hartan, Xalbadorri ez baina epaimahaiari txistu jo zioten hartan, mahaian zegoela. Fernando Artola «Bordari», Mixel Itzaina eta Emil Larre omen ziren Xalbadorren bertsoak ongi ulertu zituzten bakarrak (Antonio Zavalak esan ohi zuen Xalbador zela txapeldun urte hartan, bere ustez). «Orduan ikusi nuen euskararen batasuna egitearen garrantzia handia zela» esaten zuen E. Larrek.

Ene artzain-etxolak

Inork Emil Larrereri buruz informazio gehiago behar bazenute, hortxe daude Eusko Jaurlaritzako Kultura sailak argitara eman zuen *Bidegileak*, Eneko

Bidegainek idatzia, eta, batez ere, *Ene artzain-etxolak* (2001). Emil Larrek, apaiz egin zeneko 50. urtea ospatuz, Auspoan (273. alea) argitara eman zuen bere autobiografia hau. Baina nekez aurkituko duzue salgai, aspaldi agortu zen eta. Euskaltzaindiaren web orrialdean sartzen bazerate, hortxe aurkituko duzue digitalizatua, *Auspoa* sailean.

Emil Larre eta pilota

Frantxua Juanicotena

Emil Larre ezagutu izan dut lehen aldikoz Aiherran, erretor zelarik. Han ikusi nuen trinketea, pilotari gazteen ikustera etorria. Haren ondoan nintzelarik, galdegin zautan nundik heldu nintzan: erran nion Bankatik, eta ere nolaz nintzan haur horiekin. Erran nion Zaharrer Segin okupatzen nintzela gazteen entrenamenduez eta txapelketetan segitzen nituela. Bera baigorriarra izanez, ez zituen Baigorri ez eta Zaharrer Segi ukatzen. Zonbat aldiz ez daut galdegin: nungoak dituk haur horiek? Erraiten nion holako herriko eta etxetakoak. Erraiten zautan nahi banituen emaitza onak ukan, behar nuela heintto bat gogor egin, pilota jokia ederra delakoz, bainan gogorra. Ez nituela utzi behar haur horiek, jokatzen zutelarik, frantsesez mintzatzen, ez zuela maite entzutea «à toi, à moi», pilota eta euskara beti behar zirela uzartu, gure kultura delakoz.

Bertze behin, Irisarrira etorria zelarik erretor gisa, ni ere han gertatu nintzan. Joan nitzaion agurtzera eta hasi ginen beti bezala pilota solas. Momentu batean jokolari batek erraten du «mekauen la puta!». Emili erran nion: «Zer hitz itsusia!» Ihardetsi zautan ez zuela hola kontsideratzen bere heinean, hori pilotariak zuela bere buruari indar gehiago galdegiten eta keadura hori behar zuela aunitz aldiz bere gorputzari pagarazi hobeki egiteko eta ihardukitzeko.

Desafioak ere ez zirela lehen bezala egiten eta beretzat eskas bat zela pilota munduan: biper eta gatz hori falta dela.

Bertze behin, Donibane Garazin, Garatenean, Waltari ari zen lehen aldikoz. Erran behar da momentu hartan gutiz gehienek ez zutela onartzen pilotari «beltz» hori gure artean bere legea egiten. Galdegin nion Emili: «Zuk zer diozu?» Erran zautan ez onartze hori ez zuela onartzen, behar zela edozein pilotari errespetatu, bertze nunbaitekoak izanikan ere. Pilotako jokia hedatu izan dela munduko leku askotara euskalduneri esker eta guri zela gure nortasunaren erakustea, nor giren eta nungoak giren, eta gogor egin behar dugula gurea delakoz, eta Iparraldean piska bat «jostagailu» bezala dugula jokatzen konparatuz Hegoaldeari, horregatik guk ere gogor egin behar dugula hortzak erakutsiz.

Erraten zautan ere plazer haundia hartzen zuela, ikusten zuelarik etxe berri baten ondoan pilota plaza ttipi bat eraikia. Aldiz pena hartzen zuela gero

eta partida gutiago egiten zelakoz herriko bestetan. Goresmenak emaiten zituena batasunetako borondate oneko laguntzaile guziera, aste oroz eskuin eta ezker ibiltzea gatik, eta, nola ez, Zaharrer Segiko kide guziera.

Garateneko trinketea, astelehenetan, badu zenbat partida ikusirik, taularen azpitik. Bere karneta eskuan, partidaren gorabeherak markatzen zituen eta gero *Herria* astekarian agertzen. Zinez, Emilek maite zuen pilota, beretzat zela jokorik ederrena. Eta zaindu behar ginuela hortzez eta haginez, gure aztaparretatik eskapatu ez dadin.

Erran zautan ere 50 apez pilotari ezagutu dituela eta aunitz ekarri dutela pilota jokoari. Horietarik lau, bere gostuko, goi maileko pilotariak izan dira: Harriet, Gozteratzu, Erramouspe eta Etxegorri. Hondar apezak izan direlarik: Caracotche eta Saldubehere. Lehengo apezak sotanetan artzen ziren eta zioen ez zutela horregatik sofritzen, sotanarekin artzeaz jarriak zirelako.

Témoignage sur l'Abbé Emile LARRE

Jean-Baptiste-Louis Etcharren

Au moment de commencer ce travail, il me semble l'entendre dire: «Dis, Etcharren, surtout pas de mots ronflants!» Il aimait la concision, la simplicité.

C'est à St François-Xavier d'Ustaritz que j'ai connu Emile, au cours des années 1942 à 44. Il était en Seconde, chez les grands, quand je me trouvais en Quatrième, chez les moyens. Deux ans plus tard, le voilà en Terminale, et moi en Seconde, cette fois-ci dans la même salle d'étude et surtout dans la même cour de récréation, où les élèves pouvaient enfin parler, jouer entre eux et mieux se connaître. Emile était ouvert aux autres; son sourire quelque peu malicieux facilitait la communication et requinquait son interlocuteur.

Une anecdote C'était la guerre, avec ses restrictions alimentaires. Pour le goûter, chaque élève puisait dans ses provisions conservées dans une caisse cadénassée. Un jour, un camarade et moi-même, nous l'observions, avec un brin d'envie, en train de se préparer lentement un sandwich au pâté de foie. En nous voyant, il nous dit: «Vous en voulez?» Nous refusâmes, pour ne pas le priver du trésor qu'était alors la nourriture. Mais la proposition était tellement sincère et cordiale!... On devinait déjà ce qu'il serait tout au long de sa vie: un homme qui avait le cœur sur la main.

Plus tard, j'eus le plaisir de le rencontrer à Uhart-Cize, en septembre 1949, à l'occasion d'une partie de pelote des fêtes locales. Nos amis communs, Léon Erramoussé et Antoine Etchegorry y participaient. L'année suivante, nous nous retrouvâmes, à plusieurs, à Bil-Étchea, pour une adaptation cinématographique du roman «La puissance et la gloire» de Graham Greene sur la persécution mexicaine des années 1920.

Après son ordination à Bayonne, en 1951, il fut nommé vicaire à Hasparren et je crois savoir qu'il s'était bien intégré dans cette paroisse. Mais c'était une époque où les nominations, au niveau de l'Evêché de Bayonne, allaient bon train. Nous en fîmes l'expérience à Uhart-Cize avec l'abbé Jean Curutcharry, de Baïgorry également, qui nous arriva en 1952 et nous quitta en 1954 pour St Jean-le-Vieux, à notre grand regret.

C'est ainsi qu'Emile fut nommé à Mayorga en 1953. Je l'y rencontrai en septembre avec son camarade de classe Jean Irigoyen, vicaire à St Jean-Pied-

de-Port depuis deux ans. Il nous dit que sa mission était d'ouvrir une école d'agriculture qui prendrait la suite des cours agricoles du jeudi matin, institués par l'abbé Mongaston. Celui-ci, de son côté, venait d'être nommé curé de Lacarre, après quinze ans de direction et d'enseignement à Mayorga.

Comme je connaissais bien Emile, j'étais heureux de travailler avec lui dans une pleine coordination entre notre établissement et l'école d'agriculture. Il était chargé de l'animation spirituelle de l'ensemble et aussi, vu son esprit pratique, de l'économat.

Dorénavant les élèves d'agriculture étaient présents durant toute une semaine, en tant qu'internes, pour éviter de longues allées et venues quotidiennes, étant donné qu'il n'y avait pas encore de ramassage scolaire. La semaine suivante, ils restaient chez eux pour faire les observations qui leur avaient été conseillées et mettre en pratique l'enseignement reçu. Ils étaient remplacés par des élèves un peu plus avancés, ceux de deuxième année. Puis les premiers revenaient, et ainsi de suite. Cette formule d'alternance, utilisée dans toute la France, était celle de Lauzun. Les programmes d'études étaient établis par le ministère de l'agriculture.

Les enseignants étaient des ingénieurs agricoles, comme le Père Adrien Gachitéguy, de Belloc, qui venait passer deux journées par semaine, sur son scooter et par tous les temps. Il allait publier un manuel d'agriculture entièrement rédigé en basque. Venaient aussi M. Gout, directeur départemental des services agricoles, M. Hector Maïs, ancien directeur de l'école d'agriculture d'Ondes, près de Toulouse, qui résidait à St Jean-le-Vieux, et d'autres encore. Des techniciens agricoles intervenaient ou allaient intervenir plus tard, comme André Ouret de Suhescun, Alexis Inchauspé de St Jean-le-Vieux, Luro d'Ahaxe.

Tout ce monde de pionniers se mit au travail, coordonnés par Emile Larre, qui assurait certains cours. Les élèves venaient volontiers de leurs fermes, car ils sentaient qu'ils avaient affaire à des maîtres dévoués qui aimaient vraiment l'agriculture. Cet enthousiasme, contagieux, les incitait à travailler avec ardeur chez eux et en classe.

C'était, huit ans après la Seconde Guerre mondiale, une époque où beaucoup de jeunes Basques étaient tentés par l'Amérique, souvent à leur détriment. Beaucoup d'adultes pensaient qu'il fallait faire quelque chose pour les persuader de rester au Pays Basque, qui avait absolument besoin d'eux pour survivre. La mission entreprise par Emile en Garazi, et par d'autres à St Palais et à Mauléon, était une initiative de première importance.

Au début, les «agriculteurs» travaillaient dans une salle de Mayorga, occupaient l'un des deux dortoirs, prenaient leurs repas dans son réfectoire,

en même temps que nos élèves. La table des professeurs réunissait les maîtres des deux écoles. Cela nous permettait d'échanger sur de nombreux sujets d'actualité.

Quand un problème surgissait, Emile faisait son possible pour arrondir les angles et rétablir la situation. Il était assez malin pour trouver un terrain d'entente, en suggérant telle ou telle solution. Ce qu'il faut retenir, c'est qu'il était un homme de foi, donc de paix.

Le soir, après souper, il enseignait des chants basques à ses élèves, organisait des parties de «mus». Bref, la bonne ambiance était assurée.

Le 13 juin 1954, eut lieu, au Fronton municipal de St Jean-Pied-de-Port, une Fête de la Terre, organisée par la JAC, Jeunesse Agricole Chrétienne, devenue bien plus tard le MRJC. Elle succédait à celles de 1949 et 1950, mais, cette fois-ci, avec des milliers de jeunes ruraux venus de tout le Sud-Ouest. Ce fut la Coupe de la Joie, sous la présidence de Mgr Terrier, évêque de Bayonne. Emile Larre y apporta son aide avec ses élèves.

Hélas, un matin de juillet 1954, je reçus chez moi, à Uhart-Cize, la visite de Mr Soubelet, enseignant de Mayorga à la retraite. Il venait m'annoncer qu'Emile avait été, la veille, victime d'un grave accident de moto à Cambo. Une voiture lui avait coupé la route. Il fut traité à la Clinique du docteur Touya, à Labenne. Avec l'abbé Curutcharry, l'abbé Lecuona, doyen de St Jean-Pied-de-Port, et mon collègue Pierre Berterretche, de Lasse, nous lui rendîmes visite. Son sourire était toujours là. Ce malade-là savait reconforter le visiteur! De même que, dans la vie de tous les jours, il consolait les autres dans leurs épreuves. Il n'est pas difficile de deviner où il puisait cette énergie, lui qui avait souvent son chapelet à la main.

Il ne fut donc pas présent au premier pèlerinage des Bas-Navarrais à Notre Dame de Roncevaux, en septembre 1954. Il faut dire qu'il se rattrapa par la suite, en y allant à pied avec des volontaires par la montagne. Cela signifiait qu'il s'était bien rétabli. Ce ne fut pas, malheureusement, un prompt rétablissement, car il dut faire également un séjour dans un hôpital de Paris.

Plus tard, au retour à la vie normale, son père lui conseilla de se procurer une 2 CV. « Sur quatre roues, tu seras plus en sûreté que sur deux! »

Un projet de construction d'école d'agriculture fut conçu par le Comité de gestion, qui rassemblait des personnalités du coin. Comme le vieux préau de Mayorga ne payait pas de mine, on décida de le supprimer en 1955. A sa place, on vit s'élever plusieurs piliers en ciment armé, destinés à supporter un beau bâtiment. C'était faire d'une pierre deux coups. Le rez-de-chaussée serait le nouveau préau et le premier étage, la nouvelle école, composée de trois salles de classe munies de larges baies.

Un jour d'hiver de 1956, eut lieu son inauguration, sous la présidence du Chanoine Pierre Narbaits, d'Ascarat, vicaire général du diocèse de Bayonne. Il était entouré de plusieurs personnalités du monde politique et agricole, sans oublier Emile, redevenu le battant qu'il était. Tous ses élèves l'entouraient.

Sur une photo d'Ocaña publiée dans les journaux, on remarquait la présence de manteaux et de cache-nez chez les assistants. C'est que le chauffage n'était pas encore en marche. Mais les cœurs, eux, débordaient d'enthousiasme. Un banquet clôtura la fête et, comme on dit au Pays Basque: «On n'y manqua de rien.»

Il aimait beaucoup la langue basque, l'écrivait merveilleusement dans « Herria », qu'il allait diriger plus tard, après l'abbé Pierre Lafitte, son ancien professeur, et dans « Gazte », le mensuel de l'Eskualdun Gazteria, la JAC basque. Personne ne s'étonna quand il fut élu à Euskaltzaindia, l'Académie basque. Il devenait ainsi le confrère de ce même Pierre Lafitte, qui l'avait repéré et conseillé à Ustaritz.

En juillet 1956, Emile me fit part, à mon grand regret, de sa nomination comme vicaire à Urrugne. Il réintérait donc le ministère paroissial. Il allait être remplacé à Frantsesenia par l'abbé Antoine Etchegorry, de Luxe-Sumberraute.

Que l'on me permette une remarque! J'appris, bien des années plus tard et sans le moindre étonnement de ma part, que l'indemnisation reçue par Emile à la suite de son accident de 1954, il l'avait consacrée à financer l'édition de Frantsesenia, le nouveau bâtiment de l'école d'agriculture. Ce geste reflète parfaitement ce qu'était Emile, un prêtre donné aux autres, «mangé», selon la formule du Saint Curé d'Ars.

Autre remarque. L'école Mayorga, lors de sa fondation, en 1892, par le chanoine Jean-Pierre Arbelbide, de Zaro, portait le nom de St François-Xavier. Vite après, une statue du Jésuite Jean de Mayorga, né à St Jean-Pied-de-Port et martyrisé au large des Iles Canaries au XVI siècle, fut inaugurée au sommet de l'escalier de pierre. En 1905, la Séparation de l'Eglise et de l'Etat obligea les établissements privés à changer de nom. Aussitôt on eut recours à Jean de Mayorga.

Mais, cinquante ans plus tard, revanche de St François-Xavier. Voilà que son nom est donné, en basque cette fois-ci, à la nouvelle école d'agriculture, jouxtant l'établissement principal. Comme on dit, «il faut le faire». Mais l'Etat français, bien sûr, ne s'est jamais aperçu de ce tour de passe-passe.

Dernière remarque. De temps à autre, Emile venait à Roncevaux. Il poussait jusqu'à Burguete, où je passais ma retraite. Nous le recevions volontiers.

Fidèle à ses amis, surtout dans les moments douloureux, il vint nous voir le 18 octobre 2010, pour la visite mortuaire à mon épouse, décédée subitement. Il pria avec nous devant le cercueil. Puis il me dit: «Je pense revenir cet après-midi pour les obsèques; si possible, car j'ai un autre enterrement auparavant.» Je lui répondis que je préférais qu'il s'en abstienne, vu le délai très court qui séparait les deux cérémonies. Quelques minutes avant le départ pour l'église de Burguete, j'aperçus sa voiture verte qui arrivait. J'en fus très ému. Tel était Emile Larre.

«Cher Emile, votre photo figure chez moi en bonne place. Je sais que vous faites le maximum, de Là-Haut, pour apaiser notre douleur à la suite du décès de ma fille Isabelle. Merci pour tout et AU REVOIR!»

Liturgie et cantiques

Recueilli par Giovanni Prinelli

Ce chapitre a été réalisé grâce aux témoignages et aux documents fournis par les pères Marcel Etchehandy de Belloc pour la liturgie en basque et Ignace Etchehandy de Belloc et de M. Alexandre Aguerre de la Commission Kanta Jaunari, pour les cantiques.

La Liturgie en basque

Lorsque le Concile Vatican II a donné feu vert à l'élaboration des textes liturgiques dans les langues locales, au Pays Basque, l'Abbé Pierre Andiazabal fut chargé de la traduction en Euskara. Sur ce sujet c'est le père Marcel Etchehandy qui parle: «Autour de Pierre Andiazabal une commission de spécialiste avait la fonction de réviser et d'améliorer les textes traduits. Voici par ordre alphabétique la liste des membres du comité de lecture des traductions liturgiques:

Les abbés

- Bidart, Georges-Jean.
- Charritton, Pierre.
- Diharce, Xavier, bénédictin.
- Eppherre, Guillaume.
- Etchebarne, Pierre.
- Etchehandy, Marcel, bénédictin.
- Hiriart-Urruty, Jean.
- Lafitte, Pierre.
- Larre, Emile.**
- Narbaitz, Pierre-Pascal.
- Olçomendy, Joseph, bénédictin.
- Olhagaray, Benoît.

Les séances de ce comité de lecture se tenaient tous les lundis de 14 à 18 h au monastère de Belloc. Elles étaient présidées par l'abbé Andiazabal, Président de la Commission Diocésaine de Liturgie. *L'abbé Emile Larre fut*

l'un des plus assidus aux séances de travail, et l'un des plus compétents quant à la connaissance de la langue basque. Son rôle dans la commission fut important. Il n'y eut pas de comité de lecture particulier pour telle ou telle partie des textes liturgiques. Cette même équipe travailla sur les textes du grand Missel d'Autel, du Lectionnaire Liturgique, ainsi que des Sacrements. Voici les textes liturgiques qui furent publiés aux Editions Ezkila de 1965 à 1967:

- Le premier ALDAREKO LIBURUA, Missel d'autel (il y en aura un deuxième quelques années plus tard) en II fascicules, de Janvier 1965 à Avril 1967, 761 pages.
- IRAKURGAIK, Lectionnaire Liturgique, en IO fascicules, d'Avril 1964 à Mars 1967, 547 pages».

Le témoignage du frère Marcel se termine avec ces mots sur E. Larre: «*Emile, admirable à plus d'un titre, avec qui j'ai eu le plaisir de collaborer et que j'ai dû quitter trop tôt*».



De gauche à droite: Xavier Dibarce (Iratzeder), Marcel Etxebandy, Emile Larre, Pierre Andiazabal

Cantiques

Emile Larre a écrit plusieurs textes de chants pour la Messe et Célébrations religieuses. Certains étaient adaptés à des mélodies existantes, d'autres ont été mis en musique par différents compositeurs. Plusieurs ont été élaborés pour une exécution polyphonique. Il faut remarquer qu'Emile Larre a fait partie de la Commission des Chorales du Pays Basque (CCPB) lorsque celle-ci s'est constituée en Association en 1972.

Voici donc la liste des textes composés par Emile Larre et qui font partie du patrimoine des chants religieux encore utilisés dans nos paroisses et dont les références techniques (compositeurs, édition, arrangement) se trouvent dans le beau volume EZKILA KANTUZ, rédigé par le Frère Ignace Etchehandy du Monastère de Belloc et paru en 2012:

Ama bisitari V 20.

Ama ezta V 25 koplak berriak.

Ama maite Maria V II koplak berriak.

Azken gau oroitzaria C 19.

Besta eder huntarat I 23 (bataioko) koplak berriak.

Besta eder huntarat O 5 (ezteiak) koplak berriak.

Besta on Ama (Amen besta) KL 2.

Bihar mundu berriak (1992 Sinodoa) A 48.

Bizirako S 34.

Bozkaria, zeru lurak W 41.

Elizaren Ama V I3.

Fededunek biltzarre D 5.

Fededunen otoitza (5 lelorekin) Y 2-19.

Haize berri batek K I7.

Igandea dugu bai A 75.

Jainkoaren populua gu I I7.

Jaun ona zato lagun (Fededunen otoitzaren errepika) Y 2-8.

Jaun onaren eskuetan S 26.

Jaun ta Salbatzaile A 36.

Jesus Jauna jos gu Zuri (1992 Sinodoa) A 42.

Jin da espos berrien eguna O I0 (Ezkontzak).

Kanta zagun guziek (Abendoa) E 2 → V 32.

Kanta zagun K 3*-I.

Kristo Apeza (Kristo Aitaren manuz) T 5.

Kristo Errege M I2 koplak berriak.

Kristorekin guk I 16.
Noiz etorri beharra T 25.
Nun zaude seme maitea G 33.
Ogi gureztat emana C 18.
Piztu da lorios I 15 koplak berriak.
San Frantses Xabierrekoa bost mende W 40.
Trinitate Saindua L 3.
Zure lekuko T 8.

Puisque cela vous amuse...

Giovanni Prinelli
directeur de la Chorale LAGUN ALAI de Baigorri

1912. Tout a commencé de cette date gravée dans une pierre encaissée à l'extérieur du mur de l'abside de l'église d'Irouléguy. Elle indique la date de la première pierre de cette église. On est en 2010. Le centenaire de cet événement n'est pas loin. Est-ce qu'on fera quelque chose pour célébrer le centenaire? Je pose la question à apezza André Noblia, curé de Baigorri (et donc d'Irouléguy). «Bien sûr on fera quelque chose ». Peu de temps après je pose une deuxième question au curé: «Si je préparais des chants spécifiques pour cette fête, à confier à la chorale paroissiale, vous seriez d'accord?» «Pourquoi pas, on peut toujours essayer».

Je commence mon travail. Entre-temps on me dit que la responsable de la chorale paroissiale, Agnès Gorostiague, pensait à la réalisation d'une «Messe des vigneron» sans plus de détails. Je soumetts mes premiers travaux à Agnès en disant: «Voilà, ce que je suis en train de préparer pour le centenaire de l'église d'Irouléguy; si cela vous convient, je l'offre volontiers et vous pouvez en disposer comme vous voudrez. On m'a dit aussi que vous êtes en train de penser à une "Messe des Vignerons". Si vous croyez que ces morceaux puissent rentrer dans votre projet, vous pouvez les utiliser». L'accueil fut positif et en plus le curé manifeste un souhait: avoir un nouvel hymne à St. Vincent d'Irouléguy. Je voudrais m'y mettre mais il faut le texte. Qui pourrait faire ça? Réponse: «Il n'y a qu'Emile Larre, prend contact avec lui». J'avais entendu parler de lui mais je ne le connaissais pas du tout. M. Oronos, à qui j'ai demandé des renseignements, me rassure sur la possibilité de le contacter en précisant: «Il a un caractère un peu "vigoureux"».

C'est à cause donc de demander la disponibilité à rédiger un nouvel hymne à St Vincent d'Irouléguy, que j'ai pu connaître personnellement l'Abbé Emile Larre. Je demande un rendez-vous. Mon nom ne lui disait absolument rien, mais les références que je lui ai données m'ont ouvert la porte de son appartement à Donibane Garazi, à l'étage de l'Aumônerie Bilgune.

Je lui ai expliqué le projet du centenaire de l'église d'Irouléguy et il a accepté de bon cœur de rédiger un nouvel hymne au saint des vigneron. Quelques jours plus tard il m'appelle pour aller récupérer le texte. La deuxième rencontre fut plus technique; il m'a expliqué la métrique des textes à mettre

en musique, il m'a donné la copie d'un chant qui avait la même métrique du texte qu'il allait me confier et, chose essentielle pour moi, il m'a expliqué ce que disait le texte, puisque je ne suis pas bascopphone. Avant de partir je lui ai dit: « De toute façon je vous soumettrai ce que j'arrive à concevoir et vous me direz ce que vous en pensez».

Je me mets au travail. Après avoir terminé, j'ai attendu quelques jours. J'ai vérifié, écouté et enfin j'ai décidé: on va soumettre le travail à «l'homme de caractère». J'avais même prévu qu'il me dise: «Tu es bien sympa, mais la tradition musicale basque n'a rien à voir avec la façon italienne». Je lui montre les partitions: celle pour chorale et celle avec Chant + orgue. Je lui fais écouter la démo sur le CD que j'avais porté. Il regarde, il écoute. Rien. Il regarde à nouveau, il écoute. Un petit sourire s'amorce. «C'est pour quand le centenaire?» «2012, je réponds». «C'est bien».

«Écoutez, M. l'Abbé, je vous laisse les partitions et le CD. Regardez et écoutez avec calme et après on décidera». «Non, non, ça va comme ça». Pas plus.

Je n'en revenais pas. Je ne sais pas comment ça m'est venu, je lui dis: «Si vous avez des textes que vous avez écrits et vous désirez qu'ils soient mis en musique, vous pourriez m'en confier quelques-uns et je vais essayer». Il me regarde de son œil malin; il se lève, prends une chemise en carton bleu. Il y avait de nombreuses feuilles ; il en choisit une: «Kurutze hori». «Voilà, essayez avec ça». Je prends la feuille et tout content je rentre chez moi.


MEZA

IRULEGIKO BITXINTXO SAINDUA



**Mahasti Zainen patroina
2011**

La messe pour le centenaire a pris sa forme définitive et je l'ai appelée avec le titre de l'hymne de l'abbé Larre: «Irulegiko Bitxintxo saindua»; elle a été exécutée avec succès le 13 mai 2012, à Irouléguy par la Chorale paroissiale de Baigorri, intégrée par quelques paroissien(ne)s d'Irouléguy, sous la direction d'Agnès Gorostiague et accompagnée à l'orgue par Jeannine Usartotz. L'abbé Larre était parmi les concélébrants et je le voyais attentif aux chants. A la fin il m'a dit: «Très bien, jolie musique». Voici la liste.



01: NOR ZIREN JESUS; 02: ABENDOA; 03: KURUTZE HORI KURUTZE HORI
 CHORAL à 4 voix; 04: SALBATORE; 05: JESUS ITXURALDATUA; 06: JAUNA,
 ZU GANIK; 07: UZTA ONA; 08: HERRIEN ELIZA; 09: DONIBANEKO;
 10: IRULEGIKO BIXINTXO SAINDUA (*)

Je reviens à ma collaboration musicale avec l'abbé Larre. Le texte «Kurutzte hori» qu'il m'avait confié, ne prévoyait pas de refrain: 5 strophes avec métrique des versets 10/8. J'ai mis un bon moment, mais j'étais fasciné de pouvoir travailler sur de nouveaux textes. La mélodie que j'en ai sorti, avec accompagnement d'orgue, m'a satisfait et j'ai décidé d'en faire une version à 4 voix mixtes, à Cappella. Je fais les mêmes démarches que pour l'hymne à St Vincent: je présente les partitions, le CD Démo. L'abbé Larre, au lieu de donner son avis sur le chant, me pose une question: «Pourquoi vous faites ça?» Je réponds tout simplement: «Parce que cela m'amuse». Il me re-

garde quelques instants et ensuite: «Puisque cela vous amuse, tenez ça» Il me donne deux feuilles avec les textes de deux nouveaux chants et il ajoute: «Vous savez, des musiciens (il m'a dit des noms mais je ne les connaissais pas) m'avaient promis de travailler sur quelques-uns de mes textes, mais », et en disant ça il m'a montré la chemise en carton bleu dans laquelle il y avait, je l'ai déjà dit, beaucoup de feuilles numérotées et le numéro des dernières dépassait le 100. Comme ça, de deux chants en deux chants on est arrivé à dix. Voici la liste.

On est arrivé à la fin de 2011.

En 2012 la Chorale paroissiale commençait à préparer la Messe du centenaire de l'église d'Irouléguy et j'avais promis à Agnès de l'aider. J'ai averti l'Abbé Larre que pour un certain temps j'étais occupé et donc on allait suspendre notre travail. J'ai préparé un classeur avec toutes les partitions: les fiches des mélodies, les partitions pour orgue et les partitions des chants pour lesquels j'avais prévu un harmonisation à plusieurs voix. J'ai donné aussi le CD Démo en format Mp3. Il a beaucoup apprécié.

Je ne me souviens plus si c'était après la Messe du centenaire en 2012 ou dans une autre occasion, l'abbé Larre me dit: «Iovani! (c'est comme ça qu'il m'appelait), j'ai découvert une Cantilène de Joseph Gélineau sur les disciples d'Emmaüs. Je l'ai trouvée géniale, et j'en ai fait une version en basque. Le message était clair. «Je passerai vous voir». Quelques jours après je me présente et il me montre la feuille manuscrite. Il me fait une copie. «Puisqu'il s'agit d'un manuscrit en basque, je vais le taper à l'ordinateur et après je vous soumettrai la transcription». Je transcris le texte, je le lui soumetts (il a remarqué qu'il manquait une virgule!) et je lui dis: «Vous savez que maintenant je suis assez occupé, mais dès que je pourrais je vais travailler à ce texte». Et je range le document dans le dossier «E. LARRE».

Le temps passe. J'avoue que j'ai oublié ce texte. Ensuite l'abbé Larre a eu son malheureux accident. J'ai appris la nouvelle de sa mort lorsque j'étais en Italie et j'ai vraiment regretté de ne pas pouvoir assister à ses funérailles. Mais du coup je me suis rappelé ma promesse! «Emauzekoak!» «Il faut que je maintienne ma promesse! C'était peut-être son dernier texte.» Quelque mois après sa mort, exactement le 15 août je terminais mon travail. Le chant a été exécuté par la Chorale Lagun Alai au Concert de Noël le 20 décembre 2015 en hommage à E. LARRE. Promesse maintenue!

Je ne suis pas bascophone (et je le regrette un peu), et je ne suis même pas d'ici. Mais je considère comme un grand honneur pour moi d'avoir connu et surtout avoir pu travailler avec un homme apparemment rude, mais au cœur grand, amoureux passionné de sa terre, sa langue, la vie basque en général, et d'une épaisseur culturelle non commune. Merci abbé Emile LARRE!

Emauzekoak

20.X.11

1

Ihesbide zen Emauz
 Jerusalemetik
 Bi lagunak hara buruz
 Aiti zirelarik
 Lehenag ametoak gelduz
 Lagunak utzirik
 Baiman horre heldu Jesus
 Uste etzalarik

3

Jes! Ez baitzaintzen jakin
 Profetahoa
 Mesias, zu denon ordain
 Zen eskaintzekoa
 Oro harturik beragain
 Osperatzekoa
 H'il lazen, lizi da orain
 Jauna eta Jainkoa

2

Nolaz dugue, hix hola
 Buru afal hori
 Dole eguz bezala
 Hoin ilun ageri
 Zer ote? Zuk ez dakizu
 Nazaretamari
 Gurutzera diotela
 Kondenatzat jarri?

4

Herri hortara heltzean
 Bera lazoala
 Baitzuen arrotzak erran,
 Ez oti! Nehola!
 Nor daiteke orai joan
 Ejan beltzari, hola?
 Ikusazu alabainan
 Afal ordn dela

5

Ogia haustearakin
 Jauna ezagutu
 Hitzaren argitearakin
 Bihotza dena on
 Behar zen bai laster egin
 Lagunak argitu
 Orok zezatela jeliin
 Jesus dela piztu

E.L.

2

KANTUAK

Nor ziren Jesus

1. Nor ziren Jesus jakinak gaude
Berri onaren argia
Ebanjelio hitzean
Aitak zintuen gizonen alde
Lurrekoei present eman
Zeruetako eskaintza.
2. Orobat Jainko Gizon zaitugu
Maitasun beroz betea
Ikusgarri egilea
Bainan zuhaurek zinuen hartu
Gaixtoaren kurutzea
Hor da gure baketzea
3. Ez naiz justuen salbatzera jin
Bainan zuk bekatorosa
Galdua zen ardi basa
Hura zinuen izan atsegin
Bilabilaturik ontsa
Artzain Onaren Artzaintza
4. Ardi galdua, bekatorosa
Bordara berriz bildurik
Hor daude alegerarik
Bozkarioa goza ta goza
Oro bihotz bat eginik
Nun da holako bestarik
5. Bestarik besta dabil kristaua
Bere munduko bidetan
Beti Jaunaren eskutan
Merezi gabe salbamendua
Baitu Jauna ganik ukan
Harekin saildutzekotan
6. Ardi galdu ta bilduak zorrak
Zenbat dituen ordainez
Hemen gaude gu herabez
Mila milaka denen eskerrak
Nahiz hanbatekoak ez
Jauna ez otoi gutiets.

Abendoa

Urte zaharra badoa
apalduz iguzkia
Ekarguzu abendoa
ekar Eguberria

1. Negu minerat hurbildurik
Fededuenaz ez da lotsa
Ezin da geldirik lokarturik
Su batek joa du bihotza
Hartarik baitu zeru hatsa.
2. Goiz ihintzak du ixuriko
Zeru izarren gau sedena
Munduak baitu ikusiko
Jaunaren egun ederrena
Oro berrituz datorrena

3. Bozkariotan kanta beza
Berri onaren amesleak
Legun ditela eta goza
Konkorgain eta arkaizpeak
Jaunak hor ditu baratzeak
4. Ilundurarik ez dukegu
Jainko semea sortzen-eta
Mende berri bat horra heldu
Bake saindurat gaiten presta
Lurrak zerua du presenta
5. Pobrea zagon jo eta jo
Nork nahiko zion ideki
Gaixo hau guri beha dago
Ikusten gaitu Kristoz bezti
Bainan emaiten zeinek daki!

Kurutze hori

1. Kurutze hori Jesus maitea, etzen zuretzat egin
Pairamen hortan Judas eta gu beharrak ginen alaina
Gure lekua duzu hor hartu, etzinen zu gaixtagina
Zu lur huntara zorionaren ekartzera zinen jina.
2. Kurutzea zen jende txar eta gaixtaginentzat gaztigu
Bainan Jesus da heien lekuan ezarri eskaintza saindu
Hor Jainkoaren Bildotsak dauku bekatorosa ordaindu
Berak baitauku hiltzeko tresna bihurtua salbamendu.
3. Gizona maitez zintuen, Jesus, Aita Onak igorria
Eta jendea, jende oiheza, hor zen orroaz jarria
Kurutzefika zadin basaki Seme urrikalgarria
Horra nolako ozar, oiheza den, Jauna, zure herria.
4. Aste Sainduan otoitzez dago, denaden, herri ausarta
Hain luzaz urrun egonagatik, zure laguntzak behar-ta
Maitasunetik eskergabetsa ezin zuela aparta
Gure bihotzen hoztasun hura, Jauna, barka, otoi barka!
5. Kurutzefikak mintzo zaizkigu, bide juntatzetakoak
Ez dute behar izan bakarrik, urre ta itxurazkoak
Bainan seinale gisa jarriak Ortzirale ta Bazkoa
Nola gaituen bere bizirat gu erosiak Jainkoak.

Salbatore

**Jesus zerurat igan da
Bera dugu Salbatore
Aitak baitio errana
Ene eskuinean zaude**

- I. Piztu ondoan berrogei egun zinen Jauna
Dizipuluen bihotz-indartzen zu egona
Zure Argia distiratzeko gure gana
Salbamendua zadin mundurat eremana.
2. Gizonari da Jauna fidatu Aita gisa
Kristok lurrean bere gorputza du Eliza
Haututzat dugu zure grazia edo gaitza
Izpiritua, zuk egiguzu berexkuntza.
3. Ilundureri Argia baita nagusitzen
Horra nola den gure mundu hau aitzinatzen
Bere ahulak ere gizona ez du galtzen
Kristok zeruan gaituelakotz gu aitzintzen.
4. Galilearrak beha zaudela zeruari
Aditu zuten: xuti zitezen mezulari
Eliza zela sortzen, ooren zerbitzari
Kristoren berri ereman zuten munduari.
5. Gu fededunak mezu horrekin bagabiltza
Gure indarra dugula Jaunak eman Hitza
Lekuko gisa mezu horrekin goazen mintza
Piztuz orotan hain beharra den esperantza.

Jesus itxuraldatua

Jauna zuk argi egizu
Gau beltz ilunen hedoia
Alaituz jakinen dugu
Zer den zer Hilan Piztea

1. Jesus, agertu zirenean
Petri ta zenbaiti
Zurekin zintuen ereman
Mendiari goiti
Jarri baitzinen didiretan
Xuri xuriz bezti
2. Salatu nahia zinuen
Zuk, Jesus, erranez
Jerusalemerat goazen
Pairamenen bidez
Idatzi hura dut jasanen
Zuen denen maitez
3. Ai, Jesus, mendigain hortarik
Zaritzun lillura
Bai-eta, Petriren begiko
Xoramendu hura
Gu berdin zorion berberaz
Gaitzazu ingura
4. Gero, bai, azken hatseraino
Kurutzearekin
Osteak zaitu ikusiko
Iduri gaixtagin
Gu gatik gaztigatua hor
Bi ohoin txarrekin
5. Oxala, itxuralda gaiten
Gaur giristinoak
Kristok gaitu guhaur eginen
Bere lekukoak
Gure mendi den Garizumak
Bihotz berrituak
6. Mundu hau itxuraldatua
Jarriko delarik
Berri bedi giristinoa
Kristozko eginik
Ez duke hark berriz mendian
Aldatze beharrik

Jauna, zu ganik

1. Jauna, zu ganik
oro ukanik
ogi, zorion, maitasun.
Huna herria
eukariztian
esker maile ta zordun
2. Guk zer ekarri
hartuen sari
ez ginakiela, Jauna
Eskaintzen dugu
gutiz barkatu
zure haur xoilek zutena
3. Zer ziren lanak
zer pairamenak
aldarean eskaintzeko?
Beharrik eman
zinen zur hartan
kurutze gainean, Kristo
4. Eskaintzarekin
nahiz bat egin
otoitzez gaude gu ere
Aita, bai, Aita
har eta barka
gu deus ez ginen zu gabe.

Uzta ona

**Elizaren mahastiko
Nahi du Jaunak langile
Egungo ala biharko
har dezala hemen ere.**

- I. Uzta nasaia da egun
Deia nork ez du nork entzun
Dizipuluei Jaunak erranik
Behar zaituztet lanerako nik
Baietz ihardets dezagun
Baietzat biltzen da ehun.
2. Biltzeko sasoia jina
Bada lan soberakina
Iguzki gozo batek baititu
Mulko bihiak gorri gorritu
Mila milaka bagina
Ai nolako atsegina!
3. Jaunak hainbertze deiturik
Ez egin amets gaixtorik
Bat bedera da baitezpadako
Izpiritua, zato bai zato
Ez da munduan bizirik
Zure ufazko ez denik.
4. Artzain zaharra joan-eta
Goaz urrun berri-keta
Baina etxean dugu ordaina
Gure haurretan, hortxet, alaina
Herriko bat apeztu-ta
Orduan zer artzain-besta!
5. Baziren ere galduak
Ardi errebelatuak
Haientzat ere leku ederrik
Zaukan Artzainak apailaturik
Gu, Jaunak, bataiatuak
Nor gaitu begiztatuak.
6. Arima kontsekratuak
Egin ziren Kristozkoak
Heien eskuak ditu oiloz
Behin igurtzi Jainko balioz
Horra Jainkozko graziak
Gizon eskutan jarriak.
7. Mundu guziaz axola
Kristau kartsuek bezala
Badugu bai guk euskal etxean
Apez, serora, laikoetan
Dударik ez da ez, hola
Mahatsa onduko dela.

Herrien eliza

Oraiko apez xuburrerian, batean Arnegin, bestean Lasan, Lakarran edo Gamarten izaiten baita igandeko meza, besteak beste, kristau batzuek bederen hutsegin ez dutena, horra beraz «Herrien Meza».

1. Jo ezkilek xaramela
Kanta eta mintza
Hau dugu berri, badela
Herrien Eliza
2. Lehen bakotxa berean
Arizen apeza
Orai guziak batean
Hau da elkarmeza.
3. Biltzar huntan dugu artzen
Jaunaren eskola
Entzun eta partekatzen
Kristau parabola
4. Otoi! Ez egon nigarrez
Atzoko aroaz
Gaur da norbait gure galdez
Egun ala gauaz
5. Berma, baltsarat ekarriz
Bakotxak duguna
Elgar lagunduz arrapitz
Denen batasuna
6. Auzo bat horra hor beti
Gibelka jarria
Harekin dezagun xuti
Eliza berria
7. Elizan bezala plazan
Herria bera da
Berdin ere familian
Elgartasun bera
8. Elgarganatzen ditugu
Onak eta txarrak
Noiz gaituzte deituren gu
Jainkoaren Haurrak

Donibaneko

1. Donibaneko zubian
Egin zen lehen elizak
Berekin ditu zeruko
Ama onaren gerizak
Bat eginez Garaziko
Goresmen kantu eskaintzak
Bai eta, san Frantses, zure
Arimen suzko otoitzak
2. Hala da, Maria zuten
Aspaldikoek otoizten
Nolako fededun ziren
Bidez bide da ikusten
Gure bide ona zer den
Oro dira oroitzapen
Eta ezin konda hemen
Beilariak zenbat diren
3. San Frantsesez urgulutan
Gaude Jatsuraino huntan
Arrotzen lur, itsasotan
Zu kurutzea eskutan
Etsitu gabe dolutan
Gazterik hiltzeraino han
Oro zintuela eman
Jesusez bihotza sutan
4. Joani Batistarena,
Bera baitugu patroina
Dauka herriak izena
Izena zen errexena
Nahiz guk Herodesena
Egiteaz dugun pena
Erakuts bidea, Jauna
Garaztarrei, sainduena

Irulegiko Bixintxo saildua

Nahi baitzuten arbasok zain bat eman herriari
Ikasi zuten Bixintxok bazuela dohan hori
Orai badugu guk orok martir saildu bat zaindari.

1. Jaunak bere zerbitzuko / hautatu diakrea
Huna Kristoren lekuko / lagun paragabea
Baita ororen gostuko / zer predikatzaila
Eta hanbat bertuteko / fedearen jabea.
2. Gotzai xahar batendako / izan zinen laguntza
Kristok behar bezalako / pairatzeaz ez lotsa
Bixintxok martirioko / zuela Zaragoza
Guk ere dugu beharko / saildu heien bihotza.
3. Irulegin mahastiak / ainitzen bizipide
Sotozain eta guziak / elgarren osakide
Oro jaunari josiak / eukariztigai daude
Kristo Jaun eta Nausiak / aldarera baitzazke.
4. Bainen ez da ogiz bizi / xoilki nehon gizona
Gure herrian ainitzi / mintzatu zira Jauna
Badaukat hanbat mahasti / etor, etor ni gana
Larretzerat ezin utzi / Jaunaren mahats ona.
5. Mahats, mahasti lanetan / bermatzen da omorez
Jesus berak ere Kanan / etzuen erran ezetz
Jaunak gaitu ezteietan / gomitatzen fagorez
Betiereko heietan / guhaur ere, nola ez?

3

IDAZKIAK

Emil Larrereren editorial hautaketa

Peio Jorajuria

Berrogei urtez baino gehiago arizan da Emil Larre *Herria* kazetan idazten. Milaka eta milaka artikululu agertu ditu haren luma aberatsak, berri nagusiak, berri arruntagoak, bertsuak, pilotako berriak ere *Bego* izenpeduraren pean, eta editorialak. Lehen editoriala idatzi zuen 1980an (ordu arte ez zuen *Herriak* editorialik agertzen) eta azkena 2002an, nihauri zautala orduan lekukoa pasatzen. Hots, 23 urtez editorial idazle izan da Emil. Orotara 875 editorial, zuzen kondatu badugu. Luzaz berak baizik ez zituen astez aste idazten, 1996tik goiti haatik Janbattitt Dirassarrekin aldizkatuz.

Liburu honetan, ehun editorial hautatu ditugu, 1980 eta 1990 bitartekoak. Gehiagok ere merezi zuketzen argitaratzea, hain zuen Emilek luma zinez pollita, eta gai bat sakontzeko molde guziz aparta. Dena den, baduzue hemen idazki horien murtxatzeko parada. Goza ezazue!

Urte on Euskarari – 1980-01-03

Urte on baten agiantzak egiten ditugu elgarri: osasun, bake, zorion, ontasun desiratuz bakoitzari. Urte ona aferetan, familietan, herrietan: hori ere ez dugu ahanzten.

Eta urte on euskarari? Aspaldiko profeta txarrek ikusia zuten euskara, «Baiona-Sant Izpiritako zubia pasatzen ez duen» mendietako mamu hori, laster itoa eta ehortzia, oraingo «aitzinamendua» dela-eta! Bizkitartean euskara beti hor. Gero-ta ausartago izaitekotz ere: plazetan, eskoletan, karriketean, elizetan eta kantaldi-dantzaldietan. Gero-ta gazteagoa ere, gazteak bait dira beti kasik euskararen aldeko oldarrak pizten dituztenak. Horra zergatik diogun gorarik: Urte on euskarari! Euskarari, eta ez euskerari. Bakoitzak gure xokoko hizkuntza bereziari maitatzea zor diogu baina, hori ere da gaurkotasuna, euskara bat baizik ez dela ari zaizku deneri sartzen. «Frantses eta espagnolén» muga hori «ipar-hegoen» muga deitzen hasia dugu, eta «euskara batu» bat ari dugu egiten elgarren hizkuntzei ohartuz.

Herria astekari hunek bere laguntza partea ekarri nahiko dio aurten ere euskaldunari, lan horretan. Euskara onean idatziz lehenik, ahal guziaz, ortografia berdindu eta oraingotu batekin. Ortografia hobe baten eskola baizik ez balitz ere *Herria*, daukagu laguntza ederra egin lirola herriari. Gehiago ere nahi du izan, euskara baturako lehen urratsetan lagunduz. Ez dugu ez hemen ibiliko «beste nunbaiteko euskara»: bakarrik urrunagokoek ere konpreni dezaketen euskara bat; ez hertsia eta bereziegia, baina beti ideki eta hedatuagoa, orokor eta zabala. Huna zer behar den horretarako: irakurle eta berrikerari, denak lehia gaiten guhauk dugun euskararen aberastera, artikulu guziak konprenitzerat ariz. Funtsean frantsesarekin ere ez dugu besterik egiten, ez ginakien hura ikasterat entseiatuz. Zertako gutiago egin gure euskara maitearentzat? Haatik ez beldurrik izan: urrats ttipika, ttipiegiak zenbaitentzat, ari gara hemen «batuaren» alde, nehor lotsarazi gabe ahalaz eta mintzaira irakur errex batean egonez beti.

Azkenik, urte on euskarari: abertzaletasunean. Horrek erran nahi du gure herria bera maitatuz eta zertako behar dugun maitatu erakutsiz beti. Maitez ez bada, ez dugu euskararik beiratuko: hor dago denen erroa. Pundu hoik onartuz geroz, bixtan da zenbait sakrifizio ere onartuko dugula: hala-nola prezioa. Hau goiti ari, denak bezala. Baina denentzat onartzen duguna, ogia, ezantza eta beste... nola ez berdin onar hoin maite dugun euskararen onetan?

Beraz gogotik bota dezakegu gure bihotzeko oihua: Urte on Euskarari!

Esker mila Etienne Sallaberry, So-Egilea – 1981-07-23

Kasik 30 urte hontan lehen aldia du naski bi artikulu eskas dituela *Herria* astekari honek. Ez «Pointes sèches» erdaraz, ez «So-Egilea» ez dauzka aste hontakoak. Berehala diogu irakurleari ez dadin izi: Etienne Salaberry apez eta kalonjea arras pixkor dugu bere 78 urteak egiterakoan. Bakarrik Kanboko apez xaharren etxerat egonaldi edo pausaldi batentzat bildua. On dakiola.

Halere gure agerkarian zer hutsa! Irakurlea, izan zintazkeen Salaberryren «xixta» heiekin ados edo ez. Gisa guziz heien hatsa zen beti euskaldungoarena. Hitza aldiz, erdaran aski trebatua denarentzat bereziki, beti ederra, nasaia, hegaldaka haundikoa eta asko pindarduna... Eta hau nola ez aitor kazetaren egileak: bagintuela irakurle erdaldun batzu ere erdarazko hitz horren berarentzat *Herria* hartzen zutenak.

Eta So-Egilea! Badea munduko gizon ezaguturik edo gai haundirik bere sailean jorratu ez duenik? Eta ez nola-nahiko jorraiarekin gainerat. Idazlea etzena gain-gainetik trebatua, ainitz irakurtzez argitua, eta beti bere hats azkarraren jabe? Beti bere punpe hartarat eroriz, errepikatze batzu egin behar bazituen ere! Ez! Ez da So-Egilearen falta, den tenorean, Europa oraino barreatua balinbada, hala-nola Baigura mendiko artaldeak eta pottokak. Daukagu bizkitartean kazetek, den ttipienak ere, beren ttanttoa ekarri dutela auzo jendaldean elkartzeko horren mantxara; holako abokata ukan dutelarik astetik atera bereari jo eta, ezin etsitua. Beraz, ideia horiek gu denen gogokoak eta ezin utziak balinbaziren ere, *Herria*, Etienne Salaberry gabe, ez da arras lehengo *Herria* izaiten ahalko. Gauza txar guziek, hala da, badute haatik beren ona ere. Etxe batean xaharrak giderrak uzten dituelarik, beti ateratzen da gazte bat. Honek, halako alfer batean bizi balinbazen ere ordu arte, noizbait bederen atzarri beharko, lanari funskiago lotzeko.

Herria-k, beharrik, ez du laguntzaile eskasik. Eta nork daki? Hauek ez ote dituzten sail berri batzu ikusiko eta idekiren ere! Gure kazetak, sekulan baino gehiago, nahi du izan herritarren laguntzailea. Ororen arabera irrati-telebixta eta kurridek irakurtzeari gaina hartu nahi liroketen mende hontan, daukagu ezin ordainduzkoa dela irakurtzea. Zer irakur? Egun guzitako bi-ziaren gora-beherak beti lehen edukiz, diogu, beti bezala, jakintza eta kulturak ere bereak hartze dituztela eta euskaldunen izpirituak mañatera aski gora behar duela.

Etienne Salaberry, zure mañatera Heletako lurrean ongi finkatua bazen ere, beti gora erakutsi diguzu. Osasun berri bategi oraino luzaz lagunt zaitzala zuhaur, berdin oraino zenbait hitzen idazten ere; eta nolana hika, xahartze goxo baten eremaiten. Nik aldiz, Euskal Herri guziko eta aintz urrunagoko lagun en izenean derauzut: Esker mila, So Egile argi eta aberatsa!

Mendirat beharrik gabe – 1981-09-03

Aitatxi xahar bat zen: ordukotz etxe inguruetan ere makila zuen baitezpadako laguna; aspaldi joana zuen beraz urrats alferren denbora. Ikusirik gazte multxo bat mendirat ari, harritu zen gure gizona: «Zer? Mendirat? Beharrik gabe?»

Alta hau ere berdin egia: «Goraintzi mendi heieri, ene partez ere!» zuen beti erraiten beste batek harat goiti abian ikusten zitueneri. Honek, batere on zeno, maitatua zuen mendia, nehork maitatzekotan. Bere zango-bihotzak oraino mutil onak zituen hartan, mendia zuen izana bere bizioa, bere edari mozkortzalea. Geroago, goraintzia bestez igorri baino lehen, eta bera kaskoraino heltzeko gauza ez zenaz geroz, nork ez du ikusi, hantxet biderdi, behera gain-beheiti eta gaina hurbilagotik ikus ditakeen patar erditan, haritzondo baten pean jarria, mendiaren konpainian egonahala egoki, bere larre maitearekin buruz-buru edo besoz-beso amodiotan jarria!

Adixkide hau bezalakoak gero-ta gehiago baditu mendiak. Heietan hoberenak artzainak, nahiz hauek orok artzaintzaren eta etxolaren kantatzen ez jakinik ere Xalbador zenak bezala. «Lana ez maite, egun goxoak pasatzen...» erran dezatela nahi dutena beheretarrek heientzat... Hola mintzo direnak zertako ez dira mendirat heldu, heiek ere «goxoki bizitzerat»? Aise da ihardes-tea zertako: maite behar baita zinez mendia, hango ixiltasuna, azinda xehe amultsuaren konpainia ezta baina jasan ere horgo bizi murrizta, aro borti-

tzak, haize zirimolak eta ekaitza, horiek oro gehiengan gau ala egun bakar-bakarrik, ibilpideetan begiak nigarra dariola, eskuetan sumindura eta larruraino trenpatua.

Eta badira mendian artzainek gero-ta gehiago kurutzatzen dituzten ikusliarrak. Gizon, emazte, haur, denetarik badira. Zerk ekarri ote ditu gain arrotz horietarat hiritar, karrikatar eta zelaitar hoinbeste? Kuriostasunak ote? Besterik ere bada: mendi gainetako haize garbi, bake ixil eta urrats izerkorren beharra eta eskasa. Bizi dirutsu, guri eta hanpatu honek zerbait ekarri dio xuhurki bizi zen gizonari. Baina beste hainbeste kendu ere ez ote dio? Bizi honek kendu heietarik zerbait dio mendiak nornahiri itzuliren. Hori hola bada, nork erran gehiago, beharrik gabekoa dugula mendia?

Etxeko berriak – 1981-09-10

Hegoalde horretarik etorriak ziren uda hontan bat ala bestea: euskaldun garbiak bi-bigak. Batek bere bizkaitar zorrotza eztituz zerabilan, gure gatik hitzak gehiegi jan gabe; besteak aldiz gipuzkoar nafarreztatu bat bazuen, hurbilagoa gure beharri ipartarrentzat. Batek ala besteak gure herrietako asko berri jakinki: bigak liburu miatzaleak, gure herri ttipien izenak oro gogoan baina lehena bere etxetik arizana eta hemen guti ibilia, bestea aldiz mendizalea, gogoz bezala zangoz ere gure xokoen ikertzeaz gose; bihotza aldiz bigek ere gutaraino hedatua zutela aise konprenitua du irakurleak, maitez ari ez dena ez baita luzaz eta ongi ariko.

Hemen gaindika zabiltzan beraz bat bestearen ondotik, hemengo anaien bisitatzen, agurtzen, ezagutzen. Ez haatik heiekin aipa, zenbaitek politika deitzen duten saltsakeria hertsirik. Heientzat Euskal Herria bada, euskara eta euskaldunak badira; gogo-bihotzak eraginik, beren begiz ikusi nahi dute noradino hedatzen diren gure lurak eta haurrideak eta zerk dituen elgarri lotzen.

Bi anaia horiek joan-eta, ez nuke hemen aipatu behar heientzat «español horiek» zerasan lagun hura. Gaixoa, urrikarizko irriño batekin utzia dugu, bere heineko español batean bi hitz kakola jaldi dezteienean, ohartu ere gabe, malurosa, euskaraz arras polliki elgar har zezaketela.

Goazen bakarrik egungo harira: holako jakin-nahia, holako hedadura, ez ote litazke berdin zuzenak hemendik harat buruz ere? Euskaldun ainitzen ateraldiak Lurde edo Bordeleraino dira naski gehienik urruntzen. Aldiz beste alderat, Euskal Herri barnean, badakiguia zenbat eta zenbat baginukeen ba-

lioski bisitatzeko? Otoitz-leku bat Lurde! Eta hegoan Xabier, Arantzazu, Loiola, bide bertsuan: badirelakoaz besterik zer dakigu?

Eta toki ikusgarriak iparrerat xuhur baditugu, zer ez digu hego Euskal Herriak eskaintzen! Itsas-hegia bere portu, plaia, hiri ederrekin, pilota eta futbolak hemen ez bezalakoak, industriategi nasaiak, eliza erromanikoak eta zaharragoak ere, Leiren eta beste, bizimodu eta aroak hemen ez bezalakoak, hots, izpiritua aberats dezaketen hainbeste xoramendu, denak ere gutarik bi urratsetan.

Euskal mintzaira eta bizipideak ahantzi gabe: nola ginezakeen elgar konpreni eta elgar lagunt, nun eta nola diren horiek oro aitzinatu edo gibelatu eta beraz guretako hainbeste eskola! Hala da horiek oro ongi ixilean ezarri dizkigula bi erresuma handiren arteko muga minberaiak. Baina euskaldunak egundainotik ez ditu muga batek izitu beste sail batean... Ala gogo-bihotzen sailak diruarenak baino gutiago balio ote du?

Euskara eskolarat – 1981-09-24

Leitzen eta izkiriartzen ikasteko, «xifretan eta frantses pozi bat» ere bai, joan zen eskolarat aitatxi eta, guti ibilirik, «beharrenak» ikasi-ta gelditu. Aita gehixeago ibili zen: «Oraiko egunean, eskola puska bat ere» behar zela. Paper bat edo beste ere bildu zuen honek, bere jakitatearen lekuko.

Beste mundu batekoa da aurtengo irailaren hamar aldean eskolarat joan den haurra. Panpina bezalako, itxuratik beretik hartzeko: ongi hazia, sortu orduko eta lehenagotik ere, behar zituen guziekin moldatua, ttanttoa bezala apaindua, hots, norbaiten gaia, axaletik hartzeko! «Leitzeaz, izkiriartzeaz eta xifrez» ez du oraino axolarik. Eskolek beren legeak badituzte egungo egunean: geroago, horien ordua. Frantsesa aldiz ez du balio aipatzea: zenbait bederen amarekin, batzu erdi-gordeka eta besteak goraki, euskaraz ari baziren kanpoan, hona orai beren lagun ttipiekin airez aire denek frantsesa deramata eskolako jostalekuan, lehen egunetik beretik.

Ez den-denek haatik: badira zenbait bakar halere beren euskara gatik ahalge pikorrik ez dutenak. Ez ote du aitak errana euskara dela mintzaira guziz ederra, eta denak baino lehenagokoa! Eta bakantzetako lagun heiek ere etzutena denek euskaraz egiten, zernahi kantu eta jostetarekin! Gainerat, horra hortxetako errientsa hori euskaraz mintzo eskolan gostuan ttipieri, ama bezala. Hori, erran behar da, gauza berria! Ez du aspaldi, euskara eskolatik kanpoan utzi behar zela. Eta oraino ere, zenbait eskoletan, omen! Funtsean,

egun izan garen eskola horretan ere, andere hori bakarra omen da euskaraz ongi dakiena eta ari dena: bigak behar alabaina, jakin eta arizan!

Hots! Ez da gehiago eskolarat joaiten frantsesa ikasteko. Telebista eta besteek lan hori jadanik egin dute. Hobeki ikasteko bai, baina hori geroago, literatura eta gaineratekoekin. Euskara ere hor da orain. Eskolaren beharretan da euskara, egungo egunean. Eta ez gero euskara eskolan badelakoa bakarrik! Zerbait izaita, nahi edo galdatzen dutenendako, hori ez da aski. Gure tokiez eta biziaz mintzo direlarik errientak ariko dira Euskal Herriaz aho beteka (lehen ez zuten hoinbeste ere egiten, egia erran). Baina hori ere ez da aski. Euskal Herria zer den, zerk egiten duen, mintzaira barne, eskolaren lana ere da hori erakustea.

Eskolak euskarari buruz egiteko duen lana: pilotako batasunek pilotarentzat egiten duten hura bera. Lehen, haurrak ari ziren pilotan beren baitarik. Kontrario ainitz atera delakotz, beste libertimenduekin, beste kirolak, telebista eta holako, pilotako sozietateak atera edo ernatu dira, beharrik, gure jokoan balioa erakutsiz eta horra zerk salbatu duen pilota.

Berdin berdina mintzairarendako. Erakuts dezala eskolak, ahal bezain ofizialki, eginbide eta zor duen bezala, euskararen balioa eta eroriko zaie haurreri berek jakin gabeen sartua duten ahalge zozo hura. Haurreri eta zenbait burasori ere! Orduan eskola Euskal Herrian bilakatuko da frantsesaren erakasle, manua den bezala, bainan ere euskararen salbatzaile. Ez da lan ttipia.

Etxe izenak – 1981-10-01

Herria burutik buru irakurtzen duenak zer ez du aurkitzen! Hau azken asteakoan altxatu dugu Hazparneko artikuluan: «Etxeeri ere izena atxik eta lumero hotz edo arima gabeko batzuen orde, izkiria etxe paretan. Nork dazki Katapundea, Baltaenea, Baxkulatea, Bixentenea, Komentuzaharra... zein diren? Alta plazan dira eta badute beren izenari doakoten ixtorioa».

Hori eta hori dakigu den tenorean Hazparneko izen ixtorio hortaz. Gure berrikerari erneak bere baitarik botatu hitz batzu direa hor? Ala herri haundi eta euskaldun horren buruzagi arraiak ote dute behar den ofizialtasunarekin xede bat hartua? Gisa guziz barka bezagute, hango egitekoak hangoeri utziz, gure ameskerietan hedatzen bagare, Hazparneko berrikeraria lauzkatuz.

Ez du hain aspaldi bi haurri Ibarlan beren izenak galdegininik, sano-sanoa errepostua ukan ginuela: «Ni Pekotxeko (holakoa) eta ni Etxebesteko (ho-

lakoia)». Berdin berdina Itsasun beste bigarekin. Barkatuko digute heien izenak Jan Battitt ala Mayi ote ziren ahantziak baditugu. Hasteko, hau ez dugu ahantzia: nunbaiteko seme edo alaba zaukatela heiek beren burua, norbaitek hala ikasia zeielakotz.

Nunbaiteko etxeko semetasun hori ez dugu gero hemen urguluz eta haundikeriaz kanta dezaten gure haurrek galdatzen; izan haundia ala ttipia, gurea da gure etxea eta guk han egin ginituen betikotz erroak. Hori zerbait da eta hori ainitz da. Hazpandarrak zion bezala, ez gaitela gu lumero arima gabe batzu bilaka, badugularik gure etxea bere ixtorioa duena, bere euskaldun marka ere bai eta gure bizi osoak ohora dezala bere sorseinalea.

Eskolaz baiginuen hemen berean iragan asteko solasa, zer ez luke eskolak puntu hontan egiten ahal! Ez, ez dezala eskolak haurra errotik eginik eta bere lurraz gabeturik ezar, denak berdin izendatuz, beheerriarrak bezala, etxea baduten gure haurrak: «Jean Pierre Etcheverryren ondoan naiz ni eskolan», «egun Bernadette Bordabehere eri zen» baitiote, eta gero zointakoa den Jean Pierre edo Bernadette ez jakin. Hots, gure haurrek hiru izen badituzte eta hiruk beira ditzatela agian. Uhaldekoa balinbada Jean Pierre Etcheverry, zertako ez diote erakatsiko, «denak jakin behar dituzten eskolako erakasleek», Jean *Pierre Etcheverry*, *Uhaldekoa* ezartzen bere liburuaren jabe-izena!

Halaber, gure herri gotorrek, ate guzietan eta egoitza bakarrari izen bat ezin emanean, lumeroak behar badituzte ere beren karraketan, ez ote dira berri biziko gure karrakak, lehengo biziak ez bada, lehen zer izanak diren erakutsiz: hemen Harotza, hor Xokolateroa, han Notaria, edo Hargina, Dendaria, Iturria, Eihera, Jauretzea eta beste... Askok izen ez dakigula zer diren edo zer izanak diren, nahi dut. Bederen hartze zuten errespetua beiratu izanen diegu eta nork daki izen heien moldeak, tokiak, itxurak ez dituen jakintsunak lagunduko eta argituko, egun ez bada bihar? Hori hola gertatzen da munduko hiri edo tokien izenekin ere.

Etxearen izenak, horiekin batean, beste abantailak ere badauzka: etxean deiturak aldatzen dira, alabak laguna kanpotik ekartzen duen aldi guzietan. Funtsean, horrek ez du ainitz inporta, etxearen izena beti lehen beiratu delarik. Hori jakinik, gure xaharrek familiako hilobia egin zutelarik, jakin izan zuten zein izen ezar harrian pikaturik: «Etxezaharreko familia» edo hola ezarri... Funtsean, hor ezarria dena, bizi zelarik, «Etxezahar» izendatzen zuten bere auzo eta herritarrek, bestelako «deituraz» sinatzen balinbazuen ere. Etxe izena: zerk erakutsiko du hobeki nondik ateratzen garen?

Ihizin – I98I-II-I2

Larrazkena heldu delarik, begi guziak goiti buruz! Apez xahar arraillant batek erraten zuen zernahi gizonak zeruztatzen zituztela sasoin hontan begi-bihotzak. Bihotzak ez dakit. Begiak bederen bai. Funtsean gogo-bihotzak ere, nork daki? Bakoitzak bere heinean...

Ihizi denbora zer da alabaina? Aski da batzuer eta bester galde ta galde ibiltzea. Batean horra laboraria: iduri lanak tresnaz aiseago egin behar dituen eta, itoka beti eta ezin helduz ari da orai gizona asko gisetara. Lantegiko langileak eta ofizialeak berdin: hauek utzi dituzte iragaitera uda beroa eta ongi merezitu konjetak ihizi denboraren behaketan. Badakite bai jaz ere ez zutela ez permisarenik, ez kartutxenik, ez-eta xahakoarenik ere egin, baina ez da baxter hortan heien ametsa.

Batzu ala besteak ikusiko ditugu mendi lepoka horietan edo hariztegi xara batzuetan. Denik ere ahanzten dute, zenbait egunez, beste orduko goibela, utziak dituzte bazterrera egun guzietako solas eta urrats nagiak. Kasik erran zinezake bizi direla zinez, bizi, halako logale batetik bezala jalgiak bairira.

Bizitzeko zinez, zer aski du gizonak? Batzuekako bazterraren xoramendu astirekin gozatzea, haize hego edo ipar haize ezti baten firfiran mendi gorrituak zeru urdin batek iguzkitara mirailatzen dituen egunetan.

Badira ihiztari gazteagoak, edo biziagoak: begien plazerra ez aski heientzat; bizi dorpe edo geldiegi batek heieri galdatzen higitzea, oin eta gorputzen hezte; autoa beheko zolan utzirik, ibil eta ibil, oihana miatu dute heiek eta, arratsean, urtxorik ez bazen ere, zenbait onjo kasko beltz bazituzten andreari eremaiteko.

Beste airabiderik ere badu oraino gizonak: ametsa. Lana, etxea, beti lan berak, beti jende berak, beti gogoeta berak... Behar da noizbait jalgi, altxatu, gorago ez bada ere urrunago edo beste norabait. Ihiziak ez du holako eskasik: jo ixtorio kondan, hala direnak eta... hala izan zitezkenak? Zenbaitek erraten baitute «ihiziko espantuak», ez dut uste holako mespretxua merezi duten. Badira «espantuak» eta «ixtorio pollitak» egia batzue bano altxagarriago direnak, eta beraz egia zenbaitek bezenbat on egiten dutenak.

Horiek hola, gai hau hartzean, zenbaitek uste balinbazuten aurtengo ihiztarien berriak emanen ginituela hemen... Eta zertako ez? Aurten ihiziak eman ote du ala ez? Gure ustez, bai! Gaitzeko ihizi urtea ginuen, hemen aipatu horietarik zenbaitez aberats balinbazen. Urtxoak bestalde!

Peiok ere ebatsi – 1982-01-07

Badugu denek ere gure haur tzar airea. Egundainokoa da: behin batean, gure haurrean, auzoko Manezek haren gerezieta atxemanik, beharritik be-roaldi bat eman zigularik, gure lagun Peiorenak ere salatu giniozkan, iduri guharen xuritzeko bezala. «Peiok ere ebatsi ditu!» Artzainak makurtu eta gasnak agertu: hutsean frogatua denak ere lagunak nahi. Holaxet ari dira beste batzu Polonia horretan gertatzen denaren gainetik; ni komunista niza, hona non faxisten tzarkerien salatari bilakatzen naizen, nere adiskideenak ezeztatzeko bezala. Bai eta Txilen ere, ez-eta Salvador hartan ere, eta ene politikaren kontrarioek hau, eta aldekoek hura!... Bada holakorik Frantzia barnean ere, aldaketa aro hontan. Ene alderkikoez hola egin, eta ene kontrarioek hola-hola, bakarrik beste alderat. Holako moldeekin badugu sekulako lan, eta auzi, eta ez daukagu gizonen arteko bakea eginik. Funtsean hola-hola arizanak dira ehun bat urtez hurbil Frantzia eta Alemania, ainitz gehiago beste batzu, anartean gerla ederrik piztuz, eta miliunka hilak eta dohakabeak eginenez.

Gauza bat dugu ahanzten hola ariz: auzia ez dela batere nork duen arrazoin eta nork ez. Ez da gure afera hobendun ihizin ibiltzea. Hobendun guziak tirokatu behar balire, ez laiteke ondarrekotz nehor ere xutik geldi lurraren gainean... ez-eta guhaur ere! Bat, bai, geldi litaike oraino xutik: gaizkia bera, haren atean kur-kur-kur irri maltzur batean dagoela gaizkiaren aita, debru zaharra bera! Goazen beraz ez gaixtaginaren baina gaizkiaren beraren ihizin. Gizonari bere errespetua kendua zaiolarik, hor da gaizkia eta hari behar zaio jokatu. Jende klase bat bere ezinbertzean estekatua delarik, handik jalgitzeko menturarik gabe, eman ditela beste guziak haren alde eta ez dezatela bakerik izan hura ateka txar hartarik jalgitzen lagundua ez duteno: bide beraz tankako bat emanen diote gaizkiari eta tzarrari buruaren gainean, agian sekulakoa. Gaizkiari gerla egin, baina gizonaz beraz ez etsi. Hau atzo gaizki gobernatua izana gatik, orobat bihar bestalde itzuliko da: delako gerezi ebas-ten arizan-eta beharriak berotu zizkigun harek utzi gintuen hein batean, bai nihaur eta bai Peio ere. Geroztik nork daki zenbat zor diogun hari, eman zaukun leitzonearendako.

Halaber nork ez ditu ikusi artzainak ere, atzo elgarrekin gerla gorrian eta egun batasunezko erakunde batzuen muntatzeari berak lotuak. Holakoa da gizona: hartaz etsitzekotan zinen tenore berean eginen dauzkizu iratzartze ta xutitze miresgarrienak.

Supazterra – I982-0I-I4

Galdua zuen bere arrakesta. Iduriz sekulakotz. Alde batetik beti zikina zela, lan eta gastu haundia, hasirik egurraren egitea, ekartzea, xehatzea, idorrean beiratzea, horiekin guziekin, ez barnea halaxe berotzen, eta kea, eta pindarrak eta nik dakita! Orduan egin ziren sukaldearen orde, alde batera kozina-tokia, bestera «egoiteko sala», heietan ezarriz mazuta, gasa edo elektrikarekilako berogailuak: «garbiak eta biziki erabil errexe-goak!»

Ba, baina! Hona non egun batez hasten diren petroliokiak itsuski kariotzen. Beharko dugu beste zerbait merkeago bilatu: eta lehenagoko moda xaharreko egur hura berriz entsea bagineza! Entseatu eta ikusi ere! Hauxe da suaren grazia: hor bederen ikusten da beroa nondik heldu den; eta gar hori, eta itxindi gorritua, eta sukileko enborrharen brasa bizia, zer dira horien guzien aldean gure burdinazko bero-kutxaitsuak? Hala da-eta: etxeko norbait dela dirudi supazterrean gar-gar-gar zipirtaka ahapetik mintzo den etxeko sua. Sua eta etxeko jendeak: berdin balio zuen lehenago, bat ala bestea erranik, herriko suak kondatzen baitziren, erraiteko zenbat etxetan ziren jendeak bizi.

Etxe xokoan bere eguna iragaiten duen xaharrari errozue zuek ez duela sua bere egun guziko laguna. Eta aratsean oro harat bilduko direlarik zoazte familia guziari sakatzerat ez duela supazterrak elea pizten, konpainia guzia alegeratzen, bihotzer bere bere beroa ekarriz. Lehen ere egiak zirela horiek oro, ezin ukatua. Baina lehenbiziko ilusimendu hartan uste ukan dugu holako fortuna ordainduko zutela berrikitan gizonak asmatu sukalde betegailu berriek, hasirik berotzaile modernoetarik eta tresna kalakari horietarainoan. Hauek ere badaukate zerbait onik baina bakoitza bere heinean. Horra zertako ari den gure egun hurbiletako gizona lehengo heietarat itzultzen, egungoez ere denbora berean ederki baliatuz.

Ez da egungo istorioa. Holaxe zuten lehenago Jakobean semeek Josep anaia Egiptoarri saldu, ez zutela etxean nahasle horren beharrik. Bai-eta itzuli ere beren onetan haren ganat, Egiptorat, goseak eta beharrak hortaraturik. Holaxet gure egunetan goazi etxeko supazter baztertuaren eta holako batzuen bila. Supazterrean geldi balitz oraino gure ukatze ta zokorat emaiten jokoa! Euskalduna, oroit hadi beste asko pundutuan ere supazterrekin gertatzen zaukanaz. Berantegi ez deno!

Gure ama balinbada! – 1982-02-04

Euskal Herri gure amari kantatu zizkion Xalbadorrek bertsu samin eta zorrotzak: hots, seme batenak; eta, gehiago dena, ama hiltzera doala, nigarrez ikusten duen seme batenak. Nigar guti 1982ko semen bihotz-begietan, ama horren hegian. Desafio eta kalapita bai hobeki! Zer haur tzarrak egiten dugun holako amaren haurrek, baldin-eta bakoitzak amaren artatzeko asmu solasak ditugularik ere!

Batek ogi hutsez beharra du ama eria sendatu: lana, bizitzekoa, haurren asebidetia, horra zein diren haren solasak. Bizkitartean amaren larru ximurtuez, haren begitarte nigarrez irauliaz ez du den-mendreneko axolarik. Murririk ez dio sekulan ematen amari, bisita egunetan ere.

Bestea oraino latzago: harek dirua, beti diru gehiago, eta etxalde aberatsagoa, emankorragoa, tresnatuagoa, eta haunditasunezko ametsak, holako solasez du uste ama xahar gaixoa ilusituko duela, berak aldiz ez lili bat, ez ele goxorik gabeko presondegian daukalarik ama gaixoa hetsia.

Badira ere armen indarrez atera beharra dutenak ama etsaien menetik. Etsaiak badauzka bai amak: batzu kanpotik, eta larderiatu behar direnak, segurki. Baina badauzka ere barnean, bere baitan alha zaion gaitzaren erroak. Leheneri bakarrik armekin oldartuz, kasu ez duten ohargabeen eta ixil-ixila bigarrenek berek hilaraziko ama!

Batzuek Euskal Herri amaren salbatzeko, teoria hutsak dituzte sendagailu: erdaraz derabilaten politika, bixtan dena, zeren berek, hamar, hogeit edo gehiago urte hontan ez dute euskararen ikasteko funtsik ukan. Edo zenbaitek euskara badakite: beren etxean sortzetik ikasia dute. Beren laneko gorra-beheretan erabiltzen ere dute gehiengan. Baina, hortik kanpo, euskarak ez du heientzat balio; geroari buruz are gutiago.

Hau ere bada zerbait. Baditugu mintzaira erakasleak, eta ere kantariak, beraz asegailu, diru edo armazkoez beste artagailurik daukatenak ama xaharrendako, baina heiek aldiz berek asmatu edo nonbaitik ekarri, hutsak ere barne, euskara deskoloratu eta ezin entzunezko bat derabilate.

Balitake oraino luzatzekoa. Aski hontan. Ama aldiz beti berdin hits ikusi dut egun goizean bere gaitzekin; eta gero-ta areago. Zer egin? Artatzaile horiek orok, nehor baztertu gabe, egun batez, lehen-bai-lehen, amaren etxerat bildu beharko. Amaren auhenak entzunik, hobeki ikusi beharko zer egin dezakegun, bakoitzak gure aldetik, eta elgarrenak entzunez.

Izar batzu gure zeruan! – 1982-03-18

Monzonen omenaldia zen igandean Heletan: urtea hain xuxen, euskaldun suhar hori galdu ginuela. Egiten ditugu omenaldiak hilentzat, egiten ere bizientzat, idazlari, bertsulari, pilotari edo beste... Omenaldia ez da urrats banoa. Ar ditake norbaitez amen-omenka solasean, huskeria batzuetan bezala, denbora pasa mintzaten. Omenaldia ez da hori: norbaiten omena barnetik ikertuz, miatzen da haren bizia, zilatzen eta goersten haren dohainak, gazteagoek eta ondotik heldu direnek jakin dezaten eta etsenplu har.

Omenaldiak baziren lehenago ere: sainduenak bereziki, besta-egunean eta urteburuetan. Herriko bestak berak ez zirena tokiko patroinaren omenaldia? Edo estaduak ditu betitik haundizki zelebratu bere omenaldiak: errepublikarena, erregearena, gerlako espantuen edo gizon haundi batzuenak...

Urteak joan, urteak jin, luzaroan oroitzapen minenak histen baitira, ondarrekotz ez da «besta» baizik gelditzen: tripa-joko, dantzaldi, partida, ateraldi, hots, hastean bigarren ziren jostagailuek dute ainitzendako leku lehena edo guzia hartu: «egun alai» baten iragaiteko estakurua, horra zer duten ainitzek «besta» horretan ikusten, arrazoïn egiazkoa aldiz ahantzia ere dutelarik. Horra nola euskaldun askok muga iragaiten dugun, «Errepublika» egunean harat buruz edo «San Jose» egunean honarat, alta bakoitzak bere tokian zutelarik «besta».

Baina zoazte zuek gizona enganatuko duzuela! Gizona «gizon, sasitik ere» zioten lehengoek. Ken-ozue gizonari berea duen zerbait, goiz edo berant, ebatsi dioten hari oihu eginen dio honek. Lehengo omenaldi xaharren bihotza bere mendeak ebats dezola, bere sainduen edo herriko ospakizunen arima ekenduz, orduan berak pentsatuko du nonbaitik ordaina.

Horra nola sortu dituen gure herriak «omenaldiak». Xalbador, Mattin, Monzon edo Etxahun... Izar batzu behar ditu bere zeruan, egungo gizonak ere, betikoak bezala. Izar hori, bat-batean, berenaz ez zaukan dirdira batez aberastu dutela gizonak, edertuz, eta emendatuz ari direla heietaz mintzo direnak, zer munta du horrek? Ala zer uste dugu egiten zutela lehengoek ere? Saindu patroinez, liburuak oraino erdi zuhurki mintzo ziren, nahiz ez beti! Gisa guziz aise haundiagoak ziren herritarrek heietaz amen-omenka kondatzen zituztenak. Gauza bertsua erran ditake historiako espantuez ere. Dena den, ez dira horiek oro alferretakoak, su eta gar piztu duten ber ondokoetan. Halaber goazen gure omenaldiekin... izar batzu gidari!

Baigorri, ene herri maitea – 1982-03-25

*Euskal Herri guziko xoko pollitena
Zu zira zu, Baigorri, ene maiterena.*

Baigorri, ene herria, Xalbador batek, hain amultsuki kantatzen zintue-nean, pentsa ote zezakeen aste hontakoa bezalakorik gerta zitekeela Baigo-rin? Ez, bixtan dena! Halere bazakien herri bat herritarrez egina dela eta gi-zonen artean gertatzen ez denik ez dela. Halaber gauza bera erran ditake bai Piarres Dibarrart, Baigorriko zapatain-xantre zenaz, Mixelengo zubia kanta-tzen zuelarik, bai Erramun Martikorena gazteaz, bere herriko mendiak xara-melutzen dituenean.

«Xoko pollitena» dio kantuak. Maite den hura beti pollitena da. Fun-tsean, hola dionari ez zaio batere inporta heian egiazki pollitena den ala ez. Maite du eta hori aski zaio. Askie ere ez, egia erran: «xoko polliten» hura beti pollitago nahiko du zinez maite duenak. Ez bakarrik pollitago, baina abe-ratsago ere. Eta bermatuko da hortzez eta haginez hortako. Urrunago joan gabe, beha lan-enplegu batzuen herrian ezartzeko zenbaitek hartu dituzten irriskuak! Zeren erraiteko dretxoia dute orduan bazterreko kritikalariek: he-riaren «pollita», pollit horren xurgatzeko bakarrik, edo berentzat dirutzeko doi-doia «maitatu» duten heiek?...

Ez! Egiazki maite duenak egiazki irriskuen hartzen ere badaki, zenbait aldiz biziaren irriskua ere barne; ez dea alabaina biziaren irriskua amodio-marka haundiena izana egundainotik? Hori badakite buraso batzuek beren haurrekin, edo badakigu kristauek gure Kurutzeko Buruzagiarekin. Haatik maite duenak bere bizia eta bere odola ditu irriskatzen. Aldiz odol merkea-go da beti auzoarena, tiroka edo bestela. Eta odol kaltekorra, inozentena delarik, eta, are gehiago, familia batzu umexurtx ezarriko dituen. Zer izen dohakabea «Baigorri», izen hori beren aitaren hil-berriarekin batean ikasi duten haur gaixoendako!

Lerro hauk idaztean ez dakigu Baigorriko hiltzaileak nor diren, baina zer munta du? Gaizkia beti gaizkia nundik nahitik izan dadin. Erranak erran, ez nagoke, irakurle adiskidea, baigorriar bati entzun diotan hitz hau hemen zuri salatu gabe: «Ez ginuen segurki hemen holako beharrik». Baigorriin egia dena, ez da dudarik Euskal Herri guziarendako ere berdin egia dela. Hau be-deren erran dezagula elgarri: gu denen herria dela Baigorri eta hango tiroek egin duten zauriak gure herri guzia duela zauritzen... eta herritar guziak ez garela sobera izanen zauri horien eta beste batzuen artatzeko.

Euskararen egunak, gauak, asteak – 1982-04-22

Izan ote da sekulan hoinbeste? Eta hoin bizirik? Orain egiten diren euskararen egunek ez dituzte bakarrik ele legun eta mintzaldi ongi orraztatuak. Gazteak dira hor gehienik ikusten eta entzuten, eta gazteak ez du itzuli-mitzulirik: solas gogor gehiago bai, zarrapo eta kaskakoak noiztenka...

Bere gauak ere baditu euskarak. Eta ez bakarrik pausa eta libertimenduzkoak: gauazko eskolak, euskararen ikasteko, gauazko mintzaldiak, bere herriaren ezagutzeko. «Aratsekoak» erranen zuen horientzat, besteak, eta ez «gauazkoak». Baina zoazi zu gaurko tenore horiekin konprenitzera: bada-kizu noiz hasten den, ez haatik noiz bururatuko den!

Eta baditugu euskal asteak: gure kulturaren asteak, hobeki erraiteko. Babilio haundiko erakasaldiak egiten dira hor. Eta behar beharrezkoak. Gure erakasleek eskola horietan egundaino erakatsi ez dizkigutenak. Adiskidea, nahi baduzu zure herria ezagutu, arbasoen historia ikasi, gure geroari buruzko esperantzak zure baitan piztu, zoaz euskal asterat, ez eskolarat.

—«Ba, bainan, fama txarra baitute ordea! Beha murru paretak nola zikitzen dituzten, beren erreklama, lelo eta desafioekin! Eta oraino, hortan gelditzen balira!»

—Emak hor, Pello! Eta bota zak hik ere zikina, bidenabar, tinduz ez bada, mihiz bederen! Hasian hasi, goitika zak hor gogoan dukan guzia: euskaldun horiek berak direla nahasmendu guzien iturri, txarrenak ere barne... Eta deusik egin gabe dagoen hura dela euskaldun hoberena!

Horiek hola, zer egin beraz? Laborariaren zuhurtzia hemen ere argibide. Beha zer estakuru ttipia aski duen landako itzuliaren egiteko: goizeko azken izotza, zenbait asteo idortea, berriki erain lur-sagarrak, ateratzen ari den mahatsa, pentzeko bazka zertan den, bost minutu libro... oro on zaizko maite duen lurrari behaketa baten egiteko.

Halaber euskaldun bat, nola egon maite omen duelako herri hortako ikasketa, biltzar, jakintza, elgarretaratze guzi-guzietarik bazter? Han dabilanak, bereziki alor hortarat beretik ere zerbait ekartzen badu gainera, harek badu zerbaiten erraiteko dretxoak; aldiz ez du dretxorik batere, kukua bezala bazterreko xararik musikatzeko baizik ez denak.

Biltzar horien egileak ez direla denak zure gustukoak? Hala bilakatuko dira luzara nahitez, herri guzia han badute gaineen. Zerbait da, gero, bere baitan sinesten duen herri baten indarra!

Axala eta mamia – 1982-04-29

Badute gauza orok beren axala eta mamia. Eman dezagun, hala nola, gasna: gasna-axalak idor eta zailaren fama zakarra du; batzuek lodi, besteek mehe, baina denek aise baztertzen hura. Mahain peko xakurrak edo gatuek ezinbertzez eho dezatela beren letagin onekin, saheskaturik.

Gasnarekin parekatzerik duke naski bere fama txarra zerbaiten axalak euskaldunen aho-mihitan. Axala: itxura, gozorik gabeko geriza legor kazkarrara, besterik ez! Beharrik baita barnean mamia, legun eta gizen guzia berekin daukana! Funtsean, gasna jastatzaileak, barnerat zilo bat eginez, hoberena handik ateratzen duen bezala, berdin berdina, zuhurki ari denak ere barnea miatu nahiko dio begitarte arrai eta ele zuriz jantzirik heldu zaion lausengalariari. Arrazoinekin.

Alta ez du axalak ere mespretxu osorik merezi. Aise konprenitzeko, har dezagun ogia: «axal gorria», kantuak dion bezala, aipatzeak berak hortzetan gutizia sortzen dauzuna. Hemen berriz nork erran mamiak daukala gozo guzia? Haurrak berak ogi mami zuria xokoletarekin mataturik ezarriko du, eta oraino gordeka xorier edo xitoer botatzen ez badie. Eta aitatzik aspaldi errana du barnearen hantzeko baizik ez dela ogi mami zuria.

Horiek orok hau erran nahi dute: axalaz eta mami az mintzo garelarik, behar dela jakin zertaz nahi dugun ari, gasnaz ala ogiaz. Eta seguretik artzeko, hobe erratea bietaz eginak direla gauza guziak eta biak behar-beharrak direla.

Hala nola euskararekin. Badituzu euskaldunak axal-axaletik ari direnak: haurrari ematen den izena, errotik euskalduna, bereziki moda bada; solasean «agur», «ama», «aitatxi», «ikus arte» ta holakoak, baina gero hortan geldi, salbu teoria ederrak!... Eta beste aldetik, mamia dena euskalduna dutenak baina beren axalaren gordetzerat ari, beren burua irringarri edo nigargarri ezartzerainokoa. Ez dira oraikoak jaun-andere xapeldunen eta Tupindegikoen bitzikeriak. Halere guri oraikoek min egiten.

Hots, zu euskalduna, izan zaiten axalaren alde bermatzen direnetarik (mintzaira, izenak, kirolak eta beste...) ala gure herriaren eta biziaren mamia barnagotik landu beharrez ari direnetarik, goazen biak, nahi baduzu, okin zaharraren ikusterat, berak egin ogia bi eskuz hautsirik, gostuz eta maitez behatzen diolarik... Edo gasnategirat, barneko gostuarentzat behar zirenak oro egin-eta kanpoko azken apaindura moldatzen diotelarik, bietan eskola bera emanen digute. Bere osoan dela maitatzen, janaria bezala... herria ere!

Munduaren erdia – 1982-05-27

Errana den bezala, munduaren erdiak ez daki beste erdia nola bizi den. Horixe dugu egun hauetan frogatzen aroarekin: hemengo laboraria euri xorta baten beha, beste toki batzuetan aldiz «denbora txarrez» aseak eta iguzki be-roaren ametsez dauden bitartean.

Egia erran, ez da gehiago munduaren erdia, laborari jendea. Europa guzia hartuz, ehuneko hamarretarat ez bide da arras heltzen lurrarekin borrokan ari den jendea. Baina zer inporta du, izan gaiten hamar ala zortzi? Ehunetarik ehunak ere janez bizi ahal gare! Eta egundaino behirik deitzi, baratzerik egin, edo lurrik irauli ez duenak ere beha dezola zer duen egun oroz platean ezartzen...

Oro diruaren puntan, eta oro berehala, eta oro lehen klasean nahi litzuzkeen mundu bat ari da bilakatzen gure hau. Funtsean, ez da hori gauza berria. Aspaldikoa ere dela erran ditake gizon «kontsumitzailedeen» bixta laburra. Hala nola, nork noiz burua berotu izan du, gure artean, «egundainotik», ostiraletan edo bestela jaten ginuen makallaua jatean, nondik eta zer gostarik etorria zen arrain hori gure platera. Arrantzaleen bizi gogorraz nork zuen axola? Merke ta ona izaita zitzaien galdatzen jateko horri eta besterik ez. Gero aldiz, aski dira gure erasiak entzutea: hori ere kariotua dela eta holako.

Berdin berdina gure egun guzietako kafe, azukre, xokolet, bixkotx egiteko usain on eta goxagailuekin; halaber gure auto-motoen erabiltzeko petrolioekin: nork ukan du heien gagnetik den-mendreneko griñarik, heian norren gustuz garen hain ongi bizi, heien igorle-langileak zer miseriazko prezioz saristatuak diren, erdi-buluziak eta tripa hutsa ez ote dabiltzan guk heier utziarekin!

Eritasunarekin bezala da hor ere. Norberak jastatu duenak daki... Bere burua hain zuzen kafe-egile beltzaren kasuan zeraukan euskaldun laborari honek, ziolarik: «Ez gare gauza beraz mintzo, hala nola aroaz dugularik solasa meteo hartakoek eta guk: heiek beti denbora ederketa, eta gu, heien doia atera behar dugunak, arto, lursagar edo bazka poxi baten euri baitezpadakoa gogoan!»

Ederrena oraino hau da: oraingo munduak badituela gizon guzien elgarretartzeko tresna paregabeak, bereziki ororen berriak beste orori jakinaraztekoak. Orduan, zeren eskasa ote dugu? Mintzo direnek ororendako hitzegin dezaten, eta orotaz kondu atxikiz. Iduriz gauza errex. Baina iduriz bakarrik!

Hortzak kanpoan – 1982-06-03

Gaixtoa dela erraiten dute haurrek. Izitzen ditu-eta erausiz eta saingaz urrunera hasten zaiotelarik Mendialdeko zakurra. Egun batez galtza hegala ere jestu gutiz ereman omen dio pietunari. Geroztik, honek behereko portaletan uzten omen du «kurriera». Eta Manez buhamia ere ez bide da urte hontan bederen Mendialderat hurbildu.

Alta ez da hain barne tzarrekoa ere Mendialdeko «Beltxa». Etxekanderea inguru heietan bada, haren solas omoretsua zurekin askiko zaio adiskide bat zarela konprenitzeko. Edo, berdin, nausiaren xixtua bera, barruki zokotik, bere ozarraren eztitzeko. Handik harat, luzatzen ahal duzu solasa nahi duzun bezenbat, mahain azpian etzana egonen zaitzu, kasik zure oinetan, etxe-koekin ohi duen bezala. Bitxi da haatik holako zakur bortitza zein ezti bilaka ditakeen gehiagokorik gabe! Zer izpiritua eta zer barne ona duen, funtsera-ta, Mendialdeko zakurrak! Zakur bat baizik ez delarik.

Ez dira beraz gauzak guk erraiten dugun bezain gaizki eginak munduan. Beharrik zakurrek bakarrik ukan bai dituzte holako litain zorrotzak. Gizonek ere berdinak izan baluzte, ez zuten pietunek galtzarik ibiltzen ahalko ere!

Hala da-eta! Itzul zaite norat nahi: har izkitzu munduko erresumak, lur hotz baten gaintetik elgar urratuko eta hilkatuko dauzute, bi alderdiek arrazoin hoberenak beren alde ezarriz. Balute bederen heiek zakurraren izpiritu apala, nausiaren xixtuak edo etxekanderearen irri zaflak gozatzeko! Baina ez: nausirik eta etxekandererik ez dute heiek beren hortz eta litainez besterik ezagutzen. Ez baitira zakurrak heiek!

Hortzak ageri: denak guti-aski holaxet gabiltza. Artoaren auzia, lantegietako auziak, eskolen auziak, enpleguarenak, libertatearenak, mintzairenak, beste orduz, eta noiznahi ere, politikazko mila auzi... Eta denak bortizki, denak ausiki zorrotzak eginez...

Ez da batere dudarik, auzi guziek merezi dute beren errespetua: zenbait badira ere larderia doi bat gabe ezin bururatuzkoak eta hortzak erakustea galdegiten dutenak. Baina halere! Norbaitek bere hortzen sartzen ere badaki! Goazen hemen ere berriz gure zakurrerat, badu guri zer erakats. Segur naiz ohartuak zareztela: errana den bezala, ez dute otsoek elgar jaten, ez-eta zakurrek ere, familia bereko baitira; elgarren auzietan, badakite beti heinean gelditzen, ezinbertzez bederen.

Ezinbertzea: hori zakurraren zuhurtzia, parada hobe bat etorri artean. Baina zuhurtzia halere!

Xakur mehea dena kukuso – 1982-06-17

Gose grebak berriz ere! Euskarazko eskolaren alde. Euskarazko eskolak norentzat eta zerendako? Horra zer erranen duten berek euskara beren etxen penarik gabe hiltzerat uzten ari duten batzuek. Haizea ere ez da egundaino euskararen alde ainitz azkartu. Lehenago, biziki aspaldi, lanak zituzten Frantziako erregeek, Parisetik hain urrun zituzten euskaldun buru-gogorrek ezin heziz: 17. mendean «sorginak» eta «Matalas», 18.ean euskal probintzien meneratzea, hots, beti matatu eta mututu dituzte mintza zitazkeen euskaldunak; beharrez soldadoak igorritik, etsaiak errez eta lepoak pikatuz.

Iraultzak eta Napoleonek, ez eta Errepublikak, ez zuten gutiago egin: probintziak ukatuz, moztuz edo nahastekatuz, «departamendu» famatuak asmatuak. Eta bixtan da ez zutela heiek «euskal departamendurik» aipatuko. Horiek denek «eskola bakar bat» egin zuten, denetan bera, oldez edo moldez. Han ikasi dugu, zuek eta nik, «Les Gaulois» famatu heiek zirela gure arbasoak: arras kusi urrunduak, dudarik ez da, baina kusiak halere, omen!

Gure herriaz, aldiz, ez eta gure mintzairaz, ohidurez eta guharen historiari, sekulan hitzik ez. Horra nola gaituzten «hezi»: hots, zaldi gaztea hezten den bezalatsu, bere mendiko laurhazkak eta putinkak ahantziz eta behor zaharraren urrats berdina ikasiz.

Geroztik gauzak aldatuak direla erranen dit bestek. Eskoletan euskara badugula eta oro! Jasta bederen! Baina jasta horrek nor ilusitzen du, ilusitua izan nahi duenaz besterik? Erraiten ahal duia norbaitek euskara lagundua dela eskola batzuetan, irakaskuntza euskaraz eginez, kultura eder eta aberats baten graduarekin?

Ilusimendu hitza erran dugu. Eta nondik ez? Gobernamentuak aldatzen dira. Lehengoak ilusitu gintuen, hitzez, boz denboretan, Arantsusiko hartan, eta hola. Eta hona non agertzen ari den oraingoak berdina tronpatu gaituela, gehiago ez bada oraino, honek gehiago hitzeman baitu eta arditik ez emaiten.

Bai, zinez, xakur mehe, kukusoz betea eta ostikoka erabilia garela gu, euskaldunak, lehen eta beti! Bederen ez bagina guharen ostikokari! Zenbat euskaldunek ez diete gogotik ostiko emaiten abertzaleeri, hauk berexkeriaren eta tolerantzia gabearen kukusoz beteak dauzkatelakotz! Eta hauek, egia-erran, berek ere kasu guti egiten «atsoen erranari». Euskarak eta herriak xoilki bildu behar gintuzkeelarik oro!

Nor garen gu – 1982-07-22

Hor dabilta til, til, til... Non zer ikusiko duten. Funtsean, gu horien tokietan ikuska ibil gintezkeen bezala, ez batere abilago, ez eta zozoago ere.

Holaxet ikusten dira, bederen gure baserrietan gaindika, oinez eta goxoki, ibiltzeko astia hartzen dutenak. Beste batzuek beren autoarekin bidez bide kurritu nahiago dutenek, beren afera dute, hola maiteago badute. Bai eta, plaietan metaturik, hantxetan xiliarrotzeko gostua dutenek ere. Ainitz motaz egina da mundu hau.

Badira haatik horietan harri batez bi xori egiten dakitenak: ikus eta ikas egin dezakeena, hura da hura bere bakantzetan bietan aberasten. Batzuek, zenbait urte hontan heldu direlaketoz, tokia dute gogo-bihotzetan arras hartua: Euskal Herria, bere itsaso, mendi eta ibai-erreketan gaindi, beretua dute zenbait euskaldunek baino hobeki.

Beste batzuen jakin-nahia barnago doa oraino: hemengo jendea zertarik eta nola bizi den, nolakoak dituen libertimendu bereziak, zertan dauzkan bere suerte onak, bai eta tripako minak ere, horietaz denetaz mila galde eginen dauzute, aitzinetik edo bestalde irakurri dituzten guzieren gainera.

Eta hola, hasian hasi, ikusiko dituzu gure mintzaira «ezin-ikasiaren» mixterioen ere polliki xilatzen hasiak direnak, euskal hizkuntzari doi bat ohartuak...

Holakoan beldur naiz ni. Ez dut erran nahi beldur gaixto eta oihsa dutala horiendako, zeren nik ere maite baititut gu hein horretaraino maite gaituzten guziak. Baina beldurra bezalako latz zerbait senditzen dut halere, heiek heldu zaizkidalarik ezin konprenituz eta erasiaz bezala: «Zer dira zuen haurrak? Bati galdegin diot nola erraten den hau euskaraz, eta ihardetsi dit euskararik ez dakiela». Eta haurretan geldi balitz oraino! Zorigaitzez haurretan agertzen den gaitzak gorago dauka bere erroa. Eta horra gure herriaren adiskide kanpotiarrak aitzina: «Baina zer dute hemengo jendeek? Zertako ari dira hola, gure moldeak hartu beharrez eta gure jestu guziak sinokatu, berena ez duten «reka» batekin erdara zerratu bat ziminokatzearainokoan? Eta zertako ez dakite edo ez jakin nahi pitsik beren herriaz, beren ohidurez? Edo zertako dute burua itzultzen eta solasa aldatzen, gure galde batzueri? Ala ahalge zireztea zuen buruaz?»

Eta kanpotiarrek beretik: «Baina nola ditake hori? Ez dakizuela zuek zirezteela herri bat, gu guziak jelos eta ahalgetuak ezartzen gaituena... Zuek begiratu dituzuelaketoz guk aspaldi galtzerat utzi ditugunak oro? Euskal jeinu berezia bestalde: ezen herri guti baita hoin aberatsik, bere kultura eta ohidurretan!»

Orduan zer ihardets gure kanpotiar maiteari? Hau bakarrik: «Ori! Erro-zute zuhaurek... guk erran-eta sinetsi nahi ez dutena!»

Atxik dezagun – 1982-09-09

Aspaldi joana da bera, euskarak ez zuela hogoi urterenik erran zuen hura. Eta hogoi urte heiek ere aspaldi joanak dira. Euskara aldiz beti hemen dugu eta guk ere bizi utziko. Eta sekulan baino azkarrago utziko, ainitz eskualde-tarik: irakaskuntza, bertsularitza, liburugintza, hainbeste gazteren nahikari etab...

Alta, denbora berean, lotsamenduaren indarrak ere beste alderat ari zaizko euskarari tiraka. Hori ez ikustea, gaitzaren ukatzea litake. Familian da lehenik xangre hori sartua. Egun oroz aurki detzazkezu buraso euskaldun zintzoak. Lehen haurrarekin gogotik eta funski lotu ziren euskarari. Zerbaitetarar heldu ere bai: doi doia zuen haurrak, nik dakita nongo beharri xorrotxegi bat, nonbaiteko hizkuntza erdalduneri ohartzeko (telebista, auzoko lagun, eta ere burasoek berek ohargabeen beren artean zerabiltzatenetarik bilduak); halere bazoan etxekoekein haurra euskaratik.

Baina horra bigarren haurra, edo hirugarrena oraino gehiago: «Nik ez dakit ttipien honek zer duen, edo frantsesa errexago denetz... Alta guk lehenari bezala eman diogu euskara!». «Guk» bai, baina haur gehienak? Eta haurrek beren artean? Orduan dira lanak haste. Orduan dugu bigarren hazaldia hasia: beren artean euskararik gabea etor ditakeena, non ez den zerbait egiten.

«Ez gaitzezke beti kalapitan ere ar!» dute zenbaitek erraten. Egia. Indarka ez da deus onik egiten. Ikusten da, beharrik, beste molderik dute-nik: beti bereari egonez, euskara daukate, sekulan amore eman gabe, etxeko mahain eta sukaldeko mintzaira eta eskola. Lotsamen irrisku batetik, fer-mutasun bestetik, horiek oro berdin egiak ditugu gure herriaren biziko mail guzietan: eskolan, elizan, katiximetan, herriko bestetan, karrikako so-lasetan eta non-nahi.

Bereziki publikoan agertzen eta mintzo diren horiek guziek lukete hoben haundia, beren kargua aski goratasunekin ez hartuz. Eliza izan da orain artean euskara herriaren aitzinean xutik atxiki duena. Eman dezagun orai arte zela harentzat lehen haurraren denbora errexena. Orain aldiz eliza ere gertatzen da, buraso batzu bigarren edo hirugarrenarekin diren kasu berean: gauzak nekeago. Kasu orduan lotsatzeari, eta amore emateari.

Buraso, eliza, kargudun, besta-egile... Atxik beraz denek gure euskara. Baina atxik denek elgar. Euskarak ez du nehor sobera!

Euskaltzaleak «biltzen» balinbadira – 1982-12-02

Bildu da Euskaltzaleen Biltzarra Iholdin. Hobe euskaltzale guziak bildu baditu. Bildu dionak, ez dio denak han zirela egun hartan. Dio bakarrik, oro bat direla bihotzez, nahikundez eta xedez; eta ondoko egunetan egintzek eta lanak salatuko dutela horien batasuna.

Ezin uka, hala da, Biltzarraren buruzagiak dioen bezala, 82 urte beteak dituela andere xahar horrek: Euskaltzaleen Biltzarrak. Ezin uka ere andere hori ber-bera zela denbora hartan euskal saileko lan osoarentzat; denak horren gain zirela: orain aldiz badugula beste biltzarrik, beste elkarterik eta multxorik, eta adin hobekoak, laneko kalda gorrian baitira guziak.

Halere, etxe batean amatxik badauka beti bere itzala, bularretan hats eta zainetan odol dueno, hau baizik ez balitz ere: haren sukalde berorat biltzen direla egun haundi batzuez, etxeko seme ta alaba desbardinak, munduan gaindi berduratuak direnak ere. Eta ama hori dela beti desbardintasun guzien zimendua eta bihotza, edo berdin noiztenka ororen baketzailea, zertako ez?

Gehiago dena, ez zaiku «amatxi xaharra» batere haurtua agertu Iholdin. Bere gaztetasuneko lelo xahar batzu ez dituela ukatuak, hala da: hala-nola eskoletako haurren euskarazko lanak beti akulatzen ditu. Baina hori ere ez dea gazte dagoelako frogatzen? Bere denborako behar-ordueri xut eta tente; haurrentzat euskara gehixeago eskoletan sartzen ari den orduan, eta haundientzat gau-eskolak orotan, eta afixak euskaraz murruetan, eta herrien izenak euskaraz plankartetan, ez du nahi berak bere sailetik ihes egin, beste nehoen esku hobetan sail hori ere ikusi ez dueno.

Bestalde, bego amatxi xaharra, oroitzapen xaharrendako, bai-eta ahoan bilorik gabe haur bakoitzari berea erraiteko: hari esker, iholdiarrek eta beste batzuek jakin dute aurten nor zuten Oltzoko apezpiku, herriko semea. Baina, oroz gainetik, amatxi xahar horrek, egin zezakeen bezala, ekarrarazi ditu bere sukalderat aurten auzapez bat, Pilotako buruzagi bat eta Irratietako beste biga, erran zezaten orori zer ari diren eta beren griñen berri.

Haundiena hau egin duke aurten «amatxik». Behar dela letra bat herrietako buruzagieri igorri galdatuz: «Zuek, hainbeste lan eta diru erabiltzen duzuen artean gure herrien gorputzarendako (bide, lurberri, elektrika, arra-

bote edo trinket), zer egiten duzue eta zenbat diru baztertzen gure herrien arimarentzat... mintzairatik haste?»

Bai, behar-beharra dugula, berexkondeak baino goragotik, euskara salbatu nahi dutenen Biltzarra!

Bizikleta euskara denetz – 1983-01-27

Bizikleta hitza euskara dea? Ez dea? Hortaz zituen berriki bere griña eta kezka Lapurdiko gure berriketari batek bere artikuluan. Kezka onak hola-koak alde batetik, eta idazle bat ohoratzen dutenak: irakurtzen eta entzuten baita politik egungo egunean! Alabaina, badugu hainbeste herritar, euskara ederra ahanzten ari dutenik, eta beste hainbeste naski, berek ikasi gabe, gaitzeko ausartzia eta sanfretean derabilatenik.

Ohore beraz holako garbi-axolak derabiltzan Herria kazetaren idazle bipileri. Begira gaiten ordea bipilegi izatetik ere. Ezen, sobera bipildu ondoan zer gelditzen zaio ihizari? Jakia, nahi dut, baina bera bipilduz geroz, hila da. Begira gaiten gure euskara, garbi gose horrekin, osoki bipiltzetik, beraz hiltzetik. Eta egungo hitzek harritzen dituzten euskaltzaleeri hau erranen diegu: mintzaira guziak ohointzaz bizi direla, erran nahi baita hitzen erdiak baino gehiago beste nonbaitik hartuz.

Ohointzaz, baina ez haatik ohointza hutsez, beharrik! Hitz horiek mintzaira bakoitzak bere estomakarekin beretzen baititu eta bere josturen itzuli-mitzulietan sartzen. Hortan du preseski mintzaira bakoitzak bere nortasun eta jeinu berezia erakusten: hitzen erabiltzeko moldean. Hitz berrien beldurrez ere ez gaudela beraz gehiegi. Zinez gureak ditugun batzu asmatuz, noizean behin ongi hel gintazke beharbada (beribil, edo «berabil»), nahiago dute batzuek «automobila» baino, gauza ber-bera erran nahi baitu), baina bitzikeria askotarar ere eror ditake, gure berriketariak zioen bezala.

Hautsi-mautsi batean da dena. Erran nahi da, gustu on batean. Eta hitz berrien sartzea, diren lekutik «mailegatuz» baitezpadako lana dugula egungo egunean erran berri digu Euskaltzañdiak, hemen berean aipatu dugun bezala, teknika berrien hizkuntza bereziekin. Bederen segurtamen batean gaudela: «bizikleta, autoa, kosmonauta, nuklearra» eta holako hitzak ez direla ez frantses ez español, baina heiek ere nonbaitik hartuak, latin eta greka-rainotik, funtsean «pilota, karroa, bidea, erregea» eta beste asko bezala, guk uste ez ditugunak ere.

Azken hitz hauk egun guzietako hitz bilakatuak diren bezala, berdín berdina teknika-hitzak ere frankatuko dira, erabiltzen badira, biharko mende berrian. Guk egiteko izanen duguna hauxe: gure jantzia eta gure kolorea eman beharko, arras naturalki euskaraz ahozkatuz, gure mintzaira ere bizi dadin, bai eta aitzina beste guzien artean... Bizikletaz edo automobileraz!

Presentatuko niza? 1983-02-10

Mila lanetan zen gizona. Iduriz malezia gaixtorik gabea eta borondate onekoa, baina ez nehondik ere logale, bere kezka eta griñez ari zitzaion adiskide bati: «Nahi nitek herriko boz horietan presentatu, eta arrazoin batzu ere ba hortako!» Adiskideak: «Presenta hadi beraz!» Bai, baina ez baitira sekulan gauzak bazterretik iduri duen bezain garbi eta errexak! Eta huna gure gizonak aitzina: «Beldur bainaiz haatik: zer behar dute erran jadanik kargutan direnek? Gaitzituko zaiotek. Eta nik bihar ere heien auzoan bizi behar, egun guzietan heien etxe aitzinetik pasatuz; nahi bainuke atzo bezain lañoki agur egin ene auzoari bihar ere!»

Ez zuen bakarrik bere auzoaren beldurra gure gizonak: bazituen bere askazia edo jendakiakoak ere «beste alderdikoetan» eta berak zioen bezala, debrua zitzaion familian berean berexirik jartzea. Azken arrazoin hau berriz orozgainekoa zukan gaizoak: «Badiat bai beste burukomin bat ere: badakik gure herrian zer istorioak izanak diren lehen ere, eta ez hain aspaldi azkenak! Emazteak erraiten zautaian ez zela batere mementoa haren ustez kalapita ezartzeko herrian: bakea dugula behinik behin herrian beharrena!»

Erran behar da «presentatzeko arrazoin» heiek ez zituela batere txarrak: zinez bazituen ideiak, asko gauza eta xede onez, eta herrian nehork egiten ez dituenek. Eta beraz! Zertako hoinbeste «beldur»? Ene iduriko, garen bezalakoak garelakotz, batzu ala besteak. Eta demokrazia errexago delakotz teoriar, ezinez pratikan. Demokrazia balinbada sozietatearen barnean gizon edo emazte bakoitzak bere ideiak eta ahalak ororen zerbitzuko ezartzea, orori hautua utziz zeinenak diren hoberenak, badut ustea amets eder hori lehen aldiz egin zuenak ez zuela batere «beldur» horier pentsatu ere!

Ez zuen konprenituko ere harek, gaizo izarretako ameslariak, norbaiti gaitzi ere dakiokela zu edo ni bozetan presentatzea, zuk edo nik ez dugularik hari afruntu egitea gogoan baina herriaren alde bermatzea. Are gutiago konprenituko zuen «ainguru» harek, familiak holako baten gatik berex zitzakeela. Eta azkenik, beste istorio zahar edo berri batzuekin holako entsegu

batek zerbait ikustekorik baduela, oraino gutiago asmatuko zuen teoria eder horren egileak. Horrek erran nahi du naski, baduela oraino ainitz ikastekorik gure mende hontako eta gure tokietako gizonak: elgarren estimua, errespetua, jende bakoitzaren mintzatzeko dretxoa eta beste asko holakoz.

Mintza gaiten! 1983-02-24

Euskaldunari ez zaio laket bere jokoaren aitzinetik agertzea. Musean ikasia duke hori. Kartak eman-eta, joko txarra badu, ez du nehondik ere, hitzaz ala soaz, holakorik salatuko. Musetik hasirik, bere urrats gehienetan jite horrek berak derabila naski euskalduna: pilotan, eskuinerat botatzearena egin, eta ezkerrean sare! Etxean gizon ixila, ostatuan bere berriez baino elasturi gehiago aroaz edo Koxeren sudurraz!

Egun hauetan boz denboran sartuak baigare, horren gatik dea ote, holakoetan ere, euskalduna hoin nekez mintzazen? Badakit, egia erran, zer erranen didan besteak: ez ote ditudan entzuten aho-beteka mintzo direnak, eta kazeta-beteka idazten duten kandidatak! Entzuten, ez dakit, ikusten bederen ditugu segurki hoik ere. Bizkitartean hori ote da mintzatzea? Egiatzko mintzatzeko batendako ez da bat aski, biga behar dira. Hots! Elgarhizketa, orain erraten den bezala, erran nahi baita elgar entzunez eta elgarri erantzunez.

Horren orde, zer dugu ikusten? Hala-nola zerbait errateko duten batzu idatz eta idatz ari, eta heientzat irakurle guti. Edo heiek berak biltzar balios eta mintzaldi sakonen egile eta entzuletzat... deidanik horiek oro dazkiten adiskide zenbait; edo, makurrago dena, oihu-egile zital batzu, heien mintzatzerat ez uzteko etorriak.

Aldiz, beste batzu ikusiko dituzu, irakurlea, zernahi entzule luzketen kargudunak, jendea heientzat burrustan etor bailitake, baina heiek ez mintzo, heiek, konfiantza osoa badutelakoan, beren xederik ez agertzen eta, beraz, bozemaileeri baitezpadako partea ere, solasez bederen, ez har-arazten. Orogen buru horiek oro, tratu garbi ta agerian artzeko orde, ez ote dira azpiz eta disimulaz jokatzeko moldeak, tantoaren irabazterat ari den jokolariarenak bezala? Alta ez direlarik bozak, ongi pentsatuz, tanto edo partida baten irabazteko baina gure egun guzitako bizimoldearen manatzeko: eskola, bide, ixurkin eta beste zenbat!

Hau ere ikusten da oraino herri batzutan: kandidatak etxez etxe ibiltzen baitira. Ederki hori, haatik kondizione batean: urtearen buruan eta gero urte

guziz beste hainbeste egitekotan! Eta, orduan, ez bozaren galdatzeko, baina xoilki, mintzatzeko: herriko berriez eta beharrez, eginez eta egitekoez! Mintzatzzen edo elgarrizketan balinbadakigu bederen egiazki. Orduan, bai, mintza gaiten.

Xaharra joan-eta – 1983-03-03

Aspaldikoa zen gizona. Adin haundirat heldurik, iduri zuen oraino behingo xahar bazela. Hala da-eta: azkenekotz iduritzen zaizu jende batzu «kasik beti hola» ikusiak dituzulakoan, haritz zaharraren pare, «betiko» izan ditazkeela duda mudarik gabe. Bizkitartean, hala-nola haritz xaharra kraskez aurdikitzen baitu haizete bortitzago batek, berdin amore emaiten, egun batez edo bestean, osasunik zailduenak ere.

Xaharra joan. Gero dira kontuak. Ez lehen hiru egunetan ez, orduan beti gauzak nobleki egiten ditugu Euskal Herrian: ehortzeta ederren bezperan, lehen auzo kurutzeketariaren bidez behar dira hilmezuak igorri jendakia guziari, Ameriketakoak ahortzi gabe, nahiko baitute jakin eta beharba etorri! Beste batzu auzo herrian bizi dira, askazi urrunduxagoak, eta bigarren kusia Landesetan, zeren gu ere izan baiginen heien alabarendako, edo meza igorri hirugarren kusi harendako, oraino ez baitugu familia horrekin ere kurutzamendua galdua... gu bizi gareneko bederen!

Gu bizi gareneko! Hortan da dena. Funtsean gu hemen gauden artean ere, bakarren gauzak ari dira aldatzen. Gure «xaharraren» etxe ta ontsasunetarik haste: lurra jada auzoek derabiltzate, arrandan harturik, etxeko segida zuzenik ez izanez. Norat joanen ote dira eta nola? Hain zuzen, auzoko emazte batzu otoitz baten egiterat heldu zirelarikan batean, horra faturrara (pietuna erraiten ginuen lehenago baina orain autoan dabila): «Herria» du ekartzen. Xaharrak irakurtzen zuen, baina iloba ttipi horiendako ez du gehiago balioko, horiek ez omen dakite euskaraz irakurtzen.

Izanen da beste kanbiorik ere ondoko egunetan. Hauekin etxe zaharrak berak hartuko du harroaldi bat ederra. Freskaturik eta ederturik ezarriko dutela palazio bat bezala, ez da dudarik: oraingo gazteak ez dira batere xauxunak, beharrezko diren gastu batzuen egiteko, eta gainerat, gostua badute! Hasteko, «xaharrak» utzi duen sos metañoaren errautsak airatuko dira, airatuko! Izanen baita zer egin...

Kurutzamenduak bestalde: lehengoan harremanak ez dira egundaino auzoetarik urrunago hedatu. Orain, gazte horiek nongo lagunak ez dituzte

etxerat tiratzen? Herritar baino gehiago kanpoko, gisa guziz, ez baitira horiek tokikoarekin kasik nahasten.

Hots, irakurlea, behazu egun hauetako aroari: neguaren bipila nola duten primaderako lehen girtoinek haizatzen hasia, egun luzeagoen argiak atzokoen goibela kasatzen. Beha hor bezala ez ote duen jenerazione bat ere bestelako batek ordaintzen ari karraskan, zu ta ni ohart gabeen. Lehenagoko zahar-gazteen parabola hori? Bada besterik ere. Lehen, oro har, gizaldi berdintsu batek ordaintzen zuen aitzineko xaharra. Orain aldiz, hori ez ditake: zuk eta nik ezagutzen ez ginuen bat da, ondotik heldu dena. Zure ta gure ildoak nolako segida ukanen duen? Dena hortan da.

Errespeturekin jaun mera – 1983-03-24

Horra nun duzun beraz «xarpa» berri-berri bat, zuk eta zuk bakarrik herriari ibiltzen ahalko duzuna... Berri dira gauzak alabaina zuretzat, gisa guziz. Kanpaña denborako egun edo arrats batzuek senditu duzu-eta zuk ere kritikaren latza eta auzitan jakituaren dardara. Oro ongi iraganik, bederen zuretzat, hatsa hobeki hartzen duzu orain... Eta lehen aldi hark bezenbat plazer giten duela orobat hirugarren edo bosgarrenak ere diozu zuhaurek...

Halere, jauna, doi bat esperientzia duzun ber, aski ongi badakizu «plazer» hori deus gutia dela zuk berriz ere hartu duzun karguaren aurrean. Ez dira-ta gauzak errexten ari. Zure lagun zaharrenek erranik bederen, heiek konpara baitezakete, badakizu gero-ta gogorrago dela mera baten lana, gero-ta zailago herriko erabaki eta deliberoak, gero-ta haundiagoak beraz erresponsabilitateak.

Ez dela erabaki horientzat mera bakarrik... Hortan arrazoina duzu, jaun auzapeza. Hor dituzu zure inguruan, hamar, hemezortzi edo hogeita zortzi lagun, kontseilua. Hobe zuretzat hauk ongi hautatu badituzu: ez baitezpada «prestuenak» edo «boz gehienik ekar ziezagutenak» baina zerbait dakiten eta zerbait nahi duten gizon eta emazteak. Halere badakikezu, jauna, edo anderea (andere merak ere baitira), kontseiluko hoberenak ere lanjeros bilaka ditazkeela... oro adiskideak direlarik! Adiskideek alabaina elgar bero dezakete: xede onetan... eta zenbait aldiz dudazkoetan. Hortakotz, jaun mera, girixtinoa bazare, egin dezakezu zuk ere, noiz edo noiz, beihalakoaren otoitza: «Jauna, begira nazazu nere adiskideetarik!»

Baina badituzu, jaun mera, etsaiak ere. Edo bederen kontrarioak. Ezagutzen dituzu, segur, ezen hor dituzu oraino, zintzurrean trebes, heiek zure

kontra atera gezurrak. Haatik hau ez dezakezu uka, jauna edo anderea: zaldi beltzak ere beti, bilo ondo bat nonbait xuria baduen bezala, heien «gezurrek» ere bazituztela beren «egiak». Funtsean hor dituzu heien paperak oro, zure lagun hoberenak artoski bilduak.

Zertako ez berriz irakur kontrarioen paperak, bakartasunean eta odol hotzean, hitz gaixtoak zirrimarratuz, baina hala direnak eta horgo xede funtsezko batzu gorriz azpimarratuz, ondoko egunetan baliatzeko, bereziki herriaren onetan? Barkatu, jaun mera! Errespeturekin.

Bertsularia – 1983-05-05

Zer hazaldi gastatua egiten duguna! Aitzineko hazaldiak ez ginituen holakoak. Bizkitartean gurearen bezpera heiek ere! Gure hazaldia doi-doi kantuz ariko da... trilili eta tralala... edo besteek izkirioz eman hitzekin. Hazaldi honen aitak bazazkien kantuak oro gogoz: ezin atertuak ariko ziren, bat eman eta bestea has, eta ez gero lehen koplak baina kantu bakoitza bururaino.

Besterik zen oraino hazaldi honen aitaxi: noizbaiteko koplak kantatzeko orde, baziren orduan koplak-egileak, kantuak berriak izkiria eta bertsu-paperrak sal, edo adiskideeri eman, heien kopiatzeko eta kantatzeko. Baina gure aitaxiren hazaldi horrek ere izan ditu bera baino lehenagokoak, eta gehiagokoak: gehiagokoak, zeren heiek ez baitziren ari, ez irakurriz, ez ikasitik, ez eta beste batzuek idatzietarik. Hura zen alabaina bertsularien hazaldia: bakoitza bere barneko iturritik ari, ariaren bortxaz trebatua, mihia zaloindua, eta entzulea bera zaletua.

Ezen entzulea ere bertsulari zen bere heinean: bere ahusamendu hautuzkoa izanez hori konpainian, bera ere ohartua zen jendea bertsuaren moldeari eta jakitari. Orain aldiz, sekulan bertsuatarat ez doan ez-ikasía ikusiko duzu bigarren lerroan esku-zartaka, ez dakielakotz laugarreneraino utziz, orduan botako duela bertsulariak haundiena.

Horra laburzki, eta larriki, nola jautsi garen bertsularien mendetik eta trilili-tralalara. Hauxe dugu bada erorikoa! Nor den eroriko hortaz hobendun, ez da errex erraitea. Denak eta nehor ez, gisa batez! Edo bai, badira hobendun batzu, izenda detzazkegunak: soinutresna harrabosdunak, erritma zinpiti eta zanpatalariak eta biltzar baketsu eskasa, ostatu ttipietan eta etxe xokoetan; bizia aldatu baita, ez gehiago «mekanika», «arto-xuritze», ez-eta kabalkada eta galarrotsik ere bertsulariendako.

Ez uste izan, horiek oro aipatuz, zaharkerietarat itzularazi nahiz ari garelara! Ez da bizia lehengorat itzuliko. Orain badira bertsularitza berri bat sortzen ari dutenak. Konprenitua dute heiek kultura baten mail gorenetan dela bertsularitza, eta alor horren lantzeko, ahal guziak egin behar direla: ez bakarrik xapelgoak, hobereenen saristatzeko, baina eskolak ere, bertsutan ikasteko. «Dohaina» erranen du besteak. Xalbadorrek aldiz ihardesten zuen: «Ez da jorratu behar ez den landarerik!»

Bertsularia joan-eta – 1983-06-02

Ez zen bertsulari haundi heien mailean nehoiz ere izana. Baina bazuen, bertsulari batean, euskaldunak maite dituen dohain eta grazia heietarik leerro bat pollita. Kantuaren amodioa duzu bertsulariaren lore lehenetarik bat: doiñu edo aire nasaia, ez nehoiz presakaria, xaramelaren aitzakian izpirituak pitz eta molda dezan segidako hitzaren mamia. Eta, egun batzuez, barneko eihera hori alferrean gertatzen denean, hitz gabeko murmurika batek edo xixtuaren firurikak ordain dezake hitzaren eskasa, orenak eta orenak.

Jite gozo eta alegera, beste lore bat. Gazteago zelarik, eta gaitzak hartu ondoan ere, ikusaldi guzietan, adiskide arteko omere on eta bero hura: beti irri arraillant maitekorra bere begitarte zabalean. Maiz jostagura eta zirto-lari agertzen zaizu holako laguna konpainian eta, ondarrerat, galdua duelarik ere bere mihiaren zalutasuna edo burrusta pindartsua argi bat hor dagokio oraino bizi, begi xorrotx baten izarra!

Ixtorio kondan bereziki laket zaio bertsulariari. Beste batzu ar ditela jokoan, karta-joko, tripa-joko ala diru-joko... Nork daki zenbat joko mota den, batzu ahusagailu huts, besteak denbora pasagailu edo, berdin, gizonarentzat galgarri. Mihi-jokoa da bertsulariaren joko hautuzkoa: kontu-kontari, batek hau, besteak hura, zaku haundiaren zolan beti beste bat izaki, hala-nola mendi iturriak ere agortzerik gabekoa baitauka bere ur-hotx garbia.

Nork daki beraz zer zintzurreko idorrek eta bihotz zukatueta leka eta ezpalak dituen ur on horrek ikuziak, freskatuak, goxatuak? Eta zenbat zintzur zipildu, zenbat mihi moteldu, mututu, kazkartu, ele on bat ere gabetu, ez ote da gure maxina-mundu hotzean? Ai! Zenbat eta zenbat duen mende honek bertsulari-kondariaren beharra!

Harek bederen baitaki lagunkatzearen balioa, harek ez baitu galdu konpainiaren gustua, harek jakinki auzoaren entzuten, daiteken dohain ttipie-

nekoa ere: hartzen du harek, lagunarekin, behar den astia, uzten du konda dezan berea, egiten dio irri-zafla bat ederra, anaitasunez bederen, eta bigarren bat eginarazten dio berak beste batekin... orobat hainbeste behartua zen dohakabeari ere!

Holako gizon eta emazte, jeinu bezenbat bihotzekoak non aurki? Gure herriaren barneko erro finean, bistan da. Herri honen fruitu hoberenetarik baitira gure bertsulari-kondari-zirtolariak. Horra zertako den herria do-luan holako bat galtzean. Eta zin egiten duen, beste hamarrez ordainduko duela.

Euskaldun izan – 1983-06-23

Euskaldun izan... «Être Basque»: horra liburu berriaren izena. Joan den ortzegunean, Baionako erakustoki edo museoan zen lan eder horren aurkezpen edo agertzea. Euskaldun izan! Beihalako zozoak erranen zuen orobat: «Bazakiagu, ba, nehork jakitekotz, zer den euskaldun izatea!» Eta nork ez daki konda-ahala ume baduela egungo egunean ere, gutarik haste... beihalako zozoak!

Garen bezalakoak ote gintazke alabaina, gu, euskaldunak, batere baginaki zer den euskaldun izaitea? Baginaki zeren jabe garen, noren ondokoak eta nolako herriaren umeak, hola ibil ote gintazke, gure buruaz ahalgez urtuak, gure dohain arraroenak ukatuz, gure izenatarik eta mintzairatik haste? Bada menturaz hor jende argituen falta ere. Hala-nola entzuten baita arrazoin hau politikalarieri, herriak ez dituelarik segitu: «Gure politika ona zen, bai, baina ez dugu aski esplikatatu, ez dugu aski jakinarazi». Politikarientzat, berek errana gatik, beti egia ez dena, miletan eta miletan egia euskaldunentzat! Ai, baginaki guk, euskaldunek, gure berri, baginaki nor garen eta zein aberatsa den gure izaitea, ez luketela orduan mila arrazoinen beharrik euskaldunek beren euskaldungoaren zaintzeko!

Horra zertako zaizkigun naski beren erakasle lanari lotu gure jakintsun batzu: ez dutea ehun urte hurbil, eta zenbaitek gehiago, euskaldungoaren agerle ditugun liburu famatu batzuek, «La Tradition au Pays Basque», Francisque Michel-en liburu eta beste? Bistan da geroztik ere ez direla lo egon gure idazleak, Haristoy, Daranatz, Veyrin, Lafitte, Goyheneche, Narbaitz, etab... Halere baginuen gure herriko jakintzen inguru orokor baten beharra, emendaturik, freskaturik eta osaturik oraingo irakurlearen galdeeri erantzunez: euskal lurraz eta jendetzeaz, gure ekonomiaz, gure sozietateaz bere be-

rezitasun, ohidura, mintzaira, idazkera, musika, dantza, ederti, etxegintza eta kirolekin, horiek oro Euskal Herri guzia hartuz ahalaz eta ez Pirinio mendien alde bakar batean egonez.

Holako lanak langile alde bat behar, nor bere sailaren argitzale. Jean Haritschelhar adiskideak hamabost bat lagun hartu ditu, berak oro kudeatuz, liburu horren egiteko. Gure irakurleen ezagutuen batzu baizik ez aipatzeko: P. Lafitte, P. Charriton, M. Duvert, J-M. Guilcher, M. Lafourcade, J-C. Larronde, G. Viers, L. Michelena, J. Caro Baroja eta beste, denak erakasle diplomatu edo euskaltzainak. Liburu hori hilabete hontan agertzen baita, eta usaiako tokietan salduko, hau erranen dugu bakarrik hemen, beste orduz erraitea gertatu zaikun bezala: gure etxe bakotxean ez litakeela hori mublerik txarrena. Ondorio on batzuen menturan gure euskalduntasunean.

Ihiztari abila – 1983-10-06

Denak punduan dituzte: armak, xakurrak, apeguak, hontako urtxoa aldiz manatua, lehen pasaietan bizirik bilduko duten bat; zakuak ere: bat, ttipiena, nahiz baduen bere inportantzia, askariendako, bestea, hau gotorra, xantza alde balinbada ere sekulan, ihiziz beterik etxerat ekartzeko! Denak punduan ere, solas, pentsaketa eta xede... Aspaldi baitu aurtengo ihizi sasoina hasia dutela zenbaitek, bederen mihiarekin, ostatu xoko, sozietateko biltzar eta laguneren artean!

Ez uste izan ordea zuk, irakurlea, mihia aski dela ihiziko sasoi baten prestatzeko. Ez da buruhauste eskasik. Aurten, bereziki, ez direa bazter guzietarik ihiziaren kontrarioak mintzo: batzu, bazterraren adiskideak, ihizia ez dela behar kasatu baina lagundu; besteak, dirutan toki hoberenak biltzen dituztenen kontra, eta elgarren arteko auziak, eta tokien apailatzeak, permisak, ihizi gazte hedatzeak!

Urteko lana lantegi horietan dutenek, izan ditene langile, nausi edo bien arteko, aspalditik segurtatua zuten urria, beren konjeten hartzeko, beste sasoi on bat gostaia-gosta bazterturik orobat. Laborariak aldiz, ezen baitira laborarietan ere ihiztariak, lehenik sorroak eta lursagarrak, gero iratzeak, bere lan guziak erne-ernea akulatu ditu aurten ere jaz bezala...

Eta horra beraz gure tropak atakadarentzat prest. Ez denak aitzinamendu berean: badira bide urratzaileak, badira ere gibelagotik artilleria haundiarren emailak, eta airekoak, eta lurraren okupatzaileak... Ihizian halaber: lapin xehearekin, erbirik ez bada, hasi ziren lehenak, ttorttoila zenbaitekin besteak,

ixtante sarekilakoak, edo pekada harrotzaileak, basurdekariak, haundiagorik ez naski gure tokietan.

Batzuk eta besteek egin bezate fortuna! Hau bakan izaiten da amestua-
ren betekoa, baina utziko du gisa guziz bere satifamendu mota: oraingo asko
gizon (emazte gutisko halere) zipotetu ta aiseriak beraztu jalgiaraziko baitu
bere jargia guri edo geldietarik, membro alfertu horien hezteko, mendi hegien
eta erreka zokoan hats bizian. Ez da guti hori ere.

Ihiztariak, bi kontseilu xoil halere, ihiztari txar batek hemen emanik.
Lehenik, kasu norat tiratzen duzuen, ez egiteko lehengoarena, bertsuak ukan
baitzituen: «Kuantzito xandelero, ihiztari abila: zakur bat ekarri du otsoaren-
tzat hila!» Bestea ez da txarragoa. Oroit ihizia dela basa eta ez zuek! Ihiztari
basarik ez dela sinesten ez duena joan bedi, Napoleonen bidetik, Garazi-Ja-
tsagunerat, Urkuluko ondoan. Han ikusiko ditu lehenagoko hilarriak, Oka-
bekoen parekoak, milaka urteak dituztenak, buldozer batekin ihizitoki baten
egiteko fundituak! Ene bideko lagunak zioen bezala: «Salbaiak, ez besteak!»

Herria dut maite – 1983-10-20

Iragan astean kazeta batek zaukan berri hau, argazki eder batekin gainera.
Euskal Herritik ez hain urrun, mendiko ibilaldi bat lehenagoko Santiagoko
bidean gaindi proposaturik eta hortaz propaganda bat plantakoa eginik...
Lau lagun etorri direla orotara ibilaldi horretarat! Eta lau heiek ere... piaia
horren muntatzaleak berak izaki hain xuxen!

Berri hori ez dugu guk hemen bitxikerien lerroan aipatzen. Are gutiago
gure auzo biarnesen arrailleria edo trufagailu. Pena bai hartzen dugu jendea-
ren hoztasun hortaz, kazeta hartako artikulu egilearekin batean. Funtsean,
harek berak, penagarri hori konprenitu nahiz, emaiten zituen lañoki zenbait
esplikabide. Beste bat esplika ginezake guk gure aldetik. Ez ote da hor hoz-
tasun bat agertzen gure herriaren aberastasun zenbaiten alderat? Biarnoko eta
Euskal Herriko herrien erakusgarri famatuen batzu dira alabaina gure Santi-
ago-Konpostelako bide, Ospitale eta denbora hartako elizak.

Ah, izan balitz Pariseko apostolu bat edo behere horietako «vedeta» as-
taputz zenbait, nor daki zenbat mila kurios-pinterdi bilduko zituen gure
tokietan ere? Ala gaizki diota ote «gure tokietan»? Euskaldun eta biarne-
sak auzo lehen eta lehen kusi garelakoan dugu naski bientzat «gu» erraiten
frango aise. Baina izan ditake baditugun bide desbardinak hartzen hasiak
heiek eta guk. Izan dugu guk ere gure herriaren maitasunean erreka zola joa.

Ezagutu dugu denbora hemengo gazte eta ez hain gazte ainitzen fantesia bakarria baitzen, herria utzirik hirietarat bizitzera joaitea. Eta hola, nehongo «Roxali tantiruri» guziek arrunt kaskoin kantuak eta trufak senditurik edo nolazbait, itzuli zaiku arruda.

Urteak ditu jadanik euskaldun gazteek nahi dutela herrian egon, lan egin eta libertitu. Baditugu geroztik gure mendigoizaleak, gure harpeetako gizon eta emazteak, gure artixtak eta ikertzaleak, gure herrietako taldeak eta oro. Ez galda heieri urrungo ametsik eta espantukeriarik: erroak hemen dituzte, ondoa eta aihenak hemen zangartu nahi, girtoinak eta loreak hemen lilitu, eta azkenekotz hementxe gogo beren fruituak. Baina kasu! Lurrak, bideek, harriek eta mendiek badaukate oraino zerbait barnagorik ere, herria zinez maite badugu. Orozgainetik: zaharren mintzaira eta arima.

Hegia xorrotx – 1983-12-08

Bai, hegia xorrotx duela egungo eguneko jendeak! Auzoaren ukondo xorrotxak noiznahi karramiskatua, odoletan lehenik, gaizkundua gero, hor dabil mundu hau guzia bere minak ezin goxatuz. Zer egin orduan? Artalde batean ere marro zanpatuak edo antxu txar zangopilatuak egiten duena: gibelat geldi behin, eta jo auzoko troparat, edo lehengo hartarat.

Guk, euskaldunek, herrian berean dugu gure iheslekua. Zenbat herritar ez dugu bere xokorat itzulirik! Kanpoko salda jastatu, hastapeneko ilusio-neak galdu, eta jo dute berriz sorterrirat gure seme-alaba ainitzek. Gehiago ere etorriko ziren oraino baina zertarik bizi? Artetik erraiteko, galde horren errepostua prest daukate lehenek: gizonak duela bizipidea sortzen eta ez bizipideak gizona; hots, kasko eta bihotz beroak ditugula besoak bezain beharrak herrian.

Baina nola ez gare, bat-besteari buruz, zizproz kanporat plantzatzan, arima salbu-ta sagarroi minberaiak bezala! Hegia xorrotx dutela mundu hon-tako gizonak elgarren alderat, xorrotxago miletan oraino, euskaldunek euskaldunen alderat! Zerk ez gaitu berexen eta elgarri buruz armatzen! Denek: sortzeak ez bada adinak, biziaren ikuspegiak, politikak bistan dena, eta erlisioneak berak ere, garen bezalako erle langile, lespara bilakatuak!

Bederen, bederen, adin eta ideia berdintsukoak elgarretara balite, zer indar ederra! Behauzu hortik orde: heiek ere, biltzen direlarik, ostiko bat ukana duen zinarrozkiko zinaurriak bezala ikusten dituzu, denak eskualde guzietarat ari eta nehondik elgar ezin konpreni. Frogak baditugu, hola-

koak, egun guziz begien aurrean. Alta ez da hola bizitzerik. Merkatuko tratularietan ikas bagineza! Ikusten dira heiek, merkatua hasi baino lehen plazaren gainean elgarretaratuak. Zerendako ote? Elgar maite dutela erraiteko? Hemendik harat ez direla gehiago bakoitza aferak hoberenaren ondotik ebaska ibiliko? Ez da batere seguru holako sendimenduek derabiltzateela. Berri emaiten ba elgarri: ez ditakeela egungo kabala honenbeste baino gehiago paga. Handik harat, ahal dituen tratuak egingen ditu bakoitzak. Ez dute bederen elgar janen eta ofizioa sarraskituko: hautsi-mautsi beharrezko bati esker. Eta euskaldunek noiz jakinen dugu hautsi-mautsiz eginga dela bizia?

Haurra, zu, haurra! 1984-03-01

Haurra, zu haur ona ikusten zaitut beste haur guziena artean. Hainbeste burasok ez dute zureek daukaten suerte goxoa. Gogorrak atera ziren heienak: maiz lagunekin gasailan, kasko tzar eta bortitzak, etxean bezala kanpoan, zenbat aldiz ez dira etorri arropak tarrantan, bekaina uspeldua, matel-hezurra odoletan ez zelarik oraino. Izan ditazkeela gure etxetan halako «infernuko itxindiak», aitatzik kexa orduan erraiten zuen bezala.

Zu aldiz, haurra, beti izana zaituzte begitarte legunekoa, mana errega eta plegu onekoa. Ai, zu bezalako haurrekin, buraso guziekin egin lezaketen mundu baketsu goxoa! Bai, baina joan den best'arratsean ikusi zaitut usaian ez bezala. Euskaldun besta bat baitzen, etorria zinen, mundu bat osoa bezala, herriko plazarat. Baina harat-eta geldi egin duzu, zure lagunetarik zenbaitekin. Ongi ikasia eta begitarte onekoa izanik, bazinlukan halere zure irri pollit ezta ezpainetan. Halere, hurbilagotik behatu dizut eta sumatu ere usaiatz kanpoko hedoia begian, irriñoaren petik ageri.

Damurik! Ez zintazkeen aitzinago joan zure gazte lagun guziekin. Zuharek agertu didazu zure mina: euskaraz zen besta guzia eta zu eta lagun batzu ezin joan... ez dakizuelakotz euskara! Horra zertan zaitugun, haurra! Haur orain haunditua eta, hortakotz, ahalgea zer den gostuz ikasten duzuna. Oi, zu, beti haur ona izana zarena, ala buraso, ala erakasle ala denekin, badaikit ez duzula zuk hortan hobetik. Funtsean, ohartua nintzan, aitzineko urte batzuetakotz, zure ateraldixka, malezia gabeko, batzuetarik: ama lehenik, bai eta ere aita gero, beti erdaraz ari zirela zurekin etxean... Beste aldi batez berri, bazinuela beste egitekori: ingelesa ere hor zela eskolan ikasteko... bai eta latina ere... hori erraiten zuela amak.

Jatean ibiltzen baitira etxeko solasak, hau ere entzuna omen duzu etxeko mahainean: «ahalgetu ere behar dela euskaldun izaitez, oraingo egunean gertatzen direnekin»; eta, «badirela gero-ere bizian hori baino inportantagoak!» Gazte laño atzoko haur, begi ederreko ongi ikasia, duzun jakitatearekin eta bildu zentzuarekin, gauzak eta mendea aitzinakoez ez bezala ikusten dituzuna, beha zozu herriari bekoz beko: zu iduri lagunak zernahi badauzkazu hor, beste batzu aldiz, «gogorregiak» deitzen dituzten heietarik. Zuen denen esku izanen da bihar besteen hutsen ordaintzea... eta haundiagoetarik zaintzea!

Mundua kexu – 1984-03-29

«Mundua kexu dela!» Izen horrekilako konferantzaren entzuten izan omen zen lehenagoko euskalduna, Kauteresetan, uretara joan zen batez. Arrailleriarik gabe, ba ote du gure munduak nehoizkoari zorrik, kexamenduz eta kexabidez? Kexu euskaldun arrantzaleak, kexu frantses kamiunzainak, kexu laborariak, kexu europatiarrak, kexu eskola librotiarrak, kexu eskola bakartiarrak, kexu euskaldun abertzaleak, ala heien lagunak, kexu heien kontrakoak, kexu euskaldun «prestu» edo «geldirik» daudenak, kexu, edo ez kezkarik gabe, euskal departamenduaren aldekoak, eta kontrakoak ere, kexu herriko ekonomia sailean zerbait egiten edo egin nahi dutenak, kexu langileak eta kexuago oraino langabeak, hots, noiz eta non geldi kexu diren guzien zerrenda minberatua!

Laster ohar ditake arrazoin haundiak badituztela gutiz gehienek kexu izaiteko beren arabera segurik: euskaldun arrantzaleek beren bizipidea dute zaindu nahi arrantzako libertatearekin, eta laborariak halaber, esne horrekin, prezioekin eta beste, baina heien kontrarioek ere ez dituzte karta txarrak eskutan, batzuek Europa zabalago baten abantailak goretsez, eta besteek kategoria bakoitzaren bizinahia.

Aise segi genezake, erakutsiz ere «euskaldunek» beren zuzenik zuzenenen alde nahi dutela gudukatu; bai eta, halaber, heien kontrakoak beldur batek gidatzen dituela: mundu honen guziaren puskatzeko eta elgarren jale bilakatzeko beldurra; hots, hauek injustiziako bake bat maiteago, ezen-ez justiziarren aldeko gerla eta hiltzeak...

Baina horra hor hitz bat botatua: beldurra! Beldurra balinbadu mundu honek gidari, beldurraren gainean nahi baditu bere guduka eta auziak xuritu, zer egin ote dezake on eta iraunkorrik? Beldurra, jeloskeria, herra, denak ere elgarri josiak daude, egun ez bada, bihar edo etziko. Eta beraz, sendimendu

horien gainean finkatu tratuek, dela Europa, Eskola, Ekonomia, Lana, Libertatea edo zernahitaz, zer eman ote dezakete, egun ez bada geroan?

Eta hain zuzen, ez ote da hori mundu honi guziari gertatzen zaiona? Beti hola izan dela erraiteak, irakurle, ez du gure solasa aitzinatuko. Arrazoin horri nik hau erreferatuko diot: bizimoldeak eta ekonomiabideak ere, «beti hola izan direnak», handizki aldatu dituen mende hau, zeren beha dago bere gizonaren bihotz-izpirituen aldatzeko: beldurretik errespeturat, berant bada berant? Zorigaitzez estaduak eta gizon gehienak ditugu, kasik beti, beren diru eta interes tratuetan ari. Beharra ahantziz: gizona, herria, hauen zuzenak eta errespetua. Horien aldeko bide berriak hartuko ez direno, beti erraiten ahalko dute, denen kaltetan... «mundua kexu dela!»

Bertsulariekin lau aste xoragarri – 1984-04-05

Nafarroako bertsularien xapelketa zen: aurten, jaz bezala, Nafarroa guziko. Lau larunbat-igandez, probintziako lau toki desbardinetan, izan dugu zenbait lagunek fagorea, zortzitik zortzira euskal besta horietan aurkitzeko. Etxarri-Aranatz, Goizueta, Bidarra, Sunbilla: horiek laurak ongi ezagutzen dituenik nor da, Euskal Herrian berean? Bat gotorra, bestea koxkorra, bestea menditarra edo «muga» hegikoa, zer izan zezaketen holako lau herrik elgarretarratzailerik? Zer? Euskara! Nafarroako euskara, molde desbardinetan egia-erran, eta... euskara hori bertsutan emana. Bai, bertsuak ditu lau astez Nafarroaren lau hegalak berdindu.

Euskal Herriaren berdintzea: zer kezkak, zer kalapitak, zer minak eta zer gerlak ez ditu gai horrek gure herrian ekarri eta ekartzen! Min eta kalapitagarri zirena beraz gu nafartarren artean izan ditugun lau asteak? Ez, eta ondorik ere! Doi doia ohartu gare bakarrik legearen zaintzaleak ere hor ginituela hurbil-hurbila. Norbaitek erran du auto guzien lumeroen hartzen ari zirela ere. Guk ez ginuen heietaz axolarik. Beren lana hori badute, egin dezatela. Funtsean egunak ere dorpeak dira eta gure bakearen segurtatzen ari denak eskerrak dituela! Gure bihotza aldiz beste nonbait zen.

Bai, bertsuetan gure bihotza. Eta bertsua dabilan goreneko mailetan, herriaren maitasun, euskararen zerbitzu, gure elkartasunaren goresmen eta holako! Horren gatik ez bazen, zertarat etorriak izanen ziren egun horietan ikus zitazkeen behari on, buruzagi, apez eta herrietako kargudun zintzoenak? Bertsua beraz errege eta jabe. Hori erran behar zen hemen, hori baita lau egun horietan zinez agertu eta ezagutu.

Gure eleak espantu huts direla uste duenak segi dezala, otoi, berri hauekin, solas hau bururaino. Bertsuak ari du bere heinean egiten beste indar guziek lortzen edo ardiesten ez duten herriaren batasuna. Non dira orain egunak, ez baiginuen bi aldeetako euskaldunek elgar konprenitzen ez ikusten ahal? Bidarrain edo Goizuetan, ez zuten eskuzartek «hango» edo «hemengorik» berexten, hitz bakar batzu goiti-beheiti.

Froga hoik aski ez balizaizkizu, irakurle adiskidea, mintzatuko nitzazu joan den igandeko bertsulariez. Edo bi hauetaz xoil-xoila: denetako zaharrena, Iriarte, hegotik honarat ezkontzaz etorria da. Eta gazteenetarik bat, E. Perurena, 19 urteko gazte husta, bere bertsutako lehen agertzearen egiterat jina hain xuxen, bere beldurarren garaitzerat... Goizuetatik Bidarraira! Eta nahi luzketela zenbaitek heien eta gure arteko kurutzamenduak, eta batasuna... ukatu!

Artzaina eta ardiak – 1984-06-07

Baginuke artzainarekin zer ikas. Bai eta ardiekin berekin ere. Bazoazin hauk mendiarri goiti beren alhan. Artzainak aldiz begia bazaukan urrunetik. Ezagutzen baititu bereak errotik, badaki nolatsu iraganen den afera. Badaki aitzinetik hantxetako gorriño mehaka hura joanen zaiola zokoz zoko eta ahalaz bazterka: dena mingotxa, ezker-aihen eta huntz-osto. Ez galda gure gorriño mehakari besteen erdian egoiterik: ez lakike eta harentzat ez da hola bizitzerik. Beherean zelarik ere, neguan, berdin berdina zen; Lapurdiko bazka gizenetan, beti behar zuen nonbaiteko hesi ondoetan zoko-mian, eta pasaia zenbait aurkitzen bazuen, oraino hobe; auzoko saldak beti gustu hobe gure gorriñorentzat.

Ettxeko plataren milikatzaileak ere badauzka gure artzainak: hala-nola hantxetako ardi zahar tripa haundi hura. Harek beti ahamen haundia. Gostuarentzat arruntagoa egiten badu ere, betegailu ausarkia da haren barneak galdatzen duena. Badu oraino beste hazinda motarik gure artzainak: baditu mee ta mee beti bildotsa gogoan ari direnak, alharen artetik; baditu eskura bil errex eztiak, nola ñapur eta basakiak edo, hantxetan, aztapar txarreko, usu maingutzen den hura, eta oraino haratxagoko barne hitseko poker eta ezkurkari hura!

Azken haueri begi berezia atxikiren die artzainak, beste batzuez berriz axola gutiago du baina denak berdin maite, denentzat arta eta griña bera orohar. Arta hori, griña hori, laster frogatu dituzu zuk, pasaiant axola gutikoa,

ikusituz zer arrangura daukan artzainak, behar-orduan alhagiak aldatzeko, edo maingu haren artatzeko, edo urrundu baten berexterat ez uzteko. Balioa ez dute menturaz ardi guziek harentzat berdina, baina atxikimendua eta lana ororentzat osoa erabiliko du harek.

Eta ardiak? Adimendu eta zentzu gabeko abere lausoak heiek? Errazu uste duzula! Nahiz aberea beti abere den eta hortako bere mugak izaki, balio du hurbilagoko behakoa. Zenbat ere urrundu izana gatik bat tropatik, beha zer oihartzuna duen haren baitan artzainaren xixtuak edo xakurraren erausiak! Hurbil zagoenak, alha utzirik, burua altxatuko du, zer ote den holakorik, eta urrunduak, behaturik harek ere, bere burua bakar ikusten du bat-batean, eta hori ezin onets, den zokokarienak ere! Bi jauziz, beha nola indar egiten duen troparen erdirat orduan.

Artzainarekin eta ardiekin guk ikas? Ba, eta zenbat! Ikusiz gure arteko politikak eta politikariak zein diren berexkari, alderdikari eta elgarretara ezinak, baginuke segur artaldeari so zer ikas!

Mutiko kankaila eta gizartea – 1984-06-14

Bizar beltz bat bazuen, ez segurki apaindua, baina ausarki luzatua: maia-tzeko eurien belar tzarra bezalakoa. Bide hegian autoeri geldika, nork behar zuen halakoari fidatu? Eguna halakoa gertatu eni aldiz: aferak ontsa, labe gainean eguzki, edo bihotz oneko aldia!

Solasa itsumandoka hasten da holakoetan: ez jakin nondik lot; ez nahi kurios pinterdikerian hasi, zerbitzu merke bat egiten diozulakoan, uzten duzu laxo zure pasaianta edo, gorenaz ere, urrunetikako galde bano batzu irriskatzen hazta-maztaka. Ez zen batere holako minberaia aldi hontako gizona: behere horietako frantximant eluntzia, aise bazoan berbera kondari, berak saka eta berak errefera.

Bai-eta lanketa zabilala, funtsean jada eskutan bezala zaukala uda hontakoa, ez zuela hortaz hanbateko axola, goizean Baionatik etorria zela Euskal Herri barne hontara, parte beste auto batek hartuz eta parte oinez ere. Egia erran, hortako ere ongi armatua zen bere zanga-luzeekin, baina hori zuen bere ixtorioan harrigarriena: ez da hain usu ikusten oinezkorik eta hura iduriz aintzek nahiago dute naski autoak ezin geldiaraziz nekatu, ezenez berek oinez bi urrats eginez. Izan banu nik lanik emaiteko, erran nahi baita lan baten jornaia, iduritzen zait hura bezalako bat hautatuko nuela beste milaren artean.

Beste milaren artean! Bai, eta zenbat mila? Zenbat ikusiko ditugu aurtengo udari buruz ere holakoak? Eta zerk derabiltza orobat lanketariak, gehienak gazte hutsak? Solasa barnago heldu baino lehen gure porturatuak baiginen, hantxet utzi dut gaizoa; orduan berriz bat-batean trein eta gara zuen aipu: beste gune batzuetarat hola-hola itsura jotzeko ote? Eta bera nola zabilan? Nola janik? Zokolet usain bat gaitza sumatu diot, besterik ez? Bazuen beste prisa baten saririk sakelan?

Ai, mutiko kankaila bizarduna! Maitagarri eta gozoa azalez, hire bizar mamuagatik, baina barnean zer dukan menturaz hihaurk ere ez jakin, zenbat iduri dukan gure oraino mendea! Holakoa duk zinez gure gizarte hau ere: ona eta xede haundiz betea bere hartan, ainitz ekarri zioke egungo gizonari handik eta hemendik, baina biharko horren aitzinean bere duda eta zalantzekin uzten halere: ustez aberats eta ezazol, izaitzez mila kezka eta galde go-goan, zernahi eginik eta gehiago ezinik...

Egun hartarik honat, maiz heldu zait gogora delako bideko mutiko kankaila. Atzeman ote du bilatu lana? Bai eta, orobat, oraino gehiago bilatzen zuen norbaiten konfiantza? Alta harek, eta haren lagunek, egin behar-eta biharko gizartea!

Etxe ondoko iturria – 1984-07-05

Munduko gauza hoberenetan izendatzen zituzten lehengoek herriko ezquila eta etxe ondoko iturria. Lehena beti bizi dagoela ez du nehorik dudatuko: ez dute gure herriko seme-alabek egundaino maitatu naski beren herria, orain maite duten bezala. Denbora batez bazoatzin herritik gure gazteak, hiri beterat berdin, gehiagoko prepariorik gabe: ofizioak, bizipi-deak eta mintzairak berak han ikastekotan. Orain badazkigu gazteak, alta lanik gabe, beraz diru guti sakelan eta geroaz kezketan, lehengoak ez bezala eskolatuak bizkitartean, baina hiri urrunean eskainia zaielarik lana, ez baitira etxetik mugituko, errerik ere. Zenbaitek pareta edo bideetan idazten duten bezala: «herrian nahi dugu bizi» eta beraz «biba herria, ezquila eta beste».

Etxe ondoko iturriarentzat haatik besterik da. Ai, etxe ondoko iturrotxaren balioa! Garbirik zaindua zela haren sortegia! Bazuela xarroaren betetzeko turruxta, gaztaina azal edo teila erdi batez ongi moldatua! Pasaiantarendako aldiz, han zagon alde aldean baso edo godalet garbia, nahi zuenak har zezan eta tokian berean utz garbiki, ondotik iraganen zenarendako.

Funtsean, bero haundietan sartuak baigare orain, nola iraunen zuen hola-koak jitearekin, ala eguerdi ganean bazkaltzerat etortzean, ala pentzeko be-larraren bigarren higialdian! Ez da beraz harritzeko, etxean, bat baitzen lana-ren artetik urketaria, gazteena gehienetan, azken sailaren egiterik ez zuena, ur frexkoa ekartzean truk.

Baina zer balio du, gehiago ez den denboraz holako bergarioetan artzeak hemen? Hauxe bai halarikan ere gure ustez: etxe ondoko iturriarekin, bes-terik ere galdu baitu gure herrietako etxe zaharrak. Iturria? Baina so egizu behako xoil batez: horra non dagoen laparrek hartua eta laparretarik landa ixtila eta lohia.

Lurrak, egia erran, ez du ez tronpatzen. Lehengo toki beretik hor heldu da beti lehengo ur bera baina zer estimurendako? Haurrek eta gazteek ez da-kite gehiago ur hori ona zela ere, lohitegi hortaz besterik ez baitute ezagu-tzen. Kabalek berek ere ez daukate harentzat begirik, etxeko jantegiko ttapa haren zapatzea aski baitute behar duten ur mengela hantxetan berean plaze-rik gabe iresteke.

Haurrena ez da hobe. Ez dute ezagutzen iturrotxa. Etxeko frigo hartari-kako ur karroindua zitroin jus hori batek enganatzen dute eta berek erranen dizute aitatzik zitroina baino maiteago duela rikarra. Baina nora goaz horie-kin denekin? Ustez-eta gizonak asmatuzko enganagailu meleka eta bortitzek ordainduko duten lurrak eman xirripa garbia!

Ihesi jin anaia – 1984-07-26

Egundainoko legea da: munduko jende mota guzietan, batere jendetasun doi baten jabe direnek betitik jakin dute ihes heldu denari ongi-etorri egi-ten. Kanpotiarrari, kanpoko delakotz oihesten direnak aldiz, horra egiazko salbaiak: batere gizon denak ez baitio atean joka heldu zaionari sudurrerat hesten.

Euskaldunek ere, erran behar da, ederki baliatu ditugu arrotz herrian guhaurk ukan ditugun ongi-etorriak: Hego-Ameriketan lehenik, Iparrekoe-tan geroago, zenbatek ez dute aurkitu izan bizitzekoa lehenik, familien haz-tekoa eta hemengo etxearen berritzekoa gero, etxea bera eta aberastasun po-llitak ere, beren lanarekin, zenbaitek.

Arrotz herria aipatuta, nola ez aitor azken denboretako «iheslari» edo «errefusiatuak» ez ditugula guk hain arrotzak. Guk bezala «aita» eta «ama», «ogia» eta «gasna» (edo «gazta», baterat heldu baita) erraiten dutenak, gu

bezala pilotan, musean edo bertsutan ari direnak, nork uka gure herritarrak direla? Gehiago ere dira holakoak: anaiak!

Zuk bai uka dezakezu hori, Euskal Herrirat gure manatzeko edo zaintzeko kargu zenbaitek behere horietarik ekarri zaituen euskara gabea. Edo zuk ere bai, gure tokian sorturik, edo hemen biziz, zuhaur euskara gabea bilakatu zarena, euskara eta euskal bihotza utzi dituzulakotz bazterrerat. Baina orduan hobendun eta arrotza ez da atean jotzen dizun euskaldun hura, baikiz zu! Eta beraz, zure buruarekin duzu bakea egin behar, ez zaitzan zure buruak akusa.

Euskaldun direlako beste froga batzu ere eman dizkigute naski iheslari horietarik aintzek. Aski duzu behatzea gure herrietan han eta hemen sortu diren lantegi batzueri (kasik gure lantegi bakarrak zorigaitzez): xehetasunetan barna sartu gabe aise jakin ditake lantegi horien barnean, edo gibelean, iheslariak badirela, kar eta hats berri bat beren aldetik ekarri digutenak. Galda hango langile diren gure semeeri ez ote den obra hori gauza ona gure herriarentzat.

Horra, besteak beste, zenbat arrazoinen gatik zor diegun guk, hemengo euskaldunek gure ongi-etorri eta anai estimua: eta bietan zor, jakinez geroz zenbaiten kasu urrikalgarria, munduaren hegal batetik bestera erabiliak, heien lan, bizipide, familia eta deusetaz axolatu gabe. Jakinez geroz... Hori da hain zuzen zenbaiten mina: ez dakigula nor eta zer diren iheslariak, denbora nahasi hauetan, eta guziz, ez ote diren berak ukaldi txar batzuen egileak. Hortaz horra zer dion ongi-etorriaren ohidura zaharrak: norbait gauarentzat hartzen duzularik zure samatsean, su-piztekoak kenzkiotzu, eta berriz joaiten itzul. Bada hor denentzat eskola. Zaharren zuhurtzia beti gizontasunaren alde, hots!

Axeriaren ezteiak – 1984-09-06

Aro bitxi aldakor batentzat erraiten zuten xaharrek «axeriaren ezteiak»: laurden batetik besterat eurixkatik iguzki xurira pasa, hala nola haurrak ere elgarri hurbil baititu irri eta nigarrak. Irri eta nigar, edo nigar eta irri, hola ari denik ere badugu Frantzian egungo eguneko politikarekin. Eskolen auzi horrekin hain zuzen: bai eskola bakar edo bakartzearen aldekoak, eta bai eskolen librantxaren aldekoak.

Lehenek: ez dela zuzentasunik, berdintasunean ez bada, gisa hortako lege bat makila bezala firurikatzen zutela. Bigarrenek ezetz: zuzentasuna bakoi-

tzaren errepostuan dela eta ez beste nehon. Bai eta miliunka hirietako karriketan batzu eta besteak: azken hau oro batean kapitalean metaturik, lehenak aldiz multzo ttipiagoka, baina Frantzia guzian barna hedatuak. Bien gainetik bi ganbarak inbidoka, erreferendum eta ez erreferendum, hau aldiz batek holako eta besteak halako, hastean auzi baizik ez zena hondarrekotz kalapita huts bilakatua.

Eta bat-batean axeriaren ezteiak. Ministro gazte bat xutitzen, norbait haundiagoren muttil bixtan dena, bizpahiru egunen buruko denak haxean ezarriko dituela. Erran eta egin: hola eta hola izanen dela, ximpleki eta zalapartarik gabe trenkatuko dela auzia eta hona, iduriz bederen, hala-hala gertatzen dela. Axeriaren ezteiak erran dugu. Eta hala dira segur: lehenek irri, edo irriño bat bederen, bigarrenek irri, edo begitarte goxatu bat segurik, hauxe dugu ustegabea!

Ez gaiten has hemen batzuen edo besteen jorratzen; ez-eta ikerka nor nor duen zakuan sartzen; edo non diren irabazle ta galtzaleak. Nahiago dugu haunditzerat utzi, berriz bat-batean sortu zaikun bakearen ametsa. Geroak erranen du. Baina aski bakan gertatzen baitira gizonen artean holakoak, gauden izaitekotz hoberena gogoan. Axeriaren ezteietarik landa ere hobeki preztzen da zinez onerat emaiten den aro fina. Halere, gogoeta hau segurik mezezi du gertakari horrek: zenbat auzi, zenbat kalapita gizonen artean, sekulan sortu ere behar ez zutenak!

Are gehiago politikan; bada-ta hainbeste kasu, auzi bilakatu direnik, hastean gisa batera plantatu direlakotz eta ez bestera: hots, politikariek beren parra dutelakotz aitzinean ezarri. «Beha zok lanari eta ez bazterrerat», erraiten dio nausiak astelehenetan, gogo beste nonbait duen aprendizari. Egia haundia: halaber zenbat politika kaxkaila ez dute egiten kargudunek ere... gogo beste nonbait dutelarik!

Euskal Herria aho mihitan – 1984-09-20

Idekazue irratia, berdin Parisekoa ere, pitz telebista, «les Basques» eta euskaldunak ditugu denetan aipu: ez lehengokeria baten erdian baina egungo gertakarien artean. Hori ere zerbait dela erranen du batek. Gisa batez bai: ez ginen hola usatuak. Gutaz mintzo zelarik jendea, zeren erraiteko ari zen lehenago? Euskal Herria, xoko pollit bat, ikusgarria; xoko prestua ere, hango jendea lehengo oroitzapenen erdian bizi delakotz, beraz arras prestuki eta ixtoriorik gabe.

Hots, amaxiren Euskal Herria! Amatxi ere, beti bere zaia ilun ttittakatuan, apaintze, otoiitz eta aspaldiko berrien konpainian ezagutu duzularik, halaxe duzu maitatzen eta halako ere ikus nahitzen. Amatxi bai! Aldiz Euskal Herriaz huna non zerbaiti ohartu den mundua. Ohartu herri pollit hortan jendeak badirela; bizitzaleak, bereziak batetik baina beste guzietan bezalakoak ere bestetik: heiek ere bizi, beraz mugitzen eta higitzen, hots, bizinahi batek erabilki.

Ohartaraztea: hori ote zen azken urte hauetan euskaldunek bilatzen ginen? Egia erran, hortan haundizki erreusitu dugu: mintzo da gutaz berregintza, badaki orain munduak guk ere gure griñak baditugula eta zerbait nahi dugula. Zer nahi dugun? Nolako herria izan? Hortik goiti ditugu lanak. Hortan gare berexten eta hortan ere gure gerlak haste.

Bagare batzu, gure lehengo herria beti maite dugunak: hura bera, zen bezala beiratu nahi. Zen bezala edo, gure ustez eta gostuz gauzak ziren bezala, uste eta gustu horiek doi bat aldatuak eta maskatuak izanik ere. Hala-nola, berek euskara galdua duten batzuek, eta zer sanfretean, diotela lehengo hura dutela zinez beiratu gogo!

Beste batzuek bide berri-berriak nahi dituzte ideki: xuriketa bat gaitza, eta berdin bokata ere eginez, lehengo ideia eta moldeeri ikuzaldi bat onaren emaitako. Hauek ere ez dira segur herabe: beren burutik, edo kanpoko ideia zaharkitu batzuetarik nihuneko «euskaldun» berri bat ateratzen digutela, arras ezin ezagutua. Barkatu, «zahar» eta «berriak» ni ere euskalduna bainaiz, eta ustez bederen egungoa, ez nitzaiketzue jarraik, ez batzueri, ez besteeri. Euskaldun askok ere batzu bezain ahanzkorrak zauzkate zuek guziak.

Lehenek ahanzten: herriak eta jendeak «bizi» direla, beraz aldatzen, aitzinatzen, apaintzen; geldian dagoen hura hiltzera doa, jada hila ez bada. Eta bigarrenek ahanzten: erroak badauzkala gizonak, herriak berdin; berritu behar badu, lehengoaren gainean egin behar duela, ez bazterrean; gurea izan dadin geroko hura ere. Gurea eta Egungoa.

Euskal izenak – I984-I0-04

Modan ditugu euskal izenak. Jende izenetan ere bai, gero-ta gehiago: Jon, Peio, Kaiet, Maider, Katixa ala Mirentxu, eta beste zernahi ari dira berriz sartzen, gero halako kaskoin aire batean ahozkatuko edo erabiliko baditugu ere. Baina hori besterik da.

Etxe-izen, toki-izen eta batasun-izenetan mugatuko dugu egungo solas mikoa. Hor euskaldun izenak dira martxan. Biziki arraro dira bestela giten

dutenak eta bakoitzak senditzen du izen frantsestuak halako esne itzuli gustu bat baduela gure herriko plankarta eta afixetan. Baina nolako itxura eman gure euskal izenari? Hemen erran nahi ginukeena da hitz batekoa, eta hura ahalaz laburra, behar lukeela izenak. Badira izenak lehengo katiximako ihardespenak bezain luzeak: dena esplikatu nahiz, galtzen baitute beren gatz eta izen gostua bera; hala-nola xakur bati Xuriko emaiten zaio izena eta ez «Lepo xuriduna»; edo «Artzain» eta ez «Ardien zaintzalea», denak ere bi hitzetan.

Gisa hortan berean etxeendako edo taldeendako, edo auzotegiak, zenbat izen luze eta puskatu! Barkatu baina: Oihan Alde, Gure Izerdia, Adin Ederra, Adindunen Etxea, Plaza Hegi eta beste holako mila; artetik erraiteko, ez dezala nehork hemen ikus kritika zozo edo nehoren musikatzerik, badugu beste egitekorik batzuek eta besteek. Goazen izaitekotz, bide hobe batzu aurkitu nahirik hemendik goitikoentzat. Gure arbasoek, euskara egun guzian erabiltzen eta barnetik senditzen zutenek, ez zuten hola egiten. Aski dugu gure herriko izen eta deitura guzieren behatzea: Mendiburu, Etxemendi, Larralde, Oihanalde, Etxexuri, Uhalde, Elizondo, Karrikondo, Bernatene, Etxeberri famatua eta guziak hitz bakarrean ezarriak ikusten ditugu; forma hortan berean, deitura bilakaturik, eta buruan «a» batekin, etxea edo tokiak erakusten dutelarik. Funtsean azken hauk dira zaharrenak, gure etxeetarik eginak baititugu deiturak, batzuetan frantsestu badizkigute ere bururapen hartan, Mendiboure, Esponde eta holako «e» batzuekin.

Beraz guk, oraingo izen berrietan, zertako ez segi gure arbasoen bide bera? Josiz hobeki izenak eta gehiago bilatuz ere, lehen gogoratu hura batere graziaz gabe tapala ezartzeko orde! Hala-nola xaharretxe batentzat, Udazkena ezarriz, zenbait «azken» hitz horrek historia bat emaiten badie, Urrieta (sasoin goxoa delakotz maiz) edo Hazaroa (hazia ereina duenak esperantza bat uzten baitu bere ta besterendako). Baina bilatzen duenak besterik ere aurkitzen du. Goxoak izan dituen gure izenak eta, beren heinean, euskaldunzale!

Gure herriko urtzoak – 1984-10-18

Egun goizean binpi ta banpa, ez da segetuan afera: urrieta, eta urrieta-rekin, hor dela urtzoa. Beti bezala, ihiztarietan ere, ez du arrabots haundienak egiten afera hoberena. Han ziren beste batzu, argia gaberik, lepo horietan: lehen eleak (ihardesten du mintzoak mendi lepoko ixil iratzartu gabeen) aroaz, haizeaz, behere horietako lanoaz... eta badoatzi denak, ele ta lan, urtzotegietako langileak, bat hemengo sarearen altxatzerat, eta beste hartarat,

eta denetarat funtsean, haga heien kaskoko etxoletako zaindari eta palotekariak berriz beren postarat...

Oihu bat ere konpainiako gazteenari, erna dadin bere xatarrerat, urtzoa ixtante hor dela, egungo airearekin goizik abiatuko dela. Azkenik bi erasia palote biltzaleari, oraino badituela atzokoak batere bildu gabe utziak eta gero, kasu egin dezan egun hobeki, tuta entzutearekin ontsa gordez, lehen-goan urtzoek ikusi baitzuten eta bazterrerat hartu.

Orain denak lekuan dira. Eta, ixtantekotz, horra zaindariaren xixtu firrika mehea, eta abisua: «Kasu, ezkerretik tropa bat ederra, xatarreko alde-rat». Beharrik mugiarazi baitzuten mutiko tetelea. Han egoiten da hura urrunago, mendebaleko aldetik, hantxetako beste lepo bati buruz hartzen baitu aise aski urtzoak. Hartzen du beraz bere xatarra, trapu zuri alimale bat haga baten puntan, zifli zafla ongi agerian erabiltzen, troparen itzularazteko sareetako leporat.

Aldi hontan hartu dute xatarra, hor dira ixtante sareen ganean. Ez baitute ganean behar, bota orduan palotea, flakoina itxuratzen duena, urtzoen etsaia. Ez du faltatzen: zirurikan hor da urtzoa lurraren arrasean eta horra non badoatzen metan sarearen ahorat, salbu azken mementoan sarea ikusirik zeharkatuko diren atrebituen batzu. Hauetarik zenbait, ustez besteak baino abilago diren, joanen dira hango bereko haritz edo ametz baten gainera, handik ihiztariak musikatuz bezala. Dohakabeak! Tiro parrapata batek, nork daki nondik, han berean xintxifrikatuko ditu.

Ai, animale inozent burugabeak! Horiek oro beren faltaz: egun bat edo biga goaitatu eskasean, jinen baitzen berdin, bihar edo etzi, ipar haize mehe garbia, aro hobearekin, orduan gainez gain eta zein goratik, joiteko tropa osoa, denak bat, ihiztarien malezia guzietarik urrun. Eta hik, Euskal Herria, noiz hartuko duk urtzoetan eskola? Ala beharko ote duk beti behereko edo tokiko ihiztarien bazka egon?

Nola ezagutu – 1985-01-03

Bertsulariak ari ziren gogotik beren lanari. Ez da gero lan hortan jostetarik: burubegiak erne behar dira erabili, batean gai-emaileari, bestean lagunari, batek zer duen galdatzen, besteak zer erranen duen, eta norberak nondik lotu behar dion errefera. Entzuleak ere hor. Baina heiek urrunago dira. Azken beltzean, erranen zinuen entzun-tresna haien lana delan jendearen beharrieta-raino zirto-leloen helaraztea: taulen gaineko haiek badutela berenarekin aski.

Errazu uste duzula! Funtsean beren begitarte alaiak jendeari buruz zauzkatzen bertsulariak, batean irri maltzurra zariotela eta bestean bekuntze zorrotza, gaia nolako eta haiek halako, gaiak baitu alabaina beretzen bertsularia, eta ainitzek uste duten baino barnagotik. Baina bertsulariaren begiak! Hona preseski zertarat ari naizen: azken agurrean, ez duten erakutsi eza gutu gintuztela... erranez aurten «buru berriak ere» bazirela hango entzuleen borda apainduan. Horrek du nere auzoko laguna harritu: «Nola eza gutu gaituzte?»

Hori da bada: guk uste beren lanarekin eginahala badutela bertsulariak, iduritzen guri, gutaz axolatzeaz beste egitekorik baduten, bederen han ari diren bitartean, eta haiek guri ere kasu egiten; nor den hor jakin nahi, jazko haiek etorri diren, berri batzuk ere deia entzun duten eta, azkenik zenbatsu diren besta hori ohoratu nahi ukan dutenak. Nik erran nezake beste asko mailetan ere hola dela. Berdin berdina teatroan, halaber pilota partidatan, edo dantzari talde baten emankizunean, edo kantari multxo bat denean, laborari elkarte baten biltzarrean, langile kezkatsu batzuenan, edo elizako, edo eskolako.

Aipatu talde edo multxo horiek denek puntu berdin bat badute, bertsularietarik hasirik. Puntu hura ez da gehienetan dirua, arras gutiak dira naski hortik zenbat diru ereman dezaketen karkulaz ari direnak. Gehiago dira hain segur eskuzarta beroa edo lagunarte baten sukarrak doi bat goxa eta moxkor ere letzazkenak behingoan. Baina haientzat goxo eta moxkor hori ez da bizio triste bat, arnoarena, drogarena eta hordikeria guzienak bezala.

Sari bat bezala, bai, bilatzen dute hori eta zenbat lan eta penatzeren saria! Nork erran eta nork konda alabaina zenbat gostaia duten bertsulari, antzerkilari, pilotari ala batzordekari horiek guziek... zerbaitetara heltzea? Badakite horiek guziek, beste gehien errestasunak utzirik, zer den gostatzen den hari bermatzea: sekulan saririk, ez estimu, ez sustagailurik gabe... hoztasuna, bai, eta mespretxua ere askotan... beren burua zerbait daukaten hainbeste, aldiz, huskeria batzuetara zoatzin denboran! Sinesten duenak ditu lagunak nahi... ezagutu!

Burdinbide xaharra – 1985-01-24

Aspaldiko denboretako burdinbidea! Hor ikusten dugu bai, Donibane Garazitik eta Baionarat doan bide sahetz guzian, erregebidearekin eta Errobi ur haundiarekin kasik parez par, baina ikusten bakarrik. Ikusten baino gehi-

xago, bide horren auzokoek auzo ezaguna ere dute treina: orenaren ezagutzeko baizik ez balitz ere. Ez dutea treinaren pasaia eguneroko abisua, beren landa, pentze edo iratzesailetik, askariaren tenorea edo kabaletarat joateko ordua dela! Baina hortan geldi gehientzat treinaren zerbitzua.

Alta izan du beste gibelondorik ere: galda bidarritar edo arrosatarrerri, ez duten astelehen askoz treina izan Donibanerateko zaldia! Galda itsasuar, uztariztar, milafrangar laborarieri lehengo oroitzapen xaharrak, zare haundi batzu, jasan ahalakoak, emazteek bereziki, norbaitek treinarat altxatzen lagundurik, baitzeramatzaten beren gerezi, arroltze, gasna edo onddoekin Baionako merkaturat.

Eta galda, nondik ez, denbora bateko haur eta ikasleeri, Garazi-Lapurdiko burdinbidetik betetzen baitziren, parte haundi batean, seminario, kolegio eta lizeoak. Funtsean gazteria harek guziak bazakien, bai, ezin ahantzia, bide beraz zuela lehen aldikotz Baiona ezagutua: amarekin joaiten zirelarik etxeko hazaldi osoa edo parte bederen, eskolako edo komunionekeo fornitzen egiterat.

Azkenik gure herrietako semeek hor dauzkate gogoan, atzokoa balitz bezala, soldado joan zireneko egunak, edo gerlarat menturaz, eta permisionek, lorios, azken itzultze egun hura jin artean. Alta denbora bateko nexkatoek ere badakite zer den herri pollitari adio erraitea hor gaindi, sehigorat ezinbertzez eta begiondoa gorririk urruntzeko egunetan. Eta nola ahantziko nituen, bide beraz sekulakotz joan diren guziak, Ameriketan edo hiri horietan ez dituelakotz xantzak berriz etxerat lagundu!

Bai, hori dena izana dugu hainbeste baxenabartar eta lapurtarrek gure burdinbide xaharra. Izana? Larriak xehaturik, hauxe da iragan elurte hontan «trein xaharrak» ukan duen arrakasta! Auzoko mutiko gazte lanerat joailea, herriko tindatzailea, auzo herriko bi andre, *Herria* kazeta honen egile... nor ez da hantxet ikusi, usaiako ikasleen artean, autoak eta besteak, bizia maitez, etxean utzirik?

Zer ez dute han frogatu, gainera! Lehenik, berritua dela, eta ez da guti! Lehengo karrosa zaharra, ixiltasun eta goxoz ez baitu orain Parisekoari ere zorrik. Besterik ere oraino: eztiki eta astiz joaitea segurago dela gorputzarentzat eta izpirituaren pausagarri. Ikasi ere ez direla gauza guziak oro tokitik eta arrapintean egiten: Baiona bereko harat-hunatak, oinez batzu, eta besteak, ezin helduz, geroagoko utzi behar! Gero ere argituko baitu. Horra hainbeste egia, eta gehiago oraino, iragan astean hemengo elasturietan, barnetik ez ginazkienak. Zangoekin eta beharreakin hobeki sartzen diren egia batzu baitira!

Herria eta bizia – 1985-02-07

Irakurri duzuia, lagun, Bidarraiko artikulua, iragan astean, kazeta hon-tan berean? Nahiz irriño batekin bururatzen zuen herri hortako berri-
ketariak bere asteko ttanttoa, ez ziren haren berriak batere alegeragarri. Zuhaurk juja zazu: herrian, urte batez, zazpi ezkontza eta denak herriz kanporateko; zazpi bataio, hiru herrian egoiteko. Heriotzeak bai, haiek xapeldun: bederatz! Aise zuen berriketariak erraiten holako manerekin suntsitzera doala herria. Balio luke jakitea xuxen zenbat Bidarrai dugun aurten ere Euskal Herrian...

Bada hain segur gu baino hoberik, gaitz hori nondik datorren esplikatzeko. Are gehiago zer egin behar den erraiteko. Hemengo pentsaketa ximple hau halere nornahik egin detzazkeela daukagu. Bakoitzak konpreni haatik hemen ez garela Bidarraiko herriaz mintzo, baizik gure herri guziez. Utzirik sortzeak eta ezkontzak beste batendako, gauden bakarrik gure herrietako bizi-gostuari begira.

Bizi-gostua? Fama haundia du denetan Euskal Herriak. Ez direa orotan ikusten paristar eta beheretarrak gure herrietan ezkondu eta gustatu direnak! Donamartirin ala Altzürükün, Arrangoitzen, Baigorriin edo Eihalarren beren bizia uroski eginez. Horiek bai! Aldiz hemengo berekoak askotan, zer biziaren pozoindatzaleak! Etxearen maitasuna, herriarena, ohidura, mintzaira, bizipideena, nola ez diren inarrosiak! Eta zenbat tirabiraka gure artean, gai eta sail horien beren gainetik! Bat has dadila karraskan gure kulturaren alde, lantegi zerbeit xutitu beharrez edo elkarte biziago baten muntatzen, eta horra gazteria bi lerrotan, eta berdin herri osoa.

Izan dira, azken urte hauetan, lantegi sortze eta enplegu berriak, izan esnearen, gasnaren, haragiaren edo laborantzaren akulu xixtadun berriak, ororen abantailetan gertatu direnak, prezioak bederen mugiaraziz. Baina gaixo gure herria! Mail horietan denetan, alde den batendako biga kontra. Xixtatua den goragoko partida hura kontra izan dadien, paso! Baina ez! Guhaur elgarren kontrario jartzea, errotik gu denen kaltetan, hori da nigarringarria. Izan direla xorakeriak erranak eta eginak, hori hala da. Baina horrek ez ditu beste alderat egin xorakeriak ezeztatzen. Ustezko «euskaltzale» ergel batzuen hutsak bezain haundiak dira euskara ta herriaren itotzaile batzuenak.

Horra nolako min eta galtzek ere joak diren gure herri asko, berdin ttipienetan. Ahari edo marro haundi batzuek antxu gazteak holaxe elgarri oldarka ezarririk orobat. Beharrik, ez baita eritasun hori denetakoa. Beharrik, ikusten baititugu gure herrietan, besta, lan edo zernahi egintza, batasun eder batean bereari doatzinak, kasurik egin gabe nahasleen erranari. Preseski ho-

lako toki batzuetan, hats hobea alabaina, ikus ditazke gazteak ezkontzen, beren herriari gustu hartzen... eta gustu emaiten. Hori es aski? Dena ere on!

Lafitte lokarri – 1985-03-14

Zu eta ni bezalako bat hilen delarik, irakurlea, ez da mundua inarrosiko. Ari zen behin gure beihalako xaharra, zerbait irrisku zeraukan lasto meta bati hurbilegitik tiraka: «Kondu emazu gero, ez zaitzan azpian lehert» erranik auzoak, hau ihardetsi omen zion xaharrak: «Ez die ez zazpi herrik jakinen, ni hilik ere!» Egia, hain segur! Nehor guti bazare, ez zaizu nehor haundirik ibiliko ondotik, ontasun edo ohore keta. Aldiz norbait den hura, orok berea daukate.

Ez ote dugu hau Piarres Lafitte zenaren kasua? Aitzinetik asma dezakezu erreki: izanen duela holako batek omenaldi, urteburu eta goresmen. Gehiago dena, asko alderditara hedatua zelakotz Piarres Lafitte, baditake bakoitzak bere leihotik ikusiko duela, bai-eta begitarte bat baino gehiago ukanen dutela haren omenaldiek. Ez da hori berez gauza txarra, aberastasun haundi baten froga baizik. Guk hemen erranen duguna, joaite horren hirugarren astean garrelarik doi doia: ez dugula hortan uztekoa, hoinbeste zor diogun «aitasoa». Hasteko ta bat, hau jakin dezatela irakurleek: eginen diola *Herria* astekari honen —bere astekariak— bere heineko omenaldia.

Heldu den astetik berean eginen dugu hemen astekari berezi bat, gutiz gehiena Lafitte zenaz egina. Doatzila orduan ere gure herrietako berriak beren bidean. Aldiz aste hartako artikulua gotor guziak gure euskaltzale, erakasle, gramatikazale, apez-lagun, euskaltzain, kazetalar, politikazale, adiskide eta gizonaz izanen ditugu... Geroago liburuak eta besteak izanen dituela Lafittek, ez da dudarik. Baina orain berean, aste batez edo zenbaitez hura aipatuz, badugu ustea zerbitzu haundi bat zor diegula gure herritarreri eta zenuari halaber: Lafitte jaunaren hobeki ezagutaraztea, hain gare guhaur ez-jakinak, Iparralde hontan berean; gainera, jada *Herriak* erakutsi duen bezala, hain guti lagunduak hemengo kazeta, irrati eta telebista «ofizialez».

Kazetako berrikerari andana batek erranen digu nor izan den Lafitte bakoitzarentzat. Funtsean ez da berrikerarien lerro hori mugatua. Zuk ere, adiskidea, igor dirozu, zerbait berezi duzun ber erraiteko, bai eta argazki edo foto bat igor ere (hau itzuliko zaizu, agertu ondoan). Iritzi desbardinak izanen direla, menturaz mota guzietakoak? Bai naski! Lafitte bera zen bezala. Preseski, desbardintasun horrek erakutsiren digu ez dela Lafitte nehorena, ez

dugula hura tirabirakoka erabili behar, bakoitzak nahi genuken hura erranaraziz berari. Ez nehorena! Denena baizik! Izan dadila, bizian izan den bezala, euskaldun orooren lokarri!

Touche pas à mon pote! – 1985-04-11

Batean bertsulariak zirela: saioa baino lehen, oren bat aitzinetik, herriko ostatuak kez eta solasketaz kanporaino gaintituak; eta karrikan, goiti eta beheiti, denbora pasa dabiltzan guziak, orenaren beha, gehienak gazteak... Edo omenaldi batzuetan berdin. Batzuetan herri koxkor batek ditu hortxetan bere urteko bestak: hasiak dira jadanik. Eta ez da beti herri izaite beharrik: auzotegi edo kartier txar bat aski da besten egiteko. Izanen dira ondoko egunetan haundiagoak ere egia erran. Ikusiko du hilabete honek Nafarroaren Eguna, gazteria bat, hebroia, karriketaren beheiti uhaldea ur-haunditik hor sartu balitz bezala...

Horiek oro, aro ederra lagun, beren argi guzietz distiratuko dute primadera berriaren lorian. Baina sasoin horrek ikusten du betitik aro mota guzietarik ere: besta horietarik zenbait gertatuko zaie apirilean berdin ikusten den haize gorri mehea, non ez den babazuzaren zipirta xixtakorra. Orduan akabo besta? Behauzu hortik! Doi doia lepo gainekoa hertsikiago tinkatuz edo, haizearen gatik, elgarri lotuago, eta azken beltzean, erauntsiaren gogorrean, ostatu batetik eta merkatuko aterbera jauzi eginka, hor duzu hor, egundainokotik, bere eguna batere ez uztekoa, jazko gazteria hura bera.

Zenbaitek bizarrak eta oro badituztela! Eta neska batzuek mutiko moldeak! Bota behar zuk ere, azkenean, zure poxoina! Eta zertako zabilta zu, denbora iraganaren profeta, denak zure ganat bildu beharrez? Eta gustuko ez dituzunak baztertuz? Ez direla horiek oro hemengoak? Hegoalde hortarik etorriak direla erdiak? Hori ere sakatu behar zinuen beraz? Baina zertako berex guk batzu eta besteak?

Preseski, bizia berekin dariola daukaten gazteak nola bazter gure herri erdi-hiletarik? Eta berekin besta kasik odolean dutenak! Ezen hegoaldekoak ginituen guhaurk lerro hauen hastean aipatu kasuak. Beharko zinituen ikusi zuk, adiskide minkorra, nolako aroarekin ziren haize ta euripean ehunka jendeak, eta heietan ainitz gazte, edozein aroekin, Erratzun, Beran, Leitzan, aurtengo bertsulari egunetan. Eta galda zozute Arnegitar, Bidarraitar eta Bai-gorriarrer nolako beroa ekartzen duten mugaz haindikoek horko besta egunetara.

Mendiz haindikoen adoratzaille nabilala hemen, heiek dituzten on eta tzarrekin? Ala ez ote dira hemengotiar ainitz oihe-segi, idurita on guzia gurea dela eta tzarra besterena? Eta hori guzia beste batzu haurride beltz eta beltzarranen anaitasuna arraberotu nahiz denboran. «Touche pas à mon pote» diotela. Eta «mon pote» ez ote dut nik ene hegoko anaia? Askotan enetzat hain aberasgarri dena!

Herriaren urratsak – 1985-05-23

Aitzineko igandean Senperen ikusi denaitsuak ere ikusiko zuen: bide bazterrean auto-lerroa badelarik bi aldeetarik, Zuraideko lurrak utzita laster hasirik eta Senpereko bistarat hurbiltzeraino, nehorik ez dezake erran ez dela zerbait pasatzen. Español lumeroak zituztela autoen erdiek, autokarrak bazirela Gipuzkoa eta Bizkaitik bereziki dozenaka etorriak, baina Nafarroatik ere... Bizkitartean horiek guziek euskara izaki beren urratsaren helburu, bada hor zenbait gogoetarena. Eta xifretan sartuz, hoge milako hori balinbada, hor bildu diren hurbilena, askok erran duten bezala, eta haien erdiak euskararen toki beroagoetarik etorriak balinbaziren beste hamar milak ere nonbaitik baziren eta beraz ari dira naski hotzak ere berotzen iparralde hontan hegoaldean bezala!

Bakarren urratsak

Senpereko aintzira hegietan, holakoarentzat behar zen doia iraun duen aro batekin, bidez bide ta inguruz inguru tapikatu den lurra aberastu dela eta ez guti erran ditake gainera. Diruaren eguna zen hori alabaina besteak beste: euskara hedatzeak beretik emaita merezi duela badakite holakoetara doatzin guziek. Egiak bere bidea behar, alegiazkoak dira euskararen aldeko urrats ainitz: bakearen doia, edo itxuraren dina, edo egiten delakoa bakkarririk, ez ote da hortan geldi ainitzen urratsa, bai eskola askotan, bai kazeta eta irratietan, bai familietan. Besterik baita ongi egitea, behar dena egitea, gostarik gusta.

Seaska eta ikastolen alde joanen dira hor bilduak. Beti erran dugu hemen, hastapen on baten urrakoa direla horiek, gehiago eta hobeki egiteko asmutan eta beste guzietan ere bide batzuen erakusteko nahikarian.

Ikusgarri eta sustatzaile

Euskaldunek biltzarre bat duten lekuan, ez da sekulan besta handik urrun: besta zen igande 12an Senperen, hainbeste euskararen adiskidek elgar aurkitzea, handik kantu, hemendik soinu, ikusgarri eta girgilla. Ez baitziren eskuak hutsik etorriak euskararen langile haiek guziak. Bazuten funtsean zer egin: eskelari, ostaler eta jostarazle, orotan eta molde ainitzetara hedatzen zutela denbora berean euskararen hats beroa.

Gure herriaren hatsa hori guzia, egun bat osoaren heina bederen. Baziren arratsean, iluntzeari, pentsaketa hauk zerabiltzatenak: Senpereko aintzira, holako pausuleku goxoa asmatu eta egin zuten herritarrek buruan erabili oten zuten egundaino, toki hori holako euskararen iturri turrusta bilaka zitateenik? Egun bat ez da egun bat baizik. Halere egun horrek ez ote du ongi erakusten, ez dezakeela nehork erran zer atera ditakeen oraino, euskaldun berroenen iturritik?

Zakur eta gatu – 1985-05-30

Zakur eta gatu bezala ibiliko ote dira beti gure gasna egileak? Artzainak samur eta gasnak ager, zion lehenagoko erran zaharrak: haserretzearekin, elgar salatuz, agertzen baitzuzketen elgarren bekatuak, gasna ebatsiak eta gaineratekoak. Ez ditaie orain gasnarik ebasten gehiago. Bakoitzak bereak ere sobera ditu alabaina. Bizkitartean, iduri du halere, beste alde batetik kalapitabide gaitza bilakatua duela bere ardi gasna, edo ardi esnea, Euskal Herriak. Noren faltaz? erranen du besteak. Elgarren gain ezarri baino lehen faltak eta hobenak, segurago da gauzen doi bat konprenitzerat egitea.

Lehenago ez zen auzirik. Esneketari bakar batek biltzen zituen ororen esneak eta ongi pagatzen ere egia erran. Baina badira begi batzu besteak baino xorrotxagoak, bestek deusik ikusten ez duten lekuan ere sumatzen baitute kukusoa... menturaz lili pollitaren gibelean gordea. Beste batzuentzat on zitateen irabazbidea ez dela guretzat ere kalte, egin ziren han-hemenka entseguak. Entsegu xoragarriak, zeren bakoitzak frogatzen baitzuen hor balio zuela zinez eta zerbaiti oharturik hasiak zirela aspaldiko esne biltzaleak.

Batetik bestera artzainek erakusten dute hor ez direla heiek ere xoroak: horra tropa guziak erraiteko maneran doblatzen direla. Gehiago dena, ardi bakoitzak emaiten lehengo esnearen doblea... Ikasi baitute hazinda eta kabalek ere, azken urte hauetan, beren jabea bezain ongi bizitzen, eta hor dira

fruituak. Iraunen duia? zuten erraiten orduan beste begi xorrotzeko batzuek. Eta bat-batean begi guziak ideki. Ez, ez du gehiago irauten. Bada nonbait geldi bat. Gelditze hori zeinek duen beti lehenik senditzen, hor badakite artzain gaiztoek: hazindarik ahulenek alabaina... Konpreni dezagun: oraino errainak arras azkartuak ez dituzten biltzale-gasnagileek.

Denetan ere ekonomiaren krisiak irauten du, eta merkatuan artikulu karioa baztertzen, ezinbertzez, erosle xuhurrak, eta horra zerk duen lehenik josten euskal gasna ahotik ezin utzia: diru eskasak funtsera-ta. Horren aitzinean artzainak samur edo haserretu? Jainkoak begira! Denek ber abantailak dituzte alabaina. Izan diten esne biltzale haundiarekin edo ttipiriarekilakoak, interes berak dituzte. Intres hori da ardi gasna behar dutela orotan sarrarazi, Frantzia behean, auzo erresumetan eta Amerikaraino: bada hainbeste leku ez baitute ezagutzen zer gustu arrarokoa den, ez eta badela ere. Ez da toki guzietan erosleen krisia berdina eta saltokiak urrunago hedatuz, badira nonbrean karioa ere erosten ahal dutenak.

Krisi honen aitzinean beraz artzainak elgarren zakur eta gatu? Ez eiki! Beren ardietan har bezate modelo. Haiek elgarretara biltzen dira denak, lanjera senditzearekin.

Piarres Charritton Lapurdiko euskaltzain berria – 1985-07-25

Iragan ortziralean, uztailaren 19an, Donostian egin duen biltzarrean, euskaltzain berri baten izendatzea egin du Euskaltzaindiak: Piarres Charritton izan da hautatua.

Hazparnen sortu zen Piarres Charritton 1921eko urriaren 19an. Lehen maileko eskolak Hazparnen eginik, Uztaritze ta Baionako seminarioetan segitu zituen baina Erroma eta Pariserat ere joan behartu zitzaion goragoko ikaskuntza batzuekiko. Diploma berezi hauk eskuratu izan ditu, besteak beste, han eta hemen: teologiako lizentziatura (1948), filosofiako lizentziatura (1954), teologiako doktorgoa (1973) eta, azkenik, euskal ikasketa doktorgoa (1983).

Bere bizipidea irakaslegoan ereman izan du gehiena: Hazparnen, Maulen, Baionan, Parisen, Montrealen, Donostia-Zorroagan, bitartean eliza lanean eta Euskaldun Gazterian ere bai. Lan berezi asko egin du bide hortan guzian: Pariseko Euskal Etxea sortu (1955), Hazparneko lanbide eskola ere bai (1959), Baionako Euskal Astea (1970) eta UEU eta UZEI-ko kidegoa.

Euskaltzaleen Biltzarreko burukide egin zen 1947an. Euskaltzaindiko urgazle 1949an.

Hona zein dituen bere idazlan larrienak: *Euskaldunak* (1943, Baiona, *Xabier Gasteiz*); «Le droit des peuples à leur identité» (1979, Fides Montreal, *P. Charritton*); «Pierre Broussain, sa contribution aux études basques» (1985, CNRS, Bordeaux); *Mendekoste gereziak* (Jean Etchepare gaztearenak, Goiztiri, Baiona, 1961); *Jean Etchepare mirikuaren idazlanak I eta II* (1985, Elkar, Baiona-Donostia). Aldizkarietako lanak bestalde: *Gazte* hilabetekariaren zuzendari (1950-1960); *Aintzina, Herria, Jakin, Euskera, Zabal, Elgar, Otoizlari, Almanaka, Maiatz* aldizkarietan asko artikulatu egin du, *P. Charritton, P.C., P.X., P. Ebulatei, X.G., Xabier Gasteiz* edo *Federalista* sinaturik. Eta oraino, *Bulletin du Musée Basque, Enbata, Anaitasuna, Deia* eta holakoetan ere bai.

Gure Piarres Lafitte kalonje zenaren lekua, iragan otsailaren 23an herioak hustua, hartuko du Piarres Charrittonek. Gure irakurleek dakiten bezala, 24 euskaltzain lumeroko dauzka Euskaltzaindi edo euskal akademiak, urgazle, laguntzaile eta ohorezkoak bestalde: 17 hegoaldeko eta 7 iparraldeko. 1918an sortua, hilabeteko azken ostiral guziz elgarretaritzen da Euskaltzaindia: maizenik Donostiako diputazioan baina ere Bilbo, Gasteiz, Iruñea, Baiona edo Xuberorainokan noiztenka. Komisio edo batzordeak aldiz bil ditazke maizago ere, beren lanen arabera. Baitu euskarak denen beharra eta, guziz, holako langile argitu batzuen, ongi-etorri eta bide mozkinsu Euskaltzain berriari!

Artzain gaztea – 1985-09-12

Uda ondarreko ilun nabar ezti bat zian, artzain gaztea: heure Erroimendiko etxolatik firrindaka abiatu haiz 5CV errautseztatuan. Bazterrekoeri behatu gabe, baita beti, Larrañeko gain horietan, Orhi mendiaren peko bide hegietan, ikuskari kurios pinterdi zernahi bazterrari behaka gelditurik, bahoa heurreari, mugarat doan erregebidetik...

Beti bere gogoan alabaina bortuko artzaina. Nahiz bahituen ardiak etxola inguruan ehunka alhari lotuak, nahiz ere beste mila bat hurbil ikusten hituen, xakur sainga baten bidean, Erroimendiko bizkarrean prestuki hedatuak, zer ote huen oraino holako buruko mina? Heure azindak eta beste batzuenak udakotz hire gain hartuak izanez, gorago ere beste zenbait izaki?... Hots, bahoa zalu zalu Azpildoiko alderat, edo beharbada Iturzehetako itzalgiatarat atera arresa multzoari so baten emaiterat.

Agur herabetto bat egin deiek iragaitean bide hegiko autotik jalgi beha-karieri. Hauk ere nonbaitekoak. Mendia urrundik baizik ez ezagutzen, hor ari zitian begiak ezin asez, mendiz, kabalaz eta bakez, bitartean ahamen bat ahorat emanez. Ipar lano batzu joan jinka zabiltzalakotz ez ziteian hauek mendiaren erdia baizik ikusten. Bizkitartean ez ziteian ikusiez aski espantu.

Ai, hi gelditu ahal izan bahintza solas labor baten doia, artzain gaztea! Hirekin bai, egiazki ikasiko zutela manex debru hoiek egiaren beste erdia. Ikasiko hirekin zer den hire bakea, ziberotar artzain gaztea! Ez dutela ez bortuko egunek beheretiarren biziak ezagutzen dituen sagar ustel eta aire mutzitu zurmindurik. Iguzkia, iturri garbia eta loretxo xumeak ditukala eguneroko lagunak.

Ikasiko ere ziteian hirekin, amets ilusikor eta xede ergelen xorakeria. Ez dela gero bizia, eskuz egiten den opil leguna. Min ere egiten duela iguzkiak, gustu mengela duela batzuetan iturriko urak eta baduela mendiak berak aire bafada ezti bezenbat haize hotz eta babazuza zipirta. Hots, horietaz denetaz egina dela bizia eta hik hura dukala bere ongaitzekin maitatu.

Hortako berekotz ere, onar ezak hemendik gu guzien agurra, ziberotar artzain gaztea. Ba omen dituk orain mendiak husten ari direnak: ardiz eta artzainez, biak elgarrekin baitoatzi. Eta hori, ez duelakotz artzain xaharrak ordainik aurkitu, bizitzeaz lotsa ez denik. Agian ihardetsiko dioie ere hire agurrari kargudun haundiek, ez amoinak emanez menditarrerri baina ofizio horri sozietateak zor dion errespetu guzia. Errespetu bera halaber erakasle mota guziek beren erakaspén eta solasetan.

Holaxet egin dezakan hik ere amestu biziko laguna Erroimendin eta euskal mendi guzietan, artzain gaztea!

Haurrak eta ogia – 1985-09-19

Bi erriente ziren elgarrekin mintzo. Bat eskola publikokoa. Bestea librokoa. Elgarri zerbait erran beharrez, eskola eta haur zenbaiten gainetik bistan dena, mintzo ziren aroaz eta denborez, itzuli mitzuli, ez jakin harirat nondik hel. Holakoetan izaiten da beti bat deliberratuagoa, nolazbait ere kuraiosago eta atrebituago, eta behar ere, ele-mele haietarik garbirat ateratzekotz.

Emaztea izan dela bat hura erraiten badut, ezen bi erriente haietarik bat errientea baitzen, ez da irakurlea harrituko. Beharrik hor da askotan emaztea, gure kasuan bezala etxeko gauzetan ere, bere jitearen dohain bereziekin baitaki harek hitz laburrez eremaiten pikoan ezpala.

—Zer nahi duzu jauna! Holako haurraz ote zinuen zure mina? Zuk zure ogia zaindu nahi... eta nik ere nereaa!

Arras urrun ginen hor bi eskolen berezitasunen auzi famatu hartarik. Funtsean ez dugu sail hontan hartaz mintzatzerik guk hemen. Hauxe zen bakarrik solasketa horretan ikusi duguna: ez direla eskola guziak ere goiti ariko, gure herri ttipietan haurra hola gutituz geroz.

Hiru etxe bazituzten lehenago herri guziek, ttipienek ere, gure ustean berderen: Herriko Etxea, Eskola eta Eliza. Herriko Etxea beti badute, den xumeena bada ere. Eliza ere bai, haundi edo ttipi, bete edo argala. Aldiz eskola gabeko herriak gero ta gehiago baditugu. Hango errient xahar aintzek ez dute gehiago ogi beharrik, joanak baitira. Baina urte guziez baditugu herriak, eskola hesten ez badute ere, lau erakasle ziren lekuan, hirutara jausten baitira, edo biga zirenean bakarrera xuhurtzen.

Erranen didate ongi axolatua naizela gure herrietako erakasleen ogiaz. Haienaz ere bai, zertako ez! Baina ez baita hor errienten ogia bakarrik! Batek bestea ekartzen baitu! Errientarekin hor dira ere autozainak, kantineko kozi-ner zerbitzariak eta sala garbitzaleak, eta kanpoan oñoña saltzale, ogi saltzale eta herriko ofiziale guziak. Haiek denek gutiago askiko, ogitik, haragitik eta herriko lanetik, haurrak gutitzen direnean. Horra beraz nola den jende guzia durdura batek hartua. Ez du naski beste sentsurik orain bazter guzietan afixa, artikulu eta beste, hedatua ikusten dugun kanpañak.

Lehenago denboretan baziren haurraren eta familiaren aldeko predikari haundiak: batzu elizakoak, besteak gobernukoak, ari ziren herritar lokartuen kontzientzia iratzartu beharrez. Orain ez da gehiago predikarien denbora. Herrian berean da beldurra sartua, ogiaren galtzeko griñak emaiten duen laz-tura. Ikusiz urrunean, edo berdin hurbil, gure herrien hiltzea heldu, bada gutartean errientez besterik ari denik, ez jakin elgarri nola sala beren barneko mina. Ogiaren eta biziaren salbatu beharrak pizten duen kezka eta mina.

Hosto eror denboran – 1986-02-20

Urrieta lehentsuan egina zuen bihotzeko *infarctus* txar hura, bat gehiago, urrako zauritzailea. Eta aldi hontan betikoa. Urrietan oraino hostoak azkar datxiko laidari. Beha, larrazkeneko haize hegoa! Entzun orduan oihan beltzaren orroa. Nola derasan mila miliunka hostoren bizi nahia: denak galerna pean etzanak, bihurtikatuak, baina batek ere ez barkatu nahi. Hostoak lehen haizean amore emanez, ez luke oihanak orrorik. Hau lehen buhakoak aurdi-

kia luke-ta! Aldiz luzaz ihardokiren hostoek, eta luzeago zuhaitzek, hanbat urtez hainbeste ikusiak direnek.

Biziaren guduka, hori dena. Biziaren tema edo teka, mundu hau goiti deraukan indarra. Horren faltan ez liezoke hotzari edo gaitzari ihardok jende zaharrak, ez-eta etsaiari gazteak, amak berriz ez letzazke ihizi gaixto edo bide txarretatik zaint bere ume maiteak.

Piarres Lafittek, ordurarte 83 negu iraganik, eta hainbeste urrako bentzuturik, nola barka gaitzari gehiagorik gabe? Baionako ospitalean ukanen ditu lehen zoinuak, bai-eta jeikitzen hasi ordu, hartu nahiko ere bere laneko usaiak, irakurtze, idazte eta ikas-irakaskuntzetakoak. Kanborainoko itzuli bat geroxago, bere ustez indarren hartzeko...

Eraunsi peko hostoetarik batek ere ez zuela barkatzen! Egia hori... lehen epean. Luzaran aldiz egun bati eta bihar besteari zartatuko ordea zaina, arrailduko jostura! Handik harat baitira lanak! Azken gudu horrek zer ez du balio gizonaren bizian? Ez baita hau hostoa, hor du gizonak erakusten askotan bere kemena. Haundi da gizona bere biziko egintzez. Are haundiago azken garaitaldiaren bermantzaz.

Hosto eror denboran joa gure Lafitte, hosto berrien pizteari eginen du bere jalgitzea... Argitik argira. Hain luzaz besteren argi-ta argitzaile izana zena, halaxet agertu zitzaien askori, menturaz sekulan baino gehiago, bere azken guduaren lau bost hilabete luze haietan.

Argitik! Eritegiko bisitari, artatzaile, mediku, langile guzientzat dena esker on eta grazia goxo, nolazbait ere eritasun eta gaitzak baino zehe bat gorago zagoela.

Argitik! Beti kanpoko gauzeri interesatua, beti herria eta herritarrak bihoitzean eta otoitzean, beti herri jakintzan gerokotz ari, berdin hedoi beltzenen erdian ere euskararen biziaz temakor: hori ere, azken hatseraino ikasle eza-gutu dugun jakintsunaren mezua.

Argira! Orozgainetik, itzaltzerat zoatzin begi haiek, Argi bat zaukaten beste argi guziak baino gorago. Harek zioken erraiten, hostoa erori ta ere bizi dela zuhaitza... etorri artean betiko udaberria. Piarres Lafitte, argitzen du zure argiak!

Gaixo gure herria – 1986-02-27

Zu, aspaldiko gure herri zahar maitea, ez zare gure nigar gose ta egarri. Zure denbora luzean ainitz ikusia zaude: etsaiak handik, etsaiak hemendik,

kanpotik ala barnetik, batzuen ukaldiak, besteren traidorekeriak jasan dituzu miletan. Jo zaituzte noiznahi, urratu, mendratu, ukatu, galdu eta saldu; odol-letan, berdin odol gabetua, bide bazterrean hiltzat utzia, ezdeustua, madarikatua, ez herri bai herri, ez xutik ez hatsik... zure izena, mintzaira, mentura, hertzeak eta oro darian gelditzeraino.

Damurik, horien guzien artean, zuhaur ere ez batere urre zilar, ez nehondik aingeru, holakoak non dira? Elgar kutsatzen baitute nahitez gerlari kontrario guziek beren gezur enganio, herra maltzur eta ukaldi gaixtoekin. Ez direa joilea ta joa bide beretan eta harri beretan behaztopatu mendetik mendera? Orduan nork ezagut ondarrekotz zuzenkontra ehaili dutenaren hastapeneko begitartea?

Gerokotz zuk ere, nere herri maitea, bildu duzu nonbaitik gerlariaren kopeta ilun eta zaurtua, halako aurpegi dorpe, zimur eta idor batek ikararen daldara latza sartzen diela zure etxekoeri bereri, bederen izaitzez minbera eta sendikorreneri, hezurretan barna, bihotzaren bihotzeraino. Ondikotz hor dabilta zure seme alaba maiteak, zakurra gibeletik huiatu zaion artaldearen pare: zoratuak, errebelatuak, sudur ziztuka, ez jakin norat jo eta zeini oldar, berdin jauzi eginen baitute arroketa behera, itsas zolarat ez bada, iduri ta berek dutela merezi huiatzale hobendunaren gaztigua.

Besteak aldiz, dohakabeak, hantxet dauzkazu metara bilduak, izialdurak ezinduak, artzain xoro, gaixto, galgarri batzuen meneko, otsoaren ahorat bildotx gaixo eroriak. Ai zer asea egin behar duten higuinek! Baina non ditu herri honek bere artzainak? Artaldea zinez ezagut ahalko dutenak? Ezagutu bai, zeren arrotzek ez baitirote jakin herri honen atzoko eta betiko berri! Herriko mintzairaren, erroen historia nondik jakinen dute haiek, berek beste errorik izanik...

Ondorioak hor dauzkagu, begien bistan. Otsoak artzain bilakaturik, ardiak berriz oihestuak, eta batzu otso bilakatzeko punduan, eta horra odol ixurtzeak Baionatik eta Donibanera, Xuberotik eta Bidarraira, gehienetan odol hobengabea, nahiz nork erran, irakurlea, zu eta ni bezalakoek, non den odol hobenduna? Joanak joan, zorigaitzez, ez ote dezakegu beste biderik bila herritarrek? Elgar jaukitzea utzirik, baketze baten bidea, eta herri maite honen inguruan, aiten herria gure ttipikeriak baino gorago ezarriz.

Bidarrai, Itsasu eta besteak herri pollitak zaizkigu deneri. Hortik hasiz ez ginukea beste urratsik ere egiten ahal elgarrekin eta eskuz esku... elgar eta herri hau maiteagotuz?

Eskola mende – 1986-04-03

Baginuen jada *Paper mende* antzerkia, arrakasta haundia ukan zuena, gauzak diren bezala ezarriak baitzituen, gatz eta biper birbira batekin, Piarres Larzabalek. Beste norbaitek baluke egun *Eskola mende* edo zerbait holakoren idaztekoa. Ez baitezpada haurrek ez dutelakotz orain eskolatik gelditzeko adinik, iguzkia bezain gauza ageria da hori, antzerkirik gabe ere.

Haundiagoen eskola dugu gogoan, titulu horrekin. Erraiteko maneran eskolak ez duela gehiago gelditzerik gure garaian, berdin zahartu ondoan ere. Egia erran, nork sinets zahartua dela, oraino ikasten ari dena? Ala ez ote da hori oraingo jendea osoki zahartzen ez delako marka? Denek ezagutzen ditugu holakoak. Piarres Lafitte kalonje bat, bere eskola haundiarekin, beti ikasle ezagutu dugu, bururaino: deusik jakin ez balu bezala. Eta nork ez du ikusten gure denborako hirugarren adin hori guzia! Nola dabiltzan ikuska, bidaietan, sekulan ibili ez diren bezala.

Gehiago egiten duenik bada oraino: zinez eskolari berriz lotzen, erre-treta hartu ondoan, zertifikatak, bakalaureat, lizentziak eta oro pasatuz, mintzaira edo kantua ikasten ari ez direlarik. Adinean apalago, baditugu ama familiakoak, haurrak haziak eta oraino jakintza eta lan gose, bigarren ofizio bati lotzen baitira berri berritarik adineko bigarren lerro horren inguruan. Haien senar edo adin bereko gizonak ez dute gutiago egiten, beste ofizio baten ikasteko beharrea gertatzen direlarik, lehengoa higatua edo langabetua dutelakotz. Edo ofizio berean graduz goragotzeko modua dutenak halaber baditugu, gehiago ikasiz oraino. Nahiz ez dugun hemen eskulanaren mendratzeko gogorik, behar dira hemen ezarri, tresnak utzirik, paper hutsetara, eskuxuri mailerat pasatu direnak, beranteko eskolaren bortxaz: inginadore, artxitekta, kontable eta artatzaile bilakatu baitira.

Laboraria bera ez da gibelago gelditu. Gaude ba ote den, araberan, hura bezenbat goititzen ari denik egungo egunean. Aski da edozein kazeta eskutan hartzea, laborantzakoak ez direnetan ere: hemen biltzarre, hor ikastaldi, han seminario (izen hori dugu frangotan ikusten orotan frankatua, lehen apezgai-tegientzat erabiltzen zena bakarrik).

Urrun dela denbora, urrun, etxeko haurretan gutienik zakienak ukanen baitzuen beti aski eskola zizari pikatzen artzeko! Erran behar da eskola bera ere jendetu dela doi batean lehendanik. Ez da gehiago urrungo denboran, edo ametsetako izar eta nihungo bitzikerietan ezartzen eskola: behar eta baliagarri diren haietan bai. Eta hola denek senditzen dute haren lekua. Hein hortaraz geroz ez da tresnaren eta liburuaren arteko mugarik, ez eta eskuxuri

eta eskubeltzen artekorik. Goazen beraz eskolarat euskaldun eta laborari, arte marteka bederen.

Eskerrik asko, anaiok! – 1986-03-03

Ez dakienak ez daki. Dakienak erran behar du. Lehenak, ez jakiteaz, ez duke desohorerik. Norbait haundik ez ote du errana: ez dakienari barka. Orduan, mintza bedi dakiena.

Badira injustizia batzu, gure hegoaldeko euskaldun anaiari buruzkoak, erreparatu behar direnak. Hitzezko erreparazionea, egia erran kazetalaria-rena. Baina badira hitz batzu, obrak bezain pisuak, egiak manatuzkoak, eta noiztenka plazarat arras botatu beharrak. Zuk aldiz, irakurlea, eta badituzu lagunak, ez dituzula ezagutzen hegoaldeko anai euskaldunak? Beha doi bat: tapa beharria nongo nahiko erran merraneri, ez egon ahoa zabalik ustezko profeta batzueri, iduri ta berak perfektak direla.

Hona beraz hegotiar bat hor daukazula, auzoan berean. Preseski, zuri buruz heldu zaitzu, hizkuntza solas, «iparraldeko euskara» hobeki ezagutu beharrez baitabila. Hantxetan berriz badauzkatzu euskal kultura lanetan lotuak diren batzu; non ez diren, haratxago, eskulan elkarte baten sortzaile edo kideak, eta jakizu ez dituztela langaldeak falta hemengotarren ganik, ez baita beharra bezalakorik.

Pasatu beharko duzu, haatik, egun ez bada bihar, «harateko alderat» ere, Europa guziko mugak hausten ari dira alabaina eta nola litake bestela gurean. Han bai argituren zaitzu begia, han urratuko orobat zure izpiritu hertsia-aren estekak.

Lehenik sendituko duzu anaiarteko ongi etorriaren beroa: «Ai zu iparraldekoa! Eta zer moduz zure herrian?» Eta eremanen zaitu bere herriko gauzen ikuska. Zu aldiz, «Europako nazione aitzinatuenaren seme edo alaba», egun guziz hemengo komunikabideetan, xuxen edo makur, hola entzutez hazia, hara non zauden orobat, zure urguluarekin, ezin konprenituz eta nolazbait harritua.

Ez baitziren beraz egiak, haurretik iretsiak eta ederki sinetsiak genituen batzu? Ez baita herri hori hain gibelatua, baizik asko gauzatan gurea bezain aitzinatzen ari dena? Hiri gotor eta industrializatu haietan bizi den jendea ernatua duzu nahitez, bere solas eta itxuretan lehengo sano gozoa askotan beiratu duelarik ere.

Ala beste gose batek eremana zenituen hegoalderat? Sar zaitte orduan barnago: hor dituzu, urrats guziz, kultur etxeak, kultur asteak, mintzairaren lan-

gile ekipak, ikertzeko, ikasteko, irakasteko, hots, mundu berri bat osoa gure herritasunaren zerbitzari, dena obra eder, liburu berri, sariketa, laguntza, diruari berari eta beste ofizialtasun batzuri zabaltzen baitzaizkie han, hemen holakoentzat hetsixeak dauden etxeak.

Ez uste izan bizkitartean espantu hauk oro gustatuko zaizkiela bereri: zerbait duenak ikusten baitu zer den oraino egitekoa. Dena den, hainbeste bide erakuten diguten herritar bihotz haundikoeri ezagutza hau bederen zor ginien guk: eskerrik asko, anaiok!

Eskola eta etxea – 1986-07-10

Herriko eskola! Zer hutsa! Bat batean ixiltasun bilakatu da hamar hila labete hontan herriaren erdian ginuen xoritegia. Alegiantzia egunak izanak dituzte zinez azken egun haiek: kantuz eta dantzan ez zirena ikusten hiru urteko ttantto batzu, bakantzak zirela errepikatuz deneri! Alta eskola ere haientzat! Amaren besotik eta errientsarenerat pasatzea ote da? Zer eginen duten eskolan adin hortan erranen du besteak. Iduriz deus guti, oraino urruna dute irakurtzen eta idazten hasteko denbora.

Ez erran bizkitartean erakasleari, behar gabekoak direla adin hortako eskola egunak. Laster erakutsiko dizkizu han berean bi haur: bat ibilia eta bestea doi doia abiatzen. Lehena, gazteago delarik ere, ernatua duzu, begitartez, ausartziaz eta mintzatzez. Bigarrena aldiz... zu eta ni adin hortan ginen bezalako potolo bat. Hola da gaurko denbora: haur potolo tuntuna guti! Goizik iratzarriak eta bizitasunez beteak, bai, kasik sortu orduko.

Ixtante goiti joanen dira, uzaileko artoa bezala, eta zenbaitek ama edo aita ere gibeletik atxemanen hamabi edo hamalau urtetaraz geroz: luzetasunean, bixtan dena, gaineratekoek beren denbora behar. Eskolan ere ainitzak burasoak baino gorago doatzi. Aski ziren egun hauetan ikustea, kazetaren lerro luze haieri beha, *baccalaureat* famatuaren zerrenda haietan beren izenaren bila zabiltzanak. Ez zakien batere aitatzik, eta aitak ere ez beti, zein «*option*» edo lerrotan bilatu berearen izena.

Aldi hontako baiarekin aski balitz oraino! Ez segurki: egundainoko buru hausteak haste dituzte berriz. Harat galde, honara izkiria, hor dabilta Baionatik eta Bordelera, edo Pauera, urrunago ez bada: laster joanen baitira oporrrak (bakantzak) eta haien ondotik beharko baita beste bide batzuri lotu; eta frangotan ez jakin zein bide hauta eta non diren xantza hoberenak edo bakotxaren dohainen araberakoak. Laborariak aise konpreni dezake: hor ere kuota

tzar haiek bezalakoak izaki, esne soberakina, haragi edo gasna soberakina bezala, ez dea ixtante mediku, ingeniur edo teknikalari soberakina!

Arte hortan beste batzu, bakoitzak bere mugak, baxoa baino apalago gelditu. Baina hauk, eskulan edo beste zerbitzuetan, ez dute batere errexagoa: bereziki enplegu edo lanaren aurkitzea. Nor da beraz kezkarik gabe heldua oporretarat? Beharrik etxeñoa hor baita: haur guziek beren ama duten etxe maitea. Badaki ama etxeak holako baten berri, bere segidatik haste. Etxeak dio hobekienik, opor denbora hontan, bakoitzari bihotzerat ixuriko, biziak beti galdatzen duen zuhurtzia hartarik ttintta bat. Biba etxea beraz, mementoko bederen.

Iratin ikasiak – 1986-07-24

«Tour de France» Iratin. Nork sinets denbora batez holako arrakasta izanen zuela Garazitik Ziberorako bortu zaharrak? Artzaina bere asto txararren gibeletik zoalarik astearendako, nafar eta giputz putiko azkarrek berriez oihan beltzetik beren pagoak jausten baitzituzten Mendiberaino. Ez ahal zion batek irri txarra eginen sudurrerat orduan, egun batez «errege bidez» auto dirdiratsuak zirurikan ibiliko zirela Salbatoretik Organbidexkarat iragarriko zionari; edo I65 txirrindulari halaber, mundu baten eskuzarten erdian, beren bizikletari zangoz eta besoz pusaka espantatuko zirela.

Alta hori dena da orain Irati aldean ikus daitekena: aurtengo uztailaren 15 hartan polliki argaldua zitakeen Miarritzeko mainatzale merkatua. Goiz hartan goizik, hiriak eta kanpinak utzirik, artzainen bidea zuten autodunek zein lehenka hartua. Gure mendi bortuen besta beraz? Ez ahal dute sobera urtean behin edo noiztenka. Ez baitira haatik denak bestan, holako egun batean ere. Nork erran hiri, bestan hintzala, artzaina, egun hartan hain xuxen bahuelarik behor bat zilo batean erroiztua eta hura handik bizirik ezin ateraz baihuen beste kalapitarik? Hik ez duk *Tour de France* ikusi ere. Badituk bortuan hi iduriak, «lanak eta nahigabeak ez baitute gu bezalakoari barkatzen», hor gaindi diozuen bezala.

Halere, halere! Nagok, artzaina, ez ote den hi iduria frango, beren gisan, egun hartako «promenadariat» beretan. Ez ote dituk hi iduriak I65 kurtzari hek berak? Laurent Fignon bera, duela zenbait aste garaztarrek bide ta lekuen ikuska lorios ikusia zutena, preseski Iratin eritu duk ondarra eta Pauen 39 sukarrarekin gelditu, sasoin guzia hirugarren «itzuli» bat irabazi beharrez bermatua zena. Eta Duclos Lassalle biarnesa Heletan edo hor la-

gun batek erorrarazi baitu eta Hazparneko klinikarat igorri, Iratirat segitzeko orde. Eta zer erran kurtsan beti gibeletik diren mutil xume, gaizki pagatu haietaz?

Aldiz ikusle horiek guziak! Beren tokian, urte guzian lanean, bakoitzak bere ofizio, arizanak: zenbaitek ez baitute uste bezenbat diru baztertu; hire gisa haiek ere ez xakurra lukainkez estekatzen. Hik ez dituzkan oporrak edo bakantzak badituztela? Ez nauk fida hameka hilabetez horien maneran bizi nahi hukeela. Horiek ere ez hirean, funtsean. Hots, denetan zerbait. Milesker Irati, hori ikusarazirik.

Hazparneri – 1986-09-18

Leiho batetik... betiko hartarik, nola ez egon begira, amultsuki, zuri, Hazparne! Zu, erretor eta bikari, famatu, amerikano fortunatsu, deputatu, zenatur eta nausi haundien herria, baina zu herritar bakotxak bere noblezia, daukan gerriaren ingurumenetik beretik salatzen duena. Haundi ttipiak denetan badira. Zureak, denak haundi egin genetzazke: haundi ta ospetsu segurki herriko lehen burua eta, nondik ez, lehenagoko plazako xatxari, elizako halaber kurutzeketari, xantre, karrika gaineko zapatain, baratze-kari edo oñoña saltzale eta hazi martxantak... Baina ez dira orain ere ttipi, plaza karkana ixkinean, zuri, kanpotiarra, edozoin xehetasun, berri edo bideren erakusle gertatzen direnak: «Zoazi xuxen eta galdegin, Hazparnen ez duzu galtzerik».

Hemen Hazparne duzu alabaina eta hori, harri bakotxak ere badaki bere iragan denbora baduen herria, hain aspaldikoa ez bada ere (salbu harri famatu bakar baten hitz mixteriotsuak!), bizkitartean zein aberatsa eta betea! Aberatsa! Ala gertatu ote zaizue noiz edo noiz zuen bidean, lehengo norbait izan eta gaurkoan tiraka bizi den horietarik: bere jantzia ontsa emana eta solas leguna, ahalak xuhurtuak baina sortzeko klasa hura beti han, hots, ezin duen hura beti erakutsi behar, urguluz ez bada ohorearen gatik bederen.

Ez dit segurki holako bat gogoratzen Hazparnek. Euskal Herriko herri ederrena dugu beti bere ingurumenarekin. Bazter ezti berdea, bide apainak, karrika berrituak, ikastegiak, bestarik ederrenak, etxe berri ta auzotegiak denetan, eta lantegiak, batzu zaharrak, besteak berriak. Lantegiak bai, kasik erran behar ez zen hitza: hor baitu min Hazparnek...

«Lehengo Hazparne», ospakizun gaitza, hasia zuten Hazpandarrek, iragan denboraz oroituz. Bai eta berek utzi ere: ez zuelakoan bererik naski lehengoz asetzeak. Gaurkoa bai, eta biharkoa, eta geroa sortzea dela gure

lana eta hori dela zaila. Gero horri buruz bermatzen denik ez du eskas Hazparnek: mail guzietako arduradunetarik haste; kulturatik eta izpirituak behar duen gatz hartarik lehenik, eta eskolak, eta ofizioak, eta kirolak, pilota beti erdian, eta dantza ta kanta taldea, eta ohidurak, egun edo gauazko ikasketak, euskara ez ahantzia, lan talde edo multxo batzuez beti zenbaitek debrientxo gogoan!

Begi xorrotxak deus ez hutsegiten, mugaz haindirat ere luzatu dute zenbaitek lepoa, beste batzuen ondotik... Azpeitia herri ederra, Loiolako Izarraren aldean begistatuz, anaitasunaren bidean. Horiekin denekin, geroaren gakoa eskutan ote dauka Hazparnek? Oraino ez, hain segur. Baina bilatzen duenak! Eta ttipiagoetan, nork ez dio behatuko... Hazparneri?

Ricard bat – 1986-10-09

Auto lerroa zen menttetako lepoan. Mentta bat zen gure haur denboran, bakar bakarra. Egun batez beste bat sortu zitzaion auzoan, gero biga... lau. Orain ez dugu gehiago kondatzen. Eta ez omen da egun batzuez bat ere sobera.

Beharrik badira menttak. Bestela, norat joan gintazke ahusa egun batzuez? Han du eta gizonak aurkitzen beste mundu bat bezala, bere ameskerien enganamendu. Alta, bat ikusiz geroz, berdintsuak dira beste guziak. Baina berdin da: hango girgilleriak, botoilak, xahakoak, zahagiak, arrastalu, saski, aitzur, haizkora, xitxi eta baratzekariak, beren baratzuri ta tipula kordekin, denak ere espartin, palto larruzko eta muntrekin nahas mahas, horien guzien gainetik usain berezi bat, eta xerbitxari batzu, gizon ala emazte, eskualde guzietarik trebatuak... Zuk diru españolean paga eta gaineratekoa haiek frantsesean itzul eta ez tronpatzen: bost kondu badituzte jada eginak zuk zure ondarkin piltzar hura zuzena duzula konprenitzeko artean.

Eta erosleak? Ricard botoila bat dute lehenik hartzen dutena... agerian bederen: «Bat libro omen da! Harrazu gostuan zuk ere!» Gisa guziz ez duzu beldurtzekorik: hamarretarik bederatzietan ez da zubia zaindua. Zenbaitek erranen dizute gero direla konduak, haratxago izanen dela bolanta, Uztaritze zolan edo Getariako gain haietan, Bordelerako bidean ez bada, baina hura urrun da.

Nere Ricard horrekin ni ere! Egia erran, besterik ez dakit batere zer hartu duten nerekilako bordeleseak; ai, zer guarda eginen nuena! Funtsean bakotxak bere ofizio. Baina banuen Ricard mirakulu horrekin aski egungoan. Zer nahi

den, badakit non atxemanen dutan bihar berean edari horail uher hori: nere auzoaren etxeko mahainean lehen bisitan, eta neurean ere bai. Auzorat ba-
zoatzi, edo hura zure ganat heldu, zer izanen da lehen hitza, harena edo zu-
rea: «Zer hartuko duzu? Ricard bat?» Eta besteak: «Edan behar duguia?» Ba-
dira, galdeari galdea, holako ihardespen batzu, baia balio dutenak.

Ricard bat! Zinez ere! Denbora batez ez omen zen hura aipu. Pernod
omen zen orduan. Ez haatik etxeko sukaldean, ez: merkatuan... hamabostetik
gorenaz. Etxeko nausiak aldiz botoila eta bi baso ekarriko omen zizkizun,
arinoa sotoan berak erautsirik. Urak bide egin duela, gure etxe ondoan ere!
Eta eginen! Jada asko tokitan, Ricarra utzirik, Whisky, Baby edo nik dakita!
Eta gerokoak gero!

Ama beraren umeak – 1986-10-16

Ez da herririk armada bezalakorik: soldado guziak berdin jantziak, ber-
din armatuak, urrats berean ibilki, batek ere ezin bere mintzoa auzoak baino
gorago altxa, barne hartan diziplina deitzen den batek oro mugaturik eta ni-
beldurik. Egia erran ez da armada bera ere osoki hor erran dugun bezalako.
Harri pikatzaleak ditu bakarrik harri guziak berdinak pikatu edo ardailuak
izari berean moldatu, etxe berriaren egiteko. Armadan aldiz, izanen dira beti
nahitez haundiak eta ttipiak, lodiak eta meheak, orro haundiko aitzindariak
eta eztiagoak. Oihaneko hostoak bezala gisa batez: errana baita oihan beltz
zabalak ez daukala bi hosto berdinek.

Eta hona azkenean norat ari ginen gure parablekin: Euskal Herri maite
hontarat, kasik beti bezala. Ikaskuntza guzien hastapen sasoiak dugun urri
hontan, erran ditake baditugula Euskal Herrian bi hosto haundi bederen el-
garren iduri mikorik gabekoak. Hots, badauzkagula bi Euskal Herri: bat
mintzo dena eta bestea ixilik dagoena.

Mintzo den Euskal Herria: entzun dezakezue egun oroz, irratietan, ira-
kur kazetetan, ikus manifestaldietan. Zenbaitek erranen dute hura baizik ez
dela entzuten ez ikusten. Beste batzuek berriz (ez da egia) harek baizik ez
duela euskaraz idazten ere. Denek begi beharritan ditugu euskararen ikasle
erakasleen errepikak, denek beharritan herritar suharrenen kultura eta liber-
tate leloak.

Beste Euskal Herria ixilik dago: mintzaira, herriaren zuzenak, elgarretar-
ratze beharrak ez ditu kasik aipatzen ere. Badira beste aldetik holakoak aise
jaurkitzen dituztenak: loeriarat erortzen ari direla, azken haizearen firfirak,

ohartu ere gabe berekin deramatzala, edo, gaitzaren gaitza, hil bat uraren gainean bezala doatzila, ondarkin guziak beretzen eta usteltzen dituen galtzearen itsaso ilunerat.

Azken hauk denak hain ezdeusak eta herri traidoreak direla, nork erran eta nork sinets? Halaber lehen haiek beren haroaz denen nahasten ari direnik ere ez dugu nehor utziko erraitera. Daukagu haatik gure herriko zauri haundi batean ezarria dugula hor erhia. Eta erran zaharraren arabera, ez egin guk oraino zauriaren gainean pikoa. Zer egin beraz herritarrak hainbeste berexten eta oihesten gaituen zauriaren arintzeko? Etxe bereko anai-arrebak garelarik batzu eta besteak. So egiten baginio bakoitzak gure Herri Amari! Oro, bortitzak eta ahulak, maite gaituenari. Galdatzen digularik, bortitzeri: ez izan hain bortitz! Ahuleri aldiz: ez izan hain ahul!

Euskarazko eskolak – 1986-10-30

Lehenago, gure xaharren denboran, eskolarat joaiten zen, lehen lehenik frantsesaren ikastera. Izkiriatze, kondatze eta jakitateak gero, baina lehenik frantsesa. Beharrezko frantsesa, egia erran. Ez bakarrik sarrixago sehigoan edo soldadogoan, baizik egun guzitako bizian ere, nehorat joan gabe izanen baitzen zer egin, beti norbait eskolaturen ondotik ibili gabe.

Baten beharrak bestearen balioa itotzen baitu egundainotik, orduan zuten mespretxuz eta ahalgez estali zenbaitek gure euskara xaharra. Berdin berdina egin zuten, arbasoek harri pikatuz eta argamasa paregabe bez egin etxe xaharra kabalategizat utzi zuten «aberats berriek», berentzat aldiz brikazko bizitegi mendrea altxatzeko, kanpoko moda txar batzuek hartaraturik.

Jainkoak berekin dituela hola jokatu ziren «amerikanoak» edo gure euskara maitez trufatu ziren errientak. Urak bide egin du gerotzik. Beharrik. «Lauburu» elkarte eta beste batzu hasi ziren orotan erakusten eta esplikatzeko euskal arkitektura zaharraren balioa: haieri esker etxe xaharrean egin ilobatxoek beren bizitegia.

Halaber mintzairarendako. Irakaskuntza «nazional» haundi eta elkortsuaren aitzinean deusik ezin eginez, berak hasi ziren buraso gazte eta erakasle batzu; hemen etxe xoko batean bost hurrekin, hor apezetxe hustuan hamabost batekin; eskola ofizialek abandonatu euskara hartan eskola egiten.

«Buruberokeria?» Hain segur. Hastapen ainitz gertatzen diren bezala. Lehenik, dirurik ez: berek pagatu parteñoaren gainera, «afariak» munta osatu batean (han ere, bana beste, jende ta pagatzaile berak), eskeak egin, des-

martxak ere bai, denen dirua biltzen dutenetara, deneri zor dutela ordainez oroitaraziz...

«Politika hori ez balute!» Egia erran, nola idek begiek itsueri, ohartarazi gabe Euskara badela eta haren kontrako politika dutela haren itotzaile direnek. Eta haren itotzea dela euskararen ahanztea bera.

«Hain bortitz ez balire jokatzek!» Egia hori ere. Baina uli batzu izanez, nola eginen zuten horiek altxatu duten obra? Urrunegi joaitea gerta dakioke bazter lokartu guziak harrotuz ari denari. Horrek ez du erran nahi harek eginen ez dutela beren zimendua zuzena.

«Baina erdara? Sekulan baino beharragoa dute gure haurrek!» Segurki! Baina ezagutzen duzua, irakurlea, bizpahiru mintzaira baino gutiago erakasten den eskolarik? Euskarazko eskolatik haste. Eta bizpahiru haietan bat baztertu behar eta gurea bazter dezakegula? Gure burua euskaldun edukiz gainera? Horra zer eskandalak duen lehen lehenik bortizten batere euskaldun den nornahi. Gurea lehen, edo!...

Patxi Noblia – 1986-II-20

Patxi Noblia, Sokoia lantegiaren burua, preso da. Arrazoina: arma, diru eta gerlako tresna alde bat aurkitu dituela polizak, lantegi horri hurbil-hurbileko gordagia batean. Ainitz harritu dira: alde batetik ETAREN tresneria hori guzia, bestetik Patxi Noblia bezalako gizon bat!

Nor da Patxi Noblia? HERRIKOA sozietatearen sortzailea eta kudeatzaile lehenetarik. Euskal Herriaren alde bermatzen da sozietate hori: herrietan eta partikularretan kanpaina batzu eginez, enplegu eta lantegi berrientzat diru biltzaile arizana. Herritarren alderako lan baliosa beraz: askok ezagutzen ditugu gure etxeetako seme ta alabak, hola sortu aferetan aurkitu baitute beren lana. Holako gehiago behar ginukeela, horra zer dugun maiz erraiten.

Preseski, komunikatu bat hedatu dute denetan HERRIKOAREN kontseilukoek, diotela: «Aho batez gure kontseiluak jakinarazi nahi du zonbat harritua den espetxeratzen (presondegian) ikustez profesional eta moral aldetik hainbeste kalitate dituen gizona, berarekin lanean ari diren guziez miretsia dena». Herritarren aldeko lan hori miretsi dugunak, eta hortan parte hartu ere gure ahal ttipien arabera, zenbait bagare Euskal Herrian. Diruz baino bihotzez aberatsago, zenbat langile, erakasle, apez, auzapez, laborari ez ditu izan laguntzaile xumeak, errexago izanen zelarrik, ainitzen gisa, beha egoitea

eta pitsik ez egitea, gauzak berak egin artean: ez baitira ordea gauzak berak egiten, bereziki tipia eta aise lehertua den herri gaixo baten alde.

Horiek ere nola ez pentsa, komunikatuarekin batean: «Ezin asmatua dela hainbeste gauzaren altxatzeko kontzientzia izan duen gizon batek bere obra guzia erortzeko irriskutan ezarri duen», arma ixtorio horietan, jakinean bera ere zikinduz! Horra zergatik ixilik egon nahiago duten herriaren egiazko adiskideek, gauzak hobeki jakin artean; eta hola daude ezin konprenituz dagozilakotz eta bihotzean minez. Gisa guziz, eta hori hola da frantses legean, ez da nehor aitzinetik kondenatzen, ez-eta hobendun egiten, bera entzun eta, justiziak argitasun osoak egin ez direno: bereziki berak diolarik, Patxi Nolibliak erran duen bezala, ez zela arma gordagia hortaz jakinean.

Azkenik, eta argitasun horiek egin artean, nahiago ditugu gure gain hartu komunikatuaren hitz hauk: «On litakeela holako gizon zuzen eta baliosak ainitz izaita, gure herrietan jendeak bizi ditezten baldintza hoberenetan, langabezian egoiteko orde». Eta guk, bururatzeke, gure betiko leloa: armak baino beharrago dituela gure herri honek langile zintzoak!

Urtatsak – 1987-01-01

Urtats! Besta koloreak harturik mendi hegiak, horra non dauden dirdir, gain beheiti guri so: atorra xuritan gaina, zaia urdin edo gorrastaz behera, ez da ez egun laneko jantzitan kanpoa. Bestarako, musikaren firurika behar. Baina egun etxeko hegatzean firrindatzen duen haizeak ez du hori bestaburuetako zirimola. Oraino harenak gehiago, zer burrunbak ez ditu gau hontan berean erabili! Ortzia bai lauzkatzen zuen, bi kraskako haserretsuz erakusten zuelarik biharko elurraren murrizta.

«Negua, negua!» burrunbatu du hortan aitatzik. «Urtats, aitatz, urtats!» xaramelatu sematzik, nahi duenak konpreni. Hala da eta, ukan duzula zuk urtatsik, aitatz, edo ukanen bihar edo etzi? Ez baitu aitatzik urtatsik ukaiten. Horren denboran ez zen holako komediarik erabiltzen. Orain deusik ezin egin tripa jokorik gabe; eta bideak oro autoen firrindaz eta kurrinkaz dardaratu gabe.

Denak ere, egunaz baino gauaz hobe. Hala da eta, gero ta gehiago, egunari baino grazia haboro diola gure mendeak aurkitzen: ez baitu gehiago gauaz iluntzen ere gure herrietan. Zer diot? Gauaren beha daude ainitzak, Eguberri-Urtatsetako dirdira koloretsuak miretsiz besta egiteko. Bihotzak berak iduri orduan direla berotzen, kanpoan aire hotxa biziagotzearekin. Ez,

ez du orduan sematxik oherateko gogorik: urtats gaua ez da lo egoitekoa. Urte zaharra kantari-musikari burura eta, berria da berean halaber hasi, horra aurtengoan ere ainitzen urtatsa.

Goazen aitzina! Geroa du gazteak gogoan. Geroa eta kanpoa. Bere sorlekua zenbat nahi maite izana gatik ere, badaki honek ez dela mundu hetsi eta hetsi batean bizitzeko sortua. Nork daki non gaindika ibilirik, zenbat jaki mota jastatu beharra den, eder eta luze amesten duen bizi batean. Biziak hezirik aldiz zaharra, bestelakoak ditu honek bere ametsak. Ibili da bai bere partea, menturaz sematxik uste baino gehiago: preseski, ainitz baduelakotz ikusirik, berriz ikasi du etxe xokoaren balioa, eta supazterreko bakearen eta familiaren eta etxeke gauaren goxoa.

Aurtengo urtatsak beraz, urte berriko agiantzak, batzuek halako, besteek holakoak nahiko. Aurten ere mota guziez egina izanen mundua. Goazen beraz batzuen eroa besteen zuhurtziak eztituz; bai eta ere azkenen zuhur eta xuhurregiari ekarriz lehenek gaztearen baitezpadako gatz eta biperra.

Etxeko iturria – 1987-01-08

Harrigarria baina bizkitartean hala dena: etxeke haur tikiena, bai eta gehiena ere, zuk «iturria» aipa eta, hor zinituen lehengoan zuri beha, beren begi haundi ederrekin tente egoki gaixoak! Sinets ahala ere bazinuen, zuk erakaslea. Zure federik hoberenean hasia zu «Iturritik jitean hiru neska eder» kantua irakatsi beharrez eta putiko gehien harek galdatau dizularik: «Zer da iturria?» Baditakea holakorik? Iturria, baina iturria... ez da esplikatzen iturria! Han da iturria, Urotxerrekako xokoan... edo Urtxilon, Iturtxilon... edo Iturmutiagako xokoan!

Han da? Ala han zen, adiskide maitea? Ala, zer ari zinen zu gazte denboratik eta gaurrerako epe luzean, zure kanta zaharra «Iturritik jitean» kanta eta kanta, buruari eman gabe gehiago, ez dela ez aspaldi haundi hontan Urotxerrekako eta Iturtxilon, ura edan ditakeen iturririk. Alabaina, zu, aspaldi etxetik urrundua, zoazi bada itzuli bat, berriz ikuska, eta laster konturatuko zara lapar eta ihiztoka batzuek hartu zutela iturri horietan lehena. Bigarrena berriz, nola izanen da han iturririk, hodi eta arroilaz baztertua baitute hango uraren sorgia? Eta hirugarren iturri lekua ez aipa ere: bide harriztatua dute, aspaldi, han gaindi egina.

Baina iturriko ur hotxa? Nola biziko da gure haur denborako tokietan jendea? Nola bizi? Frigotik! Harat baitoatzi zure sorterriko ilobatxoak, ez

xarroarekin zu bezala, edo ferretarekin zure amatxiren gisan, baina zu hirian frigorat zoatzin bezalaxe! Ai zer gure xokoen gainazpikatzea! Itxura hura bai, urrundik, lehengotsua. Aldiz mintzaira, biziaren eta lanen araberakoa: iturria, uztarria, basarhea, leatxuna, kofoina, marrerak, angailak, galtzara, arbabidea, aitzur-sardea, jorraia, igitaia, bilurra, orka motxak, alportxak, lera edo lina, golde nabarra, sardea, pikotza, lakoa, mandioa eta holako...

Balitake litania horien luzatzekoa, gehiago haurrek ikasiko ere ez dituzten hizkuntzekin. Geldi ditela bederen liburu eta museotan, beren marrazkiekin. Izan ditela guretzat ahantzi eta ukatu nahi ez dugun mundu baten seinaleak. Horiek hola, segituko dute gazteek beren bidea. Tresna eta molde xahar horien lekuan ezarriko dituzte haiek, frigoa bezala, elektronikak eta oro. Haien lana izanen da herri xahar honentzat asmatzea biharko bizi behar-raren eta iraupenaren moldeak. Gure lana aldiz atzokoarekilako jostura egi-tea, erakutsiz nondik heldu garen, non den gure «iturria».

Etzetik kanpo – 1987-02-05

Ikusi haut, herriko gaztea, heure eskola horietarik etxeraino etorria; «behere horietarik», aitatxik dioen bezala. Hobeki erraiteko, aski maiz ikusten ere haugu, bakantzetan bezala beste igande zenbaitez bederen. Funtsean, hiaurk diokan bezala, ahal dukan guziez. Ala herriminak jo ote hau hi ere beste asko bezala? «Etzetik kanpo zait iduritzen nunbait naizela galdua» kantatzen zikan iragan mendean herriko olerkariak. «Nunbait naizela galdua»: zenbat ez ahal dira urruneko hiri edo Ameriketara galdu direnak? Eta zenbat gisatara, toki arrotzean burtxoratuak batzu, besteak aldiz nongoak ziren eta oro ahanzterainokoa?

Baina hi, 1987ko gaztea, ez haiteke arrotz bat izan gaurko mundu honen erdian. Ez haute eskuak hutsik igorri etzetik, aski urtez emanik hiri hainbat jakitate: mintzaira edo lenguaia zenbaitetarik ere jasta bederen ukan duk eskolan. Halere hi hain gogotik etortzen etxerat! Ez, ez diat sinesten sendimendukeria hutsezkoa dela hire herrimina; ez baihaiz hi xirula, kantu, xamar eta xahakoz enganatzekoa.

Iragan astean *Herria* honen berrikerari batek baitzion deplauki etxe ondoko iturria eta herriko ezmila direla munduko gauzarik hoberenak, nik ez uste sorlekuaren maiteminak emaiten daukala nigarra, lehenago kantatzen zen bezala. Nigarra ez, mindukeriarik ez! Bizkitartean hik jakinki esplikatzan, ainitz ikasirik baitakik segur mintzatzen, zer den herriko ezmila: beste

asko ezkila entzunik baduenak dakiela berearen balioa, bai eta gu euskaldunen herriko soinua ez dela gero hura mundukoaren artean txarrena.

Etixerat heldu haizelarik, ez baita orain haundi eta ttipirik, ez eta eskolatu eta gabeen arteko berexkuntzarik, maite dituk beti sanoki hire haurreko lagunak, baina zenbatetan ez zaik ote gertatu, maite ditukalakotz preseski, penaturik gelditzea erranez: «Ai! Hauek ere entzun baluzte kanpoko ezkila nahasiak, zenbatez gehiago ez zuten berea maiteko, beren ezjakinean ez baliotz aurdikitzeke orde!»

Zer nahi duk, gaizoa? Konpreni gaitzak hik ere. Gu beti hemen petzero egonak, beti hola atxikiak gaitiztek. Oroit hadi heure haur denboraz, oroit kanpotiar erakasle ta manatari batzuez, mespretxua baino hoberik ez baitzuten gure herriko ezkila txarrentzat, gure mintzairatik haste. Hik, buru on eta doi bat azkarrekoa baihintzan, tiratu dituk nolazbait heure tantoak. Aldiz hi baino ahulago batzu eñuldu eta lehertu ditik, beren denborakotz, ahalgeak. Halakoak bai «nonbait direla galduak», sekulan etxetik joan gabe. Batzu etxean besteak kanpoan, hola duk legea. Gisa guziz, ez «gal» gure etxea.

Bertsulari zaharra – 1987-02-26

Ikusi duk, gazte, bertsulari zaharra? Izan haiz haren entzuten? Ala osoki hartua hintzan, gaztez betetzen diren liberti-sala horietan? Edo, berdin, horietako nortasun gabeak min eginik, nahiago ote dituk hiaurk miatu, beste lagun batzuekin, antzerki, dantzari talde, kantaldi, ihautiri eta holakoak, Xuberoko maskarada eta pastoralak barne. Herri maitasunean baduk hozka bat lehenetarik horietara. Beharbada ere, oraino horiek ez direla aski jujaturik, nahiago duk hik barnago jo abertzaletasunean: ikastola horien guduka, sarriko Korrika, Aberri Eguna edo herrian berean ereman ditakeen guduka ixilago zenbait.

Eta bertsulariak! Ez diat erraiten horietan ez haizela ibiltzen: sustatzen ere ditie gorago aipatu mugimendu zenbaitek bertsulariak eta bertsularitza, zuzen den bezala. Baina hik, ez ote dituk hire hautu gisak egiten? Bistan duk, hau maiteago, hori gustagarriago, badituztela orok beren on-gaitzak eta eskuzarta luzeagoak dituela beti talendu haundikoak. Ez nauk horren kontra ari. Bertsulari zaharra diat hemen xoilki gogoan. Menturaz ni ere hari hurbilago nitzaiolakoan ezinez hiri, egia ezin gordea.

Aberastasun bat badik bertsulari zaharrak arras berezia: zorigaitzez hura hil ondoan duguna zinez negurtzen. Eta lehenik haxe: zer izanen ginen

gu hura gabe? Menturaz entzun duk, aspertzerainokoan, lehengoaz mintzo eta kantatzen, lehengo hizkuntzan eta doiñuan. Halere, halere, nola ez izan lehengoari lotua gaurko berritzaileena bera! Jastatu izan dik, bere denbora luzean, aldakuntza eta moda zerrnahi bertsulari zaharrak: haietan ona zitzaiona har eta txarra utz arizan delakotz beti, hitaraino helarazi dik zaharrak gure herriaren fortuna bat, daiteken arraroena eta partikularrena, bertsularitza.

Bere gisan izan duk euskararen begirale segurenatarik bat, eta denbora berean ez batere lausoa baina gaurko gauzen aitzinean edozein bezain begi argikoa, bestela nola mintza oraingo jendeari? Dohaina bizkitartean ez zuela arraroenatarik! Preseski. Aise ari den batek eta orotan arrakasta gaitza duenak lan errexagoa dik, holako akuluaz xixtatua delakotz. Aldiz holakorik gabe iraun duenak, bazikeian nonbait beste sustagailurik, kanpotik ez bazen barnetik. Ene ustez barnetik. Eta hik, gazte, zein duk hire akulua?

Euskaldunak eta kargudunak – 1987-03-05

Elgarrekin konpontzen ahal ote dira euskaldunak eta kargudunak? Ez errexki, bederen iparralde hontan, ikusten dugunaz. Galdegin ginuen euskal departamendu bat eta ez ukan. Galdegiten ezagupen eta diru gure kulturarentzat, frantses ezagutza ofiziala Euskaltzaindiarentzat, laguntza funtsezkoak mintzairaren alde, egiazko erakaskuntza moldeak euskararen alde... eta hauxe da gure miseria!

Horietan denetan mihi punttaz hitzemanak aztapar makoaz berriz kenduak, aise dira euskaldun kartsuenak errabiatzen. Berak doatzi orduan hauk «xabalerat», berek azpitik egin beharrez gainetik ukaiten ez dutena. Baina galda ikastola eta euskaldun kultur-etxe batzuri nolako urkabilurrean duten orduan lepoa sartua... kargudunak aski duelarik ondikotz bilurra tiratzea euskal xoriaren itotzeko.

Errex da orduan kargudunari harria botatzea. Hurbilagotik behatuz ikusiko dugu aise, ber harek duela beste urkabilur batean lepoa. Berak dioen bezala, edo erraiten ez badu erran gabe doana, ez da hura Euskal Herriaren karguduna, baizik Frantziarena eta Frantziak «frantses intresak», erraiten den bezala. Hortakotz, delako «intres» horietaz zaio kondu galdatuko goragotik hari.

Goragotik bai, baina petik? Pekoak gu gare, gaizo euskaldunok! Ez ordea arras gaizoak halere, ezen guk ere badugu urkabilur bat eskumenean, kargudunaren durduzarazteko: hauteskundeak heldu direlak, gure boza! Hori be-

deren badugu eta guri da dugunaz ongi baliatzea. Batasunak baititu bataila guziak irabazten, ez gauden halere batasun oso baten ametsean euskaldunen artean. Ederregi litake. Ezinezkoa. Baginu bederen izari edo negurriaren batasuna ez litake guti.

Izaria? Zu, euskaldun ezta, prestua, plantakoa, irriskurik egundaino hartu ez duzun odol hotzekoa baina egiazko euskalduna, zuhaurk diozun bezala, ez izan euskaldun bero batzuen kondentatzailea baina hein batean laguna, baitute haiek zuk falta duzun zerbaiño, «egiazko» euskaldun izaiteko.

Negurria? Zuk aldiz, euskaldun abertzale odol berokoa, nahiz ona den orobat zure analisa, ematzu bi behako: bat gibelerat, zenbat euskaldun den jarraikitzen ez zaitzunik, bestea zure buruari, hor ikusiko baituzu, parte, zure bizitasunean eta ainitzek ezin onartuzko zure hautu ausart batzuetan, zergatik ez diren jarraikitzen. Batzuk eta besteak bilaka gintazke holaxe gure kargudunen argitzaile, bereri hola zerbitzu eginez: Frantziaren kargudun denak hemen euskaldunekin ere dituela egitekoak.

Herri baliosa – 1987-03-12

Bat balinbada herri baliosik, Euskal Herria hala da. Behako orokor bat emaita aski, gaizki doatzin aferez beti nigarrez eta kurrinkan egoiteko orde. Balio du segur gure herritar baliosen itzuli bat egitea gainez gain. Eta noraino, erdiak hurbil ahantziko baititugu gure toki xuhurrean, bakoitzak berak segi dezala lerroa.

Bertsulariak ezar lehenik, egun hautan hauk aipu direlakotz Nafarroa aldean. Zer lanak eta zer berritzea egungoa! Haurretan, geroaren gatik hasi lana bestalde. Kantuak halaber bere txapelketarekin badu bere berritzea eta zenbait ez dira beldur, alta haize kontrara askotan, euskal kantuaren akulatzeke. Irakaskuntza ez da gutiago aho-mihitan: nola eta zer egin gure ikastolan bezala eskola guzietan, euskara bizi dadin egun eta bihar, badakigu badirela harrigarriko gudua deramatenak.

Pilota eta euskal kirolak dituzte beste batzuek beren griña eta laneko saila: neke ta trabak haundiago eta haien karra suharrago. Dantza eta herri folklore bat badugula, aberatsenatarik, berezienatarik, senditurik beste zenbaitek, aurtan ere neguko ikasteen lanak argiratuko, plazaratuko sarri, udari buruz. Ainitz begitarte dauzkana baita gure kultura, horra kazetalaritza: izan dea egundaino hainbeste euskal kazeta, agerkari eta paper mota? Irrati eta te-

lebistetan oraino, badugu euskaldunek zango bat barnean eremu horietan ere, bi zangoak ez bada hein batean, bereziki irratietan eta hobe!

Batek bestea baitakar, horra euskara idatzia, barnagokoa, bere liburuekin, literatur sariekin eta sekulan ez bezalako obra gotorrek: herriko seme ta alaba batzuen lanak. Sail horri berari dagokiola, euskal etxegintza, gure etxe ta oroigarri xaharren antolagintza, herriko ingurumenaren salbagintza, horri ere dituzte ainitzek beren denbora libro guziak emanak, gure arrabote, karrika, hilarri, dorre ta eliza zaharren alde bermatuz. Baina bizi den guzia berritzen ere baita, etxe ta itxura berrien alde ari diren artistak, menturaz ez aski, badauzkagu bizkitartean.

Bizi erran dugu. Nola ahantz beraz bizia eta bizitzekoa! Laborantzak duen berritze harrigarria, beti ta gehiago geroari buruz itzulia, hemen dugu ezarriko hau bere artzaintzarekin, elkarte ta kooperatiba mota guziekin, eta esnetegiak, gasnategiak, haragi apaintegiak... Eta horiekin industria saila, hau xuhurrena, ostatu saila, eta eliza saila, bere kezkekin baina sail ernea, eta bidegintza! Bai, zinez, baliosa eta aberatsa, horiek oro dituen herria. Are gehiago denak elgarrekin doi bat konpontzen badira, xede ederrez beterik.

Nongoak garen – 1987-03-19

Beltxa zen puttikoa. Alta euskaraz ari: solasean, pilotan, bai eta bertsutan ere doi bat. Zer dugu hori holakorik? Badira euskaldunak orotan berduratuak, ezkontzaz, arrazaz, nahastekatuak. Orduan haien haurrak etorriko dira... araberakoak.

Ez baitzen haatik euskaldun umea gure beltxa: familia gabeko haietarik zen, gure herriko etxe batean hazteko emana gertatua, suertez bezala, eta hazia zuten hauek, berea ukan balute bezala. Bestela egiteko ez zakiketen. Dena ere on, ez duenari etxe bat ematea. Beharrik ez dira beltz guziak holakoak. Beharrik ukan dute gehienek beren sorterriko mintzaira, hango bereko pleguekin, hango zuhurtzia, alaitasun edo grazia ezin ordainduarekin.

Nahiz ez zen batere gaizki eroria egun aipu dugun beltxa, zuzenago daukagu halere bere herriko marka ekar dezan haur bakoitzak, bere jendekiakoak eta ez beste nonbaitekoak beren on gaitzekin: onak oroz gainetik, gaitzak aldiz ez direlarik maizenean onaren infrentzuaz besterik. Hobeki erraiteko, badauzka haur bakoitzak bere zuzen edo dretxoak: haietarik bat, aitaren semea izan dadin mutikoa, amaren alaba neskatoa, funtsean bienak, maizenean elgar iduriak elgarretara, holaxet izaiten baitira aita eta ama gehienak.

Beltzak beltz moduak, horiak hori moduak, espagnolak espagnolarenak, alsazianoak alsazianoarenak, arabak arabarenak. Hala ez badauzka osoki, burutik buru, erraiten dugu baduela haur harek zerbait bitxi, zerbait eskas edo zerbait sobera. Eta euskaldunak? Badakit erranen dutela ustezko jakintsun batzuek, ez dela euskaldun modurik, euskaldun izenik, euskaldun izaitte bezirik; kasik, azken beltzean, ukatuko dizkidatela ere euskal ohidurak, kirolak, mintzaira bera, olerkaritza ta zuhurtzia gurezkoak eta gurea den guzia, zaharkeria ezdeusen zilo beltzerat aurdikiz hoik oro.

Ez dute arras beren falta ere hortaratuak badira, ez dituzte-ta ezagutzen ere holakoak. Izan dute hainbeste indar kontrako, holakatzerat bermatu zaizkienik, eskola, hezkuntza «nazional» eta «media» guzietarik hasirik, eta guziz diru madarikatu hori, hori gabe ezin biziz eta euskalduneri beti kasik kendua edo bederen xuhurtua hori. Garbi garbi dago orduan gure galdea: noiz ote ezagutuko zaigu guri, beltzendako hain zuzen zaiguna? Hots, euskal umea euskaldun haz dadin!

Eskualduna eta euskaldunak 100 urtez – 1987-03-26

Baionako Museo-Erakustetxerat joaiten denak ikus dezake, maiatzeraino, bigarren estaiko sala eder batean, euskal kazetaritzaren ehun urteko bide luzea. Agerketa horren zabaltzea egin du tokian berean Jean Haritschelhar jaunak iragan asteazkenean bere bilketa ederraren esplikazione argiak emanaz. *Eskualduna* —hola idazten zen orduan— kazetaren mendeburukari egin nahi izan du agerketa hori, harekin baiteritzo hasi zela egiazko euskal kazetaritzaren mendea. 1887ko martxoaren 15a zen orduan. Ondoko egunetan —martxoaren 29an hain zuzen, eguerditan— ospatuko da mendeburu hori toki berean, zor zaizkon mintzaldiekin.

Ehun urte. Urak bide egin du bitartean. Eta zer aldakuntzak epe horretan! 57 urtekoa izanen da *Eskualdunaren* bizi denbora —arte hortan *Eskualdun Ona* ere deitua izanik 1904tik eta 1908ra—. *Herria* honek 1944an hartu zuen azaroaren 16an *Eskualduna* berriki zenduaren ondoriotasuna. Ondoriotasuna baia osoki? Ez ditu beti aitaren bide berak hartzen semeak. Ez behar ere zenbait pundutan. Bere denborakoa izan zen aita. Beste giro batetakoa semea.

Eta beti aldatuz doa giroa bai eta gizonak eta haien egintzak ere. Errepublikaren kontrako giroa duela ehun urte euskaldun ainitzetan. Bestalde, osoki euskalduna balinbazen ere orduan jende xehea, frantsesez ari ziren al-

diz eskolatuak. Euskararen salbatzerik ez zen aipu, ez baitzen euskara lanje-rean ikusten. Bi arrazoin horien gatik bederen dira ikusten orduko kazetak doi bat erregetiar eta gibelkari politikan, eta maiz erdaraz ari. Emeki emeki dira euskaldungorat jinen, bai eta ideia berrietarat ere, errepublikaren onak eta haren barnean dela bizi behar ikusiz.

Gerlako egun ilun eta durduzakorretan ukanik *Eskualdunak* azken dalda-rak, *Herriarekin* dira gauzak aitzinatzen, Piarres Lafitte kalonjearen izpiritu zorrotzari esker eta haren bidetik: abertzaletasuna, euskara batuaren lehen urratsak, demokraziaren ideiak, herriaren eta gizonaren zuzenak, Europa, horra mendeburuari buruz aurkitu bide eder eta segurak.

Ez da haatik *Herria* bakarra, holako bideak aurkitu dituen. Bakoitzak zerbait berezitasun dakarrelakotz dira hain zuzen onddoak bezala sortzen egun kazeta, irrati eta multxoak. Ederki hori. Baina ez haatik alde guzietarat edo elgarri tiraka artzekotan guziak. Azkenean ororen kaltetan bailitake hori eta denentzat itogarri. Honek bederen behar lizkigute begiak ideki. Beste batzuek gure bizkar elgar aditzen dutelarik ederki!

Euskaltzaindia Angelun – 1987-04-02

Angelun ginuen bi egun osoz Euskaltzaindia: haatik ez batere bakantze-tan, funtsean bada hau baino sasoin hoberik hortako. Laneko egunak zituen hor euskal akademiak. Barne Jardunaldiak, ez baitu beste izenik: bere bar-neko lan taldeen berritze ta punduan ezartze bat orozgainetik. Ainitz lan sail badauka bere gain akademia batek. Bere egitekoa du gramatikaren azterketa, haren erregelen orraztatzea, ez batere manamenduak emanaz, baizik erabiliak diren formak eta legeak erakutsiz. Hautu bat egin behar eta, euskara batua-ren bidea du hartua baina bidea bakarrik, jakin gabe xuxen noradino derama-keen bide horrek, herriaren urratsean baitoa akademia.

Lan horretarako, horra literatura batzordea, euskara idatziaren eta liburu zaharren ezagutzari bere begi zorrotza dakarkiona. Herri literatura izanen da beste sail bat: hemen bertsularitzak eta amatxi zaharren euskarak dute ga-rrantzi haundia. Aise ikus dezakegu beraz, bere euskara batua gatik, ez dela beste euskara berri bat pentsatu beharrez ari Euskaltzaindia. Xahar eta be-rriez kondu atxikiz, lehengoa, gaurkoa, eta hein batean gerokoa elgarri josi eta uztartu beharrez bai ari da.

Beste batzorde edo komisionerik —dialektologia, onomaztika, toponi-mia, hiztegia, dirua ere behar baita, ekonomia...— badu oraino akademiak,

bederatzi orotara mementoan, berri bat sortzen edo xahar bat suntsitzen baita noiz edo noiz, behar arau. Horietan denetan dira barreatuak euskaltzainak eta bestaldeko langile on batzu ere, batzu gehixagotan barne, besteak gutixago. Batzorde horien berritzeak ziren Angelun, talde bakoitzaren egitekoari behako bat emanez.

Euskaltzaindiaren barneko beste lan bat izan da oraino Angelun: 24 euskaltzain tituludunetarik 23tara jautsia izanez, aita Damaso Inza duela sei hilabete zendurik, haren ordain bat egin da Angelun, Patxi Zabaleta kazeta honek bestalde aipatzen duena. Bozez egiten da hori beste 23 euskaltzainen artean, bozen erdiak eta bat gehiago behar dituelarik irabazleak. Beste gairik ere erabili da Angelun, hala nola hilabete guzietakoetarik. Heldu den hilabeteko azken ostiralean bilduko da, hilabete guziz bezala, Euskaltzaindia, Iruñean hain segur. Bestela Donostian da gehienetan biltzen, erditsuan delakotz. Baina urtean behin bederen ahalaz zazpi probintzietarik bakoitzean; bakoitzean ari da ordezkartza edo bulego bat izan beharrez Euskaltzaindiarena.

Aiten ontasunak – 1987-04-09

Patrimonia erraiten dute beste batzuek, latinetik: aiten ontasunak erran ginezake guk aldiz, gure arbasoen ganik dauzkagun guzien izendatzeko. Jaki-tekotan haatik nor diren gure aitak. Ez dute gehiago, eta uroski, gaurko haurrek eskolan ikasten, lehengo denboretan bezala, Galia aldeko arraza batetakoak zituztela beren arbasoak urepeldar eta besteek. Euskaldunak zituztela ere ez oraino, egia erran, edo ahapetik eta maiz eskolatik kanpo, denik ere.

Dena den, eta zerbait hoberik ukan artean, nahi duten guziek jakin dezakete egungo egunean euskaldunak zirela gure arbasoak. Eta ontasun batzu utzi dizkigutela, zerbait dakiten guzien arabera, paregabeakoak. Hori da preseski gure denbora hontako herritarren merezimendua: ontasun haiek berri ezagutu eta arrapiztu beharrez ari garela egungo egunean. Mintzairatik haste: hau askotan kordokan emana bada ere maizenean, hainbeste kontrako eta laidoren artean, sekulan ez ahal da beste alde batetik hoin bizi eta bizikoi agertu.

Hor dira lekuko gure mintzairaren militanteak oro. Hor ere bataila horren lehen fruituak: hemen mediku bat, hor marexal bat, han ezkongai bat edo ama familiako gaztea, gure herrian beren bizitzearen egitera heldu... euskara jada erdi ikasirik eta lekuan berean bururatzekotan gaineratekoa. Apez-

piku berri bat ere, xede ta urrats beretan heldu zaikuna, Landesetarik. Hori ez bada euskararen bizikoitasuna!

Mintzairaren inguruan edo datxikola, badugu hainbeste ontasun oraino, ahantzi edo lokartzerat utzi ondoan, berriz gurezen ari dugunik. Haietarik bat dugu bertularitza. Hegoaldean biziago baitzagon, mail haundi batez aitzinagotu da hura, gaurko media guzien kukulurat iganez: irrati, telebista eta zortzi mila entzuleko belodromoraino (honen erdia bakarrik aldi hontan baina osoa ere hain segur beharko ixtante!). Apalago gaude iparralde hontan. Nahiz deneri gustatzen zaioten talendu hori, ez da oraino herri guzia mugitzen bertsulariak hor direlarik: gero ta gehiago bai haatik.

Aiten ontasun horietan beste zenbat lekuko ez dugu arrabiziarazten ari dugunik: ohidurazko joko ta kirol motak, pilotakoak, herriko soinu ta musikak, kantuak, dantzak, etxe, plaza, karrika, elizateko arkitekturak... Denak ere ez batere zaharki gostuz eta lehengokeriaz, baizik guharen kulturako mail sakratu bezala, zerbait berritu behar badugu, eta behar da baitezpada, gurearen gainean eta bidean eginez oraingo eta biharko gurea. Itxurak eta kanpozko axala direla hoik oro, irakurlea? Baina barnean da manamendua. Eta egia dio kanpoak, hau delarik barnearen salatari.

Garazitik Gernikara – 1987-04-16

Eman dezagun Donibane Garazi: astelehenarekin merkatu egun batez, laborari eta inguruetako jendea ederki, beren asteko aferen egiten ari. Bat batean hegazkin bat, burrunba gorrian arratsalde betean herriaren gainean itzulika. Lekuak hustu baino lehen, horra non aurdikitzen dituen bospasei bomba burrustan. Hilak eta kolpatuak baitira, heldu da zalu zalua olio sainduekin apeza. Jakin balute zer heldu zen!

Segida latzagoaren berri ekartzen du bigarren burrunbak, lehena baino lodiago, harrigarria. Hiru oren osoz ez dute barkatuko: 50 bat hegazkin aleman francotiar hor ari dira beren bomba kargak aurtik eta bota, batzu 500 kiloko zartagailuak, gero jakinen den bezala zerbait hilgailu berrien entsiatzen, bitartean mitrallusaz barrastatzen dituztela iheska doatzin dohakabeak. Izigarria da herriaren suntsitzea. Etxe bat ez osorik, hilak milaz goiti eta zaurituak gutienetik beste hainbeste baina nola jakin xuxen egia!

Beste egiarik izanen da ederki itorik. Gerla urte gezur urte eta bete betean da hain zuzen Espainiako Gerla Zibila. Franco eta xuriak batetik, errepubli-

kano gorriak bestetik eta hauetan gertatu euskaldun libro nahiak. Nola utz orduan jakiterat Franco eta girixtinoak direla Euskal Herri ederraren xehatzaileak? Aski da sinetsaraztea gorriek berek dutela Gernika xehatu.

Gernikan baitugu hori eta ez Donibane Garazin, han ere astelehentan laborari merkatu ederra, bakarrik haundiagoa herria, eta euskaldunagoa. Nondik ez litake euskalduna holako euskal hiri saindua! Bere haritz famatua, libertatearen seinalearekin, hor berean zuen, haritzaren pean, Jose Antonio Aguirre Euskal Lehendakari berriak «Aiten lurrean zutik eta Jaungoikoaren aurrean apalik» bere herritarren alde zin egina. Hori da Gernika, euskaldun guzien bihotzeko herri saindu xintxifikatua. Garazitik bi oren autoren bidean delakotz, egin dugu aintzek behin bederen Gernikarainoko bisita gure bizian.

50 urte joan badira 1937ko apirilaren 26 hartaz geroz, ez dugu alabaina gutiago beharra hortikako argia. Bederen bi zurkaitz aurkitzen ahal ditugu hor baitezpadakoak. Lehena, leialtasuna: herri batek bera nor izana den eta nor behar beti izan ahanzten balu, bere mintzaira eta izaitea galduz, harek bere hiltzeko kondenamendua sinatua bailuke. Gauden gu! Bigarrena, elgar onartzea. Ez segurki berdintasunean, hori ez ditake. Baina ados jarriz halere beharrenean: gure herriaren maitasunean.

Zer dugu gurearen kontra? – 1987-05-07

Itxura baitu: euskaldun bat bere amaren eta arbasoen mintzairaren kontra! Galda bagineza beltz bati bere belztegiko zerbaiten kontra bihurtzea, hobe ginuke naski handik lekuak hustea. Joan baginte beste nornahiren herriat, herri haundi ala ttipi, erranez behar dutela hango haurrek berea bazterrerat utzirik gure jestueri lotu, gure lenguaia ikasi, zer salbaiak gu! Eta gu hortaratuak. Baina beste aldetik guhaur gurearen ukatzerat ekarriak. Hori da egun guziz gure begien pean ikusten duguna.

Huna eskola bat. Andere errientsa bere bi nexka ttipi eskolan abiatueri euskaraz, eta euskara hutsez, mintzo (eskolako salatuk kanpo bederen eta berekin dituelarik, bistan da, bai eta etxean). —Baina emaztea, zertako ekartzan dituzu haur hoik eskolarat, erdara ikasteko ez bada? —Ikastea ez duzu bakarrik erdara ikastea! Denak ikasgai eta ikasbide dira haur horientzat. Eta lehenik etxean berean ukan dutena. Harekin dira, kasik sortzetik, hasiak. Hasi haren ongi segitzea dut nik nere lehen erakasle lana eskolan eta denean: neure ala bestenerekin.

Ez dute denek hori konprenitzen. Beha hortxetako haur pollit horri. Goizik igortzen baitira orai, ez da oraino kasik mintzo ere. Bederen deus xuxenik. Alta sinets nezazu lanak izanen ditudala nik horrekin ondoko egunetan: erdia euskaraz eta erdia erdaraz erraiten ditu gauzak, hola, saltsa bat ize-nik gabea! Euskaraz (lehenik) garbiki ari direnekin aldiz garbiagoa da gero bidea: hastean erreposkiago eta pentsatuz erraiten dute haiek beren errepostua baina den hura xuxen.

Holakoeak bi mintzairak erabiltzen dituzte, arras maneran, hamar urte gabe. Bi mintzairak. Ala bat da mintzaira eta bestea ez? Holako gauzak ere sinetsarazi dizkiote atzoko jende ezjakinari zenbaitek. Ez zuten hortan maleziarik orduko erakasle ainitzek. Berek euskararik ez jakin, nola lagunt behar bezala ttipiño hoik, bi mintzairaren arteko pasaiabideetan haien izpirituak xorroztuz? Eta zenbaitek bazuten mesfidantxa bat hartua euskararen alderat: baitzuten haur haundien batzuek aski malezia beren artean berea baliatzeko konprenituak izan gabe.

Horien denen ondorioa: mespretxua batetik eta ahalgea bestetik. Mespretxua bai, ez baitute euskararen balioa erakatsi erakasleek berek, alabaina. Ahalgea: balio ttipikoa dela zure ontasuna sinetsarazi dizutelarik gezurrez, zer gelditzen zaizu zuri? Zure haren ahalgea! Gaurko erakasle gazte ainitz bagare gezur hori salatu nahi dugunak, eta ez bakarrik ikastolatan, baizik gure beste eskola eta familietan ere: ez dugula gureaz ahalgetzekorik.

Agur zuri anderea, bi mintzairaren erakaslea.

Kasu haria gal! – 1987-06-04

Beti izan da eta izanen zahar gazteen parabola: aitak idiak zituen, semeak trakturra, ordinadorea du sematxiak, edo sarri behar. Ukan eta egin ditu bere berritzeak euskal mintzairak ere. Orain behar dira matematikak, filosofia eta oro euskaraz erabili. Eta gai da besteak bezala. Bada haatik zer egin elektронika eta zientzia berrien euskararen sartzeko! Funtsean hortan dira beste batzu ere, anglesa baita eremu horietan sartuena. Jakitate berri horietarat urratsa luzatu behar: lanak dituzte hor abere hazkuntza eta lurrarekin sortuak ziren mintzairak.

Mintzairaren bateratzea bestalde. Kasu hau ere herri guzietan gertatu dena da. Diogularik gure herri bakoitzak baduela bere euskara, ahanzten dugu, edo ez dakigu, herri guziak hortarik pasatuak direla: bazen ere, eta bada

oraino herritarren ahozko mintzairan bederen, ainitz frantses eta ainitz españolki mota. Herri horietako akademiek egin zituzten hautuak. Holaxet moldatu ziren, idazteko bederen, español eta frantses batuak. Beharrik, bestela nehork ez baitzuen jakinen nola izkiria.

Horra zertan garen euskararekin ere: batasun baten bidean, elgar konprenitzeko. Eta denen nahikariaren beharrean, bakoitzak, doika doika, beretik emanaz, eta auzoarenetik hartuz. Holaxet eginen da, emeki emeki, euskara batua, biharkoek idatziko dutena, eta mintzatuko. Euskara batua erran dugu. Euskara beraz, eta ez bakarrik batua. Ez dira ustegabetarik josiak bi hitz horiek. Azken honek erran nahi badu batetaratua, herrien euskarak dira hor batetan urtuak.

Euskarak, eta ez nonbaiteko asmu edo lerrakuntza baxtartak. Atzoko behiaren aratxea izan behar du gaurkoak eta ez edozein kurutzamendutan mandotu munstroa. Berritua hitza nahiago dute zenbaitek. Eta berritze horrek zer erran nahi duen jakiteko, beha gaurko etxe ta jauregi berritzaileeri: plastreki usteldu eta emokadura kofak harroturik, nola kausitzen dioten bastizari bere sortzezko traka hura. Haren gainean itxuratuko dituzte nahi dituzten apaindura gaurkoenak baina lehenik aurki erroa eta bila hastapeneko haria.

Bada orain zernahi jende, euskal mintzairaz axolatua denik. Arrazoin dute. Jo dezatela bi buruetarik: gaurkotasuna batetik eta zaharren haria bestetik. Biak behar dira baina ahoan bilorik gabe erraiten diegu: has zaharretik, iturria hor baita. Hortan bederen zaharrek dute arrazoin. Zuk beraz, euskara berri bat egin nahi duzuna, deus ez duzu eginen zaharren haria galtzen bazu.

Nola lauzkatu kantua? – 1987-06-25

Huna herri bat, gurea: iduri oro irriskutan ditugula, bereziki gure herriko ontasunak eta gure buruaz lehen ginuen urgulu doi hura. Bizkitartean nonbait gure kantuaren xapelketa bat munta, kantu xahar ala berri, eta mundu bat etortzen. Ohargarrienak, iparralde hontan, joan den apirilean izan zen Larzabaleko egun hura, eta orozgainekoa Eiheralarreko azken hau, Euskal Herri osoa higiarazten zuela. Eta hainbeste hauturen artetik, euskal irratiek daukaten arrakasta! Galda entzuleari berari zerengatik ote duen irrati guzien artean gurea hautatzen, eta maizenik entzuten duzuna: «euskaldun kantu ederren gatik!»

Alta ez delarik bestalde goiti ari herrian berean kantua: xapelketaz kanpo, xaramela guti entzuten etxondoko mazelan edo laneko mahainaren aitzinean. Beraz, kantuz entzutea maite eta kantuz artzea ez? Nolaz ditake hori? Behar dituelakotz naski lauzkatzaileak kantuak. Konpainia eta elgertasuna, horra zer ziren lehenago gure kantuaren lauzkatzaileak. Ari zen jendea kantari, arto xuritzale multzoa biltzearekin negu hastapeneko arrats luzeetan, ari kantari ostatuan, bazelarik herrian berean mahain gehienek betetzeko jendea, kantari ogi joite ta mahasti aitzurretan.

Xaharragoen ganik badakigu oraino ez zela omere on eskasik auzotegi guziaren lats'iturrian biltzen zirelarik xuritzzaileak. Entzun dugu ere kondatzen nola Gipuzkoako herri tarroetan entzuten zen, karrika oso bat burutik buru betez espartin josle emazteen kantu alaia... artetan arrosarioarekin aldizkatua egia erraiteko: otoitz eta kantu, ez ote zen hori herri oso baten bizi gostua, eguneroko besta ez erraiteko ordu hartakoentzat. Hori erranez ez dugu sinetsarazi nahi lehengoak oro amets goxo eta xoramendu ezarri beharrez ari gabela: gaurkoa ez bezalako bizi pobre ta xuhurra zen haiena; aldiz ez ote zuten beren neke ta ezinbertzeen tapagailu ta sendabide kantua?

Gaurko denboran ez ditzake gizonak bere baitan edo konpainian aurki bere akuluak: ez duelakotz, ez barneko ixiltasunik ez auzoen konpainiarik. Kanpotik, eta aski urrundik bai, maizenean bere akulu tapagailuak. Halere bizi da sua, bizi euskal kantua gure euskal bihotzetan. Frogak hor daude. Zertako ez du eginen kantuak, hala nola kirolek egin dutena? Ez direlakotz gehiago beren baitarik hasten haurrak pilotan ere, sortu baitira erakaskaleak eta elkarteak lan hortaz axolatzeko. Berdin berdina ere kantuarekin. Lehengo akuluak kamustuak badira, berri batzu sortu beharko, gaurkoak eta... xorrotxak!

Herri honen umeak – 1987-07-02

Gure herriko seme alabak ziren bat ala bestea. Bat ala besteak bere gisan herri hau maite. Batek, semeak, bere herritarren zaintzekoa zuen ofizioa hartua. Ofizio gogorra, irriskuz betea. Denbora berean, gizona gizon, bihotz herrikoiki eta bizigura baten jabe, familia eder baten amodio ohandzeaz aberastua zuen lagunarekin bere etxea. Herria maite: maitasun horrek zukeen, urrundu egin eta, bere sorlurrerat erakarria, hain segur aspaldiko ametsak obratuz eta obratzekotan.

Besteak berriz, alabak, herriaren aldekoak zituela bere ametsak eginak hark ere, ezin ukatua. Oraino gazteago, beroago ere beraz dudarik gabe, ez galda eta ez duda sutan zuenetz bere aldetik bihotza: ez dira barneko sukar bat gabe hartzen holako alderdiak. Badaki ondikotz Euskal Herri guziak non gelditu diren seme alaba horien bideak: bakoitzak bere moldean hartu maitasun beraren irriskuak elgar jorik eta herio berak biak iretsirik Miarritzeko treinbide zorigaitzezkoan.

Izan da, ondorioz, bihozmin, maitasun, errespetu, dolumin eta sumindura, orotarik nahaste, bai Kanbon eta bai Heletan egin diren azken elgarretarazteetan; eta familia gaixoena haundiena. Sumindura hitza da denen artean berexten. Sutan eta minez dago alabaina berriz ere, eta aspaldi hontan, gure Euskal Herri maitea. Batere denak nahasteko gogorik gabe, nola ez oroit, egun guti lehenago, beste euskaldun batzuek Bartzelonako hiri haundian egin hilketaz? Hamazazpi hil, denak hobengabeak eta deus ikustekorik gabeak, eta ainitz gehiago zauritu.

Nork nori sinetsaraziko du horiek oro direla herri baten zuzentasun eta zorionerako bideak? Ordainez, batzuen abrekeriak eta hiltzaile urratsak kondenatzearekin, ez xuti hi aldiz, eder eta bapo, heure herriarentzat pitsik egiten ez dukan euskaldun auherra! Ez baitute hi iduri bizkarkin berekoiek salbaturen herria. Ez, aste hontako bi gazte horien sakrifizioan ere, ez eta beste nehon, ezin ezar onak alde batean eta txarrak bestean.

Gerleroak dira hola arrazoinatzen dutenak: gu denak onak eta besteak oro gaixtoak. Gauzak hola jujatuz, gerlari diogu guhaurk bide emaiten, bakoitzak gure etxe inguruan. Bide horrek, herraz herra, ordainez ordain, hiltzez hiltze, ez du nehorat heltzerik: are gutiago bakerat. Aldiz, bi aldeetan doluak jo gaituenak, noiz dugu elgarrekin ekarriko gizon xehatu eta herri ukatu baten dolu maitekorra? Eta nork daki denborarekin? Ez baita dolua betiko, ez eta hiltzea. Bizia bai... biharamun hobe batean agian!

Hitzak baino barnago – 1987-07-09

Uste ginuen orok erranak zirela. Ixiltasun penatu beraz estaliak ginituen bi aldeetako hilak. Hilak bai, baina biziak? Egina ere ginuen gure gisako jendetasunezko urratsa gelditzen diren aita eta penatueri buruz. Ez gureak zer-bait balio duelako ustean baina xoil xoil ez jakinez besterik zer egin. Eta ez ginen gu bakarrak hortako. Joak dira gure herritarrak. Min dute beren gune hoberenean, baldin eta gehiago ezin konprenituz mututuak gelditzen direnek

ere. Min ginuelakotz guk ere, eta ez baitu minak berexgorik, solas goxo batekin egonak ere ginen igandean euskaldun jandarma gazte harekin, aspaldiko oroitzapenez.

Egun batez lanketa joana, hura ere, huts edo kausi, familia haundi pobre batetako semea zelakotz, hura jandarmeriarat, beste batzu peontzarat edo Ameriketarat joan diren bezala, nun zuen harek, gaizoak, hobenik? Han ginauden beraz, herritar baketu batzuen amets xoro goxoan... Aski balire ba, ametsak eta hitz goxoak!

Tenore berean beste nonbait bazabiltzan gure beste gazte batzu: zapar-tagailu batzuen prestatzen, irurtzuriaren pareko zartagailu lanjerosak, ortzantz aro harekin. Ez hiltzeko xedetan halere Iholdi, Kanbo eta Angelukoetan itxura guzien arabera, nahiz nork eta nola muga holako tresnen irriskuak? Bakotxak badaki segida: gure gazte bat bera xehatua, eta bestea ere bai. Eta berriz ere nigar eta doluak bihotzetan. Eta berriz ere nehork ez jakin noiz arte holako bidetik...

Hemen gaude beraz, ez jakin gehiago zer erran. Badere, ez du menturaz ele beharrik gure herriak. Maitasun gosez hozten ari den herri honek. Maite zaitut bai zu, ama, eta zu, aita doloratua, zure haurren durduza ezin konprenituz bihotza sarraskitan zaudena. Maite haut gaztea, errespetu haundiengan, nik ez baitakit, ez-eta menturaz hiauk ere, nondikakoak dituen hire burtxora horrek erroak. Maite zaitut zu, osoan, herria, zure historiarekin, zure kezka eta zauriekin, zuk maiz jasaiteko duzun mespretxu pean lehertua.

Ala zuk dauzkazu, herri maitea, hoinbeste gaitzen segetuak zure sabelean gordeak? Ukatu zaituztelarik, itoz zure mintzaira eta zure bizi beharra, «Herrian nahi dugu bizi» eta «Euskara» oihukatzen zutelarik zure seme alaba gazteek. Maitezko so bat du herri honek guziak galdatzen. Hainbeste idorkeria, halako itsumenduak direlarik orotan alha, horra, maitasuna, herri hau guzia bere ateka txarretik atera dezakeen bide bakarra. Beste guziak hitzak dira. Ez baitute hitz eta ele xoilek sendatuko herri eritu hau.

Kalla kantuz – 1987-07-23

«Kalla kantuz ogi petik uztaril agorriletan» dio kantu xaharrak. Nork ditu egia erran kantu xaharrak kantatzen? Erramun Martikorena eta holako batzuek? Dena ere on: hola bederen kantari haundi horrek beharriak xarmaturik, arraberritzen ditugu bazkari eta ezteietan lehengo abesti hoberenak. Entzun dut beraz nik ere, irakurleak berak bezala hain segur, kallaren kan-

tua. Ez gehiago ogi petik, bakanduak baitira gure herri askotan ogi alorrak. Nonbaitik ari zen halere: landatik ez bazen pentzetik.

Beste batek hustu lekua zuen hartua: ixildua baita, zenbat aste hontan, kukua, udaberriaren leloa nota berean doblatuz ekarri ziguna eta ametzak ongi hostotzearekin ixildu. Ixil zitakeen kukua. Ez du bertsulari eskasik gure xara, erreka ta zelaien parabisuak: etxe zorien erasia nardagarrien gainetik, horra ainaren kirrinka saminak, edo sasi xokoetan amodiotan dabilzan errexiñoleten lausengu eztiak. Aldiz behi esnadunen sorho alderat aldaratzen bazara, zer dantza jauzikaria ez dizute uli xori buztan luxe ttiuttakariak eskainiko, inguruz inguru, ohar zaiten zu ere kabala tripa haundiaren alha baketsuari.

Haratago noiztenka, gaurko gizonak sobera bipildu duen oihanaren hegitik, atzarraraziko zaitu uzkinazoaren zinkako edo pikaren salakuntza errepikadunak. Edo berdin, bere nota lodiak ere baititu orkestra bakoitzak, bele zaharren karranka latzak: hor doatzi batzu ala besteak, trufa baino musika gehiago, beren egunerdiko pausarat, goiz guzitako ohointza zure lurretan eginik.

Orduan du, beroaren beroan, loak harturen kanpoa. Doi doia, mendi edo larreari baduzu etxea, miruaren kurrinka zenbait dukezu iraztorra aldetik zure beharriaren sosegu... non ez duen errekaburugaineko azken etxaldetik, herriko azken astoak bere irrintzina botatzen. Horra beraz udako soinuak... kallatik eta astoraino: honentzat ez da gehiago «barkatu» edo «errespetua salbu» erraiten aipatzean, bera baita errespetagarri norbait bilakatu, bakan-tzearekin, barruki zokoko asto gaizoa.

Eta horiek denek salatzen dutena, nola doan gure herrietako bizia: lehen-goak zahartuz edo arroztuz, non ez den osoki galduz. Horien lekua hartzen duten soinuak ezagutzen ditugu: motorraren burrunbak, eta beti burrunba, edo musika tresnen tutadura, eta beti tutadura. Baina tresnak, ttipien ala haundienak, gizonarenak dira, gizona da beti jabea. Nola egon beraz gaurko gizona biziaren jabe? Berritzeak onartuz... biziaren gustu on hura galdu gabe!

Bidea eta bizia – 1987-II-26

Firindaka hor doatzi autoak Baxenabarre eskualdetik Baionara buruz bereziki goizetan. Gain beheiti alabaina. Urak ere hola du bere ixurkia. Haatik astia hartzen du harek, bereziki Uztaritze ta Milafrangako zola haietan itzuli mitzulika. Gaurko jendeak aldiz astirik ez du. Hortako ditu eta beti bide

ederragoak egiten; denbora sakratu hortarik irabazteko. Urrea eta bizia baita denbora: lasterrago helduz langilea bere lanera, har baitezake etxetik doi bat bidetan bere lana; eta karreuntzan ari direnen eguna ez du bideak jaten lehenago bezala.

Ba, baina zertan daude hor kaxketadun hede xuri hoik bidearen itzal-guneetan erdi kukulauka gordeak? Asmu txarrak golkoan eta malezia go-goan, xixtu samin batez lehen huts mikoak noiz sala? Baitira ordean huts batzu mikoak ez direnak. Zuri edo eni orobat gerta dakikeguna, eiheran egon eta etxerat laster, edo ustegabeko ezinbertzez beranta bildu, eta orduan zapa gehixago zangoaz, har ere zenbait irrisku beribilarekin marra zuri horietan, berdin tresna on baten jabe, berdin guhaur trebe... eta segida ez badakizu irakurlea: har itsura kazeta bat, hantxet aurkitzen baitira «huts miko» horien ondorioak hitz larritan, argazki eta denekin.

Zenbat hil ote dauzka Euskal Herri ttipi honek bidearen gainean urtearen buru batetik bestera? Berrogoi-ta hamarreko hori? Ala gehixago ere baia ote, urtealdika? Astean batekin ere ez da guti, futxo! Horra zertaratu gaituzten gure bide ederrek. Biziaren alde eginak: zubiak, bihurguneak, pasaia irris-kutsuak apainduak, fitexago ibiltzeko manerak ezarriak, aita familiako batzuen lan-jornalaren gatik, edo beheretikako erosgailuen prezioa ttipitzeko eta... eta... horiek oro herritar batzuen biziak pagatu behar ditugula?

Goiago aipatuen bizia bai behar zuen bideak fagoratu baina tronpatu diren gaixo hauenaz ordaindu gabe ahalaz, horra zer derragun gure kaxketadunen larderia zuzenak... Baionarako bide hortan lehengo zenbait mila bakarren orde, egunean hamabost mila beribil dabiltzan denboran. Erregebideak batetik, minixtro karrosak bestetik, nigar eta doluak ororen artetik, ala holakoen profetak zirena lehengo xaharrak, «ez dituk zuen denborak hobeak heldu» eta holaka mintzatuz? Hobeak edo ez, ez baitu nehork bere sortzea hautatzen, gurearekin egin beharko guk aldiz. Baititu gaurko gizonak berak egin hautuak ere, bide ala bideko, bere hautuen gobernatzen ikasi beharko nahi ala ez, bere onetan.

Agur Ziberua, bena norat hua? – 1988-01-07

Euskal Herriko zazpi probintzietan ttipiena. Hamalau, hamabost mila bizitzale. Alta, badakika hire behar, behar gorrian dela Euskal Herri osoa? Frogak hor dituk metaka; pastoralara muntatzen dukalarik Sohütan, Muskil-din, Barkoxen ala Santa Grazin, hor heldu zaik Euskal Herri osotik milaka:

Baiona, Donostia, Iruñea ala Bilbotik jin diton, ez zaiok nehorri nehorri ere hi bezain haundi eta miresgarririk.

Ziberoa: baina urte guzian badituk hire lurretan, gipuzkoar ala bizkaitarrak hire mintzaira, ahozkerak eta ohidurak hobeki xurgatu beharrez. Ziberoa: hiri dagozkik ikerle jakintsunak, hire lurreko urte ta zilarkirik bat ere ez galdu beharrez. Ez zirena behin batez euskararen bateratzaileak hire gainetik berexi! Batasun hori hi ahantziz egin nahi zutenak baztertuz.

Bai, norbait haiz, Ziberoa. Ehaiz nornahi, ziberotarra. Euskaldunen arteko konpainia batean ez duk inorant eta ez-jakin zenbaitez besterik hiri trufa eta irri eginen daukanik edo «hobeki konprenitzeko» frantses zerratu edo eskoil batetara lerratuko zaukanik. Zerbait jakin, edo jakin nahi duten guziak bai, egonen zaizkik beharria eta izpiritua hire graziaz ezin beterik. Bai, hortakotz, agur hiri Ziberua! Eta bietan agur, ikusiz hire nekeak eta kalteak.

Ikusiz bai, hik ere sofritzen dukala: batetik ez dutelakotz hire haur guziek bere zuzenean miresten eta prezatzen sort-herri horren balioa. Halere badituk hor berean izpiritu zorrotz eta kartsuak, agian gero-ta-hobeki entzunen direnak. Beste sofrikario bat, halere, Ziberoko Botzak sekulan baino saminkiago entzunarazi diguna: lana galtzen ari dela Ziberuan. Harritzeko xifre ta konduekin gainera: bi milaz goiti lan enplegutarik, mila ta zenbait galdu ditukala azken hamar urte hauetan, Ziberua. Nik larriegi eta baltsan ikasi eta emaiten baditut ere hemen, harritzeko konduak gisa guziz: beren jornal lanaren erdia galdu dutela ezbaian Maule ta Atharratzeko bi kantonamenduek, eta hori hire haur baten haunditzeko epearen erdian doi doia, hamar bat urtez hots.

Norat huan, Ziberua. Hori duk bere herri guzia ere maite duen oren oihumina. Ezen Ziberuaren pare ditugu halaber Donaixti, Suhuskune, Aldude, Urepele eta beste lerro bat hauekin, biziari garrasiaz eta dolamenez ari garen herriko seme-alabek ikusten. Ez da beraz hori xoilki Ziberuaren arazoa edo afera. Euskal Herri honen guziarena bai. Gure herri osoaren bilduma baita Etxahunen herria. Kanta bai guk segurki Ziberoari. Baina ez ordea hortan geldi...

Hobendunak – 1988-02-04

Zertan den euskara. Ez gero han nonbait, edo zer itzal duen euskarak gaurko munduan. Ez! Gure etxean berean, gure herrian, Euskal Herrian. Halako inkestak badabiltza hor gaindi, edo ibili dira eta ez bide dute horko gal-

deen erantzunek nehoren espantatzekorik. Gibelerat ari dela euskara: hori baitute erakusten ihardespren ainitzek, egia garbiki erraiteko. Ez du egiaren agertzeak desohorerik; medikua ekarrarazten dugularik, nahi dugu erran dezan ahalaz egia, ez baitu gaitzaren ukatzeak egundaino eri bat sendatu.

Hau da beraz ikertze horietan agertzen zaigun egia: euskara gibelerat ari dela, lehen azkar zen toki batzuetan beretan. Egia batetik bestera joanez, gibelerat ari bada gure mintzaira, badirela nonbait gaitz hortaz hobendun direnak, tratatu beharko direnak. Ondoko egunetan jakinen dituzkegu inkesta horren emaitzak. Gauden beraz beha, aitzinaldea hartu gabe, denbora jin artean. Halere zerentzat luza guk gure partetik? Gaitza ezagutzen dugunaz geroz, eta hala da ohartuak ginela inkestarik egin gabe ere, zertako egon faltsukerian, medikuak ez duelakoan oraino errana zer egin eta zertarik begira?

Holaxe dute kondatzen Donibaneko feiria egunean medikurat joan zen eriarena: gaitzeko tentsioea zuela honek eta, zerrikia, arnoa eta aperitifak kendurik medikuak, galdegin baitzion eriak noiztik has erresima garratz hori eta «bihar berean» erranik medikuak, ahotik atera orduko ihardetsi ziola eri gizagaizoak: «Beraz egungoan bederen beharko dut baliatu!»

Ez balia gu... euskara gehiago errekarra pusatuz, egun bakar batez baizik ez balitz ere. Baina ordu dugu gaur beretik lanari lotzeko. Badira jadanik lotuak direnak. Goazen gu ere haiekin. Nork ez du ikusia herriko medikua, auzoko marexala edo beste errient hori, bera lehenik eta bere familia ondotik, nola hasiak zaizkon euskarari harrapaka? Ez da segur tenorea, kanpotiar horiek bixkotxa bezala murtzatzen hasia duten euskara honen guk gohainditurik uzteko, garen bezalako xoroak! Xorakeria hobenduna litake zinez gurea, balio baitu segur euskarak, deus dakiten guzien arbera bere kantu, bertsularitza, erran zahar, zirto, ateraldi eta guziekin.

Zenbait ekarriagoak ditugula gure bideen berritzerat, zabaltzerat. Ederki. Beste batzu gure hazkuntza, mahasti berri, lantegi edo beste. Ederki ere. Denak on dira eta denak beharrak, gure herritarren hazteko. Dohainak, bestalde, ez ditugu denek denetako. Denen artean dugu herri bat egiten: jo batek batetik eta besteak bestetik duen talentuaren eta ixuriaren arabera. Baina mintzaira, denena, batek hobeki, besteak legunki edo bipilki. Hortan ez zaiku nehori zilegi lo hobendun batean egoitea. Edo bestela baluke «Ama Euskal Herriak» sekulako nigarra gutaz egiteko, utzi dugulakotz Xalbadorrek zioen bezala:

Bere seme alabez abandonatua
Nork barka dezakuge gure bekatua?

Elurrik gabe bizi? – 1988-02-II

Badira neguak hiltzen dituenak. Nor ez urrikal, neguko hotz haundietan, aterberik edo berogailurik gabetuez? Latza nornahirendako negua bere egun beltz eta gau luzeekin, iguzki zurpail eta trufari batek xoilki urrundik so egiten dizularik, kasik eskarnioaren doia. Are gehiago latz jende xaharrentzat, odolak lehengo kalda galtzen ari duen sasoinean, alta aspaldi eta aspaldidantik sofritzen ikasia izana gatik ere adin hortakoek.

Negua. Ez zioten segurki ustegabetarik eman gure hegoaldeko anaiek urtarrilari «ilbeltza» edo hilabete beltzaren izen dorpea. Xuriak eta beltzak ikusi ere ez zirena aitzineko bi urte horietan, batean urtarrilaren 6an eta bestean 13an etorri elurte haundiekin! Orduan bai, aldiz aurten? Aurten bestela jotzen musikak. Farra farra, gain beheiti, hegoak eta oro Ganderailukari. Zertako egon orduan ere dolamenka, sortzekoa dela gure gustua eginen duen hura. Bada hor gure gustuaz besterik.

Bada mundu hau guzia bere bizi behararekin. Eta nausi haundia izaki beharra. Ez zakiten ez gure gazte ainitzek etxetik abiatzean nongo iturritik edan beharrak ziren. Zu berotik bizi? Ni aldiz hotzetik. Eta beste bat bien artekotik. Eta denek bizi behar. Holakoa da bilakatua gure bezalako sozietate erne eta entseatu bat. Baina hortako bereko ere, arras minberakoi eta hutsegin errea: hala nola hotza behar duenak edo elurra ez du nehondik ere hegoa eta beroarekin ongi emanen.

Galda hori zure alabari, hor duzularik bere «elurretarako» sasoiaren egitera joana edo joatekoa, elur faltan hasperenka. Are gehiago, kopeta txarrean aurki zinitzazke hango nausi-etxekandereak aurten gertatzen zaienaz: langileak hor eta lanik ez, pagatzaileek gibelerat egin dutelakotz... «elurra etorri artean». Urrun garela hor Donibane Garazi eta Hazparneko merkatuetarik! Eta horgo bildotxaren prezioetik. Bai eta ez.

Lehenago zen erraiten munduaren erdiak ez dakiela nola bizi den beste erdia. Hau bederen ikasi du gure munduaren erdi bakoitzak: beste erdiaren behar gorritan dela bera ere bizitzekotz; ez duela ez hemen bildotxak prezio onik eginen, ez badute beste nonbait elurrak, edo autoak, edo etxegintzak, edo ordenadoreek prezio eta mozkin doi bat ekartzen.

Gehiago dena, ez dira beti besteak, nonbaiteko elurraz behartuko direnak: bai haatik zu ere orobat, lehen behartzen ez zinena, edo zure haur bat... Zuk aldiz Ameriketako guano edo soja, bai-eta Japoniako elektronika edo Afrikako xokolet edo Israelgo iranjak egunero erabiltzen dituzularik. Ez da hori ere osoki berria: duela 500 urte ez ote zuen holako zerbait gogoan El-

kano euskaldunak, munduaren itzuli osoa lehen aldikotz bururatu zuen gizonak!

Xinaurriak bezala – 1988-04-28

Ikusi dituzu, irakurle, xinaurriak. Batzu harat, besteak beste alderat, edo trebeska, edo goiti, edo beheiti, oro ari dira, bereari bakoitza, oro urrats erne ta bixian: batek noiztenka gelditze bat egiten badu bere bidean, karkula labor baten doia, eskuin edo ezker alderat hartzeko, bat ez duzu aurkituren, xinaurriarik, bide bazterrean lo edo lana utzirik dagoenik. Aferatuak bai, eta beti presatuak, kargaturik edo hutsik, guziak hor doatzi aitzina, ukan manu edo asmuari zintzoki jarraikiz.

Badutea elgarren eiterik xinaurrien munduak eta gizonenak? Elgarren axola mikorik bederen ez dukete, diren bezalako bi mundu desbardin horiek. Halere nola ez du gizonen mundua gogoan izanen, xinaurriena ikusten duenak! Badut beldurra gure pentsaketa berak luzketela xinaurriek gurea iduriko adimenduarekin guri beha jarrita. Joan omen zen Pariserat garaztarra ere, eta Arc de Triomphe famatuaren inguruan ikusiz autoa ehunka eta milaka inguru inguru, ateraldi xoil honekin ahoa xabalik baratu: «Bana, bana, horiek guziak beharrez dabilteza?» Bai, garaztarra, bai: beharrez dabilteza guziak, gizon ala xinaurri. Bakotxak bere heineko beharrak. Guziak zerbaiten ondotik ibilki.

Beharrez mintzo garen, badauzka mende bakoitzak bere beharrak. Jan-edanak eta bizitzeko doia zen lehenago, beste mila gastu eta geroaren griña gaurko egunean, bakoitzak bere maila nola atxik eta holako gradurat nondik hel, eta heldua delarik nola han egon, eta egoiteko, nola jo oraino gorago, hori baita lerroaren beiratzeko molde bakarra, horra zerk derabilan gure denborako gizona.

Horra ere zertako den, gure mendeko gizon hau, egundaino menturaz ikusi den bizidunik kezkatuena eta entseatuena. Sekulan ez aski! Hori erranen du bazterretik joarrari dagoenak. Ikusi du alabaina laborari gaztea, beldurrak eta minberak jana: hau duelarik, hori bere beharrez, lur bat, hazkuntza berri bat, tresna bat, onkailu bat bere ohikoen gainera. Ikusi lantegi bat, aterbe, mekanika edo afera hortaz gutizioz, zituenen emendiotzat.

Eta zer erran familietan! Laborariaren seme bigarren hori, langilearen alaba hura, errientaren haurrak, beha nola dauden, ahalaz gorago so, beren burasoak akulu. Goseegia eta estekamendu soberakinak ziztukatzen zituzten lehengo gogoetari murriztek. Gaurkoek aldiz badakite aurki ditakeela hor

ere negurri zuzena. Denborak ez ditu xinaurrien ohidurak aldatu. Gizonarenak bai. Baina honi, zentzuak dio hein batean erakatsi, horrek berejitez zakiena: entseatuz eta bermatuz dela egiten bizia. Eta hau ere gainera: goragotu behar duela beti gizonak, xinaurria xinaurri dagoen denboran.

Herri pollitena – 1988-05-26

Bai naski! Munduko herri pollitena dela Euskal Herri hau: hortan bederen denak ados gaude euskaldunak. Hori ere zerbait da. Bistan da ez garela hemen xauxunkeria ariko: hori arras hola den ala ez denetz! Baditazke hain segur beste hogeit edo berrogei herri, beren xokoa baitaukate, guk bezala, «munduko pollitena» edo «ederrena». Zer munta du? Badituzke bai mundu zabalak berrogei bat leku xoragarri, ez bailakike jujari on batek zein ezar haietan lehen eta zein bigarren... edo berrogeigarren ere.

Goazen beraz haien lerroan dela gurea; espantuak eta ele putzak bazterrerat utzirik. Baina zer egin gure ederraz? Primetako neskatxa eder batek egiten duena. Mundu guziak ezagutzen ditu halakoak: luzean, zabalean, hortzak, ezpainak, zangasagarrak, bularrak, pisua eta nik dakita! Haien bizia ere ezagutu nahi dute ainitzek: herria, familia, sinestea, adiskide politikoak, zer duten maite ta zer ez, hots, liburu eta kazetak ari zaizkie artikulu luzeetan, beren bizi «pribatuaren» ikertzen eta miatzen ausartziarekin nehongo kurios pinterdi guziendako. Hor dira preseski beren mihitik galtzen gaixoak, edo gaixoenak bederen, hor baitira gorputz ederraren pean buru-hutsak ere biluzten. Urte guti barne izanen dira kontuak... Larruko ximurdurak azalduko direlarik eta pollitak ihes egingen emeki emeki. Agian ez, baina handik goiti zer lanak... axalari bakarrik fidatu direnek!

Beste batzu ez dira batere holakoak. Izan dutelakotz dirdira bezenbat funts, zimendu eta kasko, baliatu dira haiek denbora zeno beren distira iragankorraz ontasun egonkor eta iraunkorretan erro azkarren bermatzeko. Hola da, hastean pollit baizik ez zena eder eta aberats bilakatu luzaran. Baina nork erran du pollit baizik ez zela gisa hortan kaskoz jokatu dena?

Non gabiltza orain, herria utzirik gure primetako nexkatxarekin? Ez halere iduri bezain urrun. Erraiteko bai xoilki, berdin berdina dela herri batena nola neskatxa pinpirin harena. Pollita eta ergela: horra nolako nahi luketen gure herri hau euskaldun batzuek; anddere xanfarin batzuen pare, bere ixter meharrak eta papo arina ontasan! Solasean ez has harekin, ez baitu solasik. Bere berri ez hari galda, ez baitaki, ez berri ez xahar, bere historiatik.

Aldiz Euskal Herria ez duk holako, herritar ala kanpotiar jaunak! Zoazkiote bada bihotzerat. Ez honekin solas perttoli eta jestu arinetan geldi. Galda zozue bai ordea bere historia: mintzairarena, bere ohidura, familia, erlisione, egintza eder eta egundainoko gizon haundiena. «Ez baitazkit horiek oro nik», didazu orobat erranen, irakurle maitea. Preseski. Emazu horien ikasteari. Beste errespeturik ekarriren diozu zuhaurk zure herriari eta emanaraziko bisitarier. Badugula guk pollitaz besterik.

Ameriketako Artzaina – 1988-06-06

Ongi etorri zuri Euskal Herrirat Robert Laxalt jauna. Ez duzu arrotza herri hau egia erran. Ezagutzen duzu lehen ere Ziberua zure aitaren sorleku maitea, ezagutzen halaber Baigorri, zure amaren herria. Zure aita eta ama maiteak ohoratu eta ohoratzen dituzu, manu xaharrari jarraikiz. Egin ere zenien liburu xoragarri bat behiala: «Artzaina nuen nere aita» izenekoa. Amerikanoz egina, frantseserat itzulua, merezi luke euskaraz ematea.

Artzaina... eta nolako artzaina! Bere artzaintzatik familia ederra hazia: hazia eta amerikano sozietatearen mailik gorenetaraino helarazia. Zu eta zure beste haurrideak norbait zareten denboran, ez dea munduko erresuma haundienetako partidu errepublikanoaren presidengorat heldua izana Paul zure anaia! Eta aiten herri maiteari arras atxikia, zuhaur bezala!

Atxikimendu horrek hain zuzen zaituzte, lagun batzuekin, asmu hontarat ekarri: zertako ez, Nevadako Reno hirian, toki publiko batean, betierekotz eraiki Amerika mendebaleko artzain euskaldunaren itxura? Zer zuzenagorik? Amerikanoek berek, batetik, badakite zer eta nor izana den euskalduna herri haundi horrentzat: halako leku zabal eta dorpeak azken mende hauetan aberastasan eta mozkinbide bilakarazi dituen langile gogorra.

Altabada, gure herri honek ere badaki. Badakite Zibero gainak eta Baigorritik Urepelerrainoko errekek eta kankarrek, zer izanak diren Amerika eta hango artzaintzak hainbeste etxe txar eta lurralde exkaxegien joritzeko, edo bederen ezdeus hartarik ateratzeko. Ez, adiskide irakurlea eta beste ainitz herritar, ez ginuen gutarik zenbaitek sekulan biziari begirik idekiko ere, ez baltz izan euskaldun artzainik Ameriketan. Eta hori guzia haien gostuz: barkartasun dorpe ta lazgarrian dutelarik haiek bizi bat erdi salbaia ereman, aro zakar eta abere basetarik beren buruak eta artaldeak ezin zainduz orobat, lagunik ez eta herrimina bihotzean.

Hori dena da egiazki munduak eta guhaurk sekulan ahantzi beharko ez ginukeena. Iraganak dira orain holako denborak. Bestelakatua dela erraten digute Nevada, Wyoming eta Arizonako artzaintza bera. Artzaingoaz beste ofiziorik aurkitua aldiz Kalifornian gaindiko euskaldun ainitzek. Eta hemendik, Aldude eta Arnegitik, ez da gehiago harat airatzen artzainik. Eskola lehenik, ofizio bat balio duena handik lekora, mentura bederen... Ez dakite ez hauek ere nongo ogia janen duten bihar!

Hau segurik segurta dezakegu halere: ez direla harat artzain joanen lehenagokoak bezala. Zer erran lezake Laxalten aita zenak, gaurko haurrak eta gazteak ikusten balitu? Bizkitartean, diren bezala, atzokoen umeak izaki gaurkoak. Norbait izan dira lehengoak. Ez ahal dira nornahi izanen egun eta biharkoak. President ona zor zaio artzain onari Laxaltiarretan bezala. Euskal semea, berdin alaba, oroit hadi... artzain on bat huela aita!

Itsasuko gereziak – 1988-06-16

Gerezien besta zen igandean Itsasun. Egia da gerezien herria dela Itsasu. Egia naski hala izaiten ahal laitekeela oraino gehiago ere zenbait izpiritu xorrotx eta ausartek diotenaz. Hots, bego hori itsasuarren beren gain, aski erneak baitira berak. Baina non kausi ditazke gereziak, Itsasutik kanpo? Saltegietan, bistan dena. Han derauzkate, ederki presentatuak, bizpahiru mota graduren gradu: goixtiarren ondotik, sasoin beteko gorriak, eta beltzak, eta geroxago gerezi zuriak ere aterako dituzte. Zu aldiz, hiriko eroslea, han zabiltza, hau preza eta hura jasta, jastatzerat ere komitatzen baitzaitu saltzaile abilak.

Hiriko eroslea! Eta baserrikoa? Ez baita ordea gehiago hiritar eta baserritarrik. Hobeki erraiteko, denak hiritartzen ari gaitu-eta gure mendeak. Nehork ez zituen berexiko igandean Itsasun hiritar eta baserritarrak. Denak gerezi erosle bai; beraz denak «hiritar». Bazoan lehenago ere baserritarra saltegirat: olioak, gatza, kafe edo sukreak han baizik ez aurkitzen, eta behar. Aldiz ez saka orduan hari gerezi, sagar edo intzaurrik sosaren puntan. Etxean berean baziren gauzak, hoik oro. Ez beti Itsasukoen pareko gereziak, edo ez saltzaileetako sagar ongi haziak, batzu matela gorri legunak eta besteak horrailak eta guziak pilotak bezain berdinak, baina haundi ta ttipi nahaste eta gisa guziz usainez eta gostuz nehongoeri zorrik ez zutenak.

Joanak dira holako denborak. Ez da gehiago orotarik egiten gure etxeetan: «Sagar, udare, piko, mertxiken erdian»... ez liro gaur hola kanta So-

toko oporraren asmatzaile loriagarriak. Ez, Piarres Dibarrart, Lapurdi alde-tik Baigorriat jin xantre bertsularia, zeren ezin duzu toki zaharretarat itzuli beste mundutik: ez da gehiago han etxe ondoko gerezi zaharra, ez da ordain-dua orduko pikondoa, gaitzak ereman zituela udare ondoak erranen dizute gaurko egoiliar berriek, funtsean ez dela gehiago «deusik egiten ahal orain», non ez diren tratatzen, haize gaixtoak eta nehongo mamutzeriak direla medio edo nik dakita?

Baina zer diot? Itsasun berean ere ez duela gereziak lehen bezala ematen, horra zer atera didan norbaitek. Aldatzen ari dela, beste guziak bezala, gure haur denborako bazterra, horra egia. Begiak idekitzea aski: pentze xoil dago, ardi pean, aitati xantre zenaren mahasti sakratua. Aldiz mahasti mazelak horra hor lehengo Arradoi eta Jarako mendien aldapa berrituetan. Gaurko gizon ezin asearen nahaskeriak hoik oro? Ez, adiskidea, ez, biziaren marka bakarrik: aldatzen, berritzen eta gain-azpikatzen baita egundainotik bizi den guzia. Halere lur honi gurea kentzen dioguno! Gerezi zenbait eta bi lore barne!

Herria eta ziztuak – 1988-08-04

Euskal besta zen. Jendea bazen metaka. Baziren euskaldunak, Euskal Herri guzitik. Baziren arrotzak, auzo herri eta urrunagotik. Urgulutan sartzekoa zinez: nork erran du beheiti ari dela herria, nork kondatu akabo dela euskara? Beha milaka jendea pastoralerat etorria. Bizi gare bizi, bizi dira gure ohidurak, gures bestak, bizi herriaren bihotza horiek guziak badituguno. Emaiten baitu horrek guziak bihotzean bere beroa, horra pastoralzale guziak alegera eta kartsu: aski zorion eta espantu eztu bakoitzak han ikusten eta entzuten duenaz, uros eta lorios horra mundu guzia.

Bat-batean, zer? Ziztu bat! Ez, ez! Gaizki hartua zinuen, laguna, zakur tzar bat zukeen norbaitek hor bidean poxolu: pastoraletako sarrera haundian zer du horrek egitekorik? Ken dezala zaintzaleak bistatik edo dei egin diezola bere jabeak! Haatik, beste ziztu bat... eta hirugarren bat... eta, hauxe da xarnafera! Baditake segur ere zakurraz makurragorik! Orduan lagun batek egia: «Ez da ez zakurra! Lehendakaria da, Euskal Gobernuaren buruzagia!» Hura bera izaki hain zuzen bestako sartzen ari.

Horra beraz nondik eta zertako heldu ziren ziztuak eta uhuria batzu gainera: ez segurki zakurra. Bakar bakarrik euskaldunen buruzagia. Ezin sine-tsiz aski luzaz egon ondoan, bazen segurki durduzatzekoa, jakin artean hori zela bai egia. Bistan da ez direla barnegitik hartu behar holako gauzak. Bistan

da baduela herri batek holako bat iretsirik lehenago ere. Eta bistan da barne azkarra dutela politika gizon eta emazte guziek, edozein izan diten, bestela etziren ofizio hortako on izanen.

Baina halere! Ez ote dira gauza eta egitate batzu haundiegiak? Pentsaketa izpi bat ber bera eginez xoilki. Euskal Herriaz eta Lehendakariaz. Hona herri hau, Euskaldunena, ehunta zenbait urte hontan Sabino eta lehen abertzaleek iratzartzen hasia: bagarela euskaldunak, badugula zerbait elgarrekin salbatzeko, behar dugula munduari erakutsi gure izaitea, gure egia, gizon, lege eta dretxo batzu, gureak guretuz eta berriz ardietsiz... eta herriak eskuratu duelarik, guti bada guti, izen bat, autonomia bat, gobernu bat ere, ahal zenbaitekin, eta horiek guziak, gehiago izan artean, baditugularik... Ziztukatzen!

Nahi duenak nahi duena erran dezala: beste Lehendakari edo kargudunik hauta zitakeen, denen gostukorik ez manera oroz baina zer inporta du horrek funtserata? Egun bat eta bihar bestea, hori da legea. Baina bat hura, seinale bat delakotz, herria bezain sakratua, anartean! Zuek aldiz, ziztukariak, ez dakiat nor zarezten ez-eta nolako Lehendakaria nahi duzuen (ez-eta zuek ere ez duzue jakinen oraingo hau nere gostukoa den ala ez baina eztuk batere hortan afera). Hontan duk afera guzia: ez dugula elgar ziztukatuz eta urratuz eginen gure herria. Bai ordea denak alde bererat ariz eskuzartaz pastoralean bezala. «Bat eginik» nork erran zuen?

Ezpalitz eskolarik! – 1988-09-15

Etziren haren lagun guziak berdinak. Ez-eta familia bereko haurrideak ere. Astearte goiz hartan iduri zuten alta oro elgar iduriak, autokarraren beha zaudelarik auzoko bidekurutzean: eskolen hasteko egunean. Multxo koloretsua zuten egiten, kolorearen mende honek utziak dituelarik armairu zokoan lehengo taulier beltz eta ilunak. Galtza motz edo erdi-motzetan direlarik, sobera zaiote bi izterrak berak kolore berean uztea: bat perdez edo gorritz badute, bota bestea horiz edo iranja kolorez edo nik dakita!

Lehengo kabalkadetan zen hola ezartzen uxerra, galtza bi izterrak bi koloretan irri eginarazteko. Baina eztu horrek muntarik. Badu mundu honek holako bat ikusirik: atzo irringarri zena eztuguia lege bilakatua ikusten beste asko mailetan ere, bilo edo zaien luzetasunetik eta haur edo emazte galtza luzeetaraino. Eta gerokoak geroko, baitira gizonak zaiekin dabiltzan herriak edo aldiak ere.

Beraz etxe hartan bazuten haurretarik bat: lehen egunean eskolan izan, eta berriz ez joan gogo. Gaizo mununa! Eztakik zeren bezperan haizen. Ez,

eztakik, hire haurrean, eskolarat joanen haizela 17 urtetaraino gutienetik eta, hain segur, 20taraino, 24 edo 27 ezpada! Lagundua izanen haiz egia erran. Alde askotarik.

Lehenik eztuk ikasiko zer den ere eskolarat oinez joaitea, izanik ere etxetik bistan eskola, heure zakua bizkarrean eta jatekoak eskuan aita bezala. Asko gauza heure hautura eta kasik denak diruaren puntan izanen ere dituk. Aitaren etxeko lanez, eta zenbaitetan amaren zinkurinez, kasik axolatu ere gabe, iduriz bederen, heurareari, heure geroari bermatu beharko, hik eta familia guziak, sail hortan denean deusere barkatuko eztaukan mende baten erdian.

Hire jiteak edo gostuak ezpahaute laguntzen, beha zak laguneri, zein errexki dituen gehienak plegatu gaurko egoerak berak. Konprenituko duk hik ere, denborarekin, eztitakeela deus egin gaurko egunean eskolarik gabe. Eta euskara? Lehen uste ziteian etzela eskolako gauza euskara. Hasia duk hori ere itzultzen, eta beharrik! Hik duk menturaz biharko jende xoro eta ezjakinari esplikatuko: eskolako gaia dela euskara ere, aberatsenatarik. Eta eskolarekin dela bihar, eta gaur beretik haste, salbatuko euskara, beste jakingai guziak bezala. Zer litake beraz bihar, eskolarik ezpalitz?

Hitz bat otoi! «Ezpalitz, etzuten, eztugu»... Zerentzat ez «ez balitz, ez dugu, ez da»? Ez kexa! Itzuliko gara laster onerat. Baina hain itsuski entzutearen bortxaz euskaldun berri edo ikasleeri «ezz da, ezz balitz» eta bola, nola ez oroitaraz «ezta, ezpalitz» dela erran behar, «ez da edo ez balitz» idatzirik ere. Ez ditzagun gal hitzen formak, ez-eta soinuak ere!

Kondenatuak – 1988-10-13

Ez naiz hemen, irakurlea, auzietako kondenamenduez mintzo. Hainbeste auzi mota badauka gu bizi garen munduak! Eta beste hainbeste kondenamendu. Alta ez da bere ustez besteren bortapean egoitekoa gaurko gizona. Esteka guzietarik libro bai eta bere ber, mendeak dauzkan errextasun guzien jabe ahalaz, horra oraingo gaztearen ametsa! Eta nor da gazte izan nahi ez duenik pundu hortan!

Gero dira konduak eta punduak. Hartu dituzte lantegiek beren alderdiak. Maxinari galdatu lehen besoz egiten ziren lanak: bai-eta honek berdin ontsa eta merkeago egiten ere! Ordainez lana galdu behar ainitz langilek, edo berdin mutil-nausi batzuek berek. Damurik, diruak ez baitu barkatzen, eta hor dirua izaki nausi! Non den hori gertatzen? Denetan. Bidearen gainean has-teko ta bat. Badoa bai aspaldiko beribil zaharra gostaia gosta lehengo urra-tsean, eta beti seguretik. Horrek ez du inportik jende zaharrarendako. Hola

aski zaio hari eta ez du gehiagoren beharrik. Zertako ken, zuk eta nik, bere onetik, duen zorrea gustukoa duena?

Aldiz bere bizia, eta besterena, hortarik egin behar duenarentzat ez da berdin. Ofizioan beti zaluago eta gastu guttiagorekin behar atera. Bestela, galdua du partida, aitzinetik, bere auzo ernearekin. Ikaslearentzat hori bietan egia. Hanbat gaixto, hura bereziki, ez bada denak baino biziago eta bizikiago! Denek badakite alabaina, orain, abilenarentzat ditazkeela biharko xantza guziak. Azkenak bide bazterrean geldituko direla, aitzina doatzineri so, eta berak petzero.

Eta zer erran laborariak? Hemen bederen betiko legeak bali ahal dira: denentzat iguzki bera, eta euri benedikatu hura halaber, edo behien errapeak, ipurdi-mailak, lurraren trenpua eta abar! Geldi hor urrunegi joan gabe. Ahal dakite irakurle hiritarrek eta guziek, berak esku-xuri eta andere-mandere izanik ere, nola berritua den, eta beti ari, laborantza bera! Tresnatua lehenik. Eta tresnetan non geldi? Onkailuztatua gero. Gainera, beso gabetua.

Ari zen iragan astean soroaren biltzen etxeko gizon bakarra. Ez dugu harrentzat erranen gehiago, gipuzkoarrek bezala «nekazaria», lehen hola deitzen baitzituzten han aitazur eta segarekin higatuak eta konkortuak ari ziren gizon dorpeak, orain aldiz maxina beti haundiagoen kaskoan dabilzalarik jarriarik. Abantxu idor beraz bere soroa, mailetan utzi behar nahitez, alta aroa dudakoa, baina zer egin gizon bakarrak, eremu haren mundoilatzen, kabala artatzeak hor-eta! Zer egin, zer egin? Deusik ez besterik, horiek guziek ere... laborari, langile, ikasle ala nausi ttiki! Ez ote gaitu bada, nahi ala ez, ezinber-tzezko aitzinamendu harek berak horietara denetara... kondenatu!

Muslarien egiak – 1988-II-10

Muslarien gezurrak orok ezagutzen dituzte. Ez gero keinu faltsuak, ttantto ebatsiak edo karta markatuak! Holako jukutriez hazten den frikuna ez da muslaria. Joko bat da musa, ez jukutria. Jokolari da muslaria, ez jukutrilari. Eta jokoak izaki bere gezurrak: bi batekorekin haundia jo eta holako. Ez du gezur horrek kontzientzia kargatzen. Ederki pagatzen bai, atzemana delarik. Besteren gustuz ari da jukutrilaria, besteak tronpatuz. Bere gustuz aldiz jokolaria, bere burua baitu ateka txarrean ezartzen, gezur haren egia zilatzen zaiolarik.

Horiek hola, hau ez da gezurra, airatu zaizkigu iragan astean muslari xapeldunak Hego Amerikako Argentinarat. Zertako Argentina Barilocherat, zoazte zuek jakitera; han berean zutelarik, erresuma berean, Buenos Airese-

tako probintzia, hainbeste euskaldun esneketarik beren izerdiaz hazi lurra, eta beren mus eta pilotaz ere aberastua! Ederrez hautaturik naski Bariloche hori, entzun dugunaz!

Dena den, han dira orain Errecart eta Etcheverry bastidarrak beren president kudeatzaileekin. Horra hor bederen egia bat, izanik ere muslariak. Muslarien egia: beraz doblea balio duena. Eta hauxe bigarren egia: han aurkitu dituztela beste herrietako muslari xapeldunak: mundu guziko muslariak, gisa batez; horrek erakusten baitu mundu guzian hedatua dela museko jokoa, hein batean segurik.

Hain zuzen holako egiak orotan zabaltzen dituzten gure muslarieri, nahi genieke guk azken egia bat beren gain utzi, hau ere erain dezaten amerikano lurrean. Bastidar muslari pare, lehenik etzarezte zuek ere merezimendu ga-beak: hor, kaskoiniaren mugetan haundizki ohoratzen baituzue euskaldunen joko hori. Ohore zueri. Bateko dena besteko, segur eta fida gare gu, esku onetan dela zuekin Euskal Herriaren fama. Ohora zazue fama hori. Han aurkituko dituzuenetan beste pare bat bederen badukezue, Euskal Herritik etorria zuek bezala: Euskadi gure hegoaldeko anaiak. Beste guziak dituzkezue, edo euskaldun herritik urrundua, edo, xoilki, euskaldunen umeak, gure odolaz aberats baina beste lurretako biziak markatuak.

Huna beraz egia bat, zuen gain ezartzen duguna, bastidar euskaldunak; ezagutaraz iezaiezue deneri nongoak zareten, musaren lurrekoak. Ezagutaraz nola ari zareten, gu guzietan, hemen, ama lurrean, bizirik eta gordinik beiratu beharrez musa, pilota, kantua, mintzaira eta beste zenbat ohidura, eta, guziz, herri honen arima, zaharretarik ukana. Eta, hau ez baita musa, erran dena den: ez dela lan errexa beiratze hori hemen ere baina sua bizi dela eta biziarazten bermatuko garela. Hots, berek ere hain segur jakin nahiko duten egia!

Eskerrak Jean Haritschelhar – 1988-II-24

27 urte! «Hoinbeste?» erranen dute zenbaitek. «Hori baizik ez?» beste batzuek, bereziki Baiona hortan edo biltzar askotan aski etxekotua dutenek. Gutik dute arrotz gorputz oraino lerdin eta buru dirdiratsu hori, guziz irri zafla batean eta sanoki botatzen duelarik, maizenean euskaraz, bere zirtoa. 27 urtez beraz Baionako Erakustokiaren etxatiar horrek erabili du, etxeko jaun baten sanfretarekin, Euskal Herriaren eta Baionako hiriaren etxalde eder hori.

Non da alabaina hemen holako etxalderik? Baduguia besterik, hoin aberatsik gure herrian? Ez direa hor aurkitzen herritarren atzoko eta egungo bizi osoaren

lekukoak? Laborantza, arraintza, ofizioak, etxea eta eliza beren historiarekin, industriaren lehen urratsak, eta ohidurak, dantza, kantu, pilota, bertsularitza bai eta liburutegia; ahantzi gabe oraino kazetak, afixak, argazkiak, soinu-tresnak eta zintak, hots gure herriaz jakin behar direnak oro, ondokoek ere ikas dezaten.

Badute egia erran horrarat bildu oroitzapen askok 27 urte baino gehiago hor direla. Halere, zoazte Marengo karrikako Erakustokirat, egin bi solas hango langile balioekin, jakinen duzue zer lana den hor azken urte hauetan egina. Konduaren gaineko bezala egin du halere horgo lana, baigorriar jostun semeak. Gaineratekoak du oraino gehiago balio: berak euskaldunen etxe horri ekarri dion hatsa eta bihotza.

Ez da-eta Erakustoki hori etxe hil eta hotz bat, hots hilarriak bezalako zerbait, jendeak erraiten baitu: «Hau zen» edo «hori izana da», bai eta «hola egiten zuten». Ez, ez! Biziarazi behar ziren ohidurak eta oroigarriak. Eta hortako, behar zen herri honen ezagutzen ikasi. Beharrik ainitz kurutzatu baitzitu en Haritschelharrek Piarres Lafitte, Louis Dassance eta besteak eta miatu ere liburu zaharrak... Eta horra ondorioak, erakuslearen negurria emaiten dutenak: unibertsitatean euskara erakasle batetik, Euskaltzaindian gramatikalaria eta buruzagi-orde, arte hortan epe batez Baigorriko auzapez, Ikas eta Pizkundera, Pilota agerkaria, Pilotarien Biltzarra, *Herria* hau eta beste batzu kudeatuz, bakarrik edo lagunekin.

Horiek guziek erakusten dute garbiki herri honen lekuko bat izan duela Euskal Erakustokiak bere erakuslea. Ez bakarrik elezko erakuslea, bai haatik barne barnearen ezagutzaz mintza zitakeena. Hortako dizkiogu erretiratzean herri honen eskerrak bihurtzen. Eta ongi etorri segida hartzen duen Ribeton jaunari, ongi etorri ere honen laguntzaile Manex Pagola adiskideari. Agian euskaldunen etxea egonen delakoan etxe hori, besteak beste!

Aitzina! – I989-01-05

Aitzina 'Herria'! «Beti aitzina», zuen erranen Ibarreko Mixel haundiak ere, duela mende bat eta erdi. Eta Piarres Lafitte kazeta honen sortzaileak, nondik ez? Bera xutik zagoeno, 84. urteraino, azken hatseraino, bere hobereana eman zion kazeta honi berrogoi urtez pasa. 'Herria' Lafitteren obra, harekin hasia, harekin berarekin itzaltzen ikusiko zuketan orobat zenbaitek, duela lau urte utzi zuelarik mundu hau Uztaritzeko izarrak.

Beharrik ez baitzen zimendu txarrekoa obra hau. Beharrik baitzitu en erroak, hainbeste urtez, gure lurtean ongi barnatuak. Berrogoi urte baino lehe-

nagokoak hain zuzen. Bazuen-eta 'Herria' honek 'Eskualduna' bere arbasoa, 1887an sortua. Bide luze bat beraz, bere gorabeherekin, 102 urteko sail hori, bere azken mendeburuan oraino Baionako Erakustokian omenaldiz ospatu gina. Bide ederra gainera, euskal idazle hoberen gehienek baitute, Manez Hiriart-Urruty batetik eta Jean Hiriart-Urrutyra, mende batez hemen idatzi.

Zer da beraz euskal kazeta? Zaharren xokoa, arbasoen euskara xoilezkoa eta atzokoen arteko elkarrizketa? Museo bat litake holakoa, ez kazeta. Familia batean bezala da kazetarekin ere. Familia onik ez da bere xaharra ukatzen duenik. Aitasoren maitatzetik, harekin ikasitik, du familia zuzenak bere erroa eta lehen haria. Ikas beraz lehenik ongi euskara, ohidurazkoa, ez uka euskal historia, hots, arima, horra baitezpadako hastapena.

Baina ez harekin geldi, nolazbait zaharkiturik. Lafittek berak zioen, duela 20 urte, bilatzen zituela laguntzaileak, kazetari «berrialdi bat» emanen ziotenak, hau «gaztetu, modan eman eta alegeratuko» zutenak, eta Lafitte ezagutu dutenek dakite zer izpiritu libro eta denen entzulea zuen harek berak. Hala-ber 'Herria'ren irakurleek frogatu dute, formari behatuz, nola dugun ortografia arindu, berritu, modernisatu, bai-eta batu edo bateratzen hasi bederen euskara, herrikoi gatz hari uko egin gabe haatik. Mamian aldiz gazteagotu solasa: ororenak entzunez hobeki eta euskaldun den guziari idekiak egonez.

Beste urrats bat dugu orain berriz egiten, gutiz barka: apaindura alaiago bat, doi bat koloratua, eta, gehiago dena, paper emendio bat ere noiztenka bederen, laguntzaile berri edo idazle emendio batekin. Badakigu segurki badela bide bat baino gehiago herria eta euskararen zerbitzatzeko. Beste batzuek pentsatu dute gehiago euskara galduxa duteneri, erdara gehiagorekin eginez haien argitzea. Guk aldiz euskara idatzia eta euskal tradizioaren hautua dugu egin, halere gure amets eta xedetan aitzinkor egonez. Lehengoaren lekuko izan gaitela baina biharkoa gogoan. Herri honen euskalduntzale. Edo berreuskalduntzale. Aitzina beraz «Herria». Aitzina dadin euskara.

Mugak erretzen ari? – 1989-01-26

Ez da xoro batzuen errana. Bai haatik ainitzen solasa. Hona hiru berri fresko, beste batzuen ondotik. Baionatik Iruñearainoko bide haundi hortaz bat. Bi aldeetako kargudunak Pauen bildu direla. Nafarroako jauregi zaharrean hain zuzen: bi hiriak elgarretarik oren bat pasaren bidean ezartzekotan, berek erran dutenaz. Eta bi alderdien anaitasun goxo bat... aitzinago eremaitekotan, ber haien arabera beti. Bilboko Diputazio jauregian bestea, hango bereko nagusia

eta euskal gobernuko burua komitatzaile: Jean Haritschelhar, «iparraldekoa», ezarri dutelarik Euskaltzaindi akademiaren buru, den mendreneko dudamudarik gabe. Behi esne sal-erosleen arteko gataska bat hirugarrena: Biarno alde hortako biltzaile etxe batekin desafioka lotuak laborariak... Donostia aldera segi detzazketela beste batzu... tratu hobeak egin baditazke hor.

Ez dira segurki hegotik heldu argi guziak eta han ere ez ditazke patar guziak ordoki. Tratu hobeetan abiatuak ditugula hego-iparrak: horren erraiteko zen bakarrik solas hau. Eta eskuz-eskugo hortan biak irabazle direla, batek bestea lagunduz, edo zuzenduz, aldiari aldizka. Ari dira-ta lehengo muga batzu erretzen, ote idor edo lastozkoak balira bezala. Hala nola mendia sutan nork ez du ikusi aurtengo urtarril honen gau idorretan? Patarraren zolan arratsalde apalean lotu su orrazea han ikus zitakeen, biharamun goizerako kasko kaskoraino kasik heldua, arte hartako otarra guziak erre-zipildurik.

Bai badira, eta suaz besteak ere bai, gizonen muga txarrez irri egiten dutenak. Irri egiten mugaz, egundainotik, euskal mendietako «gauazko langile» guziek. Ez baitu biziak berez zedarrri eta kortxelarik: esnea beti esnea, arnoa denetan arnoa, dirua halaber eta gizona non-nahi bizi. Irri egiten mugaz, euskarak, dantzak, pilotak, etxegintzak, solasgai eta erran-merranek, hots ideia mota guziek ere beren ingurumenarekin, eta herriko gauzek.

Ez dira segurki aldudar eta baigorriar guziak Urdazubin eta Zugarramurdi beren mendi konkorren gainetan barna ibiliak, eta bizkitartean nork uka bi aldeetako etxeak eta mintzairak elgarren haurride direla? Zer lan mota egin zuen beraz hor muga bat altxatu zuenak? Lan ona aldiz urte hauetan hor egiten ari dena: Europaren estakuruan erre beharrak baitira nahi ala ez hor gaindiko traba kaltegarriak... gizon batzuek eginak, denak ere! Beharrik bizkarra zabal baitu Europa horrek. Hori ez balitz izan, noiz idekiko gintuen begiak: guharen izaiteari... eta auzoari: gure anaia dela?

Urraduren josteko – 1989-02-09

Guziz eder zen Otsartiko gizonen kantua. Ez dakienarentzat, Iholdin duzu hori, San Bladi laborarien zaintzalearen beila egiten baitute urte guziz laborariak. Bada beste bat holakoa Xuberon, Ospitale Pian. Aurtengo honetan egon zitakeen duda batean bezala: jinen ote ziren usaiako guziak, kapera zahar tindumindu gabeko haren betea? Bazena dudatzekoa ote? Naski baietz: denak bat zauden lehenagoko laborariak, itzea bezain xuxen edo ezin mugituzko trunko enborraren patxadan.

Orain ez da gehiago hola. Huna azken froga: beren arteko bozak zituzten aste hortan berean laborantzako ganbararentzat, eta erakusten dute orain berek zer nahi duten, gero-ta gehiago. Nork egin duen hor hauturik hobereana, zeinek duen egia eta badenetz ere nehon egia hutsik, hobe dugu hori beste aldi batetako uztea; egiaren bilariak ere ba ahal du bere denborako bi-latze, onjoketaria edo ihiztariaren gisan.

Hauxe dugu xoilki Otsartiko beilatik aterako: denak bat zirela ooren buru laborariak San Bladin; nehor ez izaki bazterturik edo berexirik, sindikat baten edo bestearentzat bozkatua zuelakoan, eta hori ederki. Desbardinak egin badituzte ere hautuak bestalde, ez dira elgarretarik urratu. Zer diot, urratu? Josiago baizik ez direla ere hola, hori diotenak badira. Betiko dendarietako oihalaren parabola: «Zein da mihiserik azkarrena, peza osokoa ala josturaduna? Bururaino eremanen osoa tarratak; josturan sudurra hautsiko al-diz bestearen urrakoak».

Arazoinamendu bera dugu eginen ondoko egunetan ditugun bozez: herrietako buruzagiak hautatu beharko ditugularik. Agian ez ahal direla ikuspegi berezi guziak urrako eginen. Familia batean bezala, hots! Zein da etxea, mundu guzian, aita-semeen arteko burrunbak edo ama-alaben mutur-saltsak noizean behin jastatu ez dituen? Baina etor dadiela lehen umettoaren sortzea, edo aitasoren ezontsa, hor dauzkazu guziak lehengo bero hartan arrabilduak. Bazkaritto batek ditu ondoko egunetan azken hegi xorrotxak oro legunduko.

Halaber familia baten iduriko dituzu laborariak edo herri koxkorra, bere gorabeherekin: ondarrean, goiz edo berant, elgarren aldea hartzerat ekarriak; odolak edo bihotzak ez bada, beharrak bederen gaina hartzen, egun ez bada bihar. Arte hortan makur haundiegirik ez egitekotan. Hau gogoan atxik beraz: bozen biharamunean, haurra sortuko delarik, bataioko mahain berean jarri beharko dela, elgarri bekoz beko behatuz, besta pollit baten egiteko. Hanbat hobe orduan, aitzineko urradurak arrajosteko heinean badira. Orok batean kantatzeko, Iholdin bezala!

Duenari dario – 1989-02-23

Zertara joan ziren iragan mendeko euskaldunak Buenos Aires eta Montevideorat? Eta geroxago, Iparraldeko Kalifornia, Nevada edo Montanarat? Bizi beharrez, erantzungo dit besteak. Batzu hobeki eta besteak murrizkiago, ez baitziren denak han ere suerte, osasun edo lur berean aurkitu. Ez ordea, bakarrik, biziaren bila. Beren hemengo bizia ereman zuten berek berekin. Ai-

taren mintzaira, laneko bertutea ongi ikasi dute han askoren umeek. Denek ikasi ez badute lehena, gogoan dituzte bederen gure amerikanokiek, aita zenaren ateraldi, sakre ta kantu xaramelak. Han dituzte berdin beren arbasoen plaza eta trinketak, han jokoak eta dantza jauziak.

Denbora joan, denbora jin, ezagutu bere aldakuntzak hango lurrak, politika eta diruak, eta «fortuna» egiteko moldeek. Jarraiki ziren gure osabak hango lege eta moldeeri, betiko beharra gidari. Jarraikarazi zituzten haradino berekilakoak: populatu bide ziren, geroztikago, han gaindi, hemengo klika, meza, pilotaleku eta ostatuak, gero ta haundizkiago eta ederrago. Gero ta haundi ta ederrago: dena hortan da. Haunditzen eta edertzen ari baita mundua. Hala egin behar du irautekotz. Ez daiteke lege hortarik bazter egon irau nahi duenik nehor.

Orduan dira lanak. Etsenplu bat bera: ez zen pilotako federazionerik ez eta munduko xapelgorik joan den mendean, ez-eta pilotako eskolarik, Ameriketarat gure arbasoek ereman zutelarik pilota. Horiek oro sortu direlarik hemen, berdin berdina beharko dira han gaindi, gaurko urratsean eta gaurko munduan aitzina joaiteko. Hemendik urrundu baziren itsasoz haindirat gure herritarrak, areago eta beharrago ukanen dituzte beraz mail guzietan gurekialako lokarriak: ez ditzen denak hil horiek guziak, lehenbiziko herritik joana, edo azkena, hiltzean. Eta ez da hori bi Ameriketako kondua bakarrik. Huna nun ari ditugun plaza ta trinketak sortzen Frantziako hegoalde osoan, bai-eta ipar-iparrean eta... Belgikaraino ere!

Aberats behar da izan hola ereiten artzeko eta biba-gu entzutea ez zaiku batiere itsusi, gure euskaltasunetik zerbait zabaldu duguneri. Haatik karga dakar berekin ohoreak. Erein duenak artatu eta ondu ere behar. Sortu zuenak hazten ere laguntzea zor. Baina nola haz besteak, guhaur ahultzen ari bagara? Bost ehun urte badu gutienetik mundu osoa itzulikatu zutela lehen euskaldunek beren baliio harrigarriak agertuz. Mariñel, arrantzale, gerlari, ikerle, misiolari ziren ordukoak. Zer ez dira izanen biharkoak? Gu hemen norbait egoitekotan haatik.

Nere herri koxkorra – 1989-03-30

Zertako ote koxkorra? Zenbaiten aldean xume zarelakoan? Ez delakoan tita larritan emana zure lekua Frantziako kartan? Ez eta ere Euskal Herrikoan? Zure izena bera ez dutelakotz egundaino entzuna Baionaz haindiko gehienek? Ez segurki. Baina aurten bozak izan dituzten abantxu berrogoi mila herri haietarik bat izaki zu ere. Parise, Hendaia edo Maule bezain segur.

Zure herriko auzapezak Parisekoaren titulu ber-bera irabazia izaki, nor-nahik zernahi erranikan ere, azken egun hauetan. Harek ere berdin gizon ederra eginen, edo anderea, menturaz ederragoa, eta dirdira bereko xarpaz apaindua agertuko biltzarretan eta ohore berekin. Bere inguruko jaun, edo andere, kontseiluko enkeraren erdian hori, lerro luze edo xumea, nolakoa zaran herria.

Bai, nere herri koxkorra, baduzu zuk ere, sei urtetarik gutienez, ohore horien beharra: ahalgez urtuak zauden hor zure eliza zaharra, kalostra gaineko meriarekin, eta zure arrabote adinak zaurtua, denboran Saint Martin eta Atano haundiak hartako doia ezagutu dituen... Eta zure bizpahiru mendedun etxeek, Agerrea, Etxeparea, Uhaldea, Jauregia, nola sinetsaraziko zuten historia ospetsu baten lekukoak direla, batzu oraino bizi eta besteak hustuak, nork du gehiago oroitarazten?

Bozemaile gutiago izanik ere, ukan dute igande bat edo biez, herri gotor guzien estimu eta errespetua, ttikien ttikienek ere. Ikusten dira orain, ahalge xoro batez hartuak diren herritarrak, ez ausartzen ere batzu zein herritakoak diren erraiterat, jendeak irri egin dezan beldurrez. Irri egin beza nahi duenak. Ez dugu guk aldiz hortan irririk. Baitira zenbait, herabearen herabeaz, herri ttikiak kartatik kendu beharrez ari direnak, haundiagoekin josteko edo nik dakita, badira aldiz horren alde ez direnak ere.

Hauxe diotelarik: Zer? Bere heinean ttikiari ezagutzen diolarik legeak berak izenarekin izana, zertako ez balia legeaz, ttikiaren alde, bere burua zaint ahala zainduz, beti eta denetan iresterat uzteko orde bere burua? Badakigu bai badituztela elgarrekin uztartze batzuek beren abantailak. Baina holakoak egitekotan, egin ditela bakoitzaren errespetuan. Badira herri haundixka batzu beren kartier edo auzo ximeenen izenak ezarri baitituzte euskara garbian, hots herritarren mintzaira betikoan, idatzirik... Badu segurki hiltze frango kontzientziaren gainean gure mendeak, etxe batzuetako euskaratik haste. Ez ahal da ere gure herri eta auzo polliten hiltzale jujatua izanen... koxkorak zirelakoan gure herri ta auzoak.

Herriko anderea – 1989-04-27

Baginuen herriko jauna. Holaxet erraiten diote Xuberoan auzapez jaunari. Zuzen den bezala. Herriko lehen gradua duenak, bere herritarrek berek hautuz emanik hain zuzen, ez ote du hein hori merezi? Baina baditugu orain emazteak Herriko Etxean. Emazte kontseilari batzu ikusi ziren lehenik. Eta,

ixtanteke, lehen emazte mera. Orain aldiz esku baten erhiekin konda ahala baino gehiago. Urak bide egin du. Ez du-eta mende erdirik oraino, emazteeri Frantzian eman zitzaiela bozemaiteko eskua.

Atera zaizku, atera, gure emazteak etxetik. Badugu ere ustea gutiz gehienek, ez dela hori hastapen bat baizik. Andere grefier edo herriko segetari-idazkariak bezala, andere errients, postier, autozain, diruzain, emagintsen ondotik, huna, bat-batean, andere auzapez, herriko merak eta minixtrariak gobernuetan. Herriak batere sofritu gabe iduriz. Aski da ikustea nola dioten konfiantza arraberritzen herri batzuek bi edo hirugarren aldiren buruan beren buruzagi zaiadunari.

Ari dituzte alabaina beren balioak frogatzen gure arreba, ama edo alabek, beste mail batzuetan halaber. Baditugu gure neskak, gero-ta gehiago, medikuntzaren ikasten ari direnak. Pilotariak, abokatak, arkitektak edo notarisak ere bai. Funtsean, urte alde bat hontan badakigu, eta beren gostuz zenbait gizonak, ez dutela galtzek nausitasunik emaiten berenaz, gure andreek galtzak ekartzen baitituzte etxean ala kanpoan, eta ez beren gaurko jauntzietan bakarrik!

Guk hola usaia berriak hartzen orduz geroz, eta bakotxa deneri plegatzen: orain hola balinbada, zer munta zaigu, egiazki, polizier edo mugazain hori, saltzaile edo biltzaile hura, izan ditene bizardun ala ezpaingorri? Bat ala bestea bere dohainekin heldu dira, lehengo gizon, gaztea edo zaharra, bekain beltz ala kartsoila, edo bilo luzeak nor beren gisan ari zirenen bezala: zerbitzua da konda, lana egina den ber, eta denetaz egina da mundu hau.

Agur beraz zueri, andereak! Eta ez da besteak baino xuhurragoa izaneren Euskal Herri hau, zueri bere ongi-etorriaz. Etxe xokoan edo familiaren inguruetan balinbadu ere zuen erreinua luzaz mugatu gure herriak, zuek zaituzte horgo «erregina» deitu bertsulari euskaldunak aspalditik. Ez agurrik, betitik erregina nahi bederen zindauzkagun ama edo amagai edo ama-ordeak! Etxe barne eta inguruetan, ahoan bilorik gabe, «etxekandere» eginak zaituztegun andreak! Etxean etxekandere dena, zerendako ez beraz, herritarrek hala nahi badute, herrian herriko andere! Xuberoan ala manexian.

Beste asko urrats – 1989-05-18

Badauka zenbait urrats Senpereko herriak: Azkaine, Donibane, Ahetze, Arbona batetik, Uztaritze, Zuraide, Ainhoa eta Sara bestetik, gure herri eder baten zabala. Urratsak edo jauziak: ez dea betiko erran zaharra Senperen he-

rri osoa iragan lezakeela urtxintxak jauzi saltokan arbolatik zuhaitzera bururen buru... lurrik hunkitu gabe! Ez dakit haatik hori erran ditakeen gehiago, hain du-eta lur-berritze mende honek gure bazter asko errotik biluzi!

Ez zabiltzan bederen lurrik hunki gabe igandeko ibiltzaleak milaka eta milaka Senpereko aintzira hegietan: bere urteko ixtikaldia hartu baitu aurten ere gune arrakastatsu horrek. Euskararen urratsak hoik oro: ainitzek urte guziz egiten dituztenak, beste batzuek aldiz, ttiki edo haundi, lehenbiziko urratsak, buraso kartsueri esker, edo berek azkenean senditurik, euskararekin egin gogo dutelakotz lur hontako bidea.

Badoa-eta euskara bere bidean. Mendeak ditu Eiheralarreko Detxepare batek gure mintzairaren mirakulu hori senditua zuela: uste zutelarik berak kantuan dioenaz, «euskara eskriba etzitakenik». Eta beste zenbatek ez dituzte geroztik esukararen hil-ezkilak tiratu nahi ukan, joan baitira geroztik gaizoak berak mundu hontarik hil-zeinuekin, eta euskara beti munduan egoki!

Ainitz eta ainitz urrats, eta denak baitezpadakoak, gure euskara hau mendeen bidean deramatenak: eskoletan frantses españolen aldean sartzea, aitzinagoko ixtudioetan berdin, herri hontako bizipideen, kirolen, fedearen alde egiten diren guziak bestalde, trufa eta mespretxua baino hoberik bide bazterrean pizten ez zutenak denak ere, eta emeki emeki onartuak eta segituak direnak.

Segituak? Bai eta segitu baino gehiago ere: aitzindariari aitzintzen zaizkolarik segitzaileak, harek berak ezin segituzko urratsean! Amatzik bere herriko euskararekin aski zuelarik, mustupilka doake orobat bere herriko euskalkian alabatxi putsuka baina berdin du gisa batez: euskara batua edo nongo nahikoa nolazbait ulertzen, entelegatzen edo murduskatzen ere dituelarik ilobatxoak heraberik gabe eta, joanaren joanaz, geroan apaintzeko menturan denak ere, oi denborarekin, amatziren adina bildu artean!

Agian bilduko du alabatxi gaixoak amatziren adina. Agian eremanen bere bidea ere errebelatu gabe. Oraino berak ez baitaki haur mikoak, agian ikasiko du, inguruko laguntza eztiarekin bide haundi bat egiteko duten guziek bezala, bi gaitzatarik begiratzen: etsitzetik eta ilusimendu faltsutik. Kasu lehenik ilusimendu tronpakorrari: zuk, gaztea, baduzu hainbeste ikasteko. Ez uste izan kaskorat heldua zarela... amatziren aitzinean jauzteka abiatu orduko. Eta zer erran euskaldunen etsimenduaz? Bai, hatsa luze behar duela bidean, gaur euskarari iraurarazi nahi dionak.

